



Iturria: *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Sebastian Mendiburu  
(Patxi Altunaren edizioa). Euskaltzaindia, 1982.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuFestegun.htm>

## FESTEGUNETARAKO IRAKURRALDIAK

**Sebastian Mendiburu**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

1740-1767

Aita Sebastian Mendibururen  
eskuskribuak

AMDG

Urte guziko igande ta festegunetarako irakur-aldiak.  
Bigarren zatia.



## I

### San Franzisko Xabier-en eguneko Irakur-aldia

Euntes in mundum universum, praedicate Evangelium omni creaturae. Mc. 16.

*Gaia: Jangoikoak nai duena egiteko bidea  
da nekez ta hilduraz bere burua eskuratzea.*

Bi mill urtez ta geiagoz Aingeruz adirazi zien Jangoikoak gizonen egin behar zutena, baña ez guzia, ez eta gizon guzietan hitz eginez ere; bada gutitan ta bakan agertzen ziran Jangoikoaren Aingeru onak, eta horduan ere agertzen ziran bati edo besteri zegokan edo berak edo bestek utzi edo egin behar zuen zerbait adiraztera. Oriei berei ta munduko beste guzietan sartu zigun Jangoiko berak geren bihotzean egin edo utzi behar dugunaren berri ta Lege, guzietan dagokiguna.

Denborak joan ta Jangoiko berak ezar-erazi zion Moisesi guzietan bihotzetako Lege hau Legeko bi arritan; begiz ekusiz gogo garbiak barrendik adirazten ziena, Israeldarrak egin zezaten oriek berak eta munduko beste guzietan egin behar duguna. Obeki hau Israeldarrei eragiteko, igorri zien Jangoikoak bere Aingeru bat, eta igorri zien odei beltz izugarri batean sartua, suz ta garrez ingurutua ta bazter guzietan urratu nai zituela zirudien tronpet-soñu bat berekin zekarrela. Era onetan, bada, banatu zuen Jangoikoaren Legea, bai ta Lege hau urratzen zutenei zegoten zean-tza ta kastigua ere.

Lege onekin batean eman ziezten Jangoikoak Israeldar berei Legeari aldi artan ta Jangoikoa gizon eginik mundura arte guzietan zegozkana ofrenda, Zeremonia eta beste gauzak; eta horduko Zeremoni berak eskatzen zuten gisan Legeko gauzak egiten zituzten guzietan egiten zien Jangoikoak anitz on, ta makur zebiltzanein zeantz eta kastigu izugarri andiak.

Mill ta zortzi eun urteren ingurua da etorri zela gizon eginik Jangoikoaren Seme Jangoikoa; ta etorri zen bere Legeari Israeldarren denboran izandu zituen Zeremoni gaitz latzak eta beste gogortzak kentzera, ta orien

ordez graziaren iturri eder zazpi Sakramentu uztera; ta utzi ere zituen, batzuek bere Pasioko neke tormentu andian sartu baño len, ta beste guzietan illen artetik biztu ondoan ta Ait eternoaren eskoi aldera igan baña len.

Jangoiko gizon Jesusek mundu guzientzat agertu zuen Sakramentuz ta Sakramentu berak eskatzen dituzten Zeremoni leun errazez jauntzia gure Lege santa. Ill baño lenagoko iru urteak egin zituen lege hau hitzez ta milagroz banatzen, baña Israeldarren Probinzi edo Erreinu txikitik atera bage. Denbor orretan bildu zituen amabi Apostolu ta orien zenbait lagun, ta Zerura igan baño len esan zien igorriko zientzia Espiritu Santua, ta hura artu ondoan egin behar zutela ekusi ta aditu zutena mundu guzietan adirazteko bearko zena, ta orien hitzak aditzen zituzten guzietan siñis zezaten esanen zientzia, eman ere zien behar adiña milagro ta gauz andi egiteko eskua.

Eta zeren Apostol berak eta orien lagunak ere zenbait urteren buruan ill beharrak ziran, oriei berei ta orien ondorengo Ait Santu ta Obispo jaunei utzi zien Predikari ta Erakusle berriak egiteko eskua, orien ondotik munduan eman zetzaten Jangoikoaren Lege beraren ta Legeko Sakramentu ta Zeremoni guzietan berria.

Gerozko Ait Santu bakoitzak, Apostol jaunen lan bererako berezi ditu anitz Predikari andi, ta orietatik bat izandu da San Franzisko Xabier, egungo gure Santu agitz milagraria, ta Santu, munduko goiztarren erri, isl, probinzi, ta erreinu andietan egin zituen erakuste, prediku ta gauz andiak gaitz goiztar beren Apostol berriaren izena duena. Jakitekoak dira Santuak an ta beste bazterretan egin zituen gauzak, bai ta Santu berak gauz oriek baño len egin zuen beste bat ere, ta hau da gure onerako guk gaur ekusi behar dugun gauza.

## § I.

Anitz eta andiak dira Ait San Ignazioaren lagun egin zen alditik San Franzisko Xabierrek egin zituen gauzak. Mez-ematen asi baño len asi zen San Franzisko Xabier gauz oriek egiten, ta egin zituen esku tartetik utzi bage bere bizi guzietan ta azken asnaseraño, ta egin zituen bein Venezian, Bolonian, Erroma berean ta Italikoko beste erri askotan; urrengo aldan



Portugalko erreinuan; urrengoan itsaso berean, Indietarako bidean, ta Afrikako zenbait isletan; gero Ganges ibai andiaren bi aldeetako Erreinu Inditarretan ta orien itsasoko isletan; gero Japongo Isl-Erreinu andietan; ta azkenean horduraño egin zituenak baño gauz andiago anitz egin naiez, Txinako Inperi arrigarrian sartzera zijoan aldian artu zuen zori oneko bere eriotzak eta eraman zuen Jangoikoak Zeruko bere Erreinu zori onekora, an ari, beraren honran ta munduko guzien onerako egin zituen gauz andien saria ematera ta eternidade guzian atsegin ta kontentuz beterik idukitzera.

Apostol berriaren bere lan andi onetan haritu zen San Franzisko Xabier amar urtez Indi urrutikoan. Indi berean ta arako bide luzean egin zituen, geiago ezpada, ogei ta amar mill legua, oñez anitz, eta guziak bere neke andiarekin, ta itsasoan, idorrean, bidean, etxean ta bazter guzietan haritu zen beti bere egiteko andian ta egin zuen nonnai ta aldi oro ezin ederkiago ta guztiz ongi. Hau ala dela siñisteko aski da jakitea Bosio deritzan gizon jakintsu batek diona, bada hereji makurren bizle guziak galdu dituzten animak baño geiago dirala, dio, San Franzisko Xabierrek irabazi zituenak, eta ezin kont-al adiña dira herejien bizle nagusi gaistoak galdu dituzten animak.

Orrenbat anima irabazteko San Franzisko Xabierrek egiña adirazten dute zenbaitek beren libru andiz ta al-ere agertzen ez dute guzia, bada oriek agertzen dute urrutitik aditu zutena eta etzuten noski aditu San Franzisko Xabierrek egin zuenaren erdia edo laurdena ere. Baña oriek agertzen dutena ta gañerako guzia ikastea baño beharrago dugun gauza da Santu berak berekin egin zuen ta guk ere gerekien egin behar dugun beste bat ikastea; ta hau da bakoitzak bere burua eskura ekarzea ta Jangoikoaren eskuan uztea. Gerenarekin guk hau egiteko, ekus dezagun artako San Franzisko Xabierrek berekin egiña.

Soldadu izandu ta beste bide bat artu zuen aldian agertu zion Jangoikoak Ait San Ignaziori berezi zuela egin zuen Jesusen Konpañia egiteko. Orretako sartu zen estudioan ta joan zen Parisa, Filosofia ta Teologia ikastera. Horduko an arkitzen zen estudio berean San Franzisko Xabier. Egin zen onen lagun ta adiskide Ait San Ignazio. Berekin eraman zuen ara baño len egin zuen ejerzizioetako librutxoa. Biekin bizi zen Pedro Fabro zeritzan beste estudiante saboitar bat. Ekusi zuen onek Ait San Ignaziori librua ta artaz baliatzen zela ta Santuak lagunduz egin zituen ejerzi-

zioak guztiz ederki, ta esan zion Santu berari lagunduko ziola artzen zuen edozein bidetan.

Bide bererako nai zuen laguntzat San Ignaziok San Franzisko Xabier ere, baño bestearenak baño andiagoak ziran San Franzisko Xabierren ustesperanz-asmoak, bada errege nafartarren odolekoa ta horduko Erregeren Konsejari andiaren semea zen San Franzisko Xabier, ta Konsejari, Xabierko erria ta gaztelua ta beste bazterrak eta ondasunak zituenaren semea, ta seme, munduan Elizako edo Tribunaletako bidez noranai igan zitekena.

Bestela ere gazte galant ederki egiña zen San Franzisko Xabier, ta gazte, zañen biguñzan ta orri darraizkon lasterkan, saltoan, ta beste gauz askotan parerik bagekoa, ta denbor berean estudiorako buru agitz egokizkoa ta ikaste andiak egiten zituena.

Batagatik, bada, ta besteagatik ez aditu egiten zion San Ignaziori ejerzizioak egiteko edo munduko gauzak uzteko jolasa artzen zuen aldian. Jangoikoak eman zion buruarekin bazekien San Ignaziok animako gauzak ere bai dituztela beren aldarte onak eta arkitu ziozkan San Franzisko Xabierri bereak, eta orietatik batean bere bi besoen artean aren burua artu ta esan zion belarrira, Kristo Jaunak guzientzat bein esana: «*Francisco, quid prodest homini, si mundum universum lucretur; animae vero suae detrimentum patitur?*» (Matth. 16, 26). Franzisko, ta zertako du batek mundu guzia, bere anima galdu ezkeru?

Kristo Jaunaren hitz oiek San Ignazioren aotik aditu ta agitu zitzaion San Franzisko Xabierri illunbe andian dabillen ta amiltegi izugarri baten ertzean bere oñak ekusten dituenari agi-gertatzen zaiona. Zelai berdiñean dabilrelako ustean gau illun batez badabill bat toki gaistoan ta element aserre bat aren gañean agertu ta odei beltzetik ateratzen den tximist edo argi bizi, laster aitzen denak, erakusten badio azpiko aldean aterbiderik ez duen leze izugarri bat, eta ekusten badu bein edo berriz aitzineko aldera oñak igitu ezkeru an erortzen dela, erortze berean lerturik edo gero an usteldu ta txisari zikinen bazk egiñik gelditzeko, arriturik gelditzen da den guzia, ta nondik artu edo zer egin ez dakiela. Hau bera da Kristo jaunaren hitz onen argiak agertu zionarekin ekustean San Franzisko Xabierri agi-gertatua, ta egin zuen ekusi dugun bidezkoak bere aldian egiten duena. Zer da ori? Orain zuk ekusiko dezuna.



## § II.

Ekusi dugun bidezkoak ekusten duen aldian ekusi dugun lezea, ta hau erakutsi ta joan zaion tximist argiak utzi duela leneko bere illunbe belzean, itzul-jiratzan da beste aldera, ta beste leze zuloren batean erortzeko beldurrez gelditzen da an urrengo egunaren begira edo ots egiten du bazter guzietara, emendik edo andik etor dakion artzaian bat edo beste edozein bidea erakustera, ta badago geldirik baten edo bestearen begira, ta dago, bidea len ongi ikasi bagez alako bidetan oñak erabilli dituelako damu ta atsekabe guztiz andiarekin; ta urbiltzen bazaio gizon prestutzat dadukan bidari bere adiskide bat, pozik ematen dio eskua ta darraiko behar den bidera aterako duelako uste osoan ta eguna argitu ta bide ona ekusten duenean berritzen da aren poza, ematen diozka mil ta mill esker ara atera duen bere adiskideari ta lagundu nai badio egin behar duen bere bidean atsegintz andi ta sosegantz osoarekin dabill bide guzian.

Kristo jaunaren hitz, San Ignazioren aotik aditu zuenak, argi egiten ziola ekusi zuen San Franzisko Xabierrek munduko ondasunen, honren ta atsegintzen azpiko aldean arkitzen den suleze izugarria ta orien bidez dabiltzanetatik anitz azkenean an amiltzen dirala ango neke-tormentu ta deabru amurratu gogorren atzapar ortzez beti ta beti urraturik egotera, ta orietatik bat izateko beldurrez gelditu zen bat batean ta asi zen gogoz ta biotzez esaten: «orain arte guzian nere gogoan ibilli zarazten Tribunaletako togak, Elizako muzetak, mitrak eta hondr-usaiezko gauzak, adio; bazo-azkee beste hostaturen baten billa, bada nere gogoan ez da zuentzat toki piskarik gelditu; nere itxe onetan sartu zait animaren egitekoa, ta egiteko onek artu ditu itxeko edo nere gogoko gela guziak eta ez da emen zuentzat bat ere gelditu».

Hau esan ta ots egin zion bere lagun on ezagun San Ignaziori; agertu zion zegokan bidera naia ta eskatu zion hura arkitzeko argia ta eskua. Eskutik artu ta eraman zuen San Ignaziok bere ejerzizioetako gelara ta erakutsiz an ari bein zertara etorri garan mundura gatozenok, gero bekatuaren itsustasuna ta oni darraizkon kontu izugarria ta sekulako neke-tormentua ta azkenean ongi bizi den eskerdunarentzat Jangoikoak dadukan atsegintza ta gloria, agertu ziozkan ongi bizitzeko zenbait bide ta orien artean berak egin uste zuen Jesusen Konpañikoa ta agertu zion zer bide

zen bide berri hau edo zertako zen Jesusen Konpañia. Eta ekusi zuenean Jesusen Konpañikoen egitekoa izanen zela bein beren animen ona ta gloria ta bidenabar munduko beste guziena al den bidez billatzea, besteak utzi ta artu zuen hau ta esan zion San Ignaziori beraren lagun ta seme ta Jesusen Konpañikoa izan nai zuela bizitzan ta eriotzan ta lurrean ta zeruan, ta bertatik asi zen hau nai zuenari zegokan guzia egiten ta bere burua nekez ta penitenziz eskuratzen.

Baña nola uste dezu? Era guztiz arrigarrian, bada bein barutu zen laur egunez, jatekorik edo edatekorik artu bage ta neketan beti ibilli naiez lotu zituen beso-izterrak korapilluz beterikako lokarri ta urteak joan ta ere, bere lagunekin Venezian arkitzen zen San Ignazioganako bidea Paristik artu zuenean, berekin zituen bere lokarri gogorrek; baño zein estuak? Orain ekusiko dezu.

Egun bateko ta besteko ta urrengoetako ibilliarekin anditu zen lokarri estutuen bazterreko aragi guzia ta ezin ibiliz gelditu zen bidean Santua. Zer zuen ekusi zutenean, erakarri zuten lagunak Barber bat eta esan zioten ekus zezala zer zegiken eria sendatzeko. Arritu zen Barbera Santuaren penitentzia ta era txarra ekusi ta, ta esan zion aren lagunei hura sendatzea denbor luzeko ta oñaze gogorrezko lana zela ta bazterretako aragia ebaki ta urratu bage, aren lokarri ezin atera zitekela. Etzuten lagunak ala hura an utzi ta bidera nai; jarri ziran guziak otoi egiten ta eskatu zioten Jangoikoari, zezakenak bezala, bat batean ta milagro zenda zezala eria. Eta sendatu ere zuen ta urrengo arratsean urratu ta erori ziran lokarri guziak eta gelditu zen gaitzik ekusi ezpalu bezain sendo Santua ta urrengo egunean artu zuten guziak Ait San Ignazio ganako bidea.

Penitentiaren erakoak izandu ziran San Xabierren gañerako presantzak. Hospitaletan zebillen aldian zaitzen zituen eririk nasgarrienak. Bere zaurietatik ustelz andia zeriola zetzan batek izatu zuen zerbait bein ta bere burua eskuratzeko belaunikatu zen an bereala ta bere ezpañak aren zaurietara eraman ta aurrak amari bularreko esnea bezala, kendu zion me-meki zuen materi ta ustelz guzia. Eta Jangoikoak eta Jangoikoaren ordekoak nai zutena egin aldi guzietan ta beti egiten zuen nekezkoa ta ezin gogorragoa izanagatik oriek nai zutena, ta egiten zuen ark hau Jangoiko berari atsegin egiteagatik eta bere burua betiko ez galdu naiez. Eta onetarako egin zuenagatik, eman zion Jangoikoak nai adiña milagro ta gauz andi egiteko eskua; eman zion Inditar Apostol berriaren izena, bai ta beraren neke ta egiteko andiei zegoten betiko gloria ere.



Hau bera egiten du Jangoikoak Jangoikoaren izenean ta beren animak ez galdu naiez Jangoiko beraren bidez beren egitekoak egiten dituzten guziekin eta betiko galduak dira hau bera egiten ez dutenak eta munduaren serbitzuan edo behar ez diran beste gauzetan dabiltzanak, orain ekusiko degun gizona bezala.

Erregeren gerran ta Markes baten serbitzuan bizitu zen anitz urtez soldadu bat. Iltzeko tranzera zen noizbait hau ere ta aren gaitzaren berria aditu zuenean, joan zen Markesa hura ekustera ta esaten ziona aditzera. Hau an ekusi ta «A jauna», esaten dio eriak, «zure esanak egiten gerran isuri dudan odolaren ta artu ditudan tunda gaistoen alde arintzen bazenit burua erdi bi egiten didan oñaze ta sukar-kalentur hau!». «Ai adiskidea», erantzuten dio Markesak, «ori nik ezin dagikedana ta Jangoikoaren egitekoa da». «Bada iltzeko ta beste mundurako abian arkitzen nazan ezker, indazu arako kartaren bat badere», esaten dio eriak, eta «A, nere semea» erantzuten dio Markesak, «emengo korteetan baditut nik ezagunak, baña angorako laguntzalleen behar andian arkitzen naz nerau ere». «Eta etzeniket emain, Markes jauna, nere konzientzi nastu loi hau garbitzeko behar den hastia ta denbora?». «Jangoikoaren eskuan daude egunak eta hordu guziak», erantzuten dio Markesak. «Beraz galdua da zure serbitzuan nik egin dudan guzia ta galdua naz ni eternidade guzirako» esan ta iltzen da eria.

Era berean ill etzaitzen ta San Franzisko Xabierren lagun Zeruan izateko galbide guziak utzirik, asi zaitez mugaz ta lenbaitlen animako zere gauzak zuzentzen ta gure Jangoiko ona maitatzen. Ar zazu orretako San Franzisko Xabierren laguntza, bada munduko guziei eman naiez dago ta Afrikako beltzei -La Inditar urrutiko gaisoei bezain poz osoz emanen dizu eskatu ezker. Eska zagozu bada ta ekusiko dezu.

## II

### Ama Birjinaren Konzepzi eguneko Irakur-aldia

Maria, de qua natus est Jesus. Matth. 1.

*Gaia: Jangoikoak agitz nai duen gauza da Jesusen Amaren Konzepzi garbiaren Debozioa.*

Ama Birjinaren askuntz-asier garbiari egiten dio gaur Elizak festa ta askuntz garbirik izandu ez duen gizonen ta andrez beteak ekusten dugu festako ebanjelioa, bada or ekusten ditugu laur andre, jentil artekoa bata ta bekatari lizun izandu ziranak beste irurak. Ebanjeli berean arkitzen dira ogei ta amasei gizon, guziak bekatutan egin ta jaiok eta guzien ondotik ekusten ditugu Jesusen Ama bere Seme Jangoiko gizonarekin; hau zer da? Zer, baizik Elizak guri adiraztea orrenbat bekatudunen ta munduko beste guzien artean Jesusen Ama dela bekatuaren arantzik bageko lilio zuri ederra: *sicut lilium inter spinas, sic arnica mea inter filias* (Gant. 2,2), edo hau dela bekatudunen artean bekatu bagea.

Mill ta zazpi eun urte da hau bera hitzez ta plumaz adirazten digutela Elizan izandu diran Doktore ta gizonik jakintsu andienak eta orien artean Areopagoko San Dionisiok, Antiokiako Martir San Ignaziok, Martir San Justinok eta San Ireneok, Martir ta Obispo San Hipolitok, Neozesareko San Gregoriok eta San Ziprianok, San Atanasiok, San Efrenek, San Basiliok, San Epifaniok, San Joan Krisostomok, San Maximok, Aita Santu San Leonek, San Pedro Krisologok, Teodoretok, San Fuljenziok, Sinako Atanasiok, Andres Kretarrak, Jerusalem Esikiok eta Toledoko Arzobispo andi San Ildefonsok; oriek guziak gure Fede Santaren edo Elizaren lenbiziko zazpi eun urteetan adirazi digute egi hau.

Gerozko Eliz beraren mill urteetan ez da erraz kontatzea plumaz ta libruz agertu dutenak Jesusen Amaren Konzepzi garbi bekatu bagekoa. Azkeneko berreun urteetan badira Jesusen gure Konpañiko berak, laur eun beintzat. Relijiotarren ta beste jakintsuen plumak eta libruak ez ezik, Santiagoko, Calatravako ta Alcantarako Relijioetako zaldunen ezpatak ere



Konzeptzi garbi beraren alde dabiltz. Alemaniko zenbait erritan Jesusen Amaren Konzeptzi garbi beraren alde egiten dute zerbait geiago, bada biltzen dira beren Elizan ango Baron, Markes, Duke ta beste gizon andiak eta biltzen dira gerrako soñuarekin, ezpañak ongi zabaldurik, Konzeptzi onen alde boto egitera ta hau egin ta peleara baloaz bezala eskuak saietsera eraman ta ateratzen dituzte magitik beren ezpatak eta adirazten dute hitzez egiten duten botoaren alde prest daudela behar baliz beren bizia ta odola emateko.

Hitez, plumaz, libruz ta ezpatez ez ezik beste anitz aldetara ere Jesusen Amaren Konzeptzi garbiaren alde da mundu guzia. Fededunen errietako Eliz guti arkitzen dira Jesusen Amaren Konzeptzi garbiko alda-re, pintur edo imajen bage ta Jesusen Konpañiko guzietan izan oi dira Konzeptzi beraren izeneko Kongregazioak ere.

Fededunen munduko Buru, irugarren Ferdinando Enperadoreak, 1617garren urtean eragin ta Vienako plazan ezarri zuen Piramide ta pillare andi, luze, eder bat eta artan Jesusen Ama, bekaturik bage egiñari, egin don bere buruaren ta zituen Erreinu ta estatu guzien presentia.

Españiko Errege Felipe laugarrena egin zen Konzeptzioko Kongregante Madrilgo Santa Klaran ta eman zuen, behar izaten bazen, Konzeptzi beraren alde bere odol guzia emateko hitza ta 1621garren urtean eskatu zion Aita Santuari egin zezala festa Konzeptzioko eguna. Onen ondorengo III. Karlos Erregek eman zion bere Erreinu ta bazter guzien Patronazgoa ta Konzeptzioko izenean egin zuen zaldun-Orden honratu ta dirudun guztiz berezi andi bat. Beste anitz Erregek eta Prinzipek ere egin dute anitz Jesusen Amaren Konzeptzi garbi beraren alde. Jakintsuen anitz Unibersidadek, Erri andik eta Kortek egin dute boto Ama Birjiñaren Konzeptzi garbi beraren alde, ta Salamancako Unibersidadeak, Alcalakokak eta Españako beste amairuk eta eriekin batean Españ-bereko Eliz nagusi guziak beren Obispo jaunekin eskatu zioten orain eun ta berrogei ta amar urte Aita Santuari sar zezala fededunok sinistu behar ditugun egien artean Jesusen Amaren Konzeptzi garbi hau. Zenbait Konzilioren ta azkenik Trentoko andiaren hitzak egi onen alde dira. Fedeko egitzat ez du oraindik klaratu Elizak Jesusen Amaren Konzeptzi garbia, baña klaroki adirazi du nai duela siñis dezagun klaratua bezala, bada manatu du fededun guziak honra dezagula Mezaz ta festaz Jesusen Amaren Konzeptzioko eguna ta hau da klaratuak dauden egiekin egiten duguna. Hau bera nai duela Jangoiko berak ere ta bere Konzeptzi garbi onen izenean zerbait

geiago egiteak atsegin egiten diola Jesusen Ama berari ekusi behar dugu oraingo aldian.

## § I.

Baditu Jesusen Amak, Konzeptzioko eguna bezala, festaz ta Mezaz honratzen zaizkan beste misterioetako egunak ere. Oriek dira beraren jait-eguna, Kandel-eguna, Jangoikoaren Am-eguna ta Zerur-eguna ta beste lau misteri oriek Eskritura Santaz klaratuak edo adiraziak eta orregatik sinistu beharrak badira ere, ez dira Konzeptziko misterio hau bezain milagro-z honratuak, bada besteen alde egin diranak baño agitz geiago dira Fest onen alde Jangoikoak egin dituen milagro-zko gauzak. Eta hau ala dela jakitea aski da etzagutzeko Jesusen Amaren beste misterioak sinistean bezala atsegin egiñen diogula Jangoikoari, Jesusen Ama beraren Konzeptziko misterio hau sinistean, bada hau guri sinist-erazteko egiten ditu Jangoikoak misteri onen alde egiten dituen milagro guziak.

Siñes dezazun, bada, Jesusen Amaren Konzeptziko misterio hau, beraren beste misteri andiak bezala, edo siñis dezazun Jesusen Amaren beste misterietan sinisten duguna, egia den bezala, egia dela beraren Konzeptzi garbikoa, agertu nai dizkitzut Jangoikoak misteri onen alde egin dituen milagro zenbait. Lenbizikoa da misteri onen lenbiziko festari bidea egin ziona ta Inglaterrako Abade batekin Jangoikoak Konzeptziko misterioaren alde egiña.

Mill ta zazpigarren urtean bere Erregeren egitekoz atera zen Inglaterratik eta sartu zen itsasoan Elfino edo Elpino zeritzan Abade bat. An hura sartu ta laster agertu zen itsas-aldi guztiz izugarria ta ondatu behar zutela zirudien bazterrek orroz urratzen zituzten olast, bag eta ur-mendiak, Abade hau zeraman ontzia. Biziz etsirik eriotz on bat nai zuena bezala bere otoitzetan ta animako gauzak prestatzen hari zen bitarte guzian Abadea. Baña ekusiko dugunerako luzatu zion Jangoikoak bizia ta igorri-bidaldu Obispoen soñekoz jauntzia ta errespetu andikoa zirudien beste munduko bat. Zori oneko gizon hau Mirako Obispo izandu San Nikolas zen. Begi on urrikarizkoz begiratu zion Abadeari ta esan zion: «Ematen badezu urte oro Jesusen Amaren Konzeptzi garbiaren festa egi-



teko hitza, palakatuko da itsasoa ta kalterik bage joanen zara zere egite-kora ta hau egin ta etorriko zarazte zu ta zure lagunak zeren errira». Abadeak eman zion bertan Santuari esan don festa bere sermoiarekin urtean bein egiteko hitza ta ark hau eman horduko isildu ziran aizeko orroak, palakatu ziran itsas-mendi olast eta bag-aserreak eta joan zen Abadea bere onziarekin nai zuen bazterrera. Egin zuen idorrean bere egitekoa, itsasora zen gero ta itsasoz itxera ta bere Konbentura. Conturbelko bazterrekoa zen Elpinoren Konbentua. Conturbel bereko Obispo zen aldi artan gizon jakintsu ta teologo andi San Anselmo. Adirazi zion oni bere hitza ta itsasoan San Nikolasekin agitua ta onen baimenarekin asi zen Jesusen Amaren Konzepzi bekatu-bagekoaren festa ta sermoia egiten. Eta Doktore Eximiok eta beste zenbaitek diotenaz (apud Aurieman. affect. scam-bicu. p. 1 c. 20), hau da misteri onen lenbiziko festa.

Misteri beraren urrengo festa egin zen Franzian, Leongo Eliz nagsian, ta egin zen Ait Santuk artan eskurik sartu bage, bai ta gero beste bazterretan ere. Mill ta laur eun ta irur ogei ta amaikagarren urtean Aita Santu Sixto laugarrenak eman zien nai zuten guziei Ama Birjinaren Konzepzi garbiko festa hau egiteko eskua, bai ta egiten zutenentzat indulgentzia ere ta azkenean egin dit Aita Santuak fest-egun Konzepzi bereko eguna.

Egun hau Elizak edo Aita Santuak fest-egun egin baño len Franziko erri batean ekusi zuen emazteki batek festa egiten ziotela fededunak Jesusen Amaren Konzepzi garbiari ta irriz ta histaz edo burl-eskarniz asi zen ta haritu bere lanean ta azkenean erakutsi edo agertu zien bere auzokoei egun artan egin zuena, baño bere zori gaistorako egin zuen bata ta bestea, bada egin zuen lana agertu horduko, gelditu zen hitzik bage, okertu zitzaion aho guzia, era izugarrian irauli ziran aren bi begiak eta an bertan gelditu zen illa ta galdua, bada herejeetatik zen ta bere herejiagatik eta Ama Birjinaren Konzepzi garbiari egin zion irri ta deshondra zikinagatik jaitsi zen sulezera, erretzen ta lertzen beti an egotera (An. Soc. an. 1613). Leneko milagroan ez ezik, oraingo kastigu onetan ere ezagun da zenbat atsegin duen Jangoikoak Ama Birjinaren Konzepzi garbiaren fest eta honran.

Hau bera ezagun ta ageri da Konzepzi beraren alde Jangoikoak egin zituen beste bi milagrotan ere. Genov-tarren alde da bata ta Espainarren onerako egiña bestea. Sei eun urteren ingurua da Genovako erri anditarrak eritasunez ta pestilenziz hiltzen ta hiltzen hari zirala. Bernardino Chierico zeritzan San Franziskoko fraide batek eskatu zion Jangoikoari

urrikal zekiela erritar gaisoei ta atera zitzala beren nekepe izugarritik. «Dagitela, bada», erantzun zion Jangoikoak, «urte oro Konzepziko festa egiteko boto». Joan ta adirazi zion Fraide onak Genovako zaldunei Jangoikoagandik ikasi zuena. Elkargana bildu ta egin zuten oriek beren botoa ta erriko eri arkitzen etziranekin karriz karriz prozesio bat eta bertan sendatu ziran eriak eta aldi artan etzen eritu besterik (Apud eundem Auriem. ubi supra). Era bereko ontarteak artu zituzten gisa bereko neketan Milango ta Napolesko erri andiak ere.

Españiko Errege Don Fernando bostgarrenak ezin eskura zuen mairuz beterik arkitzen zen Granadako erria. Denbor luzeak aren inguruan bere soldadu guziekin egin ta Jangoikoak eman zion boto bat egiteko gogoa ta lenbaitlen mairuak andik kendu ta erria beretzegatik egin ere zuen. (Errian arkitzen zuen lenbiziko Elizari Konzepziko izena emateko botoa zen egin zuen botoa). Bota hau egin ondoan artu zuen erria. Kendu zituen andik ango mairu guziak. An egin zuen Eliz nagusiarri eman don Konzepzioko izena ta Ama Birjinaren Konzepzi garbiaren alde botoak ziona baño geiago egiteagatik eman zion Konzepzi garbi beraren izen bera San Jeronimoren Konbentuko Elizari ere (Ibid.).

## § II.

Ekusi ditugun aldietan ez ezik beste askotan ere milagroaz adirazi du Jangoikoak atsegin andi bat egiten diotela beraren Amaren Konzepzi bekatu-bagekoa honratzen dutenak eta hau zekitenak bezala anitzek hitz egin dute debozi ondasundun onen alde. Orien artean San Anselmok esaten die berepeko Obispo ta Abade guziei kontuz ta utzi bage egin dezatela Ama Birjinaren Konzepziko beren festa: *quisquis Praesul aut Abbas es, recole diligenter festum Conceptionis* (Epist. ad Praef. Angl.). Hau bera edo beren Probinzi ta Erreinu guzietan sar zezatela esaten zien munduko Errege ta Prinzipe fededunei Bernardino Bustiok, Jesusen Amaren Konzepzi garbiaren festa ta debozioa: *animentur omnes christiani Principes ad colendam Immaculatam Matris Dei Conceptionem, iubeantque ipsius festiuitatem in omni suo dominio celebrari*. Eta Jesusen Amaren Konzepziko fest hau egin nai etzutenak ezin konta zitezkeela, zeritzan San Anselmok, Ama Birjiñaren





deboten artean: *non vide fur verus amator Virginis Mariae, qui diem Conceptionis eius colere recusat* (Ubi sup.).

Jesusen Amari debotki begiratzten diotenak ez dira asetzen urte oroko beraren Konzepziko festarekin; urtean zenbaitetan batzuek eta beste askok egun oro egin oi dute zer edo zer Konzepzi beraren izenean ta Jesusen Amaren honran, ta beren debozi onen alde anitz erdisten dute Jangoiko maitagarriagandik. Ori egiten zutenetatik bat eta orregatik Jangoikoaren eskutik ondasun guztiz andiak beretu zituena da Treberisko neskatz aldiritar bat. Ama Birjinaren honrari zegozkan beste gauzetan ez ezik, beraren Konzepzi garbiari zegozkanetan ere agitz sartua zen neskatz hau ta bere neke-pen guztietan arganatzen zen, alab-on bat bere amagana bezala, ta aren artez ta eskuz erdisten zuen zegokan guzia. Arkitu zen bein besteetan baño neke andiangoan, bada etzuen ezkondu nai ta itxeko bereak billatu zioten bere senargaia ta eskontzaz agitz estutzen zuten. Etzekien nola egiteko artatik iges egin. Bere Konzepzi garbiaren izenean eskatu zion Jesusen Amari ager zezola artako bideren bat. Hau egin ta loak artu horduko agertu zitzaion Jangoikoaren Ama ta begi arin ederrarekin begiratu ta esan zion zijoala beraren Konzepziko egunean Bauritko Elizara ta an erakutsiko ziotela arkitu nai zuen bidea. Ara zen pozik egun artan ta an arkitu zuen Mezako batek esan zion eman nai zioten ezkontzatik iges egiteko bidea zela Ama Birjinaren Seme maitagarri Jesus Esposotzat artzea ta Ama Birjinaren Konzepzi garbiari zion debozioagatik Ait-Eternoak emanen ziola zori on hau. Mill esker ta poz andiarekin bere Esposotzat Jesus artu ta joan zen itxera; giza kontu ta festa ta munduko zirtzillariak utzi ta garbiro ta santuki bizitzera. (An. Soc.).

Ama Birjinaren Konzepzi berarekin debozi andi bat zuen bere denborako beste anitzen artean Augubiko Konbentuko Guardian batek eta Konzepzi bereko arrats batez lotara bere Fraide guziak bidaldu ta sartu zen Elizan bere Konzepzi garbian ta beste gauzetan Ama Birjinari egin ziozkan ondasunen alde Jangoikoari mill laudantz eta esker ematera ta artan haritu zen an gau erdiraño. Matutietako gauzak prestatu behar zituen Fraidea sartu zen gau erdian Elizan oi zuen bezala ta arkitu zuen zeruko usai ezin goxoago bat. Pozez arritua bezala gelditu zen lenbizian; begiratu zuen gero batera ta bestera, nondik ote zen gauz hura ekusi naiez. Ekusi zuen nonbait an bere Guardian Aita. Urbildu zen argana ta galdetu zion: «Aita, nondik da emen dugun zeruko usai txarmagarri hau?». «Nik esanen dizut», eranzun zion Guardianak, «baña ez esan besteri bizi nazaño. Araisti onetan agertu zait emen edertasunez ta atsegin-

ntzez betea Jesusen Ama ta esan dit gauz anitz eta andiak dirala Jangoikoaren eskutik artu dituenak eta orien artean bere Konzepzi garbi, bekatu rik bagekoa, ta hau ala delako siñutzat utzi du ekusten duzun zeruko usai goxo hau». Eta orra zer atsegintza ta zer ontartea, bere Amaren Konzepzi garbiko debozioagatik aldi onetan Jangoikoak oni egiña.

Andiangoak izaten ziran misterio beraren debozio beragatik Jangoikoak San Franzisko bereko Beata Sor Joana Gurutzekoari egiten ziozkanak, bada askotan galtzen zuen emengo gauzetarako akordu guzia ta gelditzen zen Jangoikoarekin bat egiña bezala ta idarokitzen ziozkan Jangoiko berak Ama Birjinaren alabantz eta hitz eder arritzekoak. (Auriem. ubi sup.).

Hau beinatz prestatzen zen baru ta penitenzi andiekin Ama Birjinaren Konzepziko festara, bai ta otoitz aldi luzeekin ere. Eta zenbat ere bat obeki prestatzen den Jangoikoak nai dituen gauzetarako, anbat andiangoak izaten dira grazi-aldi ta ondasun, Jangoiko berak eman oi dituenak, eta prestantzak izan ditezke: lenbizikoa, osasun ona duenarentzat (egiteko nekezkorik ezpadu) bezperatik barutzea ta ezin barutu bada, Jesusen Amaren Konzepzi garbiaren izenean limosn zerbait ematea edo beste gauz onen bat egitea. Bigarrena, festako egun berean ongi ta kontuz konfesatu ta Jesusen Amaren Konzepzi garbiaren izenean komunio garbi eder baten presenta Jangoikoari egiteko. Edozein komuniok eskatzen duen gauza da animaren konfesiozko garbintz han, baño Ama Birjinaren Konzepzi bekatu bagekoari agitz obeki dagokiona da. Misteri onen debot eta debozioaren banatzalle andi Aita Bernardo Colnago gure Konpañikoa hau egin ta Mez-ematera zijoala ekusi zuen bein Jesusen Ama ta atsegintz eta poz osoz betea egondu zen Mez guzian. Hau eman ta artako zituen soñekoak kendu ta biziro bere gelara joan ta belaunikatu ta burua lurrari josirik asi zen esaten: «Jesus, ta zein ederra zaran Jesusen Ama! Zein ederra ta zein mantxarrik bagekoa». *Tota pulchra es et macula non est in te*. Eta jaiki zen azkenean len baño debozio hau guziei ar-erazteko nai andiangoz betea.

Irugarrena da goiz-arratsetan eta aragiaren tentantz aldi oro irur Abe Mari Konzepzi garbiaren izenean esatea. Misteri onen izenean esaten ziozkan aldareko Santutako erdi prestatu rik arkitzen den gure Alonso Rodriguezek amabi Abe Mari ta amabi Salbe, Jesusen Amak eska zezon bere Semeari atera zezala bekatu rik bage gau-eguneko ogei ta laur horduetatik.



Oriek zuk eta fededun kontuzkoak egiten dituzten beste gauzak egiten badituzu, erditsiko dezu Jesusen Amaren artez onen debot onak erdisten duten bizitz ona, eriotz ohea ta sekulako gloria. Saia zaitez, bada, utsegin bage guziak egitera ta egizkitzu kontuz ta garbiro ta Jesusen Amaren Konzepzi garbiaren maitatzalle onak bezala; bai arren, bai.

### III

## Apostol Santo Tomasen eguneko irakur-aldia

Noli esse incredulus, sed fidelis. Joan, 22,27.

*Gaia: Andian ta txikian bere hitzekoa da ona.*

Zutik dagona bego kontuz, erori nai ezpadu, dio San Pablok; edo bekatura nai ezpadu Jangoikoaren grazian arkitzen denak, bebil erne ta Jangoiko beraren Legeko bidez ta utsegin bage. Zein egokia den San Pablaren oarmen ta hitz hau, ederki adirazten digute gizon andi ongi bizi ziranen zenbait erortzak. Birtutezko pillare sendoak ziruditen zenbait ekusi ditugu, dio Elizako Doktore Santu batek, zur-adar igartu autsien gisan lurrera erori ta bekatuz lertu galduak. Orietatik bat da Apostolu San Pedro ta bestea egungo gure Apostolu Santo Tomas. San Pedro bekatura zen judatarren beldurrez ta Santo Tomas Apostolu lagunak esan zioten egja ez sinistu naiez. Fite ta laster jaiki zen San Pedro bere bekatupetik ta jaiki zen erori zelako damu ta urrikimentu agitz andiarekin; bai ta egungo gure Apostolu Santo Tomas ere. Jaiki zen San Pedro Jesusek urrikarizko begiz ta graziz laguntzen ziola; ta Santo Tomas Jesus berak agertu ta eskua ematen ziola. Santo Tomasen erortza illun ta zori oneko jaikitze hau da egungo Ebanjeli Santuak agertzen diguna ta gaur guk ekusi beharra.

Jesus maitagarria ill ta biztu ondoan sartu zen illun-nabar batez ertsiak arkitzen ziran atepak idiki bage Judatarren beldurrez gordeak zeuden Apostolu beren gelan ta an sarzean guziei *gau on baketsu* esan ta agertu ziezten bere esku ta bular, lanz-ilzez urratu biztuak. An arkitzen ziran Apostol guziak poz atseginzez beteak eta konfesor egiñak uzteko izandu zen Jesus biztuaren ager-aldi hau. Aldi artan etzen besteekin an Apostol S. Tomas. Jesus gorde ta joan ezker, bere lagunetara zen Santua ta aldirik galdu bage asi ziran izandu zuten zori onaren berria ari ematen ta esan zioten ekusi zutela Jesus biztua, agertu zieztela bere esku, iltzez gurutzean josirik egonak eta bular, soldadu batek lanzaz urratu ziona ta adirazi zioten aldi artan Jesusek an esan ta egin guzia.



Baña gogorregi arkitzen zen Santo Tomas esaten zioten gauza bertan siñisteko, beste Apostol guziak hau ari esan ta ere; ta zioten guzia aditu ta esan zien guziei: «Ez da zeren buruak zer nekatu, berdin nik ez dut siñetsiko zuek diozutena nere eskuz Jesusen eskuak ekusi-erabili ta nere heri-behatz hau beraren bular zulatuan sartu arte guzian». Eta bere itsumen gogor artan egondu zen zortzi egun osoz ta etzen noski gero ere bere artatik aterako, Jesus berak artaz urrikaldurik billatu ta atera ezpalu.

Zorzi egunen buruan berriro billatu zituen Jesusek Apostol berak eta billatu, gorde-gilzatuak zeuden leneko beren gelan. Aldi artan an zen Santo Tomas ere. Sartu zen Jesus lenbiziko gisan gelako gilz-aterik ukitu bage ta arkitu zituen guziei gau eta bake ona eman ta begiratu ta esan zion Santo Tomasi: «Ona, Tomas, nere bular zulatua; atoz ta sar zazu emen zere behatz-heria; atoz, ekus zatzu nere eskuak eta izan zaitetz siñeskor ta langille eskerdun osoa»: *et noli esse incredulus, sed fidelis*.

Joan zen lasterka Santo Tomas Jesusen oñetara ta leneko bere utsaren damuz beterik eta humilki belaunikaturik eskatu zion bere Jaunari ta Jangoikoari bezala aren barkanza ta eman zion zuzenki ta uts egin bage zegokan guzia egiteko hitza. Hau bera da guk guziok egin beharra ta ark egiña, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

## § I.

Jesusen eskolako egin zen alditik sinistu behar zuen Santo Tomasek Jesusek erakusten zuena. Beste anitz gauzen artean erakutsi zion Jesusek Santo Tomasi ta beste Apostol guziei judatar gogorren artean ta jentillen eskuz ill ondoan biztuko zela bera berez ta bein beintzat adirazi zien biztuko zela ill ta irur egunen buruan ta adirazi zien hau esanez irur egunez lurpean egonen zela Jonas Profeta bale baten sabelean bezala. Jesus ill ta irur egunak joan ezkeru, esan zioten Jesusen gauzen testigu on beste Apostol lagunak bizturik ekusi zutela Jesus, hitz egin zutela Jesus biztuturik, bai ta Jesusek aldi artan Apostolu berekin egin zuena ere, ta al-ere alakorik aditu ta ikasi ezpalu bezain gogor egondu zen ez sinisteko siñetsi behar zuena ta onetan etzen izandu bere hitzeko gizona ta egin zuen gizon prestuak eta orien artean Atilo zeritzan jentil batek eta Lege zarra

baño lenagoko Josefek gauz itsusitzat iduki zutena ta sekulan egin etzuten, jakinik ere egiten ezpazuten, izanen zutela neke-tzar gogor bana.

Gaztea zela saldu zuten Josef bere anaiak eta Putifax zeritzan Ejiptoko gizon andi batek erosi ta egin zuen bere itxeko kont-artzalle ta maiordomo ta utzi zuen aren eskuan zuen guzia. Putifaxen andreak eragin nai zion senarrak naiko etzuen gauza zikin bat eta «Ori ez, andrea», esan zion Josefek emazteki gaistoari, ta esan zion hau Josefek ari zekiela bere ukoagatik neke gogorren batean sar-eraziko zuela, sar-erazi zuen bezala; bada gezurrez ta gogo gaistoak eman ziona senarrari esanez sar-erazi zuen presondegi batean ta an iduki zuen urtez ta urtez ta Jangoikoak milagro bezala andik atera arte guzian.

Mairu arteko Kartagotarrak Erromatarrekin gerran zebiltzan batez arrapatu ta berekin eraman zuten Atilo. Erromatarrek era berean artu ta eraman zituzten anitz Kartagotar soldadu. Gerra bukatu ta oi den bezala egin nai zuten arrapatu guzien trukada, baño etzuten elkar artzen, zeren Kartagotarrak Atilo bakarraren alde eskatzen zituzten Kartagotar preso guziak, Kartagotarrak anitz baziran ere, ta Erromatarrek baten alde, bat ori beste anitz baño geiagoko gizona izanagatik, etzituzten anbat gizon eman nai. Berenarekin atera naiez egin zuten Kartagotarrak gauz on egoki bat: eta egin zutena zen Atilo bera trukadaren zuzentzalle egitea ta Erromara igortzea ta bera bidaldu zuten, zeren zekiten Erromatarrekin nai zuena zegiken gizona zela ta bidenabar zekiena beraren alde zela Kartagotarren egitekoa ongi egitea ta bidaldu zuten bere lekuan besterik utzi bage ta egiten ezpazuen iguala bere presondegira itzuliko zelako juramenturik eragin bage; ain fio ziran gizonaren prestatutzan.

Joan zen Atilo Kartagotik Erromara ta egin zuen Erroman Kartagotarrak nai zutena ta berari ongi zegokana ez, baizik Jangoikoaren begietan ta munduarekiko ere ongi zirudiena. Erromatarrek bildu ziranean Atilok zekarren mandatua aditzera, esan zien Atilok: «Nere erromatar maiteak, agitz eta agitz geiegi da Kartagotarrak nai dutena, bada nai dute ni emen utzi ta emengo beren soldadu guziak ara eramatea. Erakeria! Zartu naz ni ta emen geldituagatik deus guti nekike zuen alde. Gazteak edo sasoi onekoak dira emen zuek dituzuen Kartagotarrak eta bidaltzen bazenituzte bigar edo etzi beren beste gerrarien artean zuen kalterako ekarriko lituzke ta orrelakorik agi ta gerta ez dakizuen, beude bertan oriek, igual on batera Kartagotarrak datozen artean ta agur, banoa ni nere hitza osatuzera ta Kartagoko presondegira», ta eman zuen hitza ez urratzeagatik



joan zen bera bere oñez etsaien eskura ta horduko bere jentilei, gerozko fededunei ta munduko beste guziei erakutsirik utzi zigun batek besteari ez egitea bestek berari egitea naiko ez luena ta gauza guzietako leialtasuna dela gure guzien egitekoa, beste guzietan guk arkitu nai duguna ta besteak ere gure baitan billatzen dutena.

Bai, leialtasuna ta bakoitzak bere gauzak zuzenki egitea da beste guzietan guk arkitu nai duguna ta orretako seme-alabak egin behar dutena da Ait-amen ta orien ondoko edozeñen esanak beren horduan gogo onez ta ongi egitea, Ait-ama berei ta beste oriei begi on humil maitariz begiratzea, orien beren nekanzak arintzea, orien eskupetik berak nai ez dutela bein ere ez ateratzea, orien beren alde al duten ona egitea ta hau bera da orien Ait-amak, Ait-orde ta beste eskusle guziak orien eskutik uste dutena.

Besteren ogiko guziak egin behar dutena ta orien nagusi jaunak nai dutena da beren humeetatik Ait-amak nai duten guzia ta itxean ta ez itxean berezten diezten lan guziak alik lenen ta zuzenkien oriek egitea. Leialtasuna ta laguntz ona da senarrak emazteagandik eta senarragandik emazteak eskatzen duena. Begitart ona, behar duen eskua ta aldiak eskatzen duen sartu-atera ta prestantza da auzoko guziak elkarri dioten zorra edo zor dioten gauza.

Hau, bada, ta dagokan beste guzia egin behar dio fededun bakoitzak beste edozeñi, Jangoikoaren Legeak eskatzen duena zuzenki ta Jangoiko berari atsegín egiteko, bada hau orregatik egiten duenak egiten du Lege bera bere gain artzean eman zuen hitzak diona ta hitz onek diona egiten dutenak dira. Jangoikoaren hume leialak, Jangoikoari atsegín egiten diotenak, Jangoikoaren begi onak zaitzen dituztenak eta Jangoikoarekin gero ta Jangoiko beraren bazterrean atsedeten dutenak: *oculi mei ad fideles terrae, ut sedeant mecum* (Ps. 100,6). Hau da Apostol Santo Tomasek, bere utsa bein begitan artu ezkerro, beti ta beti egin zuena ta orregatik da zori oneko atsedentzarekin Jesusen aldean arkitzen dena.

## § II.

Bai, betiko zori on onetan Santo Tomas gaur arkitzen da, zeren lenko bere utsak urratzeko ta Apostol onaren bere hitza osatzeagatik egin izandu zuen Jesus biztua ekusi ezkerro bere denbor guzian Apostolu leial on batek egin zezaken guzia. Egin zuela Santo Tomasek hau guk ekusteko, aski da beraren oñen arrastoz arrasto ibiltzea ta aditzen ditugun berriak ekustea.

«Zoazte, bildu zinduztedanetik egundaño ekusi ta aditu dezuten guzia munduan banatzera ta erakustera», esan zien Jesusek Santo Tomasi ta beste bere Apostolu guziei ill ta biztu ondoan egin ziezten ager-aldietatik batean ta joan zen artarako berezi zion denboran bakoitza bere alde-ara ta tokira ta joan zen Santo Tomas anitzetara ta aren oñen arrastoak adirazten dutenaz munduaren lau bazterretara; arkitzen dira alabaña Santo Tomasen oin arrasto ezagunak Europa deritzan munduaren bazter ta zati andi gurean; bai ta Afrikan, Amerikan ta Asian edo mundu beraren beste iru bazter ta zati andietan ere.

Arkitzen dira, bai, Apostol Santo Tomasen oñ-arrasto ezagunak munduaren zati andi European, bada gizon jakintsu ta Obispo Gillelmo Lindanok dionaz, Alemaniko probinzi andietan ta orien gañeko beste askotan lenbiziko beren predikarizat eta Apostolutzat dadukate Santo Tomas ango jendeak eta orien aitzinekoak eskerdun anak bezala egin ziozkaten an Apostolu oni bere izeneko Elizak eta Alemaniko probinziak eta orien gañeko ta Nortepeko besteak ere European bazterrak, zatiak eta erreinuak dira.

Apostolu beraren oiñ-arrasto ezagunak edo erakuste ta prediku andien señale onak arkitzen dira mundu beraren bigarren zati Afrikan. Beltzez beterik arkitzen den mundu zatia da Afrika. Mundu zati onen inperio ta bazter andia da Etiopia. Gorputzez baño animaz beltzagoak ziran Etiopiko jendeak Apostol Santo Tomas Etiopira zenean, baña gure Lege santaren ta Jesusen bizitzaren, eriotzaren ta biztearen berria beltz oriei eman ta bataiatu zituenean, graziz zurituak (eta birtutez ongi jaun-tziak) utzi zituen, esaten dit San Joan Krisostomok (Orat. de 12 Apost.). Eta an bertako Abisindarrak orain azkenean ere len ta beti bezala debozi andi bat diote Santu oni, lenbiziko beren Apostolu maisuari bezala.



Jangoikoaren Lege bera erakusten ta Apostolu leialaren egiteko andian ibilli zen Santo Tomas munduaren beste zati Amerikan ere, bada Brasil Amerika da ta Brasiltarrak erakusten dituzte oraingo beren aitzine-koei Santo Tomasek an ibilli zen aldian utzi ziezten señaie onak edo gauzak, eta gauza, Jesusen Konpañiko Probinzial an izandu batek dionaz bere begiz berak ekusi zituenak eta ara joan bage ezin utz zitzakeen an Santo Tomasek bere gauz eta señaie oriek.

Bere lan hau bera egin zuen Santo Tomasek munduaren laugarren bazter ta zati andi Asian ere ta emen noski besteetan baño hastizago ta leku, bazter ta toki geiagotan, bada egin zuen emengo anitz erreinu ta probinzi anditan ta besteen artean Partoenean, Hirkanian, Persian ta goiztarren aldeetako Indian ta emen beintzat luzaro ta ill arte guzian.

Indi berean dabilizan Jesusen Konpañiko Misionistak diote ara baño len ibilli zela Apostol Santua predikatzen bein Zokotora deritzan islan, gero Karanangorko ta Kolongo erreinu Malabarkoetan, gero Indiko mendi andiak igaro ta Narsingakoetan ta azkenik Kalaminan edo Malipurko errian.

Uts egin zuen bai Santo Tomasek bein ostegun santu arratsean Apostol besteen gisan Jesus bere etsaien eskuan utzi ta iges joan zenean ta berriz Jesus bera biztu zela ez siñistu naiez egondu zen denboran, baño ezagutu zituen hordutik begitan artu zituen bere utsak eta orien ateratzen ta Jesusen esana egiten ibilli zen mundu guzian besterik ez bezala edo beste Apostolu geien ibilli zena baño agitz eta agitz geiago ta ibilliko zen geiago ta geiago ere, idoloen apaiz gaistoak, deabruak su ta gar ematen ziela, ill ta martir egin ezpalute, egin zuten aldian.

Ill baño len eraman zuen milagro z zegokan tokira zur agitz andi, gizonak berez ta beren idiekin ezin igitu zuten bat. Egin zuen an eliz eder bat. Ezarri zuen elizan pillare bat, esaten ziela bere fededun bataiatu berriei: «Itsasoa onaritzen den denboran urrutitik etorririko dira gizon zuri, nigandik ikasi dezuten dotriñaren berria berririo ekarririko dizutenak; bitarte guzian bizi zuek ta zuen ondoren jaioko diranak leialki bataioko zeren hitzean ta ikasi dezuten legean». Eta mil ta laur eun ta urte geiagoren buruan Portugal-tarrak joan ziran alde aietara ta denbor berean pillare artara zen itsasoa eta andik zenbaiten buruan ara berera zen San Franzisko Xabier, Indi bereko Apostol berri izatera ta alde artako Apostol biak badute gaur beren leialtasunari ta egiteko andi ederki egiñari dagoan atsegintza ta gloria.

Hau bera izanen dugu guk ere orien eran izaten bagara gauz andi txiki guzietan geren hitzeko gizonak edo egiten badugu besteei dagotena, guri dagokiguna ta gugandik gure Jangoikoak eskatzen duena ta egiten badugu hau guk gaur ta bigar ta beti ta geren bizi guzian. Errazki ta aisa egin dezakegu Jangoiko berak laguntzen digula ta lagunduko digu guk hau ziñez eskatu ezkeru.



## IV

### Kandelar eguneko Irakur-aldia

Postquam impleti sunt dies octo purgationis eius...,  
tulerunt ilium in Jerusalem, ut sisterent eum Domino. Luc. 2.

*Gaia: Jesusen Amaren izenean egiten dutenak  
onek gaur egina, emen ta gero  
izanen dute bera beren alde.*

Israeldarren artean baziran anitz Lege ta zeremoni gizonentzat egiñak batzuek, andreei zegoztenak besteak eta beste zenbait biek hitz egiten zutenak. Azkenekoetatik bi agertzen ditu San Lukasek gaurko bere Ebanjeli santuan; Jesusi dagokana da bata ta Jesusen Amarentzat egiña dirudiena bestea. Jesusi zegokan Legeak zegokan eran utzi zuen Jesusen honra. Legeak ziona zen amaren lenbiziko semea Jangoikoarena zela ta eraman zekiola berari apaizen eskuz present egitera ta eraman zekiola amaren erditzetik berrogei egunen buruan. Ama Birjinaren lenbiziko ta azkeneko Semea zen Jesus ta denbor berean zen Ait-Eternoaren Seme bakarra, ta honra zen Jesus maitagarriarentzat Jangoiko gizon bezala Ait-Eternoaren present izatea, ta orra, bere honra guziarekin utzi zuen gaur Jesus bere presentantzako edo presentazioko legeak. Era ta gisa bestekoa zen Jesusen Amari zegokan egungo legea, bada zen lege aren honra ukitzen zuela zirudiena. Ara zergatik.

Semez erditzen ziran andreak, baña andre gizonagandik zuten semez erditzen ziranak eta andre erdi ta birjiñ gelditzen etziranak, erdi ondoan erdi ondoko odolketak gatik egon behar zuten berrogei egunez elizara bage ta egun orien buruan eraman behar zuten elizara semeagatik al bazuten urtebeteko bildots-humerri bat, ezperen tortol edo usakume bat eta bidenabar eraman behar zuten beren alde beste tortol edo usakume bana, apaizako otoi ez egin ta utz zitzan guztiz garbiak eta elizarako ta beste gauz onetarako erditzerik izan ezpalute bezain prestatu egokiak.

Orra, etzen andre semez erdituen lege hau Jesusen Amaren hondragarria, bada Jesusen Ama legeak ziona egiten ekusten zutenak usteko zuten beste andre erdi berrien gisako andrea zela ta ez Jangoiko gizonaren Ama, ta Ama, jaio zenean bezain oso ta Birjiña, zen bezala, ta birjinza zen Jesusen Amak nai en zuen gauza, bada aingeru San Gabrielekegeru ta esan zion aldean Jangoiko-gizonaren Ama izan behar zuela, «baña nola hau agi ta gerta», erantzun zion Birjiñ Andre Mariak, «bada nerekin ez du gizonen ekustekorik», ez eta izan behar ere, ta aingeruak seguratu zion artean etzuela perillik eta gizonen egitekorik bage ta Espiritu Santuaren bidez izan behar zuela Jangoikoaren Ama, etzuen artako bere baimena eman nai izandu ta adirazi zuen birjinza bage Jangoikoaren Ama izan baño naiago zuela bere birjinza utsarekin gelditzea; ta munduaren begietan kentzen dio gaur egungo legeak onenbat ark nai zuen gauza, bada Jesusen Ama gaur berrogei eguneko bere semetxoa besoan ta usakume bi eskutan zituela elizan ekusten zutenak usteko zuten birjinzik bage arkitzen ziran era bereko beste andre ezkondu erdituak bezala zela ta Jangoiko gizonaren Ama Birjina ez, baizik beste andre ezkonduen semeen gisako semetxo baten ama ta bere birjinza galdurik arkitzen zen andrea.

Al ere bere honrari begiratu bage egiten du gaur Jesusen Amak legeak ziona ta beste andre humedunak egiten zutena. Zergatik uste dezu? Jangoikoari atsegin ori egiteagatik edo zeren zekien ori zela aldi artan argandik Jangoikoak nai zuena ta bidenabar guri erakusteko geren aldi argandik egin beharra, gure egin-behar hau izanagatik ez honrazkoa. Eta guk hau Jangoiko berari atsegin egiteagatik eta Jesusen Amak gaur erakusten digunaren izenean egiten badugu, Jesusen Ama bera izanen dugu geren alde emen ta beti, aldi onetan ekusiko dugun bezala.

## § I.

Jangoikoak nai zuena egiteagatik aldebat uzten du Jesusen Amak bere honra ta Jangoikoaren nai beragatik egiten du gaur besterik ere, bada gaur berean utzi dit bere seme Jesus maitagarria milla neke-pen-tormen-uren arterako ta gurutzeko eriotz gogorrerako, ta utzi du ark hau artarako, zeren ezagutu duen hau dela Jangoikoak gure onerako Jesus maitaga-



rriagandik nai duena. Jesusen Amak bere bi gauz oriek egite berean erakusten digu geren aldian guk egin beharra. Zer, uste dezu? Geren honrari ta nekeari ez begiratzea, Jangoikoak besterik nai duela etzagutzen dugun aldian.

Hau guk errazkiago egiteko sinistu behar dugu gure neke, naigabenez eta lan guziak Jangoikoaren eskutik datozkigula ta Jangoikoak gure alde ta onerako zuzentzen dituen gauzak dirala. Bai, dio San Agustinek, ekusten badugu makur dabillela deritzagun gauzaren bat edo beste, siñetsi behar dugu ezin zuzenagoa dela Jangoikoaren gobernua, ta gobernu onek hura gure onerako zuzentzen duela, nola den hau guk ekusten ezpadugu ere: *si non intelligimus quare quid fiat, demus hoc providentiae ipsius, quia non est sine causa* (sup. ps. 118).

Ekusten dezu noizbait zere burua kezka ta naigabez, zorrez, beharrez, eritasunez edo etsaiez bete ta aldi berean ekusten dituzu beste anitz osasun onarekin, atsegintz andian sartuak, eta diruz ta honraz beteak eta «hau zer da», diozu «edo zergatik hau onela? Bada zori oneko oriek» diozu «ekusten dugunaz ez dira gu baño agitz obeak». «Zaude isillik», erantzuten dizu San Agustinek, «badaki zergatik den hau Jangoikoak eta bestela legikela era orretan egiten du; utzazu bada beraren kontura egiteko hau; nori berea ematen dakien Jauna da Jangoikoa ta sekulan bide makurrik artzen ez duena ta aldi onetan ta beti egiten du zuri ta mundu guziari dagokiguna»: *Demus hoc providentiae ipsius*. Ez da anitz, ez, hau zuk egitea. Atoz ekustera.

Itxeko guziak egiten dute jan-edanean, loan, lanean ta beste gauza guzietan orien aitak edo nagusiak nai duena, bere gauzetan utsegin dezaken gizona izanagatik itxeko aita, jaun edo nagusia; guzia dagikena, utsik ezin dagikena ta ontasunez beterik arkitzen den etxajaun ta aita da bakarrik gure Jangoikoa; Jangoikoaren etxeko ta hume gara mundu guzian arkitzen garanok; zergatik utziko ez diogu bada geren buruen ta gauzen gobernua, bada bestetan ezin arki diteke Jangoikoarena bezalakorik eta Jangoiko beraren gobernua bezain ongi dagokigunik?

Hau ongi zekienak bezala esaten zion Dabidek Jangoikoari: «Ezin makur zaitezken ta gauza guziak, naiz latzak izan ta naiz leunak, zuzenki ta behar den gisan egiten dituzun Jauna zara zu»: *omnia in sapientia fecisti* (Ps. 103, 20), ta datorrela nere gain ondasuna edo beharra, datorrela osasuna edo eritasuna, datorrela atsegintza edo kezka ta naigabea, berdiñ da neretzat guzia, bada badakit aldian niganatzen dena dela aldi artan nigan-

dik zuk nai dezuna ta niri dagokidana, ta nik nai ez nukena izanagatik, aldi artan zugandik dudana, mututurik gelditzen naz ni ta zer esan ez dakidala: *Obmutui et non aperui os meum, quoniam tu fecisti* (Ps. 38.10), ta zuk nai dezuna isil isillik egitea ta besterik nai ez dudala hau egitea da nik egiten dudana, nere Jangoiko maitagarria».

Bestela ere, beraren honrak eskatzen duen eran egiten ditu Jangoikoak gauza guziak: *universa propter semetipsum operatus est Deus* (Prov. 16, v.) ta San Agustinek dion bezala, onez ta guri ongi naiez egiten du Jangoikoak egiten duen guzia: *bonitate facit*, bada zer erakeria Jangoikoaren eskuan geren buruak eta gauzak ez uztea? Ez dakigu gure onerako izanen den edo gure gaitzerako Barberak eta Medikiak gurekin egiten dutena ta alere geren eritasunetan uzten diegu dagitela zañetako gure odolaz, gorpuzeko ezurrez ta sabelean dugunaz berak nai dutena ta azkenean oriek gu ez sendatuagatik ematen dugu senda-saria; ta dakigula, dakigun bezala, uzten badiogu Jangoikoari egiten berak nai duena ta guk artu ezkerio ematen dizkigun sendagai guziak, sendatuko garala geren bekatuaren eritasunetik eta emanen digula graziaren osasuna ta sekulako bizitz zori onekoa, ez diogu utziko guri dagokiguna ta berak ongi dakiena egiten? Gaurgero bai, eroak ezpagara. Bai, *demus hoc providentiae ipsius*, ta otzean, beroan, aldarte txarrear, gaizkian ta beti esan behar dugu: hau da aldi onetan Jangoikoak nigandik nai duena, egin dedilla bada, Jangoiko berak besterik egin arte guzian ta hau bera egin dedilla era bereko gauzetan ta beste aldi guzietan ere, bada beti egiñen du Jangoikoak, guk eragozten ezpadiogu, beraren honrari ta gure onari ederki dagokana ta emen bertan ere zori onekoak gu egiteko den guzia, Aragoko ta Napolesko Errege andi Alfonsok zion bezala.

«Jauna, zein ote da» galdetu zioten bein Errege oni, «munduan zori ohea duena, Errege ondasunduna, gizon jakintsua edo gerrari andia?». «Zori on baten zalea naz ni», erantzun zuen Erregek, «eta askotan ibilli naz an edo emen hura arkitu naiez edo non arki nezaken asmatzen ta azkenean ikasi dudana da hau nai duenak utzi behar diola Jangoikoari berak nai duena egiten» (Panormit. in eius vita).

Bai, dio Salbianok, hau egiten duena behar bezalako gizon ona da ta onak ezin duke ezin aisa garai dezaken kezkarik, dio Espiritu Santuak: *non contristabit iustum quidquid accidit ei* (Proverb. 12, 21), zeren ona humilla den ta on humillak nai duen Jangoikoak nai duena, bai ta zeren ona lurreko naikuntzik bageko gizona den ere ta lurreko naikuntzik bage bizi dira



nak diran gabeak pozez betetzen dituenak: *humiles sunt, hoc volunt; pauperes sunt, paupertate delectantur.*

Hau ederki adirazten du Dabid Errege berak bere hitz birekin: Jauna, ni zure itxean nekazari batenean astotxo bat bezala naz, dio Dabidek: *ut iumentum factus sum apud te* (Ps. 72,23). Astoak jaten du ematen diotena ta hitzik atera bage egiten du itxean, mendian, bidean ta bazter guzietan bere jabeak edo beste edozeiñek nai duena ta da, dio Dabidek, Jangoikoaren itxean gau ta egun ta beti nik egin nai dudana. Eta hau bera da egungo egunean ta beti Jesusen Amak egiña ta guk guziok egin beharra ere ta egiten badugu, geren alde izanen dugu emen ta beti Jesusen Ama bera, orain ekusiko dugun bezala.

## § II.

Bai, bere alde izanen du emen Jesusen Ama beraren izenean ta Jangoikoari atsegin egiteagatik egiten duenak, naiz latz gogorra izan ta naiz ez, Jangoikoak aldian nai duena, egiten badu beintzat egungo bere lan andia Jesusen Amak bezala ta egungo festa bihotz garbi Jangoikoaren amorez ta zeruko argiz betearekin, hau era onetan egiten duten zenbaitekin Jesusen Amak egiñak adirazten duenaz.

Espaindar anak len barutzen ziran Kandelari bezperan ta orain ere egiten dute hau bera edo zerbait orrelako Espaindar nai dutenak eta beste bazter askotako anitzek ere. Hau ere bai ta artako ziran beste anitz gauz egin zituen Mari Enkarnazi zeritzan San Franziskoko soror edo monjak, bada Kandelari eguna baño agitz lenagotik asi ta baruz, ilduraz ta penitentziaz erdi urratu zuen bere osasuna ta gorputza. Gaizkitu zen agitz, ta flakiz ta odolik bagez iltzera zijoala zirudienean, agertu zitzaion Jesusen Ama ta esan zion: «Etzara zu aldi onetan ill beharra. Jaiki zaitzez sendatua ta zoaz konbentuko beste soror ta monjekin korura ta Kandelariko nere festara», ta jaiki zen odol tantarik isuri ezpalu ta barutu ezpaliz bezain bizkor ta osasun onean ta hura gis artan ekusi ta arriturik eta pozez beteak gelditu ziran serore guziak eta nondik zen aren osasuna ikasi zutenean, Jesusen Amarekiko len baño ere eskerdun ta onesle obe egiñak.

Agitz ederki prestatzen zen Kandelariko festa bererako Santo Domingoko serore Santa Katalina de Ricci ta beraren prestantzaren era-koak izaten ziran Jesusen Amagandik artzen zituen atsegintz-ondasunak eta beingoak beintzat izandu ziran agitz andiak. Kandelari egun batez arkitzen zen hau bere zeldan Jesusen Amaren egun artako humiltanza ta beste birtute andiak ekusten ta hordu berean sartu zen an Jesusen Ama, len Jerusalemgo elizan bezala, bere Semekoa besoan zuela, ta eman zion santari bereetara, len Jerusalemgo elizan apaiz santu Simeoni bezala, ta hordu betez iduki zuen Jesusek santa zeruko bere hitzekin atsegintzez urtua ta liluratua ta denbor berean erakutsi ziozkan bere Amaren mantupean sartuak Kandelariko misterio berarekin debozi zerbait zuten beste serore ta monja guziak.

Argizagi kandelak eskuan dituztela egiten dute, dakizun bezala, fededunak egungo festako prozesioa ta ibiller onek ere Jesusen Amari atsegin egiten diola adirazteko da orain adituko dezun hau. Beren argiak eskuan zituztela elizan arkitzen ziran San Dunstanoren ama ta erriko beste guziak. Aizerik bage ta nola etzekitela itzal-emendatu txan argi guziak. Elizako guziak gelditu ziran bein arrituak eta laster pozez beteak, bada fit eta laster jaitsi zen zerutik argi eder bat, joan zen San Dunstanoren amaren argizagira ta andik artu zuten elizako beste guziak beren argia.

Egun ontan eskuetako argiak baño komuni on batek atsegin geiago egiten diola adirazia daduka, Jesusen Amak Josef Karleon zeritzan San Franziskoko fraide batekin bein egiñak. Eri ta jaikitzeo indarrrik bage arkitzen zen fraide hau Kandelari bezperan ta arkitzen zen egun onetan komulgatu nai andiarekin. Eskatu zion Jangoikoari artako behar zen indarra ta osasuna. Bezper arratsean jaitsi zen zerutik Jesusen Ama, eman zion taza batean zekarren edari goxo bat eta utzi zuen guziz sendatua ta urrenge egunean jaiki ta artu zuen bere poz andiarekin komunio santa.

Etsai gaistoak garaitzen agitz laguntzen die Jesusen Amak bera billatzen duten guziei. Adi zazu birekin bi alditan onek egiña. Kalbinoren hereji gaistoan sarturik arkitzen zen Poloniko andre gaiso bat. Herejiak ez ezik, deabru gaistoak ere artua zedukan andre gaiso hau. Bein atzapparretatik atera naiez, joan zen Jesusen Amagana ta Jesusen Amak atera zuen Kandelariko bere fest-egunean.

Hau baño tranze gogorragoan arkitzen zen Teofilo zeritzan gizon arro bat. Gogo gaistoak eman zion gauza bat egin naiez bere firmaz saldu zion deabruari bere anima. Bere saltze gaistoaz damaturik eta hau nola





urratu ikasi naiez bazebillen batetik bestera. Erakusle onen esanak aditurik billatu zuen artako Jesusen Ama. Barutu zen Kandelari beraren festa baño lenagoko berrogei egunez ta bidenabar egin ziozkan Jesusen Ama berari bere otoitz humillak eta artaz urrikaldurik erditsi zion bere seme Jesusen barkanza; erditsi zion deabruari emana zedukan firma ta papera ta munduko perill guzietatik beingoan hura atera naiez, Kandelariko bere egunez eraman zuen beste mundura. Eta orra, dio hau agertu ondoan San Bernardok, orra bekatarien alde Jesusen Amak dagikenaren señaile andi Teofilo: *famosum huius benignitatis prodigium est Theo filius per Mariam restauratus gratiae*

Bizitzan ez ezik eriotzan ere lagutzen die Jesusen Amak egungo egunean bera ibilli zen gisan dabilzan fededunei. Ongi bizi dena ere bere eriotzan ingurutzen dute deabru gaistoak eta oriek garaituz baizik ezin zerura diteke, dio San Bernardok: *exeuntibus sanctis adest diabolus, et nullus nisi per medios hostium cuneos patet accessus*. Kandelari egunez iltzen zegon ta deabru gaistoen beldur andiarekin Zistelko monje santu Beato Ignazio. Zen egunagatik eskatu don Jesusen Amari lagun egin zezola mundutik zerurako bere bidean. Agertu zizaion Jesusen Ama ta esan zion: zegola kezka eta beldurrik bage, an zuela bera, eskatu ziona egitera etorria. Ill zen eria sosegantz andian ta Jesusen Amak eraman zuen bere Semeagana, zeruko glorira.

Emen ez ezik beste munduan ere lagutzen die Jesusen Amak anima gaisoei. «Ni naz», esan zion bein Jesusen Amak Santa Brijidari, «purgatorioko guzien Ama ta nik eskatuz hordu oro arintzen ditu Jangoikoak orien neke-penak». Hau bera, agerturik, esan zion Jesusen Konpañiako Aita Jeronimo Carvallori Jesusen Ama berak. Eta Maria Prudenziana Zañoniri esan zion beste aldi batez: «purgatoriotik animaren bat badere zerura eraman bage joaten etzait Kandelari egunik» (Omn. apud P. Th. Auriema off. scambiev. p. 1, c. 25).

Nai duenak, bada, emen ta gero bere alde Jesusen Ama maite urrikaltia, ark egun bezala, eraman bitza beraren izenean humilki ta behar den gisan emengo ezhonr-bide ta Jangoikoaren legeko neke guziak, joan bedi Kandelari egunez ongi konfesaturik komunio santara, egin bezo Ait-Eternoari bere Seme sakramentuaren presenta, bai ta bere bihotz Jangoiko beraren amarez ta ziñezko ondu naiez betearena ere. Jangoiko berak dizula urte anitzez hau ta urte oro obeki egiteko grazia. Bai arren, bai.

## V

### Apostol S. Matias eguneko irakur-aldia

Abscondisti haec à sapientibus et revelasti ea parvulis. Matth. 11,25.

*Gaia: Nola barruntatzen den bakoitzaren betiko zoria.*

«Zeru lurren egille jaun ta betiko nere Aita maitagarria, ezin uka diteke ta nai osoz aitortzen dut», esaten dio gaur Jesusek betiko bere Aitari, «estali gordeak dirala esku tarteko gauzen zerbait berri duten ta beren buruak jakintsu anditzat daduzkaten gizonendako oriekin ta besteekin zuk egin beharra; ta gauz oriek berak eta era bereko beste anitz agertu oi dieztezula lurreko jakintz andirik ez duten ta deusezetako beren buruak daduzkaten humillei. Bai, hau da zuk egin oi dezuna, txiki humillak anditzea ta arrotzar galduak oiñpe zerean sartzea ta illunbean ta muturrak austen dituela dabillena bezala bide makur galduan uztea».

«Orra», zion gero Jesus berak, «nere Aitak utzi du guzia nere konturra, baña nere Ait hau nik beraren Semeak baizik ez du ezagutzen ta nere Aita bera baizik ez da berez ni ezagutzen nauenik eta norbaitek ni noizbait ezagutzen banau, izaten da nor nazan ni neronek ari agertu ezker».

Badio besterik ere Jesusek egungo Ebanjeli berean, baña esan dugun hau da Judas galduari ta aren ordeztatu Apostolu egin zen S. Matiasi geienik dagokana ta gaurko gure egitekorako aski dena. Galduko zela Apostol Judas ta egiñen zela San Matias Apostolu etzekien mundukok, bata ta beste Jangoikoak agertu arte guzian edo egiñik ekusi ta baizik, eta ara egungo Epistolaren elizak dionaz nola egin zen hau.

Jesus zerura igan ta Judas galdu ezker, sartu ziran San Pedro ta beste Apostol amarrak Jesusen afaltegiko itxean, Jesusek esan bezala. Oriekin batean sartu ziran an beste anitz ere ta guziak zeuden Jesusek igorri-bidaldu behar zien Espiritu Santuaren begira. Baña etzeuden an geldirik, ez eta berriker alfer galgarrian ere; egiten zutena zen Jesusen Amak lagutzen ziela beren animak Espiritu Santuaren doaietarako otoitzez ta



beste gauz onez prestatzea, ta doai oriek artu ta egin behar zutenerako beren neurri onak artzea ta bat beintzat artu zuten San Pedrok guziei hitz egiten ziela.

Eun ta ogei bezala elkarrekin an arkitzen ziran batez zutitu zen Pedro ta guzien erdian asi zen hitz egiten. Ekarri zien gogora guziak zekitena ta agertu zien egin behar zutena, era onetan minzatzzen zela: «Anai gizonak, badakizue ezin uts egin zezakela Eskriturak Dabiden ezpañez esan zuen aldian egiñen zuela Judasek egin duena ta salduko zuela eriotz gogorrerako bere eskuz maian jatera eman zion Jesus Salbatzallea, orretarako bera egin ta loturik Jesus eraman zutenen gidari ta buru. Judas hau gutatik bat eta Kristo jaunaren Apostol eginik gurekin bizitu da. Bere Maisu on Jesus saldu ta artu du eskatu zuen dirua, bai ta beraren salze gaistoari zegokan saria ere, bada amurratu baten gisan hurkatu du bere eskuz bere burua ta hurkabe berean anditu ta lerturik bota du bere barren guzia, Jerusalem guziak badakite hau, bai ta geiago ere. Onen toki ustuan sartu behar dit beste batek, bere Salmariz Jangoikoak adirazia dadukan bezala, ta sartu behar du egin duenaren berria duen ta Apostol besteen gisan Jesus beraren biziaren ta biztanzaren testiguntza eman dezakena. Orra emen orrelako bi, Justua deritzan Josef Barsabas ta Matias».

Hau San Pedrok esan ta belaunikaturik eskatu zioten humilki guziak Jangoikoari ager zezala bietatik zein zen Judas galduaren ordezt bere Apostolutako nai zuena ta gero suerte egin ta atera zen S. Matias Apostolua ta S. Matias egin zuen bere bizi guzian Judasek galdu ezpaliz egin beharra ta igan zen gero Judasek galdu zuen zeruko katadera ta glorira, beraren bizitz onari zegokan bezala. Ara igan nai badezu, izan zaitez arako daudenen aintzurakoa ta atoz zer aintzur den aintzur hau orain ekustera.

## § I.

Nornai beldurturik uzteko gauza da Judas gaistoarekin ta San Matiasekin Jangoikoak egiten duena. Badakizu zer? Zerura nai etzuen Judas utzi ta San Matias zerurako artzea. Baña zergatik da hau nornai beldurtu-

rik uzteko gauza? Zeren nori nai ta edozeini gerta dakikeon, aldi onetan Judasi agitua edo zerura ez igan naiez besteri ango bere katader-silla uztea ta besterik aren ordezt ara igatea; ta iganen ere da zu igaten ezpazara, bada zuk zerura igan nai badezu, badu Jangoikoak an zuretzat katader prestatua ta katader, zu ara ez iganagatik jartzalle bage geldituko ez dena. Amabi ziran Apostol jaunaren kataderak, etzuen berera Judasek igan nai izandu ta aren ordeko artu zuen Jangoikoak ara nai zuen San Matias. Eta ango beste kataderetara nai ez dutenen alde ta ordezt artuko ditu ara igan nai duten beste anbeste. Hau guri siñist-erazteko da Erregeren eztei-kontua edo parabola, bai ta Jangoikoak Filadelfiko Obispoari gaztigatu ziona ere.

Errege batek bere semea ezkondu zuen aldian deitu zituen bein ta berriz itzeko bere ezteitara ezkontzaren berria zuten ta artako ziran zaldunak, baña ez aditu egin ta edo aitzaki txarrak billatzen zituztela, gelditu ziran ara bage ziran guziak. Hau ark ekusi ta igorri-bidaldu zituen zenbait mandari erriko karrak eta bide guzietara ta jalez beterazi zituen ezteitako mai guziak. Jesusen ezteiak dira zeruko atsegintz eta gloria ta ara nai ezpadezue zuk eta bestek, billatuko ditu Jangoikoak zuen ardeñak eta beteko ditu ango kataderak, bada Jangoikoa da ango Errege eztei emalle ta Errege, nai duena noiznai dagikena.

Hau bera adirazten du Filadelfiko Obispoari Jangoiko berak gaztigatuak. «Begira», gaztigatu zion Jangoikoak Obispo oni, «begira, ekusi ditut nik zure ibiller, egiteko ta lan guziak eta ekusi dut txikia dela dezun birtute ta grazia: *scio opera tua... modicam biberes virtutem* (Apoc. 3,8), ta ori galtzen badezu, orra zu betiko galdua. Gorde bada ta ongi gorde dezun piska, nai ezpadezu daraman bestek, Jangoikoak zuretzat dadukan zeruko gloria: *tene quod habes, ut nemo accipiat coronam tuam* (v. 11). Hau ari Jangoikoak gaztigatzea zuri ta niri adiraztea da bestek artuko duela guk galtzen badugu Jangoikoak guretzat dadukan zeruko korroa ta katadera.

Alegin anitz egin ezkerro ta ezin-bestezt bezala utzi zion Jesusek galtzen Judasi bere katadera ta Apostoltegia. Bere lan gaisto hau egiteko abian arkitzen zen arrats berean ta Ostegun santuko azken afarian esan zion Jesusek Judasi, baña bera izendatu bage ta Apostol guziekin hitz egiten zuela: «Siñis nazazue, bada egia diot, beti bezala, ta nik diodana da emen nerekin maian zaudeztenetatik batek saldu behar nauela. Illen naz ni munduko guzien onerako ta nere Aitak nai bezala, baña zori gaistoan jaioa ni saldu ta nere etsaien eskuetan uzten nauen gizona».



«Jauna, ote naz ni», galdetzen dio ausardi andiarekin Judasek Jesusi? «Zu zara, bai», erantzuten dio isillik Jesusek Judasi ta alere begitan artu etzuela ari adirazteko ematen dio besteri ez bezala bere platereko salsan busti ta zopa bat. Baña hau guzia etzen aski izandu Jesusek Judasi galarazteko bere asmo galgarri gaistoa.

Andik atera ta joan zen Judas Jesus lotu ta bere etsaien eskuan uzteko behar ziran soldadu ta beste gizonak biltzera ta bildu zituenen buru ta gidari egiñik joan zen Jetsemaniko baratzer, horduko an otoitz egiten hari zen Jesus lotzera. An ere afaltegian zena zen Jesus Judas galgarriarekiko. Atera zitzaion bidera, ontzat artu zion eman zion apa edo muin-musua ta hitz egin zion ongi nai zionari bezala, esaten ziola: «Adiskidea, zer da dakarzun egitekoa»: *amice, ad quid venisti?*

Baña gaitzean gogortua arkitzen zen horduko Judas saltzallea ta Ebanjelariak dion bezala, arkitzen zen deabruz lotua ta nolana ez, baizik barrendik lotua, bada Jesusen eskutik gaizki artu zuen bokadu onaren ondotik sartu zitzaion deabru gaisto amurratua ta artu zion gogoa ta bihotza: *post bucellan introivit in eum Satanas* (Ioan. 13, 27) ta hura zentzarazteko etzen aski izandu len ta gero Jesusek egin ta esan ziona ta galdu zen Judas ta galdu zuen berak nai zuela Apostol baten bere katadera ta zeruko gloria. Eta onen glori ta katader bererako artu zuen Jangoikoak San Matias Apostol berria.

Uzten bagaitu Jangoikoak zu ta ni len Judas bezala, utziko gaitu, gal ez gaitezen, aletin andiak egin ezker ta ez dira noski txikiak oraingotz ere egin dituenak, bada guk gaizkiren bat egin dugun aldi guzietan galdu dugu zerurako eskua ta deretxa, len berea Judasek bezala; ta zer egin ez dit Jangoikoak berez, bere Predikariz, konfesoze, gure adiskidez, liburu onez ta anitz beste bidez esku ta deretx bera berriro guri ar-erazteko edo gu bekaturik bage ta bere graziarekin ekusi naiez? Eta ez dira noski Jangoikoaren oraindano alegiñak izanen gubanako aren azken lan onak, berriz ere gu geren galtze berera ta leneko geren gaistagintzera edo bes-teren bat-eratzan bagara.

Baña zori tristekoak gu, bekatzu ta gaistaginzez betetzen baditugu geren neurri guziak eta garietz egiten badiogu Jangoikoaren pazienziari, bada hordu beretik utziko gaitu geren bide galgarrian ta billatuko dituguetatik zedukan tokia pozik artuko dutenak eta gure orde sekulan ta beti zori onekoak izan behar dutenak, San Matias orain Judasen orde den bezala ta billatuko ditugue len San Matias bezala artako diran beste onak, ta

billatuko Predikari, Konfesoze ta beste gizonak artuz, Apostol ta Jesusen afaltegiko beste guziak len S. Matiasentzat artu zituen bezala edo berak berez ta beren barrenetan adirazten diela egin behar dutena ta bidenabar egin nai on bat ematen diela.

Zer ote da zori on hau nai dutenak onetako egin behar dutena? San Matiasen aldi onetan egiña edo Jangoikoak berez, bere legez edo beste bidez adirazten diguna zuzenki egitea, zori on hau galtzeko beldurrarekin humilki bizitzea, geren lagunekin ta beste mundu guziarekin ongi etortzea ta Jangoikoari, ez gaitzala bere eskutik utzi askotan ta kontuz eskatzea, bada hau da San Matiasen Jesusen afaltegian egin zuena.

## § II.

San Matiasen laster aski ikasi zuen emengo bere zori onaren berria, bada San Pedrok hitz egin ta laster gelditu zen Judas galduaren ordeko Apostol egiña ta beste Apostol amaiken artean sartua ta hau ark ikaste berean, ikasi zuen Jangoikoak artu zuela Judasek bekatzu galdu zuen zeruko katader egoki ederrerako ta bidenabar ikasi zuen gero bere aldiara igateko egin behar zuena zela emen ongi bizitzea ta Apostol on baten lanak berezten zioten bazterrean zuzenki egitea. Egin zuen ark hau beti ta egin zuen artako ziran anitz milagro ta gauz andi egiten zituela ta hau egite berean ezagutzen zuen bere zori onerako bidez ta alde batera edo bestera makurtu bage zebillela.

Zerurako dauden guziei ez die Jangoikoak oni ta Apostol besteei bezala ematen milagro txarmagarri ta gisa bereko beste gauza andiak egiteko eskua, baña ematen die beren gauzak zuzenki egiteko laguntza ta grazia ta Jangoikoaren grazi ta laguntz onekin egiten badute berak dagi-keena ta Jangoiko berak nai duena, badute beren zori onaren bidez dabil-tzalako barrunt-bidea.

Jangoikoak agertzen diola baizik, ez daki batek ere zerurako den edo ez, baña arako daudenak barruntatzen dute arako bidetan arkitzen dirala ta barruntatzen dute, dio San Bernardok, ametsez ta gogo ariñak eman ez, baizik bide onez ta gauzak diran eran ta ongi ekusten dituztela: *data sunt signa quaedam et indicia manifesta salutis, ut indubitabile sit eum esse de nume-*



*ro electorum, in quo ea signa permanserint*, ta señaie orietatik bat da orain guk diogun hau edo beren artzai on Jangoikoaren txistuak deitzen dituen alde-  
ra joatea ta besterenari ez aditu egitea edo Jangoikoak adirazten diena bai ta besterik ez egitea: *oves vocem eius audiunt* (Ioan. 10,3) ...*alienum autem non sequuntur* (v. 5).

Obea izanen da señaie hau besteren hitza aditzean ta Jangoikoak diona ez egiteko bideren bat ekusten dutenean gelditzen badira Ostegun santu arratsez San Pedro ta Judas bezala ez, baizik beste Apostol onen gisan beldurrez ta ikaraz beteak, bada oriek ala gelditu ziran, len esan duguna Jesusi aditu zioten aldian edo Jesusek esan zienean: «Nerekin emen afaltzen dezutenetatik batek salduko nau ni» ta beren tristura beldurtiarekin ezin burutuz asi ziran galdeka ta Jesusi esaten: «Jauna, ta ote naz ni gizaki gaisto hau?»: *et contristati valde, coeperunt singuli dicere: numquid ego sum, Domine*. Matth. 26,22.

Zergatik uste dezu dirala onen beldurti zeruko bidez dabilzan animak? Zeren onak diran ta guztiz maite duten Jangoikoa ta Jangoikoa bekatuz galtzeko beldurrak ikaritzen dituen ta urrutitik ekusten duten bekatu bideak edo itzalak ere beldurtzen dituen. Orregatik bada bekatu-  
ratzeko beldur ta ikar hau da bekatutik urrun ta zeruko bidez bat dabil-  
lako siñu ta señaie ageria.

Era bereko señaiea da bein bekatuena zena damuz ta konfesioz bekatupetik atera ondoan Jangoikoa len galdu duelako damu andiarekin gelditza ta leneko bere bekatuaren latz-tasuna ta miña gogoan erabiltzea ta bere hitzak Jeremias artu ta bihotz negarti batekin esatea: «A, ta gauza zein gazi-gaistoa den Jangoikoa utzirik beste gauzetan gogoa ezartzea edo ezartu izandua: *malum et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum* (Jer. 2,19).

Hau da Apostol guzien buru San Pedrok egiña. Ostegun sant arratsez ollarrak bere kantak egin horduko utzi zuen Apostolu onek bere Maisu Jesus ta utzi ez ezik, anitzek aditzen zutela, egin zuen juramentu ezagutzen ere etzuela. Hau ekusi ta urrikaldu zen San Pedroz Jesus ta onezko begiz begiratu ta begitan eman zion bere bekatu itsusiarekin: *et conversus Dominus, respexit Petrum* (Luc. 22,61) ta San Pedrok bere bekatu-  
aren itsustasunak izaturik eta bere Maisu ona utzi zuelako damuz erdi bi egiñik, iges egin zuen bere bekat-bidetik eta asi zen gaizki egiña negarrez urratzen: *et egressus foras Petrus, flevit amarè* (v. 62), negar berriak egiten

zitzen ollarraren kanta aditzen zuen aldi guzietan ta etzitzen negarrak utzi gurutz batean bere bizia ta odola Jesusi zion amarez utzi arte guzian.

Bere bekatua begitan artu ezker, etzen biurt-itzuli San Pedro leneko bere galbidera ta ibilli zen beti Jesusen ondotik eta Jesusen bidea bein ere uzten etzuela. Hau len bekatuena zenak egitea ta bere bekatuaren urriki-damua askotan berritza, Jangoikoaren amoretik datorren egitekoa da ta zeruko zori onaren barruntantz guztiz egokia ta Jangoikoaren amorea. Eta orra zergatik barruntatzen duen zeruko bere zori ona edo zergatik erdi ekusten duen geroko bere zori on hau, bekatuz Jangoikoa galtzeko beldurrarekin edo noizbait len galdu zuelako damuarekin arkitzen den onak, zeren or bertan ageri den hau egiten duenak maite duela bere Jangoikoa ta prest arkitzen dela Jangoiko berak nai duena noiznai egiteko ta zeren zerurako dagona baizik ez den orretako prest arkitzen.

Nai badezu, bada, zerurako zaudelako ezaguntz edo barruntantz atsegingarri hau, bizi behar dezu Jangoikoa noizbait aserretu zenuelako damuarekin, Jangoiko bera berriz bekatuz aserretzeko beldur andiarekin ta zere gauza guziak Jangoiko beraren izenean ta berak nai bezala egiteko asmoan ta asmoak dion eran gauzak egiten dituzula. Hau da San Matias-  
ek eta San Pedrok egiña ta hau bera da zerura igan nai duten guziak egin behar dutena. Egizu, bada, zuk ere arako nai osoarekin arkitzen bazara ta egiten badezu, izanen dezu betiko zori onerako zaudelako siñu, señaie edo barruntantz andia. Jangoikoak dizula hau ta hura San Matiasen gisan irabazteko grazia. Bai arren, bai.



## VI

## San Josef-eren eguneko irakur-aldia

Jossep fili David, noli timere accipere Mariam, conjugem tuam...  
pariet Filium et vocabis nomen eius Jesum. Matth. 1,20.

*Gaia: Beraren egiteko andiari zegokana zen  
S. Josefren birtutea ta aren birtuteari dagokana da duen gloria.*

Jangoikoak artzen ditu gizon zenbait baterako ta besteak besterako ta bakoitzari ematen dio bere egiteko andi edo txikirako behar duen eskua, jakintza ta indartza. Beseleel zeritzan gizon bat artu zuen Jangoikoak bere tabernakulo edo eliz txiki eder bat egiteko. Eliz edo tabernakulo onen traza agertu zion Jangoikoak Moisesi Ejiptotik beren bazterralderako bidean ta bide eremukoan, ta agertu zion bideko eremu berean egiteko.

Bazituen berekin Moisesek milletan mill gizon ta geiago, baña artzantza ta adobeketa baizik etzekiten gizonak, eta gizon urretan, zillarrean ta era bereko beste gauzetan golpe bat ematen etzekitenak. Etzuen Jangoikoak nai bestetatik Moisesek egillerik eramatea la nola egiñen zuelako kezkatik hura ateratzeko esan zion lendabizitik Moisesi: «Orra Hux judatarraren seme Beseleel, zure egitekorako nik billatua. Erakutsi diot maisurik bage urrez, zillarrez, bronzeez, arriz, mirez ta perlaz egin diteken guzia nola egin. Dantar Akisamek-en seme Ooliab egin dut orren lagun. Badakite biak nik erakutsirik agertu dizudan eliz txiki tabernakuloko gauzak egiten»: *ut faciunt aucta quae praecepi tibi* (Exod. 31, a v. 1).

Artu zuen Jangoikoak Salomon errege Jerusalemgo bere eliz ederra ta beste anitz gauz andi egiteko ta eman zion guzirako behar zen jakintza, gaia ta dirua ta zuen diru-sari andiarekin bilduak arkitu zituen ta billerazi zituen gai egokiekin ta bere jakiuntz zerukoarekin egin zituen Jangoikoaren eliza ta elizari zegozkan gauza guziak, bai ta jauregi, zalditegi ta beste bere gauzak ere eta guziak egin zituen behar zen gisan ta ezin ederkiago.

Artu zuen Jangoikoak Jakob en seme Josef gaztea Ejiptarren ta Ejipt bazterretako goseti andi bat garaitzeko ta agertu zion nola garaitu ta eman ere zion garaitzeko behar zen eskua ta laguntza. Oriekin egiña egin du Jangoikoak era bereko beste guziekin ta guzien artean guztiz ederki egungo santu andi San Josefekin.

Artu zuen Jangoikoak San Josef munduaren ustez Jesusen aitatako ta egin zuen Jesusen Amaren senar edo esoso ta eman don Jesusekiko beraren aitari zegokan esku ta beste guzia, bai ta izan zezaken aitanza ere, bada San Josefek izan zezaken Jesusen aitanz guzia zen Jesusen Amaren birjinzari zegokana ta izandu zuen Jesusen aitatasun-aitanz hau San Josefek, bada hau izateko San Josefek egin behar zuena zen bere birjinz garbiarekin Jesusen Amarenari itzal egitea, Espiritu Santuaren birtutez geldi zedin, gelditu zen bezala, Jesusen Ama egiña ta itzal hau egin zion San Josefek Jesusen Amari guztiz garbiro ta ederki; ta zenbat garbiroago egin zuen hau San Josefek, anbat obeki egin zen Jesusen aita San Josef, dio San Agustiñek: *tanto firmius Pater (Christi Domini) quanto castius* (Serm. 51 de conc. Mat. et Luc. c. 20, n. 10).

Eta Jesusen aitari bezala gaztigatu zion aingeruz Ait-eternoak zai zezala bere bizikide andre Mari Birjina ta erditzen zenean ezar zezala Semeari Jesusen izena, zeren zetorren munduaren Salbatzalle izatera, len berak Eskrituraz adirazia zedukan bezala. Egin zuen San Josefek Jesusen aitari zegokan gisan hau ta beste guzia ta egin zuen Jangoikoak artako eman zion esku ta birtute andiarekin. Zein andia izandu zen bata ta bestea da orain guk ekusi beharra.

## § I.

Jangoikoak ematen duen egitekoaren erakoak dira egitekorako ematen dituen esku ta birtuteak eta orregatik ziran guztiz andiak San Josefek izandu zituenak, bada guztiz andia zen Jangoikoak San Josefri eman zion egitekoa; egiteko hau alabaña zen, ekusi dugun bezala, Jesusen aitarena; ta Jesusen aitaren egitekoa San Josefek izandu zuen bezala ere egiteko guztiz andia zen, Jesus beraren Amak bein adirazi zuen bezala. Nola uste dezuz? Adi zazu.



Beste aldi batez ekusi genuen, gelditu zela Jesus Jerusalemen bere lenbiziko igan-aldian; gelditu zela San Josefren ta Jesusen Amaren uste-kabea ta bien naigabe andiarekin. Berekin etzutela Jesus ekusi ta itzuli ziran biak Jerusalem. Ango elizan ta elizako Doktoeen erdian arkitu zuten eta aren aldera ta esan zion Amak Jesusi: «Zure aita ta ni naigabez ta kezka beteak ibilli gara zure billan», ta San Josef zen Ama Birjinarekin batean Jesusen bilan ibilli zen Jesusen aita; ta orra, Jesusen Amak eman zion San Josefri Jesusen aitaren izen han, adirazi naiez andia zela Jesusetik San Josefek zuen egitekoa, bai ta bere egiteko andi onegatik guziok San Josefri zor diogun oharren kontuzko, begitart humill ta errespetua ere.

Oharmen, begitart eta errespetu zein andiak zor zaizkan agertuko du Jesusen aitaren izen berak ere, bada izen hau San Josefri baizik ezin eman dakikeon izena da, zeren San Josef izandu den ta besterik ez, Jesusen Amaren senar ta esposo, ta Jesusen Amaren senar edo espos izanduak baizik ezin duken izen andi hau, ez eta aingeru guzien artean andien andienak ere ta beraren izen andi oni darraikona da S. Josefri dagokan begitart ta errespet guzia, ta begitart eta errespet aingeru berei ere ez dagotena, San Pablaren hizkuntz batek adirazten duenaz.

Jesusek du, bai ta Ait-Eternoak ere, aingeruak ezin dukeen izen andi bat. Jangoikoaren Semearen izena da Jesusen izen hau ta Seme onen Aitaren izena betiko Aitarena, ta ez bata ta ez bestea dagozte aingeru andien ere, dio San Pablok, bada ez dio aingeru guzietatik bati ere Jangoikoak esan sekulan Jesusi bezala «Nigandik zara zu ta nere Semea», ez eta «Nik izan behar dut zure Aita eta zuk nere Semea» ere: *cui enim dixit aliquando Angelorum: Filius meus es tu... et rursim, ego ero illi in Patrem et ipse erit mihi in Filium*, ta Jangoikoaren Semeari dagokan bere izenagatik dagoka, Ait-Eternoari bereagatik bezala, zeruko aingeruei ere ez dagoten begitart eta errespetua: *tanto melior Angelis effectus, quanto differentiùs prae illis Nomen hereditavit* (Hebr. 1,4).

Orra bada Ait-Eternoari hemla ezpadere, badagoka San Josefri ere Jesus beraren Aitaren izena ta egitekoa ta orregatik dagoka ta izandu du San Josefek aingeru andienaren egitekoa baño egiteko andiagoga ta zeren bere egiteko ta izen andiari dagokana den zor zaion begitart eta errespetua, aingeru andietatik bati ere zor zaiona baño andiagoga ta agitz andia da San Josefri zor zaiona. Bai? Bada berak Jesusen alde egin zuenagatik hau agitz andiagoga da, zeren izen edo egiteko bati berez dagokana baño agitz

andiagoga den egiteko berean nekez ta izerdiz betea dabillenari dagokan begitart, honr eta errespetua ta onelakoa izandu zen San Josefren Aitanzaren egiteko neke-lan-izerdia.

Nekeduna, bai, ta izerdiz betea izandu zen San Josefren Aitanzaren egiteko andia. Jangoikoak gizon egin zenetik eta jaio baño lenago ere bazuen San Josefek Jesusen Ait-izen ta egitekoa, bada hordu ezkerro ta lenagotik ere bere birjinzez itzal egiten zion Jesusen Amaren birjinzari eta Espiritu Santuaren milagrozkola lan andi oni. Lan hau eginik ekusi zuen San Josefek Jangoiko gizona jaio baño len, baño nola zen ekusi bage, bada ekusi zuen Jesusen Ama ta bere esposa aurdun egiña, baño nola zen hau etzekiela ta ez jakite onek agitz kezkatu zuen zenbait denboraz. Kezka onetarik atera zuen aingeruz Jangoiko maitagarriak, baño nekezko lan anitz berari eragiteko. Lenbizikoa izandu zen Nazaret bere erritik Belen erri-ñoakoa ta an bertakoa. Jangoikoak ala nai izanik eta Erromako nagusiaren manuz joan zen San Josef Jesusen Ama bere Esposa Mari erdi behar-arekin bere erritik Belena. Ara ta laster erdi zen Jesusen Ama ta erdi zen toki oberik ezin izanez itxol txar erdi urratu ta ganadutegi galdu batean ta erdi zen negu erdiko gau gogor agitz otzean.

Gau artako ta urrengo egunetako lanak an egin ta eraman zuen S. Josefek Jesus bere Amarekin bere itxera, baño ez luzaro an egoteko. Ara ta laster Ama-Seme berekin igorri ta bidaldu zuen Jangoikoak mendiz mendi ta eremu eremu urrutiko Ejiptora. Biekian an egondu zen S. Josef Herodes ill arte guzian ta egondu zen bere neke izerdiarekin irabazten zuela irurak bizitzeko behar zutena.

Zenbait urteren buruan andik itzuli zen, arakoan eraman zuen bide berez Nazaretko bere itxera, an ere bere neke-izerdi berekin iruren bizia ateratzera ta atera ere zuen bera ill arte guzian ta ill zen Jesus ill baño zenbait urtez lenago ta in zen Jesus ill baño len, bere azken denboran izan etzezan Jesusen neke tormentu gogorak, ekusi balitu, eman behar zioten kezka ta naigabe andia; baño lenagoko bere urteetan Jesusen alde orra zenbat egin zuen beraren Aita San Josefek eta orra zor zaiona Aitaren bere izenagatik ez ezik, izenak eskatzen zuen bidez egin zuen langiro nekagarri guziagatik ere.



## § II.

Baña oraindano esan dugunak baño obeki adirazten du zein andia den San Josefri Jesusen bere Aitanzaren alde zor zaion begitartea, errespetua eta honra Jesusek berari egin zionak. Jangoiko gizona da Jesus ta alere bere Ama Andre Birjinari ta Aitatako zedukan onen Espos San Josefri egiten zien bien seme-gizon utsa izandu baliz egiñen zien honra ta begitartea ta beti egondu zen biak nai zutena ta bakoitzak adirazten ziona egiteko prest: *et erat subditus illis* (Luc. 2,51).

Norañokoa den Jesusen begitart, errespetu eta honr hau ekusteko ekusi behar dugu Jesusen beste gauza bat ekustean beraren Apostolu onak bein esana. Jesus berarekin zebiltzan batez izandu zuten Apostolu onak itsas olastaldi edo urelde izugarri bat. Itsas ureldeak etzion Jesusi kendu bere loa, baña bertan itozteko beldurrez iratzarri zuten Apostolu guziak Jesus ojuka esaten ziotela: «Jauna, galduak gara, laguntzen ezpadiguzu»: *Domine, salva nos perimus*, ta «A, uste laburreko beldurtiak» Apostol berei esan ta jaiki zen Jesus ta agin-manatu zien aize nastu ta itsas aserretuari zeudela geldirik eta bat-batean gelditu ziran bata ta bestea. Jesusek egin hau ekusi ta arritu ziran guziak eta bata besteari begiratu ta asi ziran esaten: «Nor da aizeak eta itsasoa bere eskupean dituen hau»: *qualis est hic quia mare et venti obediunt ei?* (Matth. 8 a v. 1).

Ar dezagun orain Apostol onen bide bera nolerebait ekusteko norañokoa den San Josefri dagokan begitart-honra ta ekusten dugun aldian Jangoiko gizon Jesus S. Josefek eskupeko egiña ta hitzik atera bage humilki egiten San Josefek esaten ta adirazten diona, esan dezagun Apostol beren eran: «Jesus!, ta nolako gizona San Josef, bada berak nai duenerako bere eskupean daduka aizeak eta itsasoa berean dituen Jangoiko gizon Jesus maitagarria».

Hau guk ekusi ta esanagatik ez dugu ekusiko norañokoa den S. Josefri Jesusen bere aitanzaren alde zor zaion honra ta begitartea, baña nai ta ez ekusiko dugu agitz andia dela. Hau bera ekus dezakezu beste bidez ere. Beste bide hau da San Josefek Belendik itxera, itxetik Ejiptora ta Ejiptotik berriz bere itxera egin zuena. Ara bide onezko ekus-bidea.

Ejiptotik Jerusalem aldera eremu bidez eraman zuten len israeldar apaizak Testamentuko arka ta ark edo kutx hau zedukan Tabernakulo-eliz txikia. Israeldarren amabi tribuak beste anbeste ejerzitu egiñik erdian era-

man zuten ark edo kutx hau. Hau zedukan Tabernakulora edo eliz txikira apaizak baizik etzuten zer urbildu ta oriek ere ongi konsagratu, eliz soñekoz ederki jauntzirik eta Jangoikoak adirazia zedukan gisan prestatu ta; ta urbiltzen baziran bertan illak gelditzeko perillean urbilduko ziran. Oza beintzat urbil-aldi ez-prestatu batean ala gelditu zen ill otza. Eta apaiz berak ere behar zen eran jauntzirik egonagatik batetik bestera ezin zeramakeen Testamentuko ark eta Tabernakulo hau artako ziran larruz estali bage, ta zeren begiratu zioten estalkirik bage arkitzen zen batez, illak geldi ziran berrogei ta amar milla Betsamit eta geiago. Eta gero Jerusalem eliza egin ta bere toki gordean sartu zutenean etzuen ekusten apaiz nagusiak baizik eta onek ere urtean bein baizik ez.

Zer zela uste dezu orren estalia egon behar zuten ta orrenbat konsagrantz, apaintz, begitart ta errespetu eskatzen zituen testamentuko ark hau? Mana zeritzan zeruko intz piska gorderik zedukan kutx txiki bat eta Jainkotanz guzia berekin dadukan Jesusen gorputzaren aintzur-itzala. Bada Jesusen gorputzaren aintzur ta itzal kutx onek bere eramaletan onenbat begirune ta prestantz eskatzen bazuen, birtutezko ta Espiritu Santuaren doaiezko zenbat edergarri naiko zituen Jesusek batetik bestera bere besoan eramanen zuten San Josefren animan, berekin bat egiña zedukan alabaña Jesusek eta berekin zeraman beti Jangoikotanz guzia: *in quo habitat plenitudo divinitatis corporaliter?* (Colos. 2,19). Israeldarren apaiz nagusiaren soñeko ederrak adirazten dituzten guziak. Apaiz onek jaunzten zituen beste apaingarri anitzen artean Olandan ta Bengalan parerik ez duen eunezko *ephod* edo orain sedaz, urrez ta zillarrez egiten diran telak eta oial ederrak baño ederragozko kapa bat eta kapa amabi diamante ta beste arri eder Israelgo beste anbat triburen izen gañetik eta zillarrezko txintxer anitz inguruan zituena ta *sanctum Domino* zion urrezko plantxa, bere kopetan edo bekokian ezartzen zuena.

Israeldarrentzat egiña zen Testamentuko kutxa ta Israeldar beren janaria zen kutxako mana. Israeldarren alde zen apaiz nagusiak Jangoikoren kutx eta man onen aitzin aldean zuena ta hau adirazteko ziran beraren kapako arriak eta izenak, eta ark hau egite berean adirazten zien Israeldar berei beraren zillarrezko txintxer guziak berak ere zegitela otoiitz beren alde, ta bere egiteko andian ongi ar zezan Jangoikoak, apaiza sartzen zen argana, artako egiña zen gizon egokia zela zion urrezko plantxa buruan zuela.



Jesus, dakizun bezala, da aldareko sakramentuan aingeru beren ogia ta mundu guziaren janari ta nonnai da Jangoiko gizon guzien Salbatzalle, ta artako artuak bezala bere besoan ta besoko nekearekin azitzen du San Josefek Jesus mundu guziarentzat, guziak izan dezaten, dio San Bernardinok, sekulako bizia dakarren zeruko ogia: *omnibus electis panem de coelo, qui coelestem vitam tribuit, cum multa solertia enutrivit* (Ser. 1 de S. Joseph).

Ongi ta Jesusekin hau San Josefek egin bazuen Jesusen aitak bezala ta egin bazuen Jesusen ta Jesus beraren Amaren poz eta atsegintz andiarekin ta egin bazuen urte batez edo bestez ta urtean bein ez, baizik ogei ta amar urtez beintzat eta urte orietako egun ta egunetako hordu guzietan, zeruko birtutez -La Espiritu Santuaren doaiez zein ederki jauntzia ibilliko zen bere animan? Eman ziozkan Jangoiko gizon emalle andi eskerdun onak daki. Guk dakiguna da bere aitaren egiteko Jesusek San Josefri emana ezin andi nekagarriagoetatik bat dela ta egiteko oni ta onetan Santu berak egin zuenari zegozkanak zirala oriek, San Bernardino berak dion bezala (Ibid.).

Eta bidenabar dakiguna da beraren egiteko andi ta birtute berei dagotena dela zor diogun begitarte, errespetu ta honra, bai ta Jangoikoak zeruan eman dion gloria ere. Jangoiko berak digula beraren Santu maite andi onen debozi andi bat eta onen izenean emen ongi bizitzeko ta zeruan gero hau guk ekusteko grazia ta laguntza. Bai arren, bai.

## VII

### Jangoikoaren Gizontz eguneko irakur-aldia

Dixit autem Maria: ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum. Luc. 2,38.

*Gaia: Jangoikoaren Gizontza Jangoiko beraren ta Jesusen Amaren hondragarria da.*

Zeru lurak egin ta bereala egin zituen Jangoikoak bere aintzurako bi gauza: aingerua bata ta bestea gizona, baña bertatik ez toki baterako biak, bada zerurako egin zuen aingerua ta lurreko paradisurako gizona, ta al-ere biak egin zituen langai ta egiteko baterako; egin zituen alabaña bere serbitzurako ta berak nai zuena biei eragiteko. Bakarra zen Jangoikoak egin zuen gizona ta lagunduna aingerua ta anitz eta asko lagun zituena, bada milletan millaka dira egun ere Jangoikoak bere zeruan dituen aingeru onak eta orain an dituenak baño geiago ta geiago ziran golpe batez egin zituen aingeru guziak.

Aingeru eginetatik anitzek egin ta bereala ukatu zioten Jangoikoari zor zioten serbitzua ta, Jangoikoaren naia baztertzen zutela, asi ziran egin beren gogo gaistoak nai zuena. Hau bera egin zuen gizonak paradisuari, baña ez aingeruak berena egin zutenagatik; bada beren lan gaistoa egin zuten zeruko aingeru galduak arrotan ez ta gizonak egin zuen paradisuari, Jangoikoak eman zion bizikideari atsegin egin naiez. Bai, aingeru galduak egin zuten arrotuz beren gaizki-bekatuak, bada Jangoikoaren eskutik atera ziran guztiz ongi egiñak eta graziz ta birtutez agitz ederki apainduak eta Luzbelek eta galdu ziran beste aingeru gaistoak beren buruak ala ekusi ta, etzuten egin egin behar zutena ta beren gogo arroan artu zuten Jangoikoaren pareraño igateko asmoa: *ascendam super altitudinem nubium, similis ero Altissimo* (Isai. 19,14) ta gizonak berea bere bizikide emazteari atsegin egin naizik, bada debekatu zion Jangoikoak Adani paradisuari arbol batetik jatea. Deabruak tentatu ta jan zuen andik Ebak eta Ebari atsegin egiteagatik Adanek eta Adanek artan egin zuen bekatu izugarria.





Aingeru arrotuak arrotu horduko ondatu zituen Jangoikoak suleze-infernu bizian, baña gizon bekataria ez, izatez ta edertasunez gizona aingeruak diñakoa ez izan arren. Zergatik uste dezu? Zeren aingeru gaistoak gaistatu ziran berak berez ta tentalerik bage ta gizona gizonaren andrea deabruak tentatuz ta bere andrez gizon bera tentatzen zuela, ta tentatzen zuela Jangoikoari atsekabe hau egin naiez. Bestela ere aingeru zerukoak etzuten ondorengorik beren buruak baizik galduak uzteko, baña bai gizon Adanek eta anitz al-ere; bada bazituen geroztik izandu diran ta etortzeko dauden guziak eta bere bekatuz beren obenik bage, guziak utzi zituen Adanek betiko galduak. Urrikaldu zen bada jangoiko maitagarria artaz ta oriez, aingeru gaistoez urrikaldu ezpazen ere ta agertu zien senda-bide, aingeru gaistoentzat agertu etzuen. Zer bide uste dezu? Gizon bekatari gaisoen zorrak ateratzeko ta gizon berak Jangoikoarekin bat egiñak eta bake osoan sartuak uzteko aski zen bat.

Baña zer bide da zori oneko bide hau? Guk eginik gaurko ebanjeli santuan ekusten duguna, Jangoikoaren Seme-Jangoikoa andre baten seme ta Jangoiko-gizon egiñik gelditzea, Jangoiko-gizon onek gizonen zorrak bere gain artzea, orien aldera gure onerako Jangoiko-gizon berak milla neke ta tormenturen buruan bere bizia ta odola gurutz batean uztea, bizitu ta gero zerura igatea, arako bidea bera ara baño len guri erakustea ta bidean ibiltzeko indarra, laguntza ta grazia bere sakramentuz ta beste anitz aldetara guri ematea.

Hau guzia gero egiteko ta bere gizontzarako artu zuen Jangoikoak San Joakin ta Sant-Anaren alaba bakar Andre Mari Birjiña. Igorri zion Jangoikoak oni bere baimenaren eske aingeru andi San Gabriel, adirazi zion onek Andre Mari Birjiñari aren baitan egiñen zela Jangoikoa gizon gizon-lanik bage ta Espiritu Santuak beraren odolez, hura ohartu bage, egiten zuela gorputz bat eta gairik bage anima berria, ta gorputz-anima berak elkarrekin ta batbatean biak Jangoikoarekin bat egiñak eta Jangoikoa gizon egiñik uzten zuela. Hau guzia ongi aditu ta «Ona ni» esan zuen Andre Mari Birjinak, «Jangoikoaren serbitzari ta egin beza nigan ta nere baitan berak nai duen ta zuk diozun guzia». Eta ark hau esan horduko egin zen hau guzia ta Espiritu Santuaren birtutez ta milagroez gelditu zen an Jangoikoa gizon egiña, ta egiña Jangoiko beraren ta beraren Amaren honra andiarekin, gaur guk ekusiko dugun bezala.

## § I.

Bai, Jangoiko beraren honr-andirako da egungo Jangoikoaren gizontza ta egin den gisan Jangoikoa egun Ama Birjinaren baitan gizon egiñik gelditzea. Batek beste bat artzeko badu, nai ezpadu ez dio barkatzen bere artzekoa, ez eta aren zatirik txikiena ere, baña bere eskuan du nai duen guzian hura barkatzea edo zatiren bat baizik artzen ez duela edo bat ere artu bage, zeren bakoitzak dagikeen bere gauzaz nai duena. Zor andiekin gelditu zen Adan paradisuan bekatu egin zuenetik eta andiangoan gerozko gerenak gatik, eta bazezakean ere, etzion Jangoikoak bere artzekoaren zatirik barkatu, baña gutzaz urrikaldu ta billatu zigun geren zorren aterbidea, ta billatu, bere neka-bide agitz andiarekin, bada billatu zigun bera gizon egin ta milla nekerekin ta eriotz gogor batekin geren zorren saria irabaziz ta artu nai genuen guzirako bere elizan uzten zigula.

Jangoikoak bere artzeko andien alde artu duen bide hau Jangoiko berarentzat ekusten dezun bezain nekagarria da, bai ta Jangoiko beraren hondragarria ere, bada guztiz ongi agertzen dit Jangoikoaren bere izanz andi ezin ohea, bai ta besterik ere, bada agertzen ditu Jangoiko beraren zazpi gauza agitz ederrak eta agertzen agitz ederki. Badakizu zer gauz diran Jangoikoaren zazpi gauz oriek? Oriek dira Jangoiko beraren Jakintza, Jangoikoaren ahala ta eskua, Jangoikoaren ontasuna, Jangoikoaren ongi naia, Jangoikoaren urrikaltza, Jangoikoaren ibiller zuzena ta justizia ta Jangoiko beraren santutasun-santanza. Eta agertzen dizkigu ara nola.

Bere gizontz onetan agertzen digu Jangoikoak, eta guztiz ederki, bere Jakintza, bada Jangoikoa gizon egitea da asierarik etzuen ta betiko Jangoikoa izaten noizbait astea ta abiatzea; ezin neka zitekeana nekakor eginik gelditzea ta bere artzekorik galdu bage Jangoikoak guri geren zorrak barkatzea; bada gizon egin zen hordutik egin zen nekakor ta asi zen izaten ta nekatzen betiko izanza duen ta berez ezin neka diteken Jangoikoa ta geroz bere nekez ta tormentuz irabazi zuenarekin barkatzen dizkigu geren zorrak, berak bere artzekotik batere galdu bage. Ekusten dezu zer jakintza bere lan onetan Jangoikoak agertzen diguna?

Ez du oraindik Jangoikoak egin, ez eta eginen ere, Jangoikoaren gizontzak diña ahal ta esku eskatzen duen gauzarik; ezin egin diteke alabaña Jangoiko-gizona baño gauz andiagorik eta orra Jangoikoak hau egi-tea da ezin geiagorañoko bere ahala ta eskua erakustea.



Batek besteri on bat egitea ark oni bere ontasuna erakustea da, ta egin diteken onik andiena Jangoikoak munduari egitea zer izanen da? Jangoiko berak bere ontasun bazter bagekoa mundu berari agertzea ta erakustea, ta hau da Jangoikoak bere gizontzan egiten duena, bada bere gizontzako egun onetan Jangoikoak ematen dio munduari Jainko-gizona ta eman dezoken ta izan diteken gauzarik andiena.

Zor ez dionari batek on bat egitea ari onek ongi nai diola adiraztea da ta onen etsaia den aldian ark oni hau egitea ongi nai andia diola adiraztea ta zenbat ere andiagoa den egiten dion ona, anbat andiagoa dela dion onginaia adiraztea. Hau onela den ezker, den bezala, ezin andiagoa da Jangoikoak gaur bere gizontzan agertzen digun onginaia, bada guk Adanen bekatu ondotik egin ditugunak gatik agitz aserretua genedukan geren Jangoikoa; Jangoikoak etzizun guri pits bat ere zor, ez ginduen deusetarako ere behar ta al-ere bere gizontzan egin zigun egin diteken onik andiena ta eman zigun eman zezaken geiena, bada eman zigun Jangoiko-gizon guzia ta eman zigun ark guri hau, hau guk ongi artzen dugula, bekatu guzien nekepe izugarritik geren buruak ateratzeko ta zeruko zori ona irabazteko. «Bai», dio San Joanek, «orra zein maite zuen Jangoikoak mundua, bada eman dio bere Seme-bakar Jainko-gizona, nai dutenak bera ta beraren bidea artu ta igan ditezen sekulako bizi zori onekora»: *sic enim Deus dilexit mundum, ut Filium suum unigenitum daret, ut omnis qui credit in eum non pereat, sed habeat vitam aeternam* (Joan. 3,16).

Bere ongi nai andi onekin batean agertzen dit Jangoikoak gaur bazter bageko bere urrikaltza ere, bada guri ongi naiez ta gure urrikariz da beraren gaurko gizontza; gizontz hau alabaña da neketan gu ez ekusi naiez gure gisako egiñik Jangoiko bera guri laguntzera zerutik etortzea ta bere neke andiarekin gure zorrak ateratzeko irabanz andiak egitea. Orra bada zer urrikaltza Jangoikoak gaur bere gizontzan agertzen diguna!

Gure zorrari bezala begiratu dio Jangoikoak gaur bere artzekoari ere ta gure zorrak ateratzeko artu duen bide bera da bere artzekoen alde artu duena. Ezin andiagoa zen gure bekatu gaistoen zorra ta Jangoikoaren artzekoa ta eskatzen zuen sari ezin andiago bat eta bakar bakarrik Jainko-gizona da sari hau irabazteko dina indar ta esku duena eta Jangoiko Semeak artu dit gaur bere gizontza gure zorrak ateratzeko ez ezik, Jangoikoari zor geniona irabazirik guri emateko ere; orregatik Jangoikoaren gaurko gizontza Jangoiko beraren zuzentza ta justizia ere ederki agertzen

duen bidea da, ta bide gure onari bezala Jangoikoaren deretx-honrari zuzenki begiratzen diona.

Era berean begiratzen dio ta agertzen dit Jangoikoaren egungo gizontzak Jangoiko beraren Santanz edo Santutasun, birtute bazter bagekoa, bada egin da gaur Jangoikoa gizon bere hitzez, nekez, ibilliz, egiñez ta beste alde guzietara guri erakusteko; ta erakusteko bera aitzin dabillega errazkiago guri eragiteagatik onak izateko ta zerua irabazteko egin behar duguna; bada bururik badegu, askiko da Jangoikoa izanik den diñakoa, gizon egiña ta bere oñak Judasi garbitzen ekustea, besteekin guri behar den aldian edozein gauz eragiteko; askiko da Jangoiko-gizon Jesus nekez beterik ekustea, geren legeko neke laburra guri ar-erazteko; bai ta Jesus gurutzean iltzez josirik ill-erazten dadukatenen alde otoitz egiten ekustea, geren etsaien txarkeri ta gaistagin guziak guri barkarazteko; ta Jangoiko-gizon Jesus Ait-eternoak nai duen guzirako beti prest ekustea, guri geren buruak Jangoiko berak nai duen guzirako prestatzeko ta birtuteko edozein gauza guri eragiteko ere.

Orra berez ta gurekiko nor ta nolakoa den Jangoikoa guri agertzeko zein egokia Jangoikoaren egungo gizontza edo egin den gisan egun Jangoikoa gizon egiñik gelditzea ta orra bidenabar Jangoikoaren zein hondragaria egungo gizontza hau bera, bai ta Jesusen Amaren ere, orain eku-siko dugun bezala.

## § II.

Lenbiziko gizon Adanek etzuen amarik izandu ta nai izan balu baze-giken Jangoikoak amarik bage bere gizontza ere, bada ar zezaken Adani eman ziona bezalako lur garbizko gorputza, baña artu zuen odolezkoa, artu zuen gizontz Ama Birjinagandik jaioa ta artu zuen gizontz amaduna. Zergatik uste dezu? Iru gauzetarako: Eba-andrez galdu ginduen deabru gaistoa bere Am-andrez galtzeko; bere gizontzaz bere Ama honratzeko ta bere Amari egin ziozkan serbitzu onekin hume guziei adirazteko beren amekin ta orien ordeko beste guziekin oriek egin beharra ta beste guziei erakusteko elkarrekiko humiltanz eta bizitz bakezkoa. Iru gauz orietarako, bada, artu zuen Jangoikoak amagandik bere gizontza.



Baña artu zuen bere gizonza gizon egitekorik bage ta Espiritu Santuaren birtutez ta milagroz, eta gizonz, besterik ez bezalako Ama-gandik zetorrena, bada beste ama guziak ez-Birjiñak dira ta gutiengan Adanen bekatuz kutsatuak; eta Jesusen Ama Jesusez erdi ta ere, birjin da ta birjin munduko guzien artean eguzkia zeruko izar artean bezala (*electa ut sol*) parerik bagekoa ta Jangoikoak egin horduko, eguzkia argiz bezala, graziz ta edertasunez betea ta ez len ta ez gero bekatoren illunbetan sartua, bada hau da munduko guzien artean bere Amatako Jangoikoak artua ta zezenak bezala Jangoiko berak grazitan egiña ta grazitan gordea, izar guzien artean eguzkia argidun egin ta argidun dadukan bezala.

Bai, Andre Mari Birjina Jangoikoak egin baño lenagotik eta eternidade guzian ere artua zedukan bere Amatako ta egin zueneko eman zion, San Epifaniok dion bezala, señaletzat eta esposotako Espiritu Santua ta dotetan grazia, zerua ta mundu guzia: *Maria honorum ante-nuptialium nomine Spiritum Sanctum accepit, in dote verd gratiam, coelum et terram*, ta eman ziozkan bertatik Espiritu Santu, grazi, zeru ta mundu guzia bere Seme Jangoikogizon Jesusek irabazten ziozkaneko edo beraren baitan gizon egiten zeneko; bada gizon egin zen puntu berean irabazi zuen Jesusek, San Bernardinok dionaz, gauza guzien jauntza: *Filius eius in primo instanti suae Conceptionis Monarchiam totius mundi promeruit* (Ser. 70) ta puntu berean eman zion Jesusek bere Amari jauntz hau, dio San Joan Damaskotarrak: *verè jacta es domina omnium rerum, cum Conditoris effecta es Mater* (Apud Auriem. p. 1 de Annunc.).

Andia da, bai, bere Amari Jesusek gaur eman dion gauza guzien jauntz eta jabenz hau, baño gauz agitz andiagoa da gaur berean eman dion bere Amantza eta Amatasuna, bada ostodun adarra arbolatik bezala, beraren Amantzatik datorren gauza da Jauntz-Jabenz hau, dio San Bernardinok (T. 1, § 61, c. 3). Eta orregatik zor zaio Jangoikoan dagokana diñakoa ez, baño santu guziei ematen zaien honra baño *hyperdulia* deritzan honramodu andiago bat, bai.

Bestela ere Andre Mari Birjina Jesusen Ama egite berean beretu zuen Jangoikoak bere Amaren aragi edo odol-zati bat eta etzuen Jangoikoak utzi aldi artan artu zuen gauzarik eta berekin du egun ere aldareko Sakramentuan ta zeruko bere tronuan ta an bertan idukiko du beti bere Amaren odol edo aragi bera; ta orra zein hondragaia ortik ere Jesusen Amari datorkiona.

Jesusen Amaren Amantz onez arriturik esaten du San Buenaventura: «Jangoikoak badagizke oraingo mundua ta zerua baño zeru ta lur andiagok, baño bere Ama baño am andiagorik ez, zeren ezin dagiken seme andiagoren amatik»: *majorem mundum potest facere Deus et majus coelum; majorer Matrem Dei facere non potest, nempè quae majoris Filii mater sit* (In Spec. v. c. 8).

Jesusen Amaren Amantz beretik datorren gauza da Espiritu Santuak bere Esposan bezala dotetan lendabizitik eta beraren egite berean eman zion grazia ta birtutea; ta, Kretako Andres gizon andiak dionaz, badu Jesusen Amak santu guzien birtute ta grazi guzia garaitzen duen grazi ta birtutea, bai ta birtuteen ondasundi guzia ere: *O Sancta! sanctis sanctorum! d omnis sanctitatis sanctissime thesaur!* (De dormit. V.). Hau guzia ekuste berean ekusten dezu gauza zein hondragarria den Jesusen Amarentzat Jesusen Amanza. Ekusten dezun bezala ezin hondragarriagoa.

Hau zekitenak bezala bere Jesusen Amantz onegatik agitz honratzen zuten len santu guziak, eta honratzen dute gaur berak eta munduko beste onak, Jesusen Ama. Egun hau zetorreneko ta Jesusen Amaren Amantz hau obeki honratu naiez prestatzen ziran zenbait baruz, penitentziz ta beste gauz anitz on egiñez. Lenagoko gau guzian mundua utzi ta Jesusen Konpañia egiteko bidez zebillen aldi egondu zen Aita S. Ignazio otoitz ta otoitz Jesusen Amaren Manresako aldar-aitziñean. Era bereko aldar aitzziñean bera bederatz urtekoa zela egin zuen San Luis Gonzagak Florenzian beti birjin izateko boto. Austriko alaba ta Espaniko Erregin andi Dona Margaritak egun onetan bere eskuz ematen zien jatera zenbait andre pobreri ta egun berean egiten zuten San Brunok eta beste anitzek Jesusen Ama ongi honratzeko eta al zuten beste guziei honrarazteko anitz gauza on. Eta hau obeki eragiteagatik egin zuen Beata Joana deritzan Luis amaikagarren Franziko Erregeren alabak Jesusen Amak gaur artu zuen izeneko relijio bat.

Oriek eta gañerako Jesusen Amaren honrari guziak onen honran egiten dutena baño agitz geiagoko artzen dute Jesusen Ama beragandik eta Jesusen Ama bera egiten dute emen ongi bizitzeko ta obeki gero iltzeko beren arteko ta laguntzalle. Dagizun zuk ere zerezat, egizu egun ta urteko egun guzietan Jesusen Ama beraren honran al dezuna: bai arren, bai.



## VIII

### Apostol San Felipe ta Santiagoren eguneko irakur-aldia

Vado parare vobis locum. Joan. 14.

*Gaia: Betiko zori ona ta atsegintzak dakarz  
Jangoikoaren izeneko nekanz onak.*

Apostol biren festa da Eliz Ama Santak gaur egiten duena. Apostol biak dira San Felipe ta Santiago bigarrenari edo Españian predikatzen ibillia ta Galizian bere gorputza dadukana ez, baizik Jerusalem Obispo izandua ta an bertan illa ta ortzia. San Felipe Jesusek lenen artu zituen Apostoluetatik da ta Santiago Ama Birjinaren aldetik Jesus beraren aldea.

San Felipek agitz maite zuen Jesus maitagarria ta laster aski ta fite asi zen aren berria banatzen, berak bezala maíta zezaten besteak ere ta orretarako eramaten zituen al zituenak Jesus maitagarriagana ta orien artean eraman zuen gizon jakintsu andi Natanael ta eraman zuen siñest-erazirik etorri zela Jangoikoak Israeldarrei agindua zedukan Mesias, ta Mesias hau zela beraren maisu maite Jesus.

Jesusek ere agitz nai zion San Feliperi ta, beste guziak utzi ta, eremu batean anitz mil? andi ta txikiri jatera emateko, oni galdetu zion: «Nondik ekarriko dugu orrenbatentzat behar den ogia?». Gauz ageria ta guziak ekusten zutena zen Jesusen San Felipeganako ongi-nai hau ta jentil arrotz an agertu ziran zenbaitek, Jesus ekusi nai zuten batez, Apostol besteak utzi ta San Felipe billatu zuten, eraman zitzaiz Jesus maitagarriagana.

Aidantzak berekin dakar maitantz-gai zerbait eta zeren beraren aldea zen ongi nai zion Jesusek Santiago bigarrenari, baña orregatik baño agitz geiago nai zion bere ontasan ta birtute andiatatik. Ardorik onek etzuen ukitzen, ez eta beste edari berogarririk ere. Aragirik etzen aren ortzetaritzen ta buruko ille billoaren berdinketak eta beste aisetasunak alde bat utziak zeduzkan onek; anima birtutez apaintzea ta bere egiteko guziak

mugaz ta zuzenki bukatzea zen Santiagoren egun guziko langai osoa. Guziak ekusten zuten hau ta guziak ematen zioten Justo ta Santuaren izena. Zen ere ta; eta orregatik egin zuten San Pedrok eta Apostol besteak Jerusalem Obispo, zeren Jerusalem arkitzen zen farisetar arroz, Eskrib mukerrez ta anitz milla beste gaistoz betea ta zeritzen alako gizonak esku-ratzeko etzela Santiago bezalakorik. Egia asmatu ta egin zuten aldiak eskatzen zuena, bada ogei ta amar urtez izandu zen an hau Obispo, guzien estimantz andiarekin, ta bestek ekusten etzuen toki santu *Sancta Sanctorum* zeritzan batean sartzen ere uzten ziotela. Santu hau emen Jerusalemen ta San Felipe Frijiako Hierapolin ill ta urteen buruan eraman zituzten bien gorputzak Apostol guziak Erroman duten Elizara ta geroztik an arkitzen dira.

Bientzat bat bera da Elizak ematen digun ebanjeli santua, baña bie ederki dagotena; da alabaña ostegun santu arratseko egiteko andiak bukatu ta azken adio esate berean Jesusek Apostolu guziei esan zienaren zati bat eta zati onek esaten duena ta egungo Apostol bie besteekin batean adirazten diena da nekezko bere eriotzarekin idikiko zuela beretzat eta nai duten beste guziendako zeruko bidea, bai ta Espiritu Santuaren berak ganako bidea ere ta bakoitzari bere zeruan prestatuko diola irabazten duenaren saria ta tokia. Ara igan nai dutenen bidea dela bakoitzak bere egitekoa, naiz latza izan ta naiz ez, kontuz ta Jangoikoaren Legeak agertzen duen eran egitea ta era edo gis onetan hau egiteko Jangoikoari bere laguntza humilki ta erdits-uste onean eskatzea, bein ta berriz esaten diela erditsiko dutela era onetan eskatzen dutenak, zeudela kezkarik bage, besteen neke guziak bukatuko dirala, berarenak bezala, eta etorriko dela bera berriz beretzat artuko duten zori oneko tokira on guziak eramatera. Eta esaten dien guziarekin adirazten die betiko zori onean ta atsegintzan bukatzen dirala Jangoikoaren izenean artzen diran neke guziak. Egi hau ekustea da gaurko gure egiteko guzia.

## § I.

Minkor-minbera da mundura datorren edozein ta mingai guziak begitan arzen dituen, arzen ezpaditu dakarten on-ondasunen baten ustez edo min ta gaitz gogorragoren beldurrez. Gis onetan behar den bidez ta



ongi arzen ditu birtutedunak bere neke, gabenz, kezka, oñaze, tristur, erinzen eta mingai guziak, bada arzen ditu onez, Jangoikoaren izen-amorean ta betiko bere tormentu izugarritik iges egin ta eternidade guziko poz-atsegintzak irabaz ta erdisten dituela, bada hau egiten duena Jangoikoaren adiskide graziduna da, ta grazidun; ill ondoan bazterzen dituen emengo, sulezeko ta beste neke guziak ta erdisten sekulako zori onak, atsegintzak eta ondasunak; eta atsegintz, ondasun ta zori on andiagoak erdisten ditu mingai ta neke andiagoak mekiago ta obeki artzen dituenak.

Agitz andiak izan behar dute gaurko santu San Felipek eta Santiagok artu zituztenak, bada andi gogorrak izandu ziran batak eta besteak Jesusen izenean emen egin zituzten gauzak eta neke-tormentuak. Badakizu zein andi-gogorra? Adi zazu.

Eszitia zen bere predikurako ta Apostolu onaren egitekorako Espiritu Santuak San Feliperi berezi zion bazter andia. Bazter onetan bizi diranak mundu guzian arkitzen diran jenda-girorik gogorren ta mukerrenetatik dira. Orientean ibilli zen Santua bere Apostolu denbora beintzat geienean, jakin behar zutena erakusten, beren oikura gaistoak kentzen, onak ar-erazten ta egin behar zituzten gauzak eragiten ta ango kasi guziak kristau egin ta ondu arte guzian etzen atera Eszitar orientetik. Zenbat neke-izerdi, zenbat gos-egarri, zenbat kezka eta naigabenz arte orretan or San Felipek izandu zituenak? Nork adirazi? Uts egiteko perillik bage esan dezakeguna da orietatik ark anantz eta asko ta agitz andiak izandu zituela, ta agitz eta agitz andiagoak dirala oriente alde orain berak zeruan dituen atsegintz garbi ta ondasun gloridunak.

Baña zein ere andiak izandu ziran San Feliperen Eszitar-arteko egiteko ta neke gogorrak, agitz andiagoak izandu ziran bere bizia Hierapolin kendu zietenak. Frijia deritzan probinziko erria da Hierapoli hau. Erri onetako gizonak, Eszitarrek baño gogorragoak izandu ziran San Feliperentzat, bada kendu zioten Eszitarrek utzi zioten bizia ta kendu zioten sekulako bizi ona ta zeruko bidea oriei agertzen zien aldi berean. Eszitik bere lana bukatu ta joan zen S. Felipe bere lan bera Frijiko erri ta bazter guzietan egitera ta Frijitarrei erakustera Eszitarrei erakutsi zien lege berria ta zeruko bidea, ta Hierapolin hau egiten hari zen batez lege ta bide gaistoren bat agertzen balie bezala, deabru sutuak amur-erazi ta josi zuten gurutze batean beraren maisu maite Jesus judatarrek bezala ta an zituen neke gogorrak neke arin laburrak izan balira bezala, eman zioten arri ta arrika ta etzuten utzi beren arrika erdi ler ta illa utzi arte guzian. Lan

gogor itsusi hau etzen izan erriko guziena; jentilitsu gaistoena izandu zen. Baziran horduko an gure lege santa artu ta bataiatu arkitzen ziranak eta aren illtzalle gogorrak andik kendu ziranean, gorputz santua artu ta eraman zuten zegokan obira ta an ortzi ta lurtatu zuten al zuten honrarik andienean ta beren erakusle ona galdu zutelako damuz, negar anitz egiten zutela.

## § II.

Santiago, ekusi dugun bezain ona ta ongi ekusia izandu zen Jerusalem ta Jerusalem guziak zekiten bezala egun geiena Elizan zeraman gizona zen, ta gizon ango bere otoitz luzeekin belaunetan kamelu latzaren larrua bezain kалу gogorrak egin zituen ta gizon, zuen birtute andiatatik Jerusalem anitz aren soñekoaren ertza bazen ere ukitu naiez bere ondoren zerabiltzana ere. Etzuten guziak siñistu ark esaten ziena, ez eta Jesus berak illerazi zutenaren Jainkonda ere ta zeren egi hau askotan ta maiz agertzen zien ta zeren egiak agitz sumintzen zituen, nekepe artatik beren buruak atera naiez, artu zuten beren Obispo ta Apostolu onari bizia kentzeko asmoa, ta egun batez ilzeaz zuten zakur amurratu bati bezala arrika eman ta.

Aldi artan etzen baño nolerebait illik uzteko asmoan gelditu ziran ta beren asmo gaisto hau etzuten utzi illik hura ekusi arte guzian. Artako bein besoetan artu ta, zeren horduko larogei ta amasei urteko gizona zen, Eliz-tellatura eraman ta bota zuten golpez lertu-illa utzi naiez. Gain artatik urrun zen azpiko lurra ta golpez lertu ezpazen ere, belanuk autsirik eta ezin zebilken eran gelditu zen. Zer egin zuela deritzazu era artan bere burua ekusi zuen Apostol santuak? Sendalaren bati ots egin edo lan hura egin zutenei erriertan eman? Ez bada, egin zuena zen burua ta besoak zerura goratu ta Jangoikoari esatea: «Jauna, ekusten dezun lan hau nerekin egin dutenak ez dakite zer den egin dutena ta barkatu behar diezu beren bekatua».

Aren otoitz hau aditu ta zer egin zutela uste dezu beraren etsai judatar gogorrak? Len baño ere sutuagoak gelditu ta batak bestea berotzen zutela garrote bat eskuan zuenak aren ondora joan ta golpe batez burua



urratu ta illik uztea. Orra zein andiak egungo Apostol biak Jesusen izenean eraman zituzten neke ta tormentu gogorrak. Eta orra zein meki ta behar bezala biak artu-eramanak. Zergatik ote? Jesus berak adirazia dadukan ta orain guk ekusiko dugunagatik.

### § III.

Afalondoan ostegun santuz ekusi dugun gisan egin zien Jesusek Apostol bereei ta guri agitz dagokigun sermoi andi bat. Beste anitz gauzen artean bere sermoi artan agertu zituen guri geren neke ta naigabenz guziak ontzat ar-erazteko diran zenbait gauza. Orietatik bat da Jesusek berak gugatik eta guri geren neke-lanak ongi artzen erakusteko egin zuena. «Munduko gaistoak naigabetzen zaituzten aldian», zion horduan Jesusek, «gogora ekarri behar dezue lenago berak nerekin egiña ta zuek baño len ni begitan artu ta naigabetu ninduela ta esan dizuet len ere ta orain berriz diot, nagusia ta jauna baño geiagokoa ez dela aren eskupeko mutilla ta niri, zuen Jaun ta Nagusiari, barkatu ez didatenak ez daudela zuei barkatzeko» (Joan. 15,18). Eta bidenabar adirazten die berak bere neke guziak artu zituen eran artu behar dituztela berenak beraren eskupeko ta eskolako guziak eta artu behar dituztela Jangoikoaren izenean ta me-meki. Hau egitea ezin izan diteke gauza agitz gogorra, bada edozein semek edo mutillek ere egiten du beraren aitak edo nagusiak egiten duena ta ez da mundu guzian Jesus bezalako Aitarik eta Nagusirik arkitzen.

Geren neke-lanak guri onerazteko Jesusek agertu zuen bigarren gauza da gaistoen aldetik datozen neke guziak ontzat artzea zeruko bidez dabiltzanen lana dela. «Bai», zion Jesusek, «gaistoen bidez dabiltzanetatik baziñazte, etzinduzkee begitan artuko gaisto berak, zeren gaistoak maite dituzten beren gisako beste guziak. Artuko zaituzte bada begitan gaistokak eta txarkeriz ta bidebagez beteko, zeren etzarazten orien erakoak eta zeren nik orien artetik atera ta neretzat artu zaituztedan»: *Quia verd de mundo non estis, et ego elegi vos de mundo, propterea odit vos mundus* (ibid. v. 19). Eta guk ere Jesusek beretzat artuak eta zerurako gaudenak garala ekusteagatik, pozik ar ditzakegu nondik-nai datozkigun neke-lan ta naigabenz guziak.

Gure nekeen arintz onetarako Jesusek agertu zuen irugarren gauza da neke berak onzat eta mee-meki artzearekin orien artzalleak Jangoiko-arekiko irabazten duena. Badakizu zer? Jangoiko beraren ongi-naia ta maitantza: «Nere esanak sinisten dituen, nik diodana nere izenean egiten duena ta nere amoreagatik bere neke guziak meki artzen dituen ta hitzez ta lanez ni maite nauena maite du nere betiko Aitak», dio Jesus maitagarriak: *ipse enim Pater amat vos, quia vos, me amastis et credidistis quia ego à Deo exivi* (Joan. 16,29). Emen ere pozik egiten dituzte gizonak Erregeri atsegin egiten dioten gauzak, gauz oriek izanagatik neke andikoak eta agitz gogorrak. Eta nork ez du hau bera egin behar Erregeen Errege Jangoikori atsegin egiteagatik? «Hau da oraindanoan Jangoikoari atsegin egin dioten guziak egin dutena, beraren izenean anitz neke ta naigabenz artzea», dio Juditek: *omnes, qui placuerunt Deo, per multas tribulationes transierunt* (Judith c. 8).

Gure neke lanak arintzeko Jesusek agertzen digun laugarren gauza da etorkizun onaren ustea. «Nekepean izaten dituzuen naigabenzak eta isurtzen dituzuen negarrak ekarriko dizkitzute», dio Jesusek, «atsegintz eta poz andiak eta agituko zaitzue semez erditzen den andreari agi-gertatzen zaiona, bada hau ere bere erdi horduan arkitzen da oñazez, nekez ta naigabez betea, ta erdi horduko, naigaberik bage ta agitz poztua; eta andre erdiarena ez, baizik nere izeneko nekeei darraiten atsegintza da», dio Jesusek, «oso betikoa»: *et gaudium vestrum nemo tollet à vobis* (v. 20 etc.).

Bai, Jesusen izenean onek eta meki emen beren neke-lanak darrazten guziak hau egin-aldian irabaziko dute beren grazi-zatia, ta grazi-zati bihotza pozez beteko diena, ta oni dagokan geroko atsegintz garbi betikoa. Hau ongi ikasi zuenak bezala esaten digu egungo Apostol Santiagok: «Legezko nere senide fededunak, siñes zazue», dio, «zori onekoak zaraztela ta atsegin-gaiez ongi beteak, anitz tentaldiz nekatu zeren buruak ekusi ta»: *omne gaudium existimate, fratres mei, cum in tribulationes varias incideritis* (Jacob. 1, 2), bada horduan nekazari on baten erakoak zarazte zuek eta nekazari onak bere ereintzako, jorrako ta nekezko beste lan guziak pozik egiten ditu, ereñi zuenetik udan bilduko duela deritzanaren ustean. «Zaudezte, bada», esaten digu Apostol santuak, «asaldu bage zeren neke ta naigabenz guzien artean, neke ta naigabenz ongi ta Jangoikoaren izenean ereiñitit edo me-meki eramanetik datozen graziaren ta Jangoiko bera bere glorian ekusteko ustean»: *patientes igitur estote, fratres, usque ad adventum Domini* (v. 7).



Eta guk geren neke-lanak, etsaien tentantzak eta andik edo emendik datozkigun naigabenzak era onetan artu ezkeru, bagaudezke nekazar-erelle ona baño sosegantz eta uste obean, bada orrek bere ereintzak eta neguko ta uda berriko lanak ongi eginagatik udan arki diteke uste zuena bage, zeren arrak, mamorroak, arriak, agorrrak, suak, ganaduak edo beste zerbaitek galdu duen ereñi ta jorratu zuenetik zetorren guzia, baña gure neke-lan ta naigabenz meki artutik datozen grazia ta gloria, guk geren naiez ta bekatuz galtzen ezpaditugu, segur-segurki guganako dira, ta guk geren lan hau ta beste guziak behar den eran egin ezkeru, esan dezakegu Apostol S. Pablok ziona: «bere aldian emanen digu Jangoiko Juez zuzenak geren lan on guzien saria»: *reddet mihi Dominus in illa die iustus index (coronara iustitia)*: 2 Tim. a. 8.

Eta hordu artan anitz baño geiago eman naiez ematen digu Jangoikoak, aberats urrikalti onak ereinzeorik ez duen nekazariari bihia ta erein-garia bezala, aldian aldiko ona ta nekea. «Bai», dio Eskritur Santak, «Jangoikoaren eskutik da leuna ta latza, behartza ta ona edo ondasuna, bizia ta eriotza»: *bona et mala, paupertas et honestas, vita et mors à Deo sunt* (Eccl. 11,14). Eta geren ereintzak eta beste lanak ongi egiten ta geren neke-lanak meki eramaten Jangoiko berak laguntzen digu, ta laguntzen guk eskatzen diogun indar guziarekin, bada esaten digu Jesusek, eska dezagula erdits-uste osoarekin ta erditsiko ere dugula hau guzia: *quodcumque petieritis... hoc faciam* (Joan. 11,13). Eta eskantz hau da nekatu-tristatuak arkitzen garan aldiatarako egungo Santiagok erakusten diguna: *tristatur aliquis vestrum, oret* (Jacob. 1,15). Hau bera da berak ere bere nekerik andienan ta zanko-belaunak autsirik zetzala ta iltzeko puntu berean egin zuena: otoitz eta otoitz, ekusi dugun bezala, Jangoikoari egitea.

Eta orra non betiko zori ona dakarten Jangoikoaren izenean meki ta pazienz andian artzen diran emengo neke-lanak eta orra bidenabar zenbat Jangoikoaren arintz eta leuntz duen era orretan artzen dituenak. Arzazu gis orretan oriek artzeko asmoa, ta ala artu zituzten egungo bi Santu andien izenean eska zagozu Jangoikoari ill artean zere asmo orretan bi Santu berak bezala irauteko grazia. Bai arren, bai.

## IX

### Kristo Jaunaren Gurutzearen lenbiziko festako irakuraldi lenbizikoa

Nemo ascendit in coelum, nisi qui descendit de coelo Filius Hominis. Joan. 3.

*Gaia: Zein diran Jesusen Gurutzea arkitzen dutenak?*

Lenbizitik azkeneraño gurutze ta gurutze da egungo Mez guzia. Mezaren askuntzan esaten digu Apostol S. Pablok Jesusen gurutzetik datorrela gure bizia, ona ta salbantza. Mezako irur otoitzetan Jesusen gurutzeko neke gogorren izenean eskatzen dio Elizak Jangoikoari etsai gaistoaren artimañak eta alegiñak garaitzeko ta Jesus beraren ondoren zeruan sarzeko behar den argi ta laguntza. Eliz berak agerzen digu Epistolatan Jesusek emen gurutzez egiña ta irabazia ta artan ill ta biztu ezkeru zeruan duen betiko glori-honra, parerik ezin dukena; ta Ebanjeli santuan agertzen digu azkenean zerutik etorri zela Jesus bere gurutzeko pulpitik dagokiguna guri erakustera ta andik bera zerura iganez arako bidea egiñik guri uztera. Zertako ote Mezako onenbat guruzket eta onenbat aldetarako Jesusen gurutz-berri? Gurutzedunen bidea dela zeruko bidea guri adirazteko ta nekezko bide hau obeki guri on-eratsi naiez. Onetako gaur egiñarekin ez da asetzen Eliz santa ta gure gogoan hau obeki sarerazi naiez Jesusen gurutzeari bi egun ta festa berezi diozka urte oroko, bada gaurko festaren gain berezi dio beste bat Otsallaren amalaugarren eguneko. Gaurko festa gurutzearen idorronza da ta beste egunekoa gurutz beraren garaintz sendor honraduna. Bigarren hau bere egunerako utzi ta goazen gaur geren gaurkora.

Bi lapur gurutzaturen erdian gurutzaturik utzi zuten illa Jesus judatar gogorrek eta Jesusen gurutzea fededunak honra etzezaten, lapurren gurutzekin nastu ta gorde zuten beren alegin guzian. Enperador andi Konstantinoren Am S. Elenak artu zuen hura billatzeko asmo ta gogo. Artu zuen artako Konstantinoplatik Jerusalengo bidea. An bere otoitzak Jangoikoari egin ta artu zituen billatzen zuenerako neurri gurtiz zuzenak



eta nonsu arki ziteken barruntatu ta urrarazi zuen Benus zikin edo dea-bru beltz gaistoaren eliz-itxe bat; ken-erazi zuen elizpean arkitu zuen arripill ta lur-zati andia eta idir-arkitu zituen orienpean zeutzan irur gurutze nastuak. Jesus maitagarriarena zein zen ezagutzeko an bereko Patriarka S. Makariori biziats etsirik arkitzen zen andre bat erakarri ta eragin zion aldiak eskatzen zuena. Eriari buruan ezarri zion Patriarkak bein gurutze bata ta gero bestea ta len bezain eri gelditu zen andre gaisoa. Baña irugarrenak ukitze berean utzi zuen gaitzik bage ta guztiz sendatua ta guziak ekusi zuten hau zela Jesus maitagarriarena.

Arkitu zuelako pozarekin bertan belauak lurrera ta ezpañak gurutzeran eraman, apa-muin ta adorantz humillak egin ta jas-erazi zuen, an berean eragin zuen Eliz egoki eder bateko aldarera. Hau da gaurko festako Jesusen gurutzearen arki-idironza. Idiro ta arkitu zuten hau S. Elenak eta Patriarka S. Makariok eta hordu beretik artu zuten biak beren gurutzearekin Jesus gurutzatuaren gisan ibilliz zeru gloridun zori onekoan sartzeko asmo ta gogoa. Judatar gogorak ere biak bezain argiro ekusi zuten Jesusen gurutze bera, baña orien gisan artu ez bizi asmo ta gogo bera, ez eta igan ere Jesusi zerraizkola orien glorira. Hau bera da fededunen artean ere gertatzen dena, anitzek Jesusen gurutzea ekusi ta ere, ez arkitzea edo ez artzea. Zeinsu diran oriek eta zein arkitzen eta artzen dutenak aldi onetan ekusiko dugu.

## § I.

Gaurko Ebanjeli santutik artu ditugun hitzak ekusi ta izutzen dela dirudi S. Bernardok. Artu ditugun hitzak dira: zerutik etorri dena baizik ez da zerurako ta hau da Birjin Amaren seme Jesus, ta hau aditu ta dio S. Bernardok: «eta gu norako gara? Etsi behar dugu, beraz, geren zori onak ta zeruko bizitzaz»: *quid ergo nos? itane desperabimus?* (Serm. de Irib.). «Ez, ez», erantzuten dit gero guzia kontuz ta ongi ekusi ta, guretzat anbat obe, izaten bagara gu izan behar dugunak eta zerura igiten den Jesusen gisako onak eta gurutzadunak: *imò verd sperabimus, et hinc maximè*, ala gu alabaña izanen gara gure buru Jesusen gorputzeko zatiak; buru ta gorputz zerurako da zerutik gizon egitera ta gurutzeko eriotzez zerurako den Jesus maitagarria, ta beraren gorputz, zati onak bagara, gu ere arako gara; bada

ez da gorputzik bage zerurako Jesus burua: *totus intrabit, non sine membris caput, si tua membra fuerint conformia sibi et cohaerentia capiti suo*. Zer dela deritazazu Jesusen gorputz zati onak izatea gu? «Gogoz ta lanez», esaten du S. Bernardok, «aren gisan bizitzea»: *conformia moribus, cohaerentia / ide*. Gis onetan bizi ziran Patriarka S. Makariok eta S. Elena ta arkitu zuten Jesusen gurutzea, egin ziran Jesusen gorputz zati on ta Jesus berarekin bizi ta ill ta igan ziran zerura. Orra zer den orien gisan ta Jesusek nai duen eran fededun onak beraren gurutzea arki ta idirotea, Jesus gurutzez nekatumillaren gisakoak gogoz ta eskuz, asmoz ta lanez izatea: *conformia moribus, cohaerentia / ide*. Zein diran gis onetako fededunak ekusiko dugu Jesusek bere bizian egiña ta fededun bakoitzak egiten duena ekusi ta.

Bere bizian Jesusek egiña da egin zen hordutik gurutzez ill arte guzian betiko beraren Aitak nai zuena, naiz izan leuna naiz latza ta gogorra ta naiz neke izugarriz ta tormentu odoltsuz bete, zuzenki egitea: *obediens usque ad mortem, mortem autem crucis* (Phil. 2. 9). Arte onetan bizitu zen Jesus bein gurutzez, bein bihotzez, agitz nekatua: *in laboribus à iuventute mea* (Ps. 87,16) ta azkeneko irur urteetan zezen gizen garrotxez suturik arkitzen diranen gisako etsaiez ingurutua: *tauri pingues obsederunt me* (Ps. 21,13).

Bere etsai zezen erreka bein zuzen bein zear, saiets batetik bein ta bestean beste aldetik egin zioten Jesusi zezaken tiro ta gaitz guzia ta bere gurutzean josirik eta ilzen ekusi ta ere, etzioten baketan utzi ta keñuz, begiz, histaz ta hitz blasfemariz egin zioten zezaken gaitz guzia ta al-ere Jesus beti bat, beti bera, beti mana-humilia: *mitis et humilis corde* ta beti bere etsai beren ere ongille maitagarria ta agitz aserretzen zuten betiko bere Aitarekiko arteko ezin ohea, ta arteko, bere etsai amurratu beren alde esaten ziona: «Aita, barkanza nere etsai gaisoei; jakin bagez zer den egiten dutena, egiten haritu dira nerekin egin dutena: *Pater, dimitte illis, non enim sciunt, quid faciunt* (Luc. 23,34).

Orra zer zen Jesus gogoz ta lanez lurreko bere bizi guzian, beraren betiko Aitak nai zuena guztiz ederki ta asaldanzik bage egiten zuena, bai ta nekez ta tormentuz, histaz ta eskarnioz ta zitzakeen bidegabenez guziekin gau ta egun etsai sutu-gogorak betetzen zuten aldiaren ere. Egiten zuen ark hau bere Aita berari zion onginai andiagatik eta zeren zekien bukatuko zirala aren emengo neke guziak eta ez orien alde bere Ait maitari berak prestatu ziozkan zeruko glori, laudanz eta honra guztiz andiak: *proposito sibi gaudio sustinuit crucem, confusione contempta* (Hebr. 15,2). Bukatu ziran bai, beren aldiaren Jesusen odol-isurze, neke-pen, humiltanz eta naigabenez





guziak. Orien arte gogorrean irabazi zuen bazter bageko sariarekin *igan* zen zeruko glorira ta bere Ait Jangoikoaren eskoï aldera. An arkitzen ta arkituko da beti-beti atseginz-gloriz eta doakunz ezin andiagoz betea, ta beti ta beti bere bidez darraizkan gurutzedun guzien buru egiña.

An bertan arkitzen dira ta bakoitzak artu-al poz-atsegingtz eta glori dutela Patriarka S. Makario, Konstantino andiaren Am S. Elena ta gurutzedun on emengo beren aldia egin ta *igan* diran guziak eta arkitzen dira Jesusen gorputz-zati zori oneko egiñak. Gis berean arkituko dira orien gisan ta gogoz ta biziz Jesusi darraizkola aratzen diran beste guziak ere.

Zeinsu dirala uste dezu gogoz ta biziz Jesusi darraizkonak? Beren pasione ta barren guzia eskura ta Jesusen legez dabiltzanak eta Jesusen betiko ta gure Aitak nai duena gau ta egun Jesus beraren gisan egiten dutenak: *qui vult venire post me, abneget semetipsum, tollat crucem suam, et sequatur ;me* (Luc. 9,23). Hau egiten duen fededunak me-meeki ta Jangoikoaren izenean arzen ditu izaten dituen gañeko aldarte txarrak, gorputzaren gogearri, min-oñaze ta eritanz guziak, egiten zaizkan txarkeri, bidebagenz eta ez dagozkan *beste* gauzak, bai ta ortik eta beste bidez izaten dituen barren-kezk, asaldanz eta tristur guziak ere, bat gana ere, aren naikunz makurra ta ibiller bidebagezkoa ekusiagatik, bekaitzik artzen ez duela.

Hau gure *izanz* bekatu etorkiz nastuari ez dagokan ta fededun anitzek nekez egiten duten gauza da ta kontuz biziz ta humilki bere grazilaguntza Jangoikoari eskatuz, bai, ta bestela egiten ere ez dutena; ta egiten ez dutenak ez dute idiro Jesusen gurutzeta; ta hau gabe ta judatar gogorren gisan dabiltzanak dira ta Jesusi ez darraizkonak eta Jesusen gorputz zati zerurako ez diranak, zeren bataitu baziran ere, naiez, gogoz ta biziz ez diran aren gisakoak eta aren gisako onak diran arekin ara iganen diranak: *conformia moribus, coherentia fide*.

Orain arte guzian nolakoa izandu naz ni? Gogoz ta biziz Jesus gurutzeko bere nek-oñaz eta tormentu guzien erdian ere humil-manso barkalearen gisakoa edo erre txar sumindu, bat esaten zidanari bi eranzuten niozkana edo bihotzez beintzat onik nai ez niona ta zirau suge izurdunaren erakoa? Suge ta zirau izurdun gaistoena ere ez dio ozk pozoidunik egiten geldirik uzten dionari, baña min piska buztana oñez artuz edo beste gisaz egiten dionagana burua jiratu ta ortz izurduna sartu ta uzten du izurtu-pozoidun galdua.

«Guziak nere ongille diran aldian batek ere nai ez nukenik egiten ezpadit, baldin badut nai dudan osasuna ta bizia ta beste guzien begirun ona ta honra, baketi ona naz edozeinentzat; nere ezpaiñak ez diote gaitz bat esaten ta Jesus mans-humillaren gisakoa dirudit gogoz ta bihotzez ta beraren gorputzeko zati on zerurako jaioa; baña besterik adirazten dut nai ez nuken zerbait ekusi ezkerro, bada auziren bat ezartzen didanagana, kalteren bat egiten, nai ez nuken hitz bat esaten, gorderik nedukan uts eta tatxa agertzen edo egin dudan makurrarekin begitan ematen didanagana gelditzen naz muker ta makur ta begiz begi edo baztertu ta esaten diot behar ez nukena ta ez dut egiten aldi alakoan Jesusek egiña, bada Jesusek gurutzeko bere aldirik gogorrean ere, lenen gain gaizki anitz mindari egin ta ere, etsai bere amurratu gogorrei egin ziena zen bere aldetik guzia guziei barkatzea ta osoki barka zekien guzien alde bere Ait aserretu barkaleari bihotz osoz ta zin-zinki barkanz on bat eskatzea ta zezaken on guzia ekusi dugun gisan agerzea».

Hau, dakusazunaz, da Jesusek bere gurutzeta soñean artu ta aitzinetik guri zeruko bide zuzen bat erakustea ta hau bera da aren ondoren ibiliko bagara guk ere egin beharra, gaitz aldera makurtzen diran gure grin ta naikunz guziak eskura ta on aldera zuzenzea ta nai ez luken ona geren pasione sutu-nagi gaizki ezizi gau ta egun eragitea ta Jangoikoaren legeko kargerri guzia jas-eraztea. Bakarrik guk hau ez dagikegun gauza da ta artako behar den Jangoikoaren esku bortiz lagunlea erdisteko bidea Jesus maitagarriak len egiña esku berarekin bein ta berriz ta beti guk egitea. Jesusek bere etsai gogorren mukerkeri, neke, tormentu ta gurutzeko erio latza me-meeki ta onez-onean artzeko egiten zuena zen aldi artan betiko beraren Aitak nai zuena ontzat arzea, bai ta hau bera zuzenki egin nai andi bat ere; ta hau ark egin bezain laster berekin zuen, Ebanjelar egitsu S. Joane dionaz, artan ari laguntzeko prest, guzia dezaken bere Aitak bera eta ark lagunduz egiten zuen biak nai zuten guzia: *et qui misit me, mecum est, et non reliquit me solum, quia ego quae placita sunt ei, facio semper*. Joan. 8.29.

Ar zazu bada zuk ere Ait jaun berak laguntzen dizula berak nai duena osoki egiteko gogoa ta egiten bortitzki lagunduko dizu. Jesusen betiko ta gure Ait Jangoiko lagunleak nai duena da me-meeki gu ta pazienz onean geren gaitzgille ta etsai berekin ere beti bizitzea ta hau egin-nai onez beteak ark gu ekusi ezkerro, bere guzirako den esku bortiz leuna luzatu ta guzian lagunduko digu, bai ta asaldanzik bage ta poliiki artzen ere egiten dizkiguten dollorkeri, bidebagenz eta kalterik andienak ere. Hau da gis bereko besteekin len ark egiña ta nai duten beste guziekin



egiñen duena; beti da alabana bat eta beti behar den gisan ibilli nai dutenen lagunle ezin obe guzi-gillea.

Etorkizun eder hau osoki zuk sinisteko ekus zazu Jesus maitagarriak beti len egiña ta fededun onak lan onetan ark lagunduz egin dutena. Bana-ka bakoitzarena ekusiz neka etzaitzen, aldi batez begir egiezu amabi mil-tan mil Martir Santuri, orien artean arkituko dituzu gizon sendor S. Esteban, S. Lorenzo ta gis bereko beste mil; arkituko dituzu zenbait mil gizon ta andre zar; milka ta milka arkituko dituzu sasoi guzietako gizaki ta emaztekiak, bai ta ez guti donzell ta aur ere ta guziak ekusiko dituzu bidebageko, baña Jangoikoaren izeneko neke-tormentuz erre-egosi-erdiratu edo neka-giro artaz edo onetaz illak eta anitz neke-tormentu luze-gogorren buruan illak eta al-ere guziak ekusiko beren tormentari ilzalle gogorretara bekaitzik bage ta barren gaistorik ez dutela ta beren nekezko gurutze astunarekin zeruko bere bidean Jesus nekatuari darraizkola.

Hau nola, uste dezu? Jangoiko maitagarriaren amorez ta Jangoiko berak laguntzen ziela. Ain andi indartsua da Jangoikoaren laguntza, Jangoikoari atseginz egin naiez, zor dioten amorearen alde ta beren onerako fededunak arzen badute gertatzen zaiena, naiz gerta hau Jangoiko beraren eskuz, naiz gaizki nai dienen aldetik.

Egizu bada hau bera zuk ere; presta zaitetz Jangoiko maitagarriaren izenean ta animako zere zorren alde arzera Jangoiko berak igortzen dizun edo ezagun-arrotzen edo etsai ta adiskideen eskuz dalorkizun neke, kalte ta bidegabenza; ta Jangoiko beraren laguntzarekin ala zuk hau artu ezkerro, Patriarka S. Makarioren, S. Elenaren, ekusi ditugun Martir ta beste on guzien gisan idiro ta arkitu dezu Jesusen edo zere gurutzea, ta geren ill arte guzian onekin zu ta ni bagabiltza, gogoz ta biziz izanen gara Jesus gurutzatuaren erako ta Jesus beraren Eliz gorputzaren zati onak, iganen gara berarekin beraren zerura ta sekul guzian ta beti izanen gara zori oneko zerutar guzien lagun doatsu poz-atseginzez beteak. Ala gerta dedilla, bai arren, bai.

## X

### Santa Krutz eguneko bigarren irakur-aldia

Sicut Moyses exaltavit serpentem in deserto,  
ita exaltari oportet Filius Hominis. Joan. 3.

*Gaia: Andia da Jesus gurutzatuari  
ongi begiratzetik datorren ona.*

Besteen gisan Judatar andi Nikodemusek ekusten zituen Jesusen gauz andi ta milagro txarmagarriak, eta Israeldarrak uste zuten Mesias zela ezagaturik bazen ere, beretarren isilka ta gauaz joan zen hura ekustera ta agur ta humilz zegozkanak egin ta ekusten duguna ekusi ta «Ezin uka diteke», esaten dio, «gure Maisu Mesias zarala zu, bada bestek ezin dagizken gauzak dira zuk egiten dituzunak (eta orregatik nator ongi-etorri zuri ta nere buruari ta Israeldar guziei zori on esatera)».

Onzat artu zuen Jesusen Nikodemoren etor-aldi ta hizket hau ta guziaren alde egin zion zegozkan bi gauzen agerza, bada agertu ziozkan gure Bataioa ta gurutzeko bere eriotza, baña agertu lañopean bezala ta erdi-estali erdi-agerian. Bigarren oni zegokana zen leneko gure irakur-aldia; oni berari dagokana izanen da orain ekusiko duguna ere, baña gai berriz ta beste bidez egiña.

## § I.

Jangoikoak ala nai ta, Ejipton luzaro bizitu ziran Israeldarrak artu zuten Moisesen denboran Kanango bidea. Andik onerako bide hau etzen bide luzea, baña beren gaistaginzen alde ta Jangoikoak nai zuenerako Kanana baño len zearka ta ingurka egin zituzten berrogei urte. Beren ingurk batean agitz mindu ta bidari guziak asi ziran gis artan zerabilzan



Jangoiko ta Moisesgatik gaizki ta gaizki esaten; ta Jangoikoak bertan oriek zenzarazteko, igor-bidaldu zituen anitz suge. Sugeen ozkatik ill ziran nork daki zenbat Israeldar murmulle. Beste guziak beren oñazearekin ta ilzeko beldurrez joan ziran Moisesen billa ta Jangoikoaren barkanz eske. Oriena ekusi ta urrikaldu zen Jangoikoa. Eragin zion Moisesi bronzeko suge bat eta aizarazi mindun beren erdian ta sendatu ziran mindun, begia jaso ta ekusi zutenak: *quem cum aspicerent, sanabantur* (Num. 21,9).

«Gis onetan jas-alzatuko dute», esaten dio Jesusek Nikodemusi, «gizaseme Jangoiko gizona» ta aizatu ere zuten Sant Elenak billatu ta arkitu zuen gurutz berean, ta alzatu, uste etzutela onez ekusten duten guzien onerako. Horduraño gurutzea gaistagin andien hurka zen ta gauz izugarria, baña artan Jesus il zen ezker da gauz guztiz hondragarria, artan il zen Jesusek bere oin-esku-gorputzez ukitu ta odolez bustia bezala, ta gerrari andien banderak eta Errege ta Enperadore jaunen urrezko koroiak ere ederzen dituen, Eliz santak agur ta adoranz andiak egiten diozkan ta zeruko ondasun andien meatz-iturria.

Baña zer ondasunen meatz-iturri? Bekatuz egin diran zorrak kezkeko, zor berrien bidea galerazteko, neke-pen ta tristur guziak arinzeko ta glori zati andiak eros-irabazteko diran ondasun zori onekoena. Gis onetako ondasunen iturri-meatzea da bear den ta dagokan eran begiratzen dionarenzat gurutze santa. Hau zuk egia dela ekusiko dezu, batetan esan diran gauzak berez ta banaka ekusi ta.

Bai, egin diran bekatu guzien zorrak kezkeko ondasun andiak dakarzen meatz-iturria da gurutze santa, dagokan begiz ekusi ta artan josirik eta anitz neke-tormenturen ta gure amor andien erdian il zen Jangoiko-gizon Jesus gogoan erabilzen bada; ta erabilzen, bein edo berriz ta lasterka ez, baizik usu, ardura, maiz ta erneki, kontuz ta hastiz; bada er onetako gogoranzak egin dituenari agertuko dio bere bekatuaren itsustasun ta zor andia ta hau ari kezkeko bere gurutzean Jesusek egin ta eraman zuena; bai ta mugaz ta garaiez kenzen ezpada, dagokan betiko neka-giro ta tormentu izugarria ere ta beldur ikaraz arritu ta asiko da biotzez esaten, libruz len S. Bernardok esana: «orra gauz zein belz-itsusi arrigarria nere bekatu gais-toa»: *pecavi peccatum grande*, ta Israeldar sugez ozkatuak Moises bezala billatuko du konfesor ona ta bere bekatuaren sendagai-barkanza edo gurutze-ko bere nekearekin Jesusek irabazi zigun konfesioko grazia.

Hau ark errazkiago ta obeki arkituko du bere gurutzeraz Jesusi begiratuz askotan ta maiz berritzen badu gure amarez an izandu zuen neke ta

pen arrigarrien gogoranza; bada bein ta berriz ta berriz hau an ekusiz, ekusiko du Jesusek an egin zuen guzia zela guri ongi naiez ta gure alde, len Israeldar erien alde Moisesi eragin zion suge alzatua bezala, ta len Israeldarrak oni begiratuz bezala, billatuz ta ekusiz atsegin egiñen diogula Jesus bera gurutze santan nekatu-illari.

Hau guri adirazten digu Santu berak dionak dion aldian: Jesusi begiratu ta, nai ta ez kezkatuko dela bekatu damutua; ekusiko du alabaña agitz andia dela Jesus anbat nekatzen duen bekatuaren gaizkunza, bai ta agitz andiagoa dela ere hura gugandik kendu naiez bere neke-penazko gurutzean ekusten duena ta geldituko da kenduko diolako ustez betea: *turbabitur conscientia, sed non perturbabitur, quoniam Domini recordabor*, ta bururik badu, asiko da artako den guzia erneki ta kontuz egiten.

Zuk hau alako aldian obeki egiñen dezu, hitzez ta gogoz S. Agustinen gisan mintzatzen bazara. «Izan bitez», zion S. Agustinek, «diran diña ta anitz geiago nere bekatu gais-toak; gogoan nik ongi artu ezker nigitik Jesusek bere gurutzean egin ta eraman zuena, ez naute anitz izutuko, bada begitan artuko ditut guziak eta Jesus berari aldi artako bere neke-pen gogorren izenean eskatuko diot, barka ditzala guziak eta didala bere maitanza ta grazia; ta ari nik hau ziriez eskatu ezker, berak esanik dadukana ezin ukatuko dit, dagokidan ta bear dudana gauza da ta: *non possum terri multitudinem peccatorum, si mors Domini in mentem venerit*.

Nork ust on oni eskua ematen dio?. Apostol S. Pablok dionak, bada dio Jesusek beraren betiko Aitari genion zorraren papera artu ta josi ziola bere Santa Krutzari ta Santa Krutz berean ta andik datozen Sakramentu andietan utzi digula guziak ateratzeko ta bearko dugun beste guzirako diña ta agitz eta agitz geiago; ta utzi, bear den gisan eskatu ezker, ematen digulako hitzpe osoan: *delens quod adversus nos erat chirographum decreti... affligens illud Cruci* (Coloss: 14). Ta artako gu arganatzen garan aldian, esaten digu, dio S. Agustinek: «ona ni zure zorrak ateratzeko prest; ar zazu nere odola ta irabazia ta emaiouzu arzeko zaituen betiko nere Aitari zeren zorren alde: *accipe me, et da pro te*. Badakizu ez dutela zorrak izutzen zorren diña ta atera nai osoa duena. Orra bada bekatu egiñak auts egiñak uzteko ta utzi zituzten zorrak ateratzeko bide ta gauz zein egokia, Santa Krutzen oroipen noizean-beingoa edo Jesus an anitz nekapenatua hordu onean aiez maiz-ardura, ta gutitan ta arinki ez, gogoan erabilzea. Bai ta bekatu berrien bide gais-toak galdurik uzteko ere. Hau da orain zuk ekusi bear dezun bigarren gauza.



## § II.

Fededun ta beste guziekin egin nai luke deabru gaistoak Ejitarren seme lenbizikoekin egin zuenaren gisako gauza edo ango oriek erioz bezala bekatuz illak uztea; ta Jesusek neketan il ezkeru guzien alde egiten du, aldi artan Jangoikoak an bizi ziran Israeldarren alde egin zuenaren gisako bat. Israeldarrei beren tokirako bidea egin naiez agitz beldurtu zituen Jangoikoak Ijitar guziak, eta beldurtu, arrats batez Aingeru bati ango lenbiziko seme guziak illak uzteko eskua eman ta; baña Israeldarrena ukitu bage; ta zein ziran ezagu zezan, bildots-ill odolez Israeldarrei bustirazi ziezten itxeetako ate-pillareak eta orietakorik bat ere ukitu bage il zituen beste guziak: *percussit Dominus omne primogenitum in terra Aegypti* (Ex. 12,26).

Deabru gaistoak guziei bekatuz ill ta galeraz nai die zeruko beren bidea, ta bere lan gaisto hau orri galerazteko luzatzen die Jesusek Krutzeko bere odola, artako Ejipton Israeldarren humerri-bildotsarena baño mil-milloiez indar geiago duena; bada angoak ere onen izenean egin zuen, esaten du S. Joan Krisostomok, egin zuena: *agni sanguis salvos faciebat, non quia sanguis erat, sed quia sanguinem Christi referebat*, eta Jesusen odol hau eskuan artu ta, San Pablok adirazten duenaz (*induite vos armaturam fidei, ut possitis stare adversus insidias diaboli* (Eph. 6,10); edo S. Buenaventurak klaritzen duenaz, «Jesusen Pasi Sant eta Krutzeko gogoranez jaunzi ta (*istà armatura est memoria Passionis Domini*) deabru gaistoa billatzen duenak errazki ta aisa aienatzen du, nik aldi guzietan ta beti ekusi dudana», dio Doktore Santuak: *si affectuosè ad memoriam reducitur Passio Domini, omnes daemones cum tremore effugantur, secundum quod experientia me docuit pluries*.

Hau bera bere baitan ekusi zuen Konde Santu Eleazarok ere. Agitz ongi bizitu zen Konde jaun hau bere azken ill-horduraño. Hordu artan egin zion ger-aldia ekusi ta, erdi arrituaren gisan asi zen esaten: «A, ta zein izugarria deabru nasle gerrarien indarra! Nork arekin buru lezake, bere Pasioko neke gogorrekin garaitu ezpalu Jesus maitagarriak! An irabazi zidan grazi ta lagunz andi txarmagarriak atera nau aren atzapar gogor arrigarritik».

Kond onen gisan minzatu zen S. Agustin esan zuen aldian, Jesusek bere Krutze ta Pasioko neke andiekin garaitu ezpalu deabru amurratuen azpian zetzan mundu gaisoa, (ta) bere gañetik hura kenzeko indar ta asmo guti zuela: *quis enim contra diabolum pugna-re poterat, antequam Christus Dominus genus humanum de potestate diaboli liberaret?* Arte guzian mundua zen, Dabidek Filisteo tzar izugarria ill artean Saulen exerzitu guziaren gisakoa, pelean sarzeko beldur-ikaraz betea. Gerozkoak dira, zeruko bideratzen bazaitu, ditugun Jesusen lagunz-indarzak eta hura garaitu ta aitzinat arinki ibilzeko esku-oin ta ego guziak, eta zenbat geiagotan ta kontuzago gogoratzen duen fededunak Jesusen Krutzeko neke eriotza ta zinkiago ta obeki eskatzen an irabazirik dadukan grazi-lagunza, anbat errazkiago aienatuko du bere etsai deabrua ta urratuko egiten zion bekatu berrirako bide galgarria. Eta orra bekatu zarren karg-zorraz zuzenzeko ta berrirako bideak galerazteko diran ondasun-lagunzen meatz-iturri zein on egokia Jesusen Pasio santa ta Krutzearen gogoranz debozioa. Bada era ta gis berekoa da gorputz-animako neke guziak arinzeko ta gerorako irabanz andiak egiteko ere.

## § III.

Bai, naiz gorputzeko naiz animako kezka eta neke guziak arinzeko bide zuzen egokia da askotan, egun oro ta nekaldi guzietan Jesus Krutzeko Pasio gogorrez nekatuari begiratzea ta ark an egin ta ekusi zuena geren gogoan ta biotz erdian erabilzea. Ala da, dio Interpret andi Ait Alapidek, bada Krutz Santa eta Jesus artan penatu-illaren hastizko gogoranz-oroitza egiten du, dio, kezkat-nekatuaren biotz-animan Marako ur gazian Moisesen zur-puskak egina; bada ark artan Moisesek sartu ta kendu zion bere gozanza ta gezatu ta utzi zuen Israeldar egardun goxoentzat edari on egoki egiña ta Jesusen neke-penen ta Santa Krutzen gogoranz-oroitza kenzen die dituen gaitz-tristur-nekeai zuten min ta lastasun garratza ta uzten ditu animako edari on egiñak eta orregatik zur hura Jesusen Krutz eta Pasio santaren ainzur artakoa da: *hoc lignum significat lignum Crucis, cuius virtute, memoria et meditatione omnis labor et dolor dulcescit*.

Aldiak ekarri zuen guzian hau ekasi zuela zion S. Agustinek, bada bere nekaldi, kezka-hordu ta naigabezko aldart guzietan idiro-arkitu zuen



aringaririk andiena izandu zela, don, Jesusen esku-oñetako ta bularreko zulora iges egitea ta aren ango neke-pen guziak gogoz ta naiez biotzeraño sarzea: *in omnibus adversis non inveni tam efficax remedium, quam vulnera Christi.*

Hau bera guri eragin naiez dela, dio Doktor Santuak, S. Pablok esaten digun gisan esatea: «sinist onaren emalle (Jesus Krutzatuari) hastiz ta kontu guziarekin begiraturz ekusi bear dezue buruko erpinetik oin-puntaraño daraman neke ta tormentu guzia»: *aspicientes in auctorem fidei, recogitate eum* (Hebr. 12,2) ta esaten du ark hau, dio S. Agustinek, bere Krutzean illez josirik gelditu zen Jesus guzia geldi dedin gure gogoan agitz sartua: *ut totus nobis figatur in corde, qui totus pro nobis fixus fuit in Cruce* (Lib. de Virg.) ta gugatik ark an daraman oñaz, odol-isurz eta nekagi guztiz latz-gogorra ekusi ta, saio gaitezen beraren izenean ta geren on andirako gog onez arzera andik edo emendik datorkigun naigabenz guzia ta bidenabar dagigun Jesus berari atsegin egiñen dion ta betiko gure glorirako izanen den on guzia.

Orra zein ondasun andien iturri ta meatzea den Jesusen Krutze ta Pasio santako debozioa ta bata ta bestea erneki, kontuz ta maiz gogoan erabilzea. Debozi ta erabilz onek Jesusi anitz atseginz egiten diola askotan ta anitz aldiz Jesus berak adirazia da ta bein bakarrik ez, egiten zutenei hitzez, eskuz, zeruko argiz ta beste zenbait aldetara eskerrak emanez ta zeruko mil pozez bete ta.

Bete zaitzan bada zu ere zerez ta dizun emen lurreko zere zorrak kenzeko, berririk egin bage bizitzeko, zere kezka eta neke guziak arinki eramateko ta gauz on anitz egiteko grazi ta lagunz andia; ta gero betiko zere gloria, ar zazu gog osoz debozi bera ta egunean bost aldiz esazu bere Krutzean Jesusi begiratu ta: «zere Krutzeko neke andiarekin mundua erosi ta zuzendu zenuen Jesus maitagarria, alde guzitara izan zaitez laudatu-bedeikatua» ta aldian *Aita gure, Abe Maria* ta beraren izenean egizu dezakezun on guzia ta egiten badezu, ar zenezake egiten zuen S. Katalinak artu zuenaren gisako ontart andiren bat.

Jesus gurutzatuari begira zegon batez ekusi zuen Senako S. Katalinak Krutzean Jesus edertasunez bete ta beraren esku-oñ illez ta bularlanzez idikitik ateratzen zirala odolezko bost argi ta gelditzen Santaren esku-oñetan ta bularrean, ta denbor berean bere esku-oñ beretan ta bularrean izandu zuen erdi bi egin behar zuela zirudien oñaze andi bat, ezagu zezan zein andia zen Jesusek an bere gurutzean izandu zuena ta bizi zedin

bere gurutzean anbat nekatu zen Jesus maitariaren urrikaltz len baño agitz andiago batekin.

Egizu zuk ere hau bera ta buruko miñez edo eskuetako, oñetako edo beste edozein zere aldetako oñazerekin arkitzen zaran aldian eramazkitzu zere begiak bere gurutzean burutik oñetaraño ezin geiago nekatu arkitzen den Jesus maiteagana, ango bere neke-pen guziak gatik eskatzeko behar dezuna ta ekusiko dezu Jesusen gurutzea edo gurutzeko egontz nekatua dela, beste gauzetarako bezala, zure oñaze, min ta neke guzientzat ere aringarri agitz andia. Artako bada ta len esan dugun beste guziraiko ar zazu gog osoz ta ziñez Jesusen gurutz santaren ta Jesus gure amorez gurutzatuaren betiko debozioa. Bai arren, bai.



## XI

### Paduko San Antonioren eguneko irakur-aldia

Et vos estote parati, quia qua hora non putatis,  
Filius Hominis veniet. Luc. 12.

*Gaia: Andia izandu zen S. Antonioren humilza  
ta andiagoa da duen honra.*

Gizonen asmoak aisa garaitzen ditu Jangoikoak eta zuzentzen ditu berak nai duen aldera ta eragiten die gizon berei berak trazatzen diena. Askotan egin du Jangoiko maitagarriak hau ta bi aldiz beintzat bere bi predikari agitz andirekin. Jonas Profeta da orietatik bata ta egungo gure San Antonio bestea. Ninibetar guziak Onerazteko artu zuen len Jangoikoak Jonas Profeta ta Italtarren gauza makurrak zuzentzeko egungo gure San Antonio. Bestetarako bideak artu zituzten batak eta besteak, baña beren bideak bie galerazi ta sartu zituen Jangoikoak zegozten beste bideetan. Ara nola.

Esaten dio Jangoikoak Jonas Profetari: «Jonas, zoaz erritzar andi Ninibera misione izugarri bat an egitera ta esaiezu ango erritar guziei: gariez egin dute zuen gaistaginzak eta bekatu andiak eta Jangoikoagana iganik eskatzen diote dagoten zeantza ta kastigua». Jonasek hau aditu ta ematen dio bere burua igesari ta sartzen da Jopeko itsas ontzi batean Tarsoraño ez gelditzeko asmoan. Baña urez hura ibiltzen asi horduko, asal datzen du Jangoikoak itsasoa ta ontziko marinela itsas olastekin ta bag agitz asaldatuekin ezin burutuz ta. Jonas Profetagatik zutela beren perill hau sinisturik, artu ta bota zuten itsas aserretura ta hura urera bezain laster palakatu zen itsas guzia.

Jonas urera horduko, an zedukan Jangoikoak bale izugarri bat. Baleak irits-tragatu zuen Jonas Profeta ta irur egunen buruan bota zuen beste janarien gisan urtu bage ta oso bizia Jangoikoak berezi zion itsas bazter batean. Hitz egin zion berriz Jangoikoak Jonasi ta esan zion me-meki ta asaldantzik bage: «Zoaz Ninibera nik esaten dizudana an predi-

katzera»: *Vade ad Ninivem civitatem magnam, et praedica in ea praedicationem, quam ego loquor ad te* (Jon. 3,2).

Joan zen Jonas Profeta, egin zuen an Jangoikoaren esana ta Jangoiko beraren eskura ziran Ninibeko Errege ta beste bekatari guziak, bada Jonasen sermoi-prediku izugarri bat aditu horduko, damuz urraturik asi ziran baru ta baru ta penitenzi, ta etziran gelditu aserre zedukaten Jangoiko maitagarria palakatu arte guzian. Ona Jonas Profetarena. Ara gaurko gure San Antonioren.

Portugalko Korte Lisboan jaioa da gaurko gure San Antonio. Bere kontuzko estudioak an egin ta egin zen Kalonje. Kalongantzan hura sartu ta laster eraman zituzten Coimbrara San Franziskoko bost Martir berriren gorputzak, eta gorputz, Marruekoko mairu belzaranen eskuz illak. Oriek an izandu zuten zori onaren berria aditu ta sartu zen San Antonioren bihotz-gogoan er bereko zori on baten naikuntz andia ta orien bide beraz errazkiago hau erditsiko zuelako ustean egin zen San Franzisko bereko Fraide.

Fraide egin ta zekarren bizimodu berri onarekin azi zen San Antonioren barrenean Mairu beretara Jangoikoaren legea predikatzen joateko ta Jangoiko maitagarriaren izenean odol guzia an isurtzeko naikuntza ta artarako eman zioten baimenarekin joan ere zen alde artara. Baña osasuna galdu ta ezin iraunez Españira zetorren ontzi batean sartu ta artu zuen bere Konbenturako bidea eta itsasoko aize aserrez hau galerazi ta eraman zuen Jangoikoak bein Siziliara ta gero Italira ta Itali berean eragin zion an arentzat zedukan egiteko andia. Orra, bere bi Predikari oriei galerazi ziezten Jangoikoak berak berez artu zituzten bideak beste obe egokiak arerazteko ta bere bide berriez eragin zien bie berak nai zuena. Biak etziztuzten bide batez beren bideak artu, bada Jonas Profetak nai ta ez bezala ta mukerkeriz artu zuen berea ta gaurko gure San Antoniok ongi ustez, Jangoikoari atsegin geiago egin naiez ta humilz eta poz andiarekin; ta beraren humilz onen erakoa izandu zen Jangoiko berak gero eman zion honra, orain guk ekusiko dugun bezala.



## § I.

### **Humilz andia da San Antoniok Jangoikoaren bidera daramana.**

Mairu-tzarren arte latzean ta Mairu beren presondegiren batean zenbait denbora egin ta Mairuren baten eskuz eman uste zion San Antoniok Jangoikoari bere bizia ta odola, Portugalitik atera ta Mairu tarterako bidea artu zuen egunean. Bide hau bide egokia zen San Antoniok nai zuenerako, bada Santuak nai zuena zen humilki ta honrarik bage bizi ta gaistagin baten gisan bere egunak bukatzea ta bere bizitzan ta eriotzan Jangoikoari atsegin egitea. Bana etzen bizimodu ta eriotz hau San Antoniogandik Jangoikoak nai zuena ta galerazi zion ekusi dugun gisan, batarako ta besterako bidea ta aizez ta elementez Mairu aien bazterretatik eraman zuen Sizi-liara.

Eri daudenak sendatzeko baño osasuna dutenak eritzeko bide ohea da itsas bidea, beintzat bide hau aizez ta elementez ta olast bazterren urragarri betetzen den aldian, San Antonioren ibillaldi onetan bete zen bezala, zeren aldi onelakoan agitz gaistoak diran ontziko gaisoak izaten dituzten aldart-tundak; eta bere aldian izandu zituenekin era guztiz urrikalgarri batean gelditu zen San Antonioren osasun, len ere agitz galdua. Al-ere, zeren Sizilian oña sartu ta laster ikasi zuen beraren Aita San Franziskok Asisko bere Konbentuan egiten zuela Fraideen bilkuntz eta Kapitulo bat, auts-edariak eta beste sendagai guziak utzi ta artu zuen arako bidea ta Jangoiko, bereen hondrariak laguntzen ziola, ara zen Fraide guziak an bildu horduko, baño ara zen itxura guztiz txarrean ta erdi illa zirudiela.

Joan zen Antonio bere Fraideen bilkuntzara zekiena besteei erakustera ez, baizik an arkitzen ziran Fraide jakintsu birtutedunetatik al zuena ikastera, Fraide on izateko jakin nai zuena, ta ibilli zen bere Fraideen artean deus etzekien gizon urrikalgarri baten gisan. Besteen artean zen beraren Ait San Franziskok ere, baño lenbizian zenzat etzuen ezagutu bere seme San Antonio ta egondu zen an San Antonio beraren humilz andiak nai bezala ta bere poz eta atsegintz andiarekin.

Bukatu zen San Antoniok nai baño len Fraideen bilkuntz-Kapituloa. Hau bukatu ta artu zuen bakoitzak bere Konbenturako bidea ta arrotz eriarri bezala etzion batek ere begiratu San Antoniori ta guziak utzi zuten ezertako ez den gauzaren eran ta gisan. Besteen artean an arkitu zen

Romañako Fraide Ministroa. Onegana urbildu ta humilki eskatu zion, arren eraman zezala bere Konbentura. Artaz urrikaldu ta eraman zuen Fraide onek eta sendatzen asi zeneko, utzi zion andik ez urruti arkitzen zen mendiko zulo batean eremutarren bizia egiten ta zenbait denboraz egin zituen an berak nai diña oititz, baru ta penitenzi.

Etzuen Jangoikoak Afrikatik Italira eraman San Antonio an betiko eremutar izatera. Ater-erazi zuen bere mendi zulotik Italiko erri ederrak ekusi duten Predikaririk andiena edo andienetatik bat izateko ta nai ta ez ager-erazi zion artako zuen eskua ta jakintza. Ara nola.

Hostatu batera ziran bein San Antonio bera, beraren Konbentuko zenbait Fraide ta Santo Domingoko beste zenbait. Zenbait gauz on esateko hordua etorri horduko, mututu ziran guziak eta humiltzez etzuen batek ere hitzik atera nai. Hau ekusi ta Jangoikoak ala nai ta, guzien Buruak esan zion San Antoniori hitz egin ta predika dezala. Etzuen alakorik aldi artan ark uste, bada horduraño bizitu zen Italiko bere Fraideen artean bestetarako etzela zirudien Lego bat bezala, sukaldeko gauzak maneaten, baño bere humiltzak ematen zion alkenz-lotsa garaitzen zuela, asi zen bere Buru-Nagusiak manatzen ta agintzen ziona egiten ta egin zuen aditu zuten guziak arritzen zituela.

Bere egin al guzian ta ezin geiagoraño gorde zuen San Antoniok zekien guzia, eta anitz eta asko zekiela bizitu zen horduraño hitzketan doi-doi zekien Lego bat bezala, ta bere humiltzez era berean bizi nai zukean bere azken horduraño, baño etzedukan Jangoikoak Legotako ta isillik eta gorderik Konbentuko zokoren batean egoteko; ta eragin nai zionerako, Jonas Profetari bezala esan ta ez, baizik bere ordeko baten hitz birekin ager-erazi don artako zuen gaia.

Orra zer den San Antonio bezain humillarena: gizonen esankizunari begiratu bage esaten ta agintzen zaiona, igeskak utzirik eta hitzik atera bage osoki egitea ta Jonas Profetak ori egin bagez izandu zituen kezka gogorretatik bere burua kentzea.

Jangoikoak esan ta ere, etzuen Jonas Profetak Ninibera joan nai, Ninibetarrak gezurtizat artu ta gaizki gelditzeko beldurrez, bada beldur zen, berak Jangoikoari gero esan zion bezala, ark bat esan ta beste bat Jangoikoak zegien, edo ark, berrogei egunen buruan Jangoikoak galduko zituela Ninibe ta Ninibetar guziak esan ta Jangoiko berak geldirik utzitzan Ninibe ta Ninibetar berak, agi ta gertatu zen bezala; zeren Ninibe-



tarrak Jonasen sermoia aditu ta egin zuten Jangoiko berak nai zuen penitentzia ta hau ekusi ta agitz kezkatu-naigabetua ta ill nai andi batekin gelditu zen Jonas Profeta. Baña San Antoniok bere buruari begiratu bage ta humilz andiarekin egin zuen Jangoikoak bere ordekoz adirazi ziona ta gelditu zen kezkarik bage ez ezik, honra andiarekin ta andiagoetarako Jangoikoak agertu zion bidean sartua; bada bere humiltzaren alde andiak dira Jangoikoak San Antonioren egin diozkan honrak.

## § II.

Bere honra galtzeko beldurrarekin ta bortxaz bezala egin zuen Jonas Profetak Jangoikoak eragin zion Ninibeko misio-sermoi-predikua ta etzion geroz eman sermoi biderik edo honragai berririk. Etzuen San Antoniok sermoi-honrarik nai, ez eta besterik ere, bada nai zuen guziaz zen humilki bizitzea ta bere humiltzan Jangoiko maitagarriari atsegin egitea; ta, zeren bere humiltz andi hau Jangoikoari atsegin egin naiez garaitu zuen ta deusen ere beldurrik bage egin lenbiziko bere hitzegite ta sermoia, eman ziozkan Jangoiko, humillen honrariak, anitz eta asko prediku ta sermoi; ta sermoi ta prediku, zenbait beintzat, Santu beraren agitz hondragarri milagroenak.

San Antonioren lenbiziko sermoi hau aditu zutenak adirazi zioten beraren Ait-andi San Franziskori nor ta nolako gizona zen beraren seme Portuges hau, ta Aitak hau ekusi ta egin zuen San Antonio relijioso beste Fraideen maisu ta mundu guziko Predikari. Orra zer honra bere humiltz andiaren alde Aitaren eskuz Jangoikoak San Antonioren aldi onetan egin ziona: Legotzat zebillen gizon bat San Franziskoren relijio guziko lenbiziko maisu ta munduko Predikari egiñik uztea.

Batan ta bestean San Antoniok egiña ta irabazia ez da erraz batetan ta laburki guk adiraztea ta obe izanen da Boloniko Santuaren Maestran-tza alde bat utzi ta beraren predikuko honrari begiratzea. Jangoikoak emanikako eskuarekin San Franziskok San Antonio Predikari egin zuen hor-dutik Jangoiko berak daki San Antoniok aditzen zutenen animetan bere hitz onekin egin zuen ona. Aisa zuk hau ezagutzeko aski da jakitea Itali-ko erririk andienetan ere agitu oi zitzaiona ta agitzen zitzaiona zen erriak

zenbait aldiz eguneko horduren batzuetan erritarrak bage uztea. Hordu orietan sartzen bazen arrotzen bat San Antonio predikatzen hari zen errian, arkitzen zuen erria saltzallerik eta langillerik bage ta etxetiar andi edo txikirik etzuela, ta bidezkoen bat edo beste an arkitu ta, galdetzen bazion, «Nora joanak dira edo zer egin dute emengo erritarrak?», esaten zion: «Orra or aldakako soro edo toki zabal batean S. Antonioren sermoia aditzen daude».

Zergatik uste dezu ateratzen zela erritik Santua bere sermoiak egite-ra? Zeren aren sermoiak aditzera biltzen ziranen diña etziran erriko Elizak eta plazak; anbat ziran biltzen ziranak, bada zenbait aldiz biltzen ziran erriko ta bazterreko errietatik zetozen ogei ta ogei ta amar milla ta gei-go, ta biltzen ziran an San Antonioren hitzak aditzeagatik sermoi hordua baño agitz eta agitz lenago, ta an zetorrela Santua aditu horduko, jaikitzen ziran guziak eta besoak luzatzen zituztela, «Ara non datorren, ara», esaten zuten, «Santua». Urrutien arkitzen ziranak oin-puntetan jarri ta luzatzen zituzten buruak hura ekusteko. Besoetan zituzten aurrak goititu ta «Ara», esaten zien amak humeei, «ara, aurra, begir egiozu, ara Santua». Eta alde-rena zeudenak eta beste anitz belaunikatzen ziran hura urbiltzen zeneko buruz ta gorputzez ari agur andi bat egitera.

Ara ta igaten zen Santua bazterreko lur-bizkar edo arbol gañera edo ezartzen zioten maireren batera ta egiten zien bi edo irur horduko sermoia ta sermoia bukatu arte guzian an zeuden guziak arrizko gizonak zirudite-la, naiz eguzki beroa egin, naiz aize otz gogorra edo eguraldi gaistoa; ta zeuden Santuaren hitzei begira ta beren bekatu gaistoei zegozten negar beroak egiten zituztela ta damu andiz guztiz beteak eta andik itzultzen ziran besterena itzultzeko, nori berea uzteko, bekatuaren bideak urratze-ko ta bizitz on bana bertatik artzeko asmoan.

Hau zela Santuak bere sermoiekin erri bazter, erriko plaz eta Jangoikoaren Eliz beretan eragiten zuena, ekusiko dezu Santuaren adille gais-toen zenbaitek egin zutena ekusi ezkerro ta atoz oriek ekustera. Sartu ziran aldi batez Elizaren hitzez histia ta irri egitera zenbait emazteki galdu ta egin zuten histia ta irria izandu zen damuz ta negarrez urtuak eta ontzeko asmo osoarekin sermoietik ateratzea. Bere eskura zuen Santuak anitz hereje gogorren artean arien Buru Borelo, bai ta Pabiko lapur andi ta tirano Ezelino ere ta hau bera egiten zuen aren hitzak aditzen zituzten Juda-tarrekin ere.





Gaisto guziak errazki eskura zitzan Santuak, egiten zituen Jangoikoak anitz milagro. Orietatik bat zen Judatarak, Franzesak, Alemandarrak, Italikoak eta hitzkuntz bereziak zituzten besteak San Antonioren sermoia aditzera bilzen ziranean, aren hitzkuntza hitzkuntz Franzes izatea Franzesarentzat, Alemanikoa Alemandarrarentzat eta berea bakoitzarentzat, guziak batean adi zezaten Santuak ziona ta egin zezaten Jangoiko berak nai zuena.

Gogortzen baziran zenbait bekatari ez egiteko Jangoikoak nai zuena, Jangoikoak egiten zituen Santuak ziona ontzat emateko beste milagroak ere. Aditzekoa da ur bazter batean predikatzen hari zen batez Jangoikoak egiña. Gogortu ziran ez siñisteko edo ez egiteko Santuak ziona aditzen zutenak. Jiratu zen urrengo ur aldera Santua, ots egin zien ango arraiei ta esan zien: «atozte, arraiak, nik esaten ditudan egiak aditzera», ta hau ark esan horduko, agertu ziran ezin kont-al diña arrai andi ta txiki, ta txikiak aitzinetik eta andiak ondolik jarri ta buru agertuekin egondu ziran Santuak ziona aditzen ta etziran gorde Santuak sermoia bukatu ta bere bedekantza eman arte guzian.

San Antonioren honrako Jangoikoaren milagroak etziran bukatu Santuaren eriotzarekin; len bezala egiten ditu geroztik, Santuak eskatu ezker, eta Santuak eskatu bage ere, egiten dit betiko bat, adirazteko zein andia den Santuak bere bizitzan hitzez animen onerako egin izandu zuena. Jangoikoaren betiko milagroa da Santua ill ta bost eun urte ta geiagoren buruan Santuaren mihia oso osorik eta usteldu bage dagon gisan egotea.

Besterik ere egin du Jangoikoak San Antonioren alde, bada Paduan ta Italiko beste anitz erritan utzi du Santuaren izenarekin; ta orko erritar txiki andiak «Goazen S. Antoniogana» esateko, esaten dute «Goazen Santuagana», Santu guzien artean hau bakarrik baliz bezala Santu ongillea. Orra zenbat honratzen duen Jangoikoak San Antonioren humiltza. Eta Jangoiko beraren honrak nai badituzu, izan zaitez zu ere humilla. Izan zaitezke Jangoiko berak laguntzen dizula ta lagunduko dizu, zuk ziñez eskatu ezker. Eska zagozu bada; bai arren, bai.

## XII

### San Luis Gonzagaren eguneko irakur-aldia

In Resurrectione... erunt sicut Angeli Dei in coelo. Matth. 22.

*Gaia: Munduan San Luis Gonzaga bezala bizi diranak  
Aingeru beren gisan biziko dira zeruan.*

Bi jakintsu elkar artzen etzutenak arkitzen ziran Israeldarren artean, Israeldar beren artean Jesus zebillen denboran, ta bakoitza bere bidez ibilli zen Jesus bera bere hitzez nastu ta azpira naiez; bata Saduzeoen izena zuena zen ta Fariseoen izenekoa bestea. Saduzeoak ill ta noizbait biztu behar dugula etzuen siñisten; Fariseoak bai, ta bata eta besteak ukatzen zuten Jesusen Jainkontza edo Jainkotasuna.

Beren ukantz hau on egiteko ta bakoitza berearekin atera naiez asten zaizka aldizka Jesusi gaur, ta asten zaizka, bein gure biztu beharra ukatzen zuen Saduzeoa ta galdetzen dio: «Maisu jauna, sei senar bata bestearen ondolik ill ta zazpigarrenarekin bizi dela iltzen da andre bat; andre bera ta beraren zazpi senarrak bizten diran aldian, zeinen bizikide ta emazte izan beharra da?». «Baten ere», erantzuten dio Jesusek, «zeren biztuak, gorpuzik bagekoak balira bezala ta Aingeruen beren gisan biziko diran biztu ezker ta sekula guzian». Eta illen bizkuntzako beren itsumena kendu naiez Saduze-tzar berari ta aren lagunei esaten die Jesusek oni ditzekola: «Egiteko onetan uts egiten dezute zuek, jakin bagez Eskritura Santak diona ta Jangoikoak egin dezakena: illak arkitzen diran, baña animaz bizi diran ta gorputzez ere beren horduan biztuko diranak dira Abran, Isak eta Jakob, ta orien Jauna da Jangoikoa, ta Jangoikoa ez da illen edo deus-ez diranen Jauna ta Jabea». Mututuak eta hitzik bage gelditu ziran Jesusi hau aditu ta Saduze-tzar arroak.

Pozez aseak gelditu ziran Farise zerbait zekitenak, beren etsai Saduze guziak gisa artan Jesusek garaituak ekusi ta; ta berak Jesus bera garaitu naiez jokatu ziran beste bidez ta elkar arturik argana ta galdetu zioten: «Maisu jauna, ta zein da Legeko mandamentu andia?», ta galdegin zioten



hau mandamentuari bere alde zerbait kenduko ziolako ustean ta gero legearen urratzalea zela bazter guzietan banatu naiez ta deshonoraturik Jesus uzteko. Baña ustel atera zen orien nai ta asmo guzia ta berak gelditu ziran beste aldietan bezain azpian sartuak eta Jesusek garaitu zituelako miñ gordiñarekin.

Nola garaitu zituen ekustea ez da aldi onetako gure egitekoa; aldi onetako da gaurko Ebanjeli Santak dakarrena ekusi ta San Luisen alde ori zuzentzea. Ebanjeli Santuak dakarrena da Fariseoen galdantzari Jesusek eranzun ziona; ta eranzun ziona da: «Legeko mandamenturik andiena da Jangoikoa gogoz, bihotzez ta lanez alegin guzian onest-maitatzea», ta oni zitxekola esan zien: «Bigarren mandamentua oni dagokana da ta hau da, bere burua bezala batek beste edozein onestea, ta bata ta bestea egiten duenak egiten du lege guziak eta Profetak diotena». Orra Farise galdegiñak isilerazteko Jesusek gaur eranzun ziena.

Orra bidenabar gaurko Santu gazte gure San Luisi, munduko beste edozeñi bezala, Jangoikoak eman zion egitekoa; ta egiteko, San Luisek mundu berean bizitu zen aldi guzian ederki egiña; ta egiteko, munduko beste edozeñek ere egin dezakeana, zaldun ondasundun eta aisa bizi diran beste askok ezetz badiote ere.

Jesusen Konpañian santuki bizitu zen ta an bertan ill zen santuki San Luis Gonzaga, egia da; baña Jesusen Konpañira zeneko, bazituen San Luis Gonzagak amazapi urte ta urte orietan izandu bazituen ere munduko honra, egiteko, ondasun ta sartu-ater andiak, guzian artean egin zuen beti Jesusek agertu dizkigun mandamentu bata eta besteak esaten dutena; bada ez bata autsi zuen ta ez bestea bere bizi guzian, ta mandamentu oriek ez autsi ez ezik, egin ere zuen munduan San Luisek gero Jesusen Konpañian bezala geiago ta geiago ere; bada egin zuen aldareetara Santutzat igateko egin behar den guzia. Eta horduan ta gero egin zue nagatik orain zeruan badu Aingeruenaren gisako zori ona ta bizia. Hau bezalakoa erditsi nai duten mundutar ondasundun ta beste guziak egin behar dute San Luisek munduan egin zuenaren erako bizia. Zer bizimodu zen San Luisek munduan egin zuen bizi hau da orain nik agertu uste dizudana.

## § I.

Munduan bizi diranentzat egiña da egungo irakur-aldia ta mundutari munduan bizimodu on baña ar-erazteko aski da San Luis Gonzagak munduan egin zuen bizitza agertzea; hau da alabaña mundutarrei beren bidez ibiltzen erakustea ta erakusterik egokiena. Oraingo mundutarrak bezala munduan bizitu zen San Luis Gonzaga, ta bizitu zen nekazari, langille ta lureko egitekoetan haste guzian sartuak dabiltzanak bezala ez, baizik honren ta ondasunen ta aiskuntzen artean, ta gis onetan bizi diranak dituzten perillen artean; ta bizitu zen erri txiki ta bekaturako bide guti duten bazterretan ez, baizik erri eder ta korte andietan; ta erri ta korte, jende andiz ta anitz perillez ta gaitzbidez beteetan; bada Jesusen Konpañian sartu zen arte guzian bizitu zen bere aitaren korte Castillonon, Toskanako Dukearen korte Florentian, Españiko Erregeren korte Madrillen ta beren izeneko Dukeen korte Milanen ta Mantuan, ta al-ere bizitu zen ongi ta garbiro, Jangoikoa ziñen ta beste guziak behar zen bidez onesten zituela ta Jangoikoaren legeak diona ederki egiten zuela; bada bere bizian egin zituen utsegiterik andienak izandu ziran txiki bi, damu andiarekin beti begitan ekarri zituenak eta bein beintzat ar-erazi zioten damuarekin illa bezala ta akordurik bage utzi zutenak.

San Luisek egin zituen bi uts txiki orietatik bat zen, zer egiten zuen etzekiela ta laur edo bost urteko aurra zen denboran, soldadu zenbaiti aditu ziezten hitz ez-behar bezalako zenbait, oar-erazi zuten artean, esatea; ta bestea, jostatzeko egin zioten piez edo sutunba txiki baterako soldadu berei balbor piska bat artzea. Azkartu ta egin zuen Florentziko erri andian Konfesi jeneral bizi guziko bat eta zeraman damuarekin bata ta bestea konfesoari esan horduko, erori zen akordurik bage ta illa zirudiela ta oriek diñako utsik ere etzuen geroz egin bere bizi guzian ta len ta gero bizitu zen bere bataioko grazia bein ere galdu bage ta munduko guziei agertzen ziela mundu berean bekatura bage ta garbiro bizitzeko bidea; ta agertu zuen San Luisek zori oneko bide hau mundu berean berak egin zituen iru gauzekin.

San Luisek munduan garbiro ta santuki bizitzeko ta mundutarrei era berean bizitzen erakusteko egin zuen lenbiziko gauza zen mundu beretik edo munduko perill ta bide galgarri guzietatik iges egitea. San Luis bizitu zen bezalako errietan, San Luis bezalako zaldun ta ondasundunentzat badira amiltegi ta bide galgarri anitz, kontuz ta erne ez dabilzantentzat;



badira alabaña aldi batean zezenketak eta beste batean komediak; badira itxeetan gizon ongi jauntzien ta andreki apainduen festak, dantzak, jokoak eta jolasketak; badira orien beren elkarrekiko ibillerak eta paseantzak eta badira Elizan, karrikan ta nonnai elkar ekusteko, soñezko ta begiz elkar berotzeko ta batak besteari hitz egiteko aldiak eta bideak; bai ta oriek guziak baño perill geiagotzekoak eta agitz galgarriagoak ere.

Bide orietan dabilzan zaldun ta ondasundunak eta beste guziak eta noiz edo berriz baizik, eta horduan ere ezinbestez bezala, elizaratzen diranak, bide aldapadun izotzuz dabilzanak bezala dira eta era onetan dabilzan mundutarrentzat mundua amiltegi ta malkor agitz izugarria da ta anitz eta anitzentzat bekaturako bidea; baña ez-ekusi egin ta iges egiten dieneztat ez; eta hau da bekatura bage munduan bizi nai dutenak egin behar dutena, dio Kardenal Ugok: *qui vult servari à peccatis, debet tumultum mundi evitare*; bada bekatu sail guziak garaitzen ditu, dio, ta bat ere nekatu bage, bekatuaren bideetatik iges egiten duenak: *nimia turba vitiorum, sine certamine, vincitur; quando solitudo, gratis solidatur.*

Hau bera da munduko bekatutan ez sartzeko San Luis Gonzagak egiña: bekatu bide guzietatik iges egitea ta bein edo berriz ez ezik, betibeti iges egitea, ta ongi baño obeki iges egiteagatik bide orietatik begiak ere urrun-eraztea; bada itxean bizitu zen denboran etzion gelan sartzen utzi itxeko donzell edo emaztekiri ere, ta bera an zela aratzen baziran, gelako atarira atera ta aditzen zuen zekarten mandatua ta begiratu ere bage igortzen zituen bereala. Eta ez begiratze hau egiten zuen San Luisek itxean bere amarekin ere.

Itxean zena izandu zen San Luis Madrillen ta munduko beste erri ta bazter guzietan ta guziei toki guzietan agitzen zitzaizen San Luisekin Madrillen Españiko Erreginari agitua. Españian izandu zen San Luis Españiko Prinziperen Menino edo Paje ta nai ta ez agertzen zen askotan Erregiñaren begietan. Erregiñak begiratzen zion San Luisi zuriak, beltzak, urdiñak edo nolakoak ziran aren begiak ekusi naiez, baña etzuen nai zuenik ekusi, zeren San Luisek goititzen etzituen bere begiak.

Begiz zena zen San Luis oñez ere munduko bide galgarri guzietatik iges egiteko. Piamonteko alaba zen San Luisen ama ta Españitik itxera itzuli zen aldiari Piamonteko korte Turinen egin zioten zegokan ongi-torria ta festa. Festan argana zen dama bat berekin dantz-eraztera Santua, baña Santuak egin zuena zen zegon tokitik jaiki, buruz agur bat damari egin ta beste gelara joan ta belaunikaturik otoiiz ta otoiiz an haritzea.

Oñez ta begiz zena zen San Luis mihiz ere bekaturako bideak galezteko. Turingo aldi berean asi zen ango zaldun adifezko bat arinki ta etzegokan eran mintzatzen, bada asi horduko isilerazi zuen San Luisek esaten ziola: «Ez nuen uste zu bezalako zalduntzar batek egiñen zuela egiten dezuna bezain ereintz gaistoa. Emen gaudenok bezalako gazteen artean ez dira esatekoak esaten dituzun gauzak, bada aditzen dituztenak zikintzeko baizik ez dira, San Pablok dionaz, zure oriek bezalako hitzak: *corrumpunt mores bonos colloquia prava*» (Cor. 15, v. 33). Era berekoa zen beste aldiari ez bekaturatzeko San Luis eta egiten zuen lenbiziko gauza zen iges egitea bekaturako perille bat ekusi horduko.

## § II.

Munduan batek bekaturako bidetan oñik ez sartzeko mundu berean erne ta kontuz ibilli behar du; bada mundu berean dabilza onak gaistatzen anitz gaisto, bai ta sulezeko gure etsai deabru amurratu galduak ere, ta bekatura bage bizitzeko egin beharko du lapur artean dabiltenak orien eskuan bere bizia edo duena ez galtzeko egiten duena; ta artako lapur artean dabiltenak egiten duena da non dabilzan lapurrak kontuz ekustea edo galdegiñez ikastea ta, zer gerta ere, armaz beterik ibiltzea, lapur berak izutzeko edo agertzen badira pelean haritzeko, eta hau da munduan bekatura bage bizitzeko San Luisek egiten zuen bigarren gauza.

Aragiari su emanez edo beraren burua arrotuz galdu oi dute munduan bizi dena munduko gaistaak eta sulezeko deabru galgarriak. Burua San Luisi arrotzeko bazuten munduan beraren etsaiak anitz egur ta gai; bada gaztea bazen ere, bazuen San Luisek Castillongo Markes izateko behar zuena ta Markesantz berari zegozkian estadu bazterretarako eskua, bai ta Erromatarren inperioko prinzipearean tituloa ere; ta gauz arrogarri oriekin batean bazuen zebillen korteetako prinzipeen ta zaldunen estimantza ta onginaia. Eta San Luis beraren aragia sutzeko ere bazuten beraren etsai berak nai adiña gai ta deretx; bada bazuten bera zebillen korte beretako ta beste errietako ekusgai eder, jolasgai arin ta apainket arro guzia. Baña beren gai egoki guziekin munduko ero galduak eta sulezeko deabru guziak egin bazuten ere beren alegiña, ez sutu zuten santua aragiaren atsegintz txar txikiena ere ar-erazteko ta ez arrotu zuten honra pis-



karen bat billarazteko, ta oriek santuari bata edo bestea eragin lekuan santuak oriek ostiko birekin azpira zituen bein ere jaikitzen ez uzteko.

Ostiko bietatik bata eman zien San Luisek munduari ta mundutar arroei ta bestea deabruari edo deabruak sutu nai zion bere aragiari. Eman zien, bai, ostiko San Luisek munduari ta mundutar arroei oiñpean artuz oiñpe berean beti idukitzeko mundutar arroak geienik nai dutena edo munduko ondasuna ta honra; bada amazazpi urtetara zeneko bere poz andiarekin utzi zituen Inperioko bere Prinzipantza ta Castellongo Markesantz edo Markesia ta biei zerraiten ondasunketa ta honra guzia ta egin zen bereala Jesusen Konpañiko relijiotar behartsu (lenago ta lenago ere egiñen zuen ark hau beraren Markes aitak ez eragoztera), ta egin zuen ark hau lenbaitlen, lenbaitlen munduko arrotasun-gai guziak oiñperatzeko ta agi edo gerta etzekion honradun aberats anitzi, berak zionaz, agitzen zaiena, edo ill horduko, eskeko behartsu berak bezain bage gelditzea ta bitarte guzian egiten dituzten gaistaginzak gatik behartsu berak baño ezur agitz zikiñagoak obira eramatea.

Aragiz jauntzia bazen ere, aragirik ez duten aingeru beren gisan ta guztiz garbiro bizitu zen San Luis munduko ta korteetako zikin-gai guzieren artean ere; bada, Eliz Ama santak dion bezala, bere bizian etzuen San Luisek izandu gogorantz lizunik, ez eta aragiaren beronzik eta asaldanzik ere, Jangoikoak artako emanik besteei eman oi dien lagunz eta grazia baño lagunz eta grazi agitz andiagoa: *virginitatem insigni Dei beneficio nulla mentis aut corporis pugna tentatam servavit*, ta al-ere deabru gaistoa lenbizitik ostikoz bere oinperatu ta ere, eragin etziezagon beste anitzi aragiz eragin diena, geroz etzion burua jasotzen utzi, ta aurdanik asi ta bere bizi guzian ostiko ta ostiko erabilli zuen bere aragi gorputza ta kendu ziozkan begiz, eskuz edo beste bidez ar zitzaken atseginzak eta eman ziozkan anitz nekagirotu ta tund gogor.

Orietatik bat zen siliziorik etzuen denboran zaldien esproñak edo espuel zorrotzak artu ta bere gorputzari barrendik lotu ta berekin min andia ematen ziotela luzaro erabiltzea. Bere gorputzaren nekagirotu beretatik zen barutzen zen gisan hastean iru ta laur egunez barutzea ta denbor luzean egun guzian ontza bat janari baizik ez artzea. Nekagirotu beretatik zen estaltzeko diña soñeko baizik etzuela, oatzetik negu erdiko gau otzetan ere jaiki ta hordu osoz otoitz egiten egotea, bai ta egunaz bi ta irur horduz era berean ta belaunak lurrean ezarri ta egon oi zen bezala otoitz

eta otoitz egotea ta gorputzaren beste gauza nekagarri anitz egiten zituen gisan egitea ere.

Orra San Luisek munduan mundutarrak egin oi dituzten bekatutara bage ta garbiro bizitzeko egin zuen bigarren gauza: gogoaren arinketen ta aragiaren naikuntz lizunen bideak urratzea, ta urratzea ostiko bortitez edo bere gogo bera ta aragia ekusi dugun gisan nekatuz ta oinpera erakarriz.

Orretarako ta garbiro munduan bizitzeko egin zuen San Luisek beste anitz gauza ere ta orien artean bat artako agitz egokia, ta hau zen otoitza, ta otoitz askotan ta luzaro egiña. Mundutar munduan bekatuatzaren diranak bekatuatzaren dira edo behar denera oartu bagez edo zeren billatzen ez duten ez bekatuatzeko behar duten indartza, ta ez dira oriek artara oartzten ta billatzen ez dute hau, zeren egiten duten otoitz guti edo bat ere ez; bada kontuzko ta askotako otoitza ta otoitz luzea egiten duenak gogoan daduka guztiz maitagarria dela Jangoikoa ta Jangoikoagana daraman birtutea, ta agitz itsusi zikiña dela bekatua ta agitz arrigarria bekatuari darraikon infernua, ta bidenabar bere gogoan dakar mundu guziagatik ere ez dela bekatua behar ta beste guzia galduko bad-ere, Jangoikoari zor zaionagatik eta betiko zori on bat erdisteko, onesti ta maitatu behar dela Jangoikoa, ta otoitzez hau gogoratzen duenak eskatzen dio Jangoiko berari ta erdisten du hau egiteko behar den laguntza ta grazia.

Hau zen San Luis Gonzagak aurdanik asi ta relijiora zen arte guzian (ta geroz ez gutiago) egiten zuena; bada bost urte zitueneko itxe bazterretara joan ta jartzen zen belauniko ta egoten zen an luzaro otoitz eta otoitz egiten. Geroago ta luzeagoa izandu zen San Luisen otoitza, hordu osoak egiten zituen gero bere otoitzean ta aldiren batez bost ere bai arreo; otoitz hordu osoak joaten zitzaizkan gogoa bestetara barriatu bage ta negarrezko iturri bi bere begiak egiñak zeduzkala ta itxeoak aren gelan edo otoitztegian sartu ta ibilliagatik, an zebiltzan edo ez oartu bage ta orien ots-eskanbillak edo deiak aditzen etzituela, ta egiten zituen bere animako atsegintz eta poz andiarekin ta mundu galgarrian galdu bage ta santuki bizitzeko Jangoikoaren laguntz eta grazi anitz erdisten zuela.

Orra, bada, mundu berean ongi bizitzeko San Luis Gonzagak mundutarrei erakusten diena: munduaren erakeri ta perillezko ibilleretatik begiak ere kentzea, nekez, penitenziaz ta otoitzez gogoa ta ,aragi galgarria mugaz ta garai onean eskuratzea ta deabruaren ta mundu eroaren lan gaistoak utzi ta garbiro ta santuki bizitzea, gero ill ondoan San Luis beraren lagun zeruan izateko ta aingeru berak bezala an bertan bizitzeko. Jan-



goiko maitagarriak dizula hau zuk emen egiteko behar den grazia ta gero-rako adirazi dugun zori ona, bai ta hau guzia zuk erdisteko San Luis Gonzaga beraren debozio ta lagunza ere: bai arren, bai.

## XIII

### San Joan Baptistaren eguneko irakur-aldia

Joannes est nomen ejus. Luc. 1,63.

*Gaia: Galdu nai ez duenak egin behar du  
Jangoikoak igortzen dituenen esana.*

Parerik bageko jaiotza Jesus maitagarriaren jaiotza da; da ala-baña Jangoiko-gizon Birjin baten Semearen ta Seme gizonen egitekorik bage egin zenaren jaiotza ta orregatik da jaiotz guztiz txarmagarria. Orrenbateko jaiotza ezpad-ere, jaiotz beste gizonen jaiotzak agitz garaitzen dituen da egungo gure Santu andi San Joan Baptistaren jaiotza; da alabaña ama agor ta aita zar baten semearen, ta seme, jaio baño len bataitu, bekatu etorkiaren kutsurik bage ta Jangoikoaren graziz apaindurik arkitzen zenaren ta santu ta profet egiñaren jaiotza: *et Spiritu Sancto replebitur adhuc ex utero matris suae* (Luc. 1,15); orregatik da gizonen jaiotz guzien artean Kristo Jaunaren jaiotzari geienik urbiltzen zaiona, ta jaiotz, Kristo Jaunarena bezala, profetez adirazia ta Jangoikoak bere aingeruz agitz lenagotik agertua. Kristo Jaunarena gauza jakiña da; adi zazu San Joan Baptistarena.

«Bai», dio San Maximok, «San Joan Baptista da gero bere denboran etortzeko zegola Isaias profetak adirazia ta adirazi zuen ark hau Jangoiko berak agertzen ta idarokitzen ziola»: *hic est ille, quem inspirante Deo, praescius annuntiat Isaias* (Hom. 3 in Nativ. S. J. B.). Eta hau bera da Jangoiko beraren aingeru batek ere Santu beraren aitari, gertatu baño len, agertu zion gauza. Lege zarreko Eliz-egitekotan arkitzen zen batez aingeru batek agertu ta esan zion Zakariasi: «Aditu ditu Jangoikoak zure otoitzak; izanen dezu zere andre Isabelgandik seme bat eta Joan da seme oni ezarriko diozun izena». «Zer diozu zuk, aingeru ona?», esaten dio Zakariasek aingeruari; «zartu gara nere andrea ta ni len izandu ez ta orain seme bat izateko, ta diozunaren señaile on bat ekusten ezpadut, ez dut hau nik siñistuko». «Orra, bada», erantzuten dio aingeruak, «Jangoikoaren aldean nabi-



llen aingerua eta izenez Gabriel naz ni, ta nazanak bezala esaten dizut mutu geldituko zarala, hau agi ta gerta dedin arte guzian».

Guzia gertatu zen aingeru San Gabriele Zakariasi esan bezala; bada Sant Isabel aurdun egin ta erdi arte guzian etzuen hitzik atera; baña aurra jaio ta zortzigarren egunean Zirkunzisioko izena ari ematerakoan artu zuen bere pluma ta plumaz adirazi zuen Joan zela ezarri behar zioten izena ta hau egin horduko asi zen mutua hitz egiten ta profetak bezala agertu zuen anitz etorkizun andi ta besteen artean bere seme jaio berriaren egiteko andia, ta hau oni agertu zion beragana jiraturik esaten ziola: «Bai, nere semea, bai; zuk izanen dezu gain guziak baño geiago goratzen den Jaunaren profet izena ta aren aitzinetik ibilliko zara dagozkan bideak moldatzen ta beraren legeko izan behar dutenei beren bekatu guzien barkamenturako jakin behar dutena erakusten ta Jangoikoaren gudanako urrikaltz andia agertzen».

Eratsu bereko hitzak idaroki ziozkan Jangoikoak bere aingeru San Gabrieli ere San Joanen etorrera ta egitekoa ager-erazi ziozkan aldian; bada esan-erazi zion: «Israeldarretatik anitz eta asko erakarriko ditu Jangoikoaren eskura ta orretarako Jangoiko-gizon Kristo Jauna baño len asiko da Elias baten bular, indar ta birtutearekin predikatzen, bekatari aditzen dutenen bihotz gogorak beratzen ta Kristo Jaun beraren predikurako gauzak prestatzen». Eta batari ta besteari idaroki ziena lagunduz eragin zion Jangoiko berak San Joani; bada, gaurko Ebanjelio santuak dion bezala, asi hordua etorri aldiraño eremu batean sartu ta bizitu zen San Joan Baptista otoitz ta baru zeruko indarrez, zelo santuz ta birtutez prestatzen penitentziko bere prediku ta sermoi andietarako; ta orietarako hordua etorri zenean, jaitsi zen eremutik Jordan deritzan ibai bazterretara kamel illezko soñeko latzez jauntzia ta larruzko gerrikoz lotua, ta jale nekezkoak egiten bazituen ere, asi zen bortitzki predikatzen ta bekatua guziei begitan ar-erazten, bai ta Jangoiko-gizon beraren ondotik zetorrenaren berria ematen ere ta bere lan onetan haritu zen Herodes gaistoak bizia kendu arte guzian. Arte onetan egin zuten, aren hitzak aditu ta, Jerusalem, judatar ta bazter aietako beste anitz askok adirazten zien penitentzia ta konfesioa, ta ez egiteko gogortzen ziranei egiten zien betiko surako mehatxu izugarria. Ara nai ezpadugu, orra guk ere egin beharra; predikari jaunen ta konfesor guzien hitz onak aditzea ta orien esanak osoki egitea.

## § I.

Aldian aldiak eskatzen dituen gizonak igortzen ditu Jangoikoak mundura. Jangoikoaren gizon egin ta mundurako etor-aldiak eskatzen zuen gizon ta profet-predikaririk andiena, zeren Jangoiko-gizonaren horduko etor-aldia zen mundu guzian izandu den ta izan ere diteken egitekorik andiena; zen alabaña mundutar guziak beren bekatupetik eta deabruaren atzapar gaistotik ateratzeko Jangoiko bera gizon egitea, lege berri bat munduan ezartzea ta nekezko bizi baten buruan, tormentuzko erio baten atzapar gogorrean illik gelditzea ta aldi onetan Jangoikoak bidaldu zuen profet-predikaria da egungo santu andi San Juan Baptista; ta San Maximok dionaz, San Joan Baptista da profet ez ezik, profet guzien profeta; profet, bere hitz zeruko profet guzien esanak seguratu zituena ta Jangoikoak aldi onetan orretarako berariz igorri-bidaldua: *qui idcirco in hoc saeculum divina dispensatione directus est, ut non solum ipse profetali sublimaretur gloria, sed ut et omnium etiam per eum profetarum praeconia firmarentur*; ta Kristo Jaunak dionaz (ta San Maximok eta munduko beste guziak diotenak baño mill-milloietan geiago balio du Kristo Jaunak dionak), San Joan Baptista da berez ere jaio diran guzien artean gizonik andiena: *inter natos mulierum non surrexit major Joanne Baptista*.

Aldi guzietan du munduak profet, predikari ta konfesor onen beharra, zeren aldi guzietan ta beti den mundutarren artean anitz jakin behar ta bekatuaren zakar, ta zakar oriek kentzeko ta jakin behar den guzia erakusteko Jangoikoak beti bidaltzen ditu behar bezain onak eta egokiak, eta mundutarrak Jangoiko-gizon Jesusen eskupekoak izan nai badute, egin behar dutena da ekusi dugun aldian Jerusalem, judatar ta Jordanen bazterretakoak egiten zutena edo Jangoikoak igortzen diezten predikara onen hitzak aditzea ta konfesioz ta damuz beren animak batai-garbitzeko konfessoreen oñetara askotan joatea.

Illunbetan dabilzan bidari gaisoak gara munduan arkitzen garan geienak; bada geienok ez dakigu zeruko bidez gabiltzan edo sulezekoz, edo ez dakigu barkatu diran gure bekatu gaistoak edo ez, ez eta oriek guk ongi konfesatu ditugun ere; bada ez dakigu konfesatu ditugun osoki, konfesatu ditugun behar den damu ta urriki guziarekin ta konfesatu ditugun bekatu berrien bideak urratzeko ta geren buruak ontzeko asmo osoan, ta



hau guzia guk ikasi arte guzian ez dakigu zer bide den daramagun bidea ta guk Dabidek bereari bezala nai badiogu geren animari, egin behar duguna da berea seguratzeko ark egiten zuena.

Badakizu zenbat nai zion Dabidek bere animari? Berak dionaz ezin geiago, bada dio: «Bat da Jangoikoari nik eskatu diodana ta beti eskatu uste diodan gauza, ta eskatu diodan ta beti nik eskatu behar diodan gauz hau da bide zuzenez ibilli ta zori oneko glorira nere anima hau eramateko grazia»: *unam Peti à Domino, banc requiram, ut inhabitem in domo Domini* (Ps. 26, v. 4). Orra bere animari zenbat nai zion errege Dabidek. Orrenbat nai badiogu zuk zereari, egiñen dezu zerea seguratzeko berearen alde ark egiña. Badakizu zer? Nondik artu ta nola ibilli ekusteko argi-modu bi billatzea: *lucerna pedibus meis verbum tuum, et lumen semitis meis* (Ps. 118. 105). Oñik bidean sartu baño len zeruko argia arturik ekusten zuen Dabidek zein zen zerura zijoan bidea ta behatz-toparik ez emateko ta bekatura bage ibilli naiez, eskuan eramaten zuen zeruko beste argi bat, oña non ezarri beti ekusteko. Eta orra guk ere geren animak ongi seguratzeko egin behar duguna.

Gorputzak baditu bi argi-modu: biderako bata ta itxerako bestea. Gorputzak biderako duen argia da egunaz eguzkia ta gabaz illargia. Eta gorputz berak itxerako duen argia da zuzia edo kis-txispoia, krisellua ta argizagizko edo sebozko kandela. Animak ere baditu beste bi argi-modu: guzientzat Jangoikoak egin duen bidea edo Jangoiko beraren legea ta legeari dagozkan gauzak agertzen dituen bata ta bakoitzari bere bihotzeko zokoak agertzen diezkana bestea. Animaren eguzk-argia da lenbizikoa ta anima beraren esku-argia bezala bigarren hau.

Animaren eguzk-argia da beren sermoi ta kongregazioan predikari ta kargudunak guzientzat egiten duten erakunstza ta anima beraren esku-argia da konfessore bakoitzak bakoitzari egiten diona; bada eguzkiak agertzen zaizkan bazter guziak argiz bezala, predikari onak aren hitzak aditzera urbilzen dena betetzen du erakustez ta jakin behar dituen berriz, ta bidezkoak eguzkiarekin dabillen aldian bere bidea bezala, hitz oriek aditzen dituenak ekusten du Jangoikoaren legeko ta zerurako bidea.

Animaren krisell esku-argia da batek bekatuaren loiak kentzeko ta barreneko bere gauzak zuzentzeko konfessore bategandik ikasten duena. Zeruko bidez zuzenki ibilli nai duenak artu behar du libru ta erakusle onen argi-dotrina -La noiez ere baño kontuzago garizuman ta misioko denboran, zeren aldi orietan besteetan baño erakuste argidunagoak eta

bekatuaren damua ta Jangoikoaren amorea adileen bihotzei ar-erazteko obeak egin oi diran. Onetarako aldi orietan baño ere Aita San Ignazioaren ejerjizio batzuetan adituz, ekusiz ta gogorantz kontuzkoz ikaste obeak egiten dira ta egin nai dituenak ar beza al badu bein edo berriz beintzat arako bide hau ere.

Gauaz gordetzen da eguzkiaren argia ta bidez dabillenen oñak non ezarri ekusteko eraman behar du emen bertako argiren bat eta ez darimana erorz gaistoak egiteko bidetan arkitzen da. Ibilli behar duen aldi guzietan ezin izan ditzake animak sermoien, ejerjizioen ta libru onen argiak edo erakusteak, eta aldi orietan zeruko bidean erorz ta galtzerik ez egiteko artu behar du konfessoriaren edo beste gidari jakintsu onaren argia, ta artu behar erakuste ta argi edozeinena ez, baizik erakusle jakintsu onarena; bada ez-onaren erakustea aizetan gelditzen den erakustea izan oi da ta deus guti balio du ez dakien edo guti dakien erakuslearen argiak ere, dio San Joan Krisostomok: *lucere tantum est vanum: ardere tantum est parum: lucere et ardere perfectum* (Ser. de Nativit.); ta gabaz edo izaten dituen illunbeetan ongi ibilliko den animak behar duen jakintza ta argia da konfesor edo erakusle on bero jakintsu batek ematen duena; hau da alabaña dabillenen bihotza berotzen duen ta daraman bidea agertzen dion argia: *lucerna ardens et lucens*; ta argi hau bage dabillen anima illunbetan luzaro dabillen gizona bezala da ta illunbetan luzaro dabillen gizonak ez du bidean gauz onik arkitzen, ta len edo gero austen du oña, ezurra, muturra edo burua.

## § II.

«Bai», dio Espiritu Santuak: «zori gaistokoa da berez ta lagunik bage dabillen gizona; bada ez du nor eskua eman (osin gaistoan, leze izugarrian edo beste edozein toki galgarritan) erortzen den aldiko (edo ezurak ausirik eta ezin dabilkeen eran gelditzen deneko): *vaè soli, quoniam si ceciderit, non habet sublevantem se* (Eccl. 4,2). Bai ta, dio San Joan Krisostomok, edozein gidariren argiarekin dabillen anima ere; bada bein gidari edo konfessore batagana, bein besteagana dabillen anima, batetik bestera dabillen ta edozein tokitan oña ezartzen duen txoria bezala da, ta era onetako txoria ais-aski eskuratzen ditu sarea edo lakioa ezartzen dien eisteriak.



Anim hau baño ere zori gaistoagoko anima da, dio Doktore santu berak (Hom. 13 in Mat-th.), bere buruz dabillen anima; hau alabaña da, dio Santuak, Adan bere senarragandik baztertu zen Eba bezala. Ebari baztertu arte guzian etzion hitzik egin sulezeko tentari gaistoak, baña bakarrik hura ekusi horduko argana zen sierp egiñik eta agertu zion Jangoikoak debekatu zien sagar ederra ta siñist-erazi don nai zuena; bada siñist-erazi zion gaizki naiez, enbidiz ta bera bezala Jangoiko egiñak geldi etzitezen, debekatu ta eragotzi ziela sagar artatik jatea ta azkenean artatik jan-erazi ta utzi zuen bekatuz galdua. Hau da, dio gero Santu doktoreak, bere buruz edo bururik bage batetik bestera ta konfesategiz konfesategi ta konfesor on jakintsu bat ar lezakela artu bage dabillen animarekin egiten duena: galdurik eta bekatuaren kate ta presondegian loturik uztea.

Zori oneko anima illunbetan ta bakarrik zebillela deabruak ezarri ziozkan bekatuaren kate-girgilluak konfesioz urratu dituen ta aren eskutik eta presondegitik iges egin ezker konfesor on jakintsu baten argirik bage oña itxetik ateratzen ez duena edo zer egin dezaken argandik ikasi arte guzian dudazko gauzarik egiten ez duena, ta orain ekusiko dezun eremutar bat bezain zenzatua gelditzen dena.

Alargundu zen zenbait urteren buruan bere buruzko gizon bat. Ongi bizi zen gizona zen gizon alargundua ta bere burua ezkontzako trabarik bage ekusi zuenean, artu zuen leneko bere bizia baño bizi obe bat egiteko ta eremutarren artean eremutar izateko asmoa ta zuen seme txiki bat berekin artu ta joan zen ara.

Ara zeneko eremutarren soñekoa jauntzi ta asi zen eremutarren lan onak egiten, bai ta bere semearen maisu bere burua egin ta teoloji andiko gizon bat baliz bezala Eskritur Santako gauzak ari erakusten edo nasten ere. Asi zen bein Abrahamek bere seme Isakekin eta batarekin ta bestearekin aldi artan Jangoikoak egiña semeari agertzen, eta hau bera berarekin ta beraren semearekin Jangoikoak egin behar zuelako uste ero bat buruan artu ta, hitz bat bati ere galdetu bage, artu zuen Abranek Isak bere semearekin Jangoikoak esanik egin nai zuena ark bere buruz berearekin egiteko asmoa ta bere asmo hau semeari agertu bage asi zen artarako gauzak prestatzen, ta prestatu ta esaten dio bere semeari: «Ona, nere semea, bere aitarekin eta Jangoikoagatik Isak mutil gazteak egiña. Esan zion bein Jangoikoak Abrani», esaten dio eremutarrak bere semeari, «ar zazu zere seme maite Isak eta zoaz nik erakutsiko dizudan mendi gañ batera, zere seme bera zere eskuz an ill ta sakrifizi on bat neri egitera. Eraman zuen Abra-

nek Isak an bera erretzeko behar zen egurra bizkarrean zeramala. Ara zein humilki ta hitzik atera bage dijoan Isak. Igaten da mendi gañera ta surako egurra prestatu ta belaunikaturik agertzen du lepoa, beitzitzen du burua ta ill golpea artu uste duenean agertzen da Jangoikoaren aingerua ta geldirazten du aitaren ezpata. Orra, nere semea, orra hume on esaten zaiena humilki egiten dutenendako zein ongillea Jangoikoa! Aski da aldi onetako aditu dezuna. Zoaz orain zerbait artzera ta atoz gero onara», esan ta bidaltzen du eremutarrak semea.

Andik laster itzultzen da mutilla bere aitagana ta arkitzen du\_ kanibet zar erdi erdoitu bat zorrozten ta zorrozten, ta ekusten du an bazterrean egur zama andiskote bat ongi lotua ta ara horduko aditzen dit bere aitagandik: «Eta oroitzen zara, nere semea, Abranez ta Isakez?». «Bai, aita», erantzuten dio bere zorrozketan beti hari zen aitari semeak. «Bada jakin behar dezu, semea», esaten dio aitak, «oriek egin zutena bezalako gauzak anitz urtetako emengo penitenzi andiak baña agitz geiago balio duela»; ta bere kanibeta behar diña zorroztu zuela zeritzanean, «Nai dezu», esaten dio mutillari, «igan gaitezen arako mendi artara?. «Zertara?», eranzun zion mutillak aitari. «Etzion orrelakorik esan Isazek Abrani aditu dezun aldian», esan zion aitak mutillari; «beren egurrarekin mendi gañera igan behar zutela Abranek ari esan horduko, egurra bizkarrean artu ta asi zen Isak igaten, ta igan zen ezer aitari galdetu bage. Ar zazu, bada, zuk ere zam hau ta ots emazu, goazen zu ta ni ere geren mendira». Ezin bestez bezala artu zuen mutillak bizkarrean bere egur zama ta asi ziran biak mendira igaten, baña kezkatuak zebiltzan biak eta hitzik ere atera bage ta bakoitzak berea bere gogoan zerabillela. Beldur zen mutilla mendi gañeratzen baziran, aitak bere kanibetarekin ill ta berak zeraman egurrarekin errea ta auts egiña an bertan utz zezan, ta aitaren oharkabentz batean zeraman zama bota ta joan zen laster ta laster igesi, ta bere igeskarekin galerazi zion aitari deabruak buruan ar-erazi zion erakeria (Casian. 1. 2 Collat. c. 7).

Eremutar onek izandu zuen denbora bere erakerizko bekatua damuz ta konfesioz urratzeko, baña berenak urratu bage ta gaizki ill ziran Kasiano berak dakartzien beste bi: bata Jangoikoak bere eskuz edo milagroaz jatera eman behar ziolako ustean besteren eskutik jatekorik artu nai gabez illa; ta bestea Jangoiko berak aingerua bidaldu ta geldituko zuela eritzian bere burua putzura bota ta itotzen zela.





Beste anitzen artean galdu ziran oriek artu bagez jakintsu onen baten argia. Hau behar izan oi dute zerbait dakitenak ere, beintzat beren gauzetan, ur gazian jaio ta azitzen diran arraiak jaki ona izateko gatz bezala (*etiam pisces egent sale*); zeren gaitz den batek bere makurkuntzen artean bere gauzei zuzenki begiratzea: *in unaquaque re difficile est medium rationis tenere* (Arist. Eth. 2, c. 9).

Zere saldu-erosirako, bada, zere trukantzetarako, zere ezkontzarako, zere ibillerako, zere joan-etorrirako, zere ezdabaidetarako ta uts egin ditekenez zere beste edozein gauzarako billa zazu Jerusalendarrak eta ekusi ditugun beste guziak San Joan Baptista bezala konfessore behar bezalako edo beste jakintsu onen bat eta ark ematen dizun argiarekin egizu guzia San Joan Baptistarenarekin Jerusalendarrak ta arganatzan ziran beste onak bereak bezala ta Jangoikoak laguntzen dizula aiek bereak bezain ongi edo obeki egiñen dituzu zuk zere gauzak. Jangoiko berak dizula argi hura ta laguntz hau erdisteko grazia. Bai arren, bai.

## XIV

### Apostol San Pedro eguneko irakur-aldia

Tu es Petrus et super banc petram  
aedificabo Ecclesiam meam. Matth. 16.

*Gaia: Andia da Jangoikoak San Pedrori eman zion eskua;  
baña esku S. Pedrori bere bihotz andiagatik  
bestei ez bezala zegokana.*

Ez dira gizonak Jangoikoak bezala gauza guziak dakiztenak eta askotan uts egiten dute beren berezteetan, ta berezten dituzte beren egiteko zenbaiterako gizon egokiak utzirik, ez egokiak edo uzten dituztenak bezain egokiak ez diranak; eta beren berezte utsdunak gatik ekusten dituzte gaizki egiñak, artarako ziran gizonen eskuetan utzi balituzte, ongi egiñak gelditu behar zuten gauzak. Errege batek egiten badu artako diranak utzirik gerran ez dakien gizon bat bere gerrari guzien nagusi, gauz onik ez du zer itxedan gerran dakiten etsaien bidera hau igortzen duen aldian; ez eta ontzi jabeak ere itsasoz dakiten mariñelak utzi ta, Indira bidaltzen duen ontzian sartzen baditu ontzi-lemaren ta itsas oial egoen berririk ez duten ta lemaz ontzia nola zuzendu ta aizez ta oial-belaz nola erabilli ez dakiten gizonak. Era berean ibilliko da beste gauzetan ere besteak utzi ta artako ez diranez baliatzen dena. Besterik egin ustean askotan hau egiten dute gizonak, eta egiten dute jakin bagez aldi artan ta bestetan jakin behar lukeena. Jangoikoa da gauza guziak diran eran dakizkiena ta berez ta besteren eskuz guzia zuzenki egiten duena, ta beste gauzen artean bere Apostol onen eskuz ta berak laguntzen ziela bere lege berrira munduko lau bazterrak ekarri zituen gisan ekartzea; ta bere legera bazter oriek ekartzea, Apostol beretatik bat gañerakoen ta lege berriratzen ziran beste guzien Buru ta Nagusi egiten zuela. Beste guzien Buru ta Nagusi hau da egungo Santu andi ta Apostol San Pedro, egungo Ebanjelioan ekusten dugun bezala.



Apostol bereekin bakarrik arkitzen zen batez galdetu zien Jesusek guzuei andiz ta berri onak aditzeagatik ez, baizik Apostol berei ta orien mihiz mundu guziari bere aldian erakusteko jakin behar zutena. Onetarako, bada, ta beren ta gure guzien onerako galdetu zien Jesusek Apostol bereei: «Zer da or bazter orietan aditzen dezutena? Ni nor nazala diote batak eta besteak?». «Jauna», erantzun zioten; «zenbaitek bat eta besteak bestea; bada», esan zioten, «Elias zarala diote zenbaitek; besteak diotena da San Joan Baptista zarala ta badira Jeremias profeta edo beste profetatik bat edo beste zarala diotenak ere».

Besteak zioten hau aditu ta beren barrenean zutena idarokitzeko, galdetu zien gero berei: «Baña zer da zuek diozuen? Nor nazala ni zuek uste dezute?». «Jauna», erantzuten dio bereala ta bat ere trikatu bage Apostol San Pedrok: «Zu Jangoiko bizi betikoaren Seme Kristo Jauna zara». Jiratzen da horduan Kristo Jauna San Pedrogana ta esaten dio: «Zori oneko gizona zu, Pedro; bada diozun egia ez da, ez, emen bizi diranetatik ikasi dezun berria; betiko nere Aitak zerutik zuri adirazia da. Sine-tsi ta aitortu dezu fededun onak bezala dakizun egia. Bere aldirako gelditzen da zure aitormenari dagokan saria; nik orain eman nai dizudana da hau baño agitz andiagoak egiteko bidea agertuko dizun egitekoa; orretarako nik ematen dizudan egitekoa da fededun guzien Buru ta nere Bikario emen zu izatea. Zu, bada, Pedro, zu zara nere Eliz berriaren lenbiziko arri ta zimendua. Zu zimendu-Burutzat edo nere Bikariotako izaten zaituen Eliz hau urratu ta bota naiko dute sulezeko gaistoak, baña uts eta ustel aterako dira orien alegiñak. Nik zuri emanen dizut bekatari gogorrak beren bekatuz lotuak uzteko ta humill urrikimentuz beteak askatzeko eskua ta ontzat emanen dut onetan zuk egiten dezuna». Orra zein andia Jangoikoak San Pedrori ematen dion eskua, baña San Pedroren siñstantz eta amore andiari zegokana, aldi onetan guk ekusi behar dugun bezala.

## § I.

Andia da, bai, Jangoikoak gaur San Pedrori ematen dion eskua; bada mundu guzira luzatzen dena ta bazter guzietan behar den guzia dagikena da San Pedroren esku hau. Egiñik ekusten ezpagenu San Pedrok egiña, gutik sinistuko zuten egin ere zitekela; bada ekusten dugu San Pedrok eta

San Pedroren eskuarekin gelditu diranak eskura dituztela Erromako inperio izugarria ta munduko lau bazterretan arkitzen diran anitz errege ta erreinu, ta egun oro eskuratzen dituztela emen jentillak, an turkoak, eta an ta emen judatar, hereje ta zismari errebelatuak, eta zenbait aldetan izandu dituztela beren oñari muñ egitera etorri ziran bazterrik urrutieneko prin-zipe andiak ere.

San Pedro Jangoikoak aldi onetan eman zion eskuarekin predikatzen asi zen aldian ez da erraz adiraztea zein arroak, zein andiak eta zein indardunak arkitzen ziran Erroma, Erromako erreinu ta lur-bazter andiak. Erroma zen aldi artan arraiez aserik arkitzen den itsas bale izugarri bat bezala. Gosetzen den aldian baleak aoa zabaldu ta eunka ta berreunka jaten ditu arrai txiki ta andi aren ortzetaritzen diranak, eta itsas-onzia dirudien bere sabel-tzarra bete ondoan badabill batetik bestera aizez dabil-len ontzia dirudiela, ta bere buztanka batez urratzen, aienatzen edo ondantzen dituela urrantzen ta urbiltzen zaizkan giza-sallak eta txalupak; eta badabill gero batetik bestera sudurretatik darion urez aizea bustitzen ta illuntzen duela ta ekusten duten arraiak izutzen dituela.

Eratsu onetan arkitzen zen Erroma Kartagindar Anibal mundura zeneko ere. Kartagindar Anibal izandu zen munduko gerrari agitz andi anitz bazter, erri murratu ta probinzi beretu zituena, ta Erroma ere beretu naiez bere gerrari guziak artu ta ara joan zen; baña Erromak gerrako ostiko batekin bota zuen bere Afrikara ta Anibalen ondotik ara joan ta jan zituen Anibalen erri Kartago ta Afrikako bazter andiak, bai ta Espaniko ta Franziko ta Inglaterrako erreinu eder indartsuak ere; eta andik Grezira, Peloponesora, Trazira ta Ejiptora ta Asira bere armak eraman ta jabetu zen arkitu zituen erreinu ta ondasun guziez, ta etzen mundu guzian arkitzen Erromaren beldur etzen erreinurik edo gerraririk. Hau ekusi ta agitz arrotu zen Erroma guzia, ta Erromako Buruak Erroma beretik eragiten zien eun erreinutako jendeei nai zutena, ta len Alejandro andiak bezala mututurik zedukan Erromak mundua, ta norbaitek bazterren batean burua goratu horduko an ziran erromatar soldaduak, oiñpean hura bere guziekin sartzera joanak eta sartzan ere zituzten besterik egiteko biderik uzten etziela, ta beste guziak beldurturik uzteko gerrako bandera zabaldua zedukaten erriko dorrerik agerienean ta banderan ezarria *Senatus Populusque Romanus*: esan nai zuen Erromako kargudunak eta gizonak zira-la munduaren jaun ta jabe bakarrak. Eta Klaudio enperadorearen denboran ta San Pedro ara zen aldian baziran Erromako erri berean zazpi milloi erromatar ta geiago.



Orra horduan zer erria Erroma, Espani guziak diña jende edo ez anitz gutiago zituena; erri bere inperio andiko bazterrek ejerzitu arrigarriz beteak zeduzkana ta erri indarduna ta bazterduna ta ondasunduna bezain arroa ta antustez betea; bai ta erakeriz ta animen itsumen galgarriz ere; bada etzuen Jangoikoaren berri zati on bat ere ta Jangoikotzat artuak zeduzkan berak eragin zituen ta artzen zituen errietan arkitzen zituen idolo txarrak eta deabruaren aintzur itsusiitsuak.

Erromatarrak zituzten usantz eta lege zenbait beinzat ziran relijio ustel galdu bati zegozkanak eta gure relijio ta fede santak dituenak ez bezalakoak, eta erromatar beren arronzari ta aragiaren naikuntz makurrei agitz laguntzen zienak. Orra bale zein ase-izugarria Erroma, animen arranzale San Pedro Erroma atzitu ta eskura naiez ara zen aldian.

Arako bidean ekusi ta galdetu balio norbaitek S. Pedrori: «Zertara zoaz zu Erromara, Apostol santua?», eta eranzun balio S. Pedrok: «Erromatarren relijio ta idolo guziak gal-eraztera, arrotasunari ta aragiari atsegin egiten dien ango lege guziak urratzera, Kapitolio dorreko *Senatus Populusque Romanus* edo erromatarrak munduaren jabeak bezala an ezarri duten bandera andik kentzera ta erromatar berei ta orien inperiko ta mundu guziko beste gizonei nere oñari apa ta muñ eragitera ta erromatar berei ta beste oriei Jesus gurutzean illa beren Jainkotzat ar-eraztera, oriei berei Jesus beraren lege bat, eta lege, buruko arrotasunak eta aragiaren naikuntz zikiñak eskuratzeko dena ta hildurak, nekantzak eta gurutze guziak ontzat daduzkana ar-eraztera ta erromatarrentzat hurkabe bera bezain izugarria den gurutzea erromatar beren gerrako banderan ta Kapitoli gañean ezar-eraztera»; hau S. Pedrok eranzun balio erromatar arroen berria zuen bideko galdegiñari, galdegiñak egiñen zuena zen San Pedro eroren bat zelakoan an utzi ta irrika asi ta aitzina joatea.

Baña etzen eroen lana San Pedrok Erromara zeramana; Jangoiko berak emanik zeraman lan-egitekoa zen; ta egiteko ta lan, berak berez bere lagun Apostol ta ondorengo Aita Santuz egiña ta behar bezain ederki egiña; bada bere-bereala ezpazen ere, utzi zituen Erromak bere idolo txar guziak eta artu zuen Jainkotzat den bera edo Jangoiko-gizon Jesus gurutzatua, bere makurrak utzi ta artu zuen Jesusen lege zuzena, ta lege, antuste arro, ondasun-nai galgarri ta aragiaren naikuntz loiak debekatzen dituen ta animen onari dagozkan neke ta pena guziak ontzat daduzkana. Erromak, bada, edo erromatar berak kendu zuten beren Kapitoliotik leneko bander arroa ta ezarri zuten an bertan ez ezik, gerrako beren ban-

deretan ta enperadoreen buruko koro gañean ere Jesus maitagarriaren gurutzea, ta erromatar berak ez ezik, munduko lau bazterretako beste anitz ere joan oi dira Erromako nagusi ta munduko fededun guzien Buru egiñik arkitzen den San Pedroren ondorengo Aita Santuaren oñari apa ta muñ egitera, ta eun urte bezala da munduaren urrutienetik edo Japongo isletatik ango erregeen izenean hau egitera etorri zirala an bertako iru zaldun andi ta prinziipe. Eta S. Silbestre Aita Santu zela egin zen fededun ta bataitu zen Konstantino Magno edo Erroman izandu den enperadorerik andiena, ta Erroma beraren jaunz-jabentza Aita Santuari an utzi ta joan zen bera bein Bizanziora ta gero berak egin zuen bere izeneko erri andi Konstantinoplara. Orra zein egia len guk geniona ta orra bidenabar zein andi txarmagarria San Pedrok bere ta bere ondorengoen eskuz Errom arro, indartsu, ondasundun, galduan ta munduko beste bazterretan egiña!

## § II.

Zer bidez eskura zituela uste dezu San Pedrok munduko ejerzitu guziak garaitzen zituzten erromatarrak eta munduko beste bazterrek? Hitz utsez ta armarik bage. Era onetan asi zuen S. Pedrok Jerusalem bere egiteko hau. Era berean egin zuen ibilli zen beste bazter guzietan, bai ta bazter guzien buru Erroma berean ere. Beste Apostol ta munduko fededun guzien Buruari ta Elizako Aita Santuari bezala eman zion Jangoikoak bere lan hau era ontan egiteko behar zen indarza ta laguntza, ta Jangoikoaren indarz-laguntz onekin asi zen San Pedro bere lan hau agitz ederki ta era txarmagarrian egiten; bada Jerusalem bere lenbiziko hitz egin aldian arriturik utzi zituen aditu zuten guziak eta aditu zutenetik iru milla bezala aditu zuten egun berean gelditu ziran bataiatu ta fededun egiñak: *circiter tria millia* (Act. 2,41).

Hau baño ere arrigarriagoa da beste aldi batez San Pedroren hitzak egin zutena. Zesareko errian arkitzen zen Erromatar eun soldaduren nagusi Kornelio zeritzan bat. Gizon limosnari on bat zen Kornelio hau ta artaz urrikaldurik igorri ta bidaldu zion Jangoikoak aingeru bat zeruko bidea edo biderako gidari on bat ari agertzera ta esatera: «Ori, Kornelio, aditu du Jangoikoak zure otoitz ona; Jopen arkitzen da Simon Pedro deritzan bat eta erakarri behar dezu adirazi diezazun zeruan sartzeko zuk egin



beharra». Bidaltzen ditu Korneliok bere itxeko bi ta soldadu bat Apostol S. Pedroren eske ta San Pedro Jopekoren zenbait fededunekin ara zeneko, bildu zituen anitz jentil Korneliok: *et invenit multos, qui convenerant*, Act. 10,27, eta guziak bildu ziran ikasi naiez jakin behar zutena.

Ara ta laster asi zen San Pedro guziei agertzen Espiritu Santuak berari adirazia ta guziak jakin behar zutena, ta lenbiziko bere erakuste ta sermoia San Pedrok bukatu baño len, jaitsi zen Espiritu Santua aditzen zeudenen bihotzera, len Apostol beretara bezala. Hau ekusi ta arritu ziran San Pedrorekin ara joan ziran fededunak, eta bere adile Espiritu Santudun guziak utzi zituen San Pedrok bataituak eta gure relijio santako gauzetan ongi erakutsi-ohartuak (v. 48). Orra zein arrigarria San Pedroren hitzak aldi onetan egin zutena.

Nondik zutela uste dezu San Pedroren hitzak onenbat indar ta birtute? San Pedrok berekin zuen Espiritu Santu jaunagandik eta behar zen aldietan Espiritu Santu berak ematen ziozkan bero aldietatik. Zein andiak ziran Espiritu Santuak ematen ziozkan beroaldi oriek guri adirazteko da agertu ditugun bi aldietan San Pedrok egiña ta San Pedro berari ta beste Apostol guziei bein agitua. Israeldar Eliz gizon Jerusalem arkitzen ziran guziak beren Buru Anasekin egin zuten bein bilkuntz eta Konzilio bat; deitu zituzten ara San Pedro ta beste Apostol guziak eta galdegin zioten San Pedrori zer eskuz ta nola egin zuen Salomonen eliz-atarian egin zuen milagro bat. «Zuek gaizki ill-erazi zenuzten ta illen artetik biztu den Nazaretko Jesus Kristoren izenean», erantzuten die San Pedrok bat ere beldurrik bage ta Espiritu Santuak ongi berotuak bezala, ta estudiorik egin etzuen gizona bazen ere, arriturik eta zer erantzun etzutela utzi zituen Konzilioko jakintsu guziak.

Andik atera ta Apostol berak San Pedrorekin batean egin zutena zen Jangoikoari otoitz eta otoitz egitea ta Jesusen berria mundu guziari emateko Espiritu Santuaren indartz andi bat eskatzea. Hau oriek eskatu horduko Espiritu Santu egunez bezala ikaritzen da zeuden itxea edo tokia ta betetzen dira berriro Espiritu Santuz ta itxetik atera ta asten dira Jesusen berria ematen ta predikatzen, Espiritu Santuaren egun berean bezala, ta predikatzen dute Konzilioko jakintsuen bat ere beldurrik bage: *et loquebantur verbum Dei cum fiducia* (Act. 4,31), ta aditzen zituztenen bihotzak uzten dituzte bat egiñak: *multitudinis autem credentium erat cor unum* (v. 32).

Guzien artean berez San Pedro zen onetako egokiena ta bihotzik andienekoa, aldiak zekarren guzian agertu oi zuen bezala; bada bere lagu-

nekin itsas arrantzan arkitzen zen batez urrutitik Jesus ekusi horduko, lenbaitlen argana naiez, ur gañera saltatu ta asi zen lasterka. Ostegun Santu arratsez Jesusek maian esan zienean, «Zuetatik bat ni saldu naiez dabill», Jesusen aldean arkitzen zen San Joani adirazi zion San Pedrok ikas zezala Jesus beragandik zein zen aren saltzalle gaisto hau, ta egin zuen horduan San Pedrok hau, zena an bertan bokaduka, San Joan Krisostomok dionaz, jateko edo bere esku-tartean illik uzteko. Eta gero Judas saltzalle gaistoa anitz soldadu ta jende armaturekin Jesusen eske atera zen arratsean, etsaien eskuetan bere Maisu Jesus ez ekusi naiez, San Pedro bera bakarrik, berekin zuen ezpat edo kanibet andiskote bat atera ta, asi zen pelean, ta eskura zitzaion lenbizikoari tiratu zion golpe bat, bere burua bi erdi egiteko asmoan, ta etzuen utziko bere pelea Jesusek geldirazi zuen bezala ez geldiraztera.

Jangoiko berak daki San Pedroren bihotz andi Espiritu Santuak agitz berotu onetatik ateratzen ziran hitzak Erroman ta beste bazterretan egin zutena. Eta anitz eta asko baño agitz geiago egin zezan, eman zion Jangoikoak milagro anitz egiteko ta bestek ez bezalako milagroak ere egiteko eskua; bada hitzez ta ukituz besteak bezala ez ezik, bere itzalez ta ohar-kabeen bezala ere, Eskritura Santak dionez, egiten zituen San Pedrok milagro andiak eta egiten zituen behartsu gaisoak nai diña milagro; bada Eskritura Santak dio San Pedroren itzalak sendatzen zituela ukitzen zituen eri guziak eta Jerusalemarrak San Pedro an arkitzen zen aldian beren oi-oatzeetan atera ta uzten zituztela karrikan senda zitzan andik igaroko zen S. Pedroren itzalak, eta aren itzalak bat bazen ere ukitu ezkerro sendatzen zirala guziak: *ut veniente Petro, saltem umbra illius obumbraret quemquam illorum, et liberarentur ab infirmitatibus suis* (Act. 5,15).

Egokia zen, bai, Jesusek San Pedrori eman zion bere Bikarioaren ta fededunen Aita Santuaren egitekoa; baño bere egiteko andi hau ark ongi egiteko behar zuen izandu zuena bezain Espiritu Santuaren indartz eta esku andia; bada gutiagokorekin ezin eskura zezaken eskura zuen bezala, dio San Joan Krisostomok, erreinu guziak eskura zituen Erroma: *O Petre, quali virtute indutum te credendum est, ut tibi ac successoribus tuis subiiceret Romam illam, quae regna omnia suo subiecit imperio* (Hom. quod Aptus sit Deus).

Bere ondorengo Aita Santuei utzi zien San Pedrok Erroma ta mundu guzia, ta igan zen zerura, ara igan nai duten guziei sar-bidea idikitza. Arako bidea da San Pedro berak len eraman zuena: egin diran bekatu guzien ziñezko damua, Jesus maitagarria osoki maitatzea ta bakoitzak



bere egitekoa Espiritu Santuak laguntzen diola gogo osoz ta zuzenki egitea. S. Pedro beraren izenean eskatu behar diogu Jangoikoari hau guk egiteko naikuntz andi bat eta naikuntz oni dagokan laguntz guzia. Eska dezogun edo diezagogun, bada: bai arren, bai.

## XV

### Jesusen Bihotzaren Festako irakur-aldia

Unus militum lanceâ latus ejus aperuit,  
et continuó exivit sanguis et aqua. Joan. 19.

*Gaia: Norañokoa den Aldareko Sakramentuan  
Jesusek digun bere Bihotzeko amorea  
ta zer den onen alde eskatzen diguna.*

Jangoiko-gizon Jesus maitagarriak utzi zien bere etsai judatar gogorrei anitz gauza makurki egiten, baña azkenean guziak zuzendu zituen bere honrara ta gure On aldera, ta orietatik bat da egungo Ebanjeli santuak dakarrena ta orain gu ekustera goazena.

Ostiral santuz ill-erazi zuten judatar gogorrak Jesus maitagarria, ta ill-erazi, zezakeen eriorik gogorrenaren ta ez-honra-garrenaren atzapar gaistoan ta gurutz latzgarri batean ilzez josirik; baña beren naigabenz miñarekin ekusi zuten ango bere neke ta tormentu guzien artean ere len zena zela Jesus maitagarria ta berak zutena bezalako bekaitzik bage bere gurutzera begiratzen zioten anitzen bihotzak milagroz bazterrak betetzen zituenean bezain ongi beretzen zituela, ta damuz ta urrikaltzez beteak Jangoikoaren Semetzat ezagutzen ta aitortzen zutela, ta Jesusen on ta honra hau ezin ekusiz ta zuen eriotz gogorra baño gogorragoa Jesusi eman naiez (berena beren baitan gordetzen zutela) joaten dira Pilatos juezagana ta esaten diote: «Jauna, bigarko eguna egun andia da ta gaur bertan beren gurutzetatik kendu ta ortzi beharrak dira arako mendi artan iltzen daudenak, eta lenbaitlen ill ditezen, gaztiga zazu auts dakiztela zankoak, odola ta bizia lasterrago ken dakien».

«Ongi da, bada», erantzuten die Pilatosek, «egin dedilla zuek esaten dezutena». Artarako zeuden soldadu zenbait aizkorak artu ta badijoaz lan hau egitera; austen diezte berenenak Jesusen bi aldeetan gurutzaturik zeuden bi lapurrei; badoaz hau bera Jesusi egitera; arkitzen dute illa ta uzten dute ukitu ere bage, ta zer egiten zuten etzekitela egiten dute Eskritura



santak ziona: Jesusen ezurrak geldirik uztea: *Os non comminuetis ex eo* (Joan. 19,36). Baña an bertan arkitzen zen soldadu batek hau ekusi bezain laster lantza artu ta ote zen edo ez ekusteko edo ez-honra hau Jesusen gorputz illari egin naiez, sartu zion bularretik bihotzaren erdiraño ta atera zion an gelditu zen odol zatia ta ur piska. Eta hau ere Jesusek nai zuen gauzarako ta gure on andirako egin zen lana da; bada nai zuen Jesusek zuen odol guzia gure onerako eman ta ixuri, ta nai zuen hau isurtzeko soldaduaren lantzak egin ziona bezalako bide bat.

Lantz onen bide bera gure on andirako bidea da, dio San Bernardok; bada Jesusen Bihotzeko amore andia guri agertzen klient bidea da: *vulneratum est (latus Christi), ut per vulnus visihile, vulnus amoris invisibile videamus* (Ser. 3 de Pass.); ta bidenabar da bide Jesusen Bihotz maitari beraren debozi andi bat guri ar-erazteko; bada Jesusen Bihotz maitariaren debozi hau (Bihotz beraren festa egiteko eskua eman duen Aita Santuak dionaz) Jesusen Bihotzeko amore andia ta amore bere Pasioko neke ta tormentu guziak gure onerako ar-erazi ziozkana ta gero ill ondoan gure on bererako Aldareko Sakramentuan Jesus bera geldirazi zuena guk ongi geren gogoan sartzea da, ta Jesus maitariaren neke ta Sakramentu beretik anitz on guk esker onez ta Jesus bera maitatuz ateratzeko gogoan sartzea: *ut charitatem Christi patientis... atque in suae mortis commemorationem instituentis Sacramentum Corporis, et Sanguinis sui... devotiùs ac ferventiùs recolant, ejusdemque fructus uberius percipiant.*

Orra, Aita Santuak dion bezala, Jesusen Bihotzaren debozioa da Aldareko bere Sakramentuan Jesusek agertzen digun amore andia ta amore berak ar-erazi zion Pasio ta eriotz gogorra gogoan artzea, ta bataren ta bestearen gogorantzak eskatzen dituen gauz onak egitea. Gogoan hau guk artzeko ta gogoan artzeak eskatzen dituen gauz onak egiteko egin behar duguna da norañoakoa den Sakramentu berean Jesusek agertzen digun amore ta zer gauzak diran Jesusen amore onek eskatzen dituenak kontuz ekustea. Goazen artara.

## § I.

Norañoakoa den Jesusek bere Bihotzean duen ta Aldareko Sakramentuan agertzen digun amore ongi ekusteko ekusi behar dugu nor den emen arkitzen den Jauna ta zertara datorren onara datorren Jaun andi hau. Aldareko Sakramentura datorren ta Sakramentu berean milla ta zazpi eun urte ta geiago dela gau ta egun beti arkitzen den Jauna da betiko Aitararen Seme bakar Jangoiko Jesus, Aita bera bezain betikoa, bazter bagekoa ta altsua ta gauza guziak egiteko Aitak arturikako eskua. Sakramentu onetan arkitzen den Jesus bera da gauza guzien gobernaria, animen santifikaria, glori emallea ta gizon ta aingeru guzien Jaun ta Jabea. Sakramentu onetan arkitzen den Jaun hau bera da zeruari ta lurrari ta bazter guziei gariez egiten diena ta al-ere gure amarez gizon egiña ta gure amore beragatik nekez ta tormentuz betea, gurutz batean josia ta illa ta azkenean Sakramentu onetan ogi piska bat baliz bezala bildua.

Aldareko Sakramentu onetan arkitzen da, bada, gure Jaun ta Jabe Jangoiko ezin andiango hau jan bokadu egiña, ta egin da jan bokadu gure bihotz alderaño sartu naiez, guri geren nekeetan alderagotik eskua emateko ta bere eskuz atsegintzez, pozez ta graziz betetzeko; ta arkitzen da emen komunioz artzen ez dugunean ere behar dugun guziaren eske erdits-uste osoan goazkion naiez betea: *adeamus ergo cum fiducia ad trinum gratiae, ut misericordiam consequamur, et gratiam inveniamus in auxilio opportuno* (Hebr. 4,26).

Orra, bada, bere Jainkozaren aldetik norañoakoa Aldareko Sakramentuan Jesus Jangoikoak agertzen digun amore. Hau obeki ezagutzeko ekusi behar dugu bere Gizonzaren aldetik agertzen diguna ere. Zeruan ta lurrean ta beste bazter guzietan arkitzen den gauza da Jesusen Jainkonza, baña ez Aldareko Sakramentu onetan bezala; bada bestetan arkitzen ezpazil ere, Sakramentu onetan arkituko lizake; zeren emen bere gauz guziekin arkitzen den Jesus maitagarria ta Jesusen gauza ta gauzarik andiena den duen Jainkonza. Baña konsagrantzako hitzekin lenbizikorik Sakramentu onetan sartzen den gauza Jesus beraren gorputza ta odola ta gizonza da ta Jesusen Gizonzaren emengo egoerak eta egontzak ere ederki agertzen digu Jesus beraren Bihotzeko ongina, amore ta maitantz andia.



Alde onetatik ongi ekusteko Jesusen Bihotzeko amore andia ekusi behar ditugu Jesus beraren leneko zenbait egontz eta ibiller, bere Bihotzeko amore berak berari eragiñak; bada bere egontz eta ibiller orietan egiten zuena Jesusi eragiteko da Aldareko Sakramentiko Jesusen egontza. Bederatz illez egondu zen Jesus bere Amaren baitan ta sabelean. Oraindik an arkitzen zela joan zen bere bidagille San Joan Baptista horduraño ez jaioa bere itxean ekustera, ta amaren baitako Jesusen egonz eta San Joanen itxera joatea izandu ziran grazi zati berriak eta birtuteen apaintz ederak bere Ama Birjinari emateko ta San Joan Baptistari bere bekatu etorkia kendu ta jaio baño len graziz Santu egiñik uzteko, edi bere Ama ta San Joan Espiritu Santuz betetzeko; ta komulgatzen garan aldian grazia ta birtutez ta Espiritu Santuaren doaiez gu betetzeko da Jesusen bere Sakramentuko egintza.

Sakramentu onetan arkitzen den Jesus bera da len jaio ta laster bein artzai on zenbaitek eta gero goiztar irur erregek Belenen ekusi zutena, ta batak eta besteak pozez, sinistantzez ta zeruko ondasunez beteak beren bazterretara bidaldu zituena; ta hau bera gurekin egiteko gure begira ta bere aldean gu ekusi naiez Sakramentu onetan arkitzen da Jesus maitagarria.

Len irur urtez lege berri bat ezartzen ta jakin behar zutena bere Apostol ta israeldar guziei erakusten ibilli zen Jesus Maisua; ta Jesus Maisu bere erakuste onen alde anitz milagro ta gauz andi egin oi zituen bera da Sakramentu onetan gau ta egun arkitzen dena, ta emen arkitzen da gure onerako den dotrin argi ta beste guzia komunio santan ta geren ekusaldietan guri eman nai andiarekin.

Sakramentu onetan arkitzen da geren bekatupetik gu ateratzeko bere etsaien eskuan bere burua utzi zuen Jainko-gizona, ta Jainko-gizon, bere etsai berak bein sokaz lotu ta arrastan, bein oñ-puntaka ta zapladaka, bein ille-tiraka, tuka ta listuka ta anitz beste bide itsusiz ezin gaizkiago erabilli zutena, ta gero anitz mill azot-ukaldiz ta golpez urratu ondoan arantzezko koroa buruan ta gurutz andi astun bat bizkarrean zuela kalez-kale Jerusalemene erabilli zutena ta gisa berean Kalbarioko mendira igan-erazi, an bere gurutze berean iltzez josi ta nekez ta tormentuz ta agoniz illik utzi zutena; ta zuen odol ta bizia nai duten guzien onerako an utzi zuena; ta Sakramentu onetan arkitzen da aldi artan an irabazi zuen guzia berekin duela ta zuk artu ala eskeintzen dizula.

Sakramentu berean arkitzen da len bere aldeko lapurrari ontzeko grazia ta paradisua eman ziozkana, linboko on guziak andik atera ta bere-

kin zerura eraman zituena ta nai duten guzien alde betiko bere Aitari hitz egiteko Ait beraren eskoi aldean jarri zen Jangoiko-gizona; ta emen arkitzen da behar den gisan gu beraganatzen bagara hau bera gurekin egiteko edo bere Aitari guk nai dugun guzian gure alde hitz egiteko, ongi bizitzeko behar den grazia guri emateko ta gero gu bere aldian ta prestatu bezain laster zerura eramateko.

Onenbat on guri egiteko ta azkenean gu bere zerura eramateko aski zen Jesusek egin dituen milla gauzetatik baten laurdena ere; bada aski zen edozein bere suspiriorekin ere irabazi zuena; baño zigun bazter bageko amoreak eragin zion orain guk adirazi dugun guzia, ta eragiten dio Aldareko bere Sakramentu onetan guk ekusten duguna ta bere Sakramentu berean agertzen dizkigu leneko bere amore bazter bagekoa ta oraingo bere amore lenekoa bezain andia, ta leneko ta oraingo bere amore ezin andiago onek gure onerako eragiten diona. Eta ez ote da askiko Jesus Sakramentatuaren Bihotz gure amorez ezin geiagoraño nekatu onen guganako amore andi oni noizean bein begiratzea, guri eskerdun onei bezala, Jesus anbat len gure onerako nekatuaren ta len ta beti ta orain ere gure guztiz maitariaren izenean zenbait gauz on eragiteko? Bai, baldin bere. Baña zer? Besteen artean orain guk ekusi behar ditugunak.

## § II.

Gugatik anbat neke ta tormentu bere Pasio santan izandu zituen Jesusek egin zezaken Aldareko Sakramentu andi hau komunioz guk bera artzeko ez, baizik Tabernakulo ta Sagrario Aldarekoan len Testamentuko kutxan mana bezala gorderik idukitzeko edo noizean bein (orain ere egin oi den bezala) Aldare gañera ateratzeko ta humilki ta behar bezala ekusten zutenei behar zutena emateko, Jangoikoak len sugeen ozketatik iltzeko zeudenei berak eragin zuen bronzeko suge bati begiratu horduko osasun osoa ematen zien bezala. Bai zegikela Jesusek hau guri adiratzeko egokia da Jesus berak beraren Sakramentu Aldarekoa ekustean lenbiziko Maximiliano Enperadorearekin bein egiña.

Aldareko Sakramentuagana debozi guztiz andi bat izandu zuen Aus-tritar beste anitz enperadorek bezala Maximiliano onek: Egun batez



eizean zebillela ta mendi-auntz bati zaldiz zerraikola igan zen aitz-punt itzul-biderik etzuen batera. Zerraizkon bere zaldunak arriturik gelditu ziran hura an ekusi ta, ta andik nola atera etzekitela. Bi gau ta egun egin zituzten negarrez urtuak ari begira ta orien buruan ots egin zien Enperadoreak: «Ezin komulga banaiteke ere, ill baño len ekusi nai nuke Jesus Sakramentua, ari nik nere agurzak egiteko ta beraren bedikantza ta grazia emen artzeko».

Ekarri zioten urrengo Elizatik Jesus Sakramentua ta ark oni bere agur, adorantz, otoitzak egin horduko agertu zen beraren aldean gizona zirudien bat, eta «Atoz nerekin» Enperadoreari esan ta asi zen arriak kentzen ta bidea egiten, ta eskutik artu ta eraman zuen beraren itzeko negardunak ari begira zeuden tokira ta hura an utzi ta gorde zen bera (P. Nie-remberg, t. 3, virtud coron.).

Baña ekusteko baño geiagorako eragin zion Jesusi bere Bihotzeko amore andiak Aldareko Sakramentu hau; bada eragin zion geren bizitzan ta ill hordu berean ere gure animen janari izateko ta dakarren graziaren indarrez guzirako gu sendorturik eta bortitzak uzteko. Eta jan genezan beldurrik bage ta aldi oro den guzia gizon egiña badere ta gizon edertasunez agitz betea, biltzen da Jesus emen Sakramentu onetan bokadu batera ta estaltzen da ogiaren zuritasun meez ta komunio santan sartzen da beste edozein janariren gisan gure barrenera ta sartzen da bein salbatzalle andiaren, bein mediku jakinsuaren, bein artzai onaren, bein apaiz nagusiaren ta bitarteko alsuaren lanak gurekin egitera.

Orra bidenabar agertua bere Bihotzeko amore andiaren alde Sakramentu onetan Jesusek eskatzen duena: gure bihotzeko amorea, ta amore Sakramentu beraren oñetan bein alde batera ta bein bestera ziñez agertua. Ara nola.

Geren amore eskerdun ona Sakramentu onetan Jesus maitagarriari guk agertuko badiogu, egin behar dugu Sakramentu berarekin Jesus berak nai duena. Eta Jesus maitariak nai duen lenbiziko gauza da Sakramentu bera ongi ta maiz guk komunio santan artzea. Komunio santan guk Jesus ongi artzea da lenbiziko fededunen, Apostol jaunen ta Jesusen Amaren eran ta gisan gu komulgatzea. Ongi komulgatzeke biltzen ziran lenbiziko fededunak egun oro (edo alik maizena) Elizan ta hitz onak an adituz ta otoitz luze humillak egiñez prestatzen ziran debotki komulgatzeke, ta komulgatu ta esker onak Jangoikoari eman ondoan, zutenetik bihotz osoz ematen zien besteei behar zutena ta beren bizitz eta hizkunz onarekin

arintzen zuten erri guzia (Act. 1, à v. 42). Apostol jaunak ostegun santu arratsez ta lenbiziko beren komulgaldian izandu zuten zeruko argintz bes-teetan ez bezalako bat. Beren argintz eta gogargi onekin ezagutu zuten zer zen komunio santan artu behar zutena ta arriturik bezala ta humilz andi batekin komulgatu ziran lenbiziko beren aldi artan.

Baña lenbiziko fededunak eta Apostolu jaunak baño humilz milletan andiagorekin ta agitz eta agitz obeki prestaturik komulgatzen zen Jesu-sen Ama, ta komulgatzen zen egun oro (juxta V.P. Ludov. a Pont., P.S. medit. 33, punct. 2, n. 5). Eta orien gisan zu komulgatzeke egin behar dezuna da komulgategira baño len ongi ekustea zure bekatu gaistoak gatik zenbat neke ta odol isurtze izandu zituen Jesusek Sakramentu hau zuri uzteko ta zere bekatu beren damu andi bat komulgatu baño len artzea, ta gero ekusirik zein andia den ta denbor berean zein maitari ongillea Sakramentu onetan datorkizun Jangoiko-gizona, joan behar dezu humilzez ta ondu-nai andiz betea ta komulgatu horduko asi behar dezu Jesusi dizun amore bazter bagekoagatik eta egin dizun ontart den bezain andiaren alde millaka ta eun millaka eskerrak ematen ta beti ta ziñez maitatzeko laguntz andiak eskatzen. Egin behar dezu zuk hau komulgatzen zaran aldi oro ta komulga zaitex alik maiz-usuena ta egiñen dezu bere Sakramentu onetan Jesusek agertzen digun amore bazter bagekoaren alde Jesus berak eska-tzen duen lenbiziko gauza.

Bigarrena da zere komulgaldi berean ta Jesus Sakramentua ekustera joaten zaran guzian Jesusi eskatzea bein gauza bat, bein bestea. Zoaz-kio, bada, bein zere Salbatzalleari bezala ta esaiozu humilzez ta erdits ustez beterik: «Eskerrak eta eskerrak nik zuri, Jangoiko-gizon Jesus nere Salbatzallea, nere bekatu gaistoak ni sulezean onda ez nintzaten, egin dezunagatik eta indazu zere Bihotzeko amore andiaren izenean zere neke-tormentu guziekin irabazi dezun ondasun anditik nere bekatu beren zorrak ateratzeko ta bekatu berririk ez egiteko behar dudana».

Zoaz berriz zere bekatu berak egin dizkitzuten zauri ta aztur gaisto-ak agertzera ta Jesus Sakramentuari an esatera: «Ona, Jauna, zein eri, zein lazeridun ta zein txarki arkitzen nazan lenko nere ibiller makur ta lan-gite gaistoak gatik; sendagai egokiak dituzun animen medizina zara zu or zere Sakramentu orretan; badakizu zein diran nere gaitzari dagozkanak. Indazkidatzu, bada, eman naiez zauden ezkerro, nere Jesus maitagarria».

«Nere Jesus Sakramentua, zu artzai ona bezain ardi txarra naz ni», esan dezokezu zere beste joan aldian, «askotan errebelatua ta galdu-ekza-





bidun egiña ibilli naz ni nere bekatu guzien sasi gaistoan ta orain ere ez ote naz an arkitzen? Eraman nazazu zere Bihotzeko amore andiatatik zere aldera; molda nazazu or, dezakezunak bezala ta zere aldetik ez ni berriz zuk utzi, ez».

«Apaizen apaiz zara zu, Jesus Sakramentatua», esan behar diozu beste zere joan aldian; «gurutzean eman zenuen odolezko ta nekezko zere mezarekin irabazi zenuen aserre zegon zure Aita palakatzeko ta gure bekatu guzien zorrak kentzeko behar den guzia, bai ta agitz eta agitz geiago ere; present egiozu ta dagokizunak bezala eska zagozu ar dezala nere zorren alde ta didala bekatu gaistoen zor berririk ez egiteko grazi ta laguntza.

Eta urrengo aldian zoaz Jesus Sakramentatua ekustera ta eska zagozu zere griñ makur, pasione sutu ta etsai gaistoen atzaparretan gal etzaitezen dizula bere eskua ta grazia. Eta ekuste ta eskatze hau ta beste guziak egiten badituzu Jesus Sakramentatuaren Bihotzeko amorearen ta bere amore berak len ar-erazi ziozkan pena ta neke ta tormentu guzien ize-nean, egiñen dezu Jesusek bere Bihotzaren maitari onetatik uste duena. Egizu, bada, len dakizun beste guziarekin batean ta zu izanen zara emen ta beti Jesus beraren Bihotzekoa ta eternidade guzian Jesus maitariaren maitari zorionekoa. Izan zaitezela, bada; bai arren, bai.

## XVI

### Santa Gurutz-en bigarren festako irakur-aldia

Et ego, si exaltatus fuero à terra,  
omnia traham ad me ipsum. Joan. 12.

*Gaia: Jesus gurutzatuak onez  
edo gaitzez eskuraten ditu guziak.*

Gurutze batean Jangoiko-gizon Jesus ill arte guzian gurutzeko eriotza zen munduko gaistagiñak zuten eriotzik hondrabeena. Niol ere ezin ekusi zuten Jesus Jangoiko-gizon hau judatar gogor galduak eta agitz deshonraturik utzi naiez, gurutzeko erioz ill-erazi zutin, bein ta berriz hau ojuka juez Pilatori eskatu ta: *tolle, tolle, crucifige eum* (Joan. 19,15); ta egin zuten hau oriek, zeren zekiten erio-giro hau zela, S. Agustinek dion bezala, eriotz gaisto itsusi guzien artean gaistoen ta itsusi galgarriena.

Baña gurutzez Jesus ill ezker, gurutze bera da munduko gauz honragarri guzien artean agitz honragarri honratua, errege ta enperadore andi berak ere beren buruko koroi gañean artu ta agitz honratzen dutena, ta Eliz Am santak zeruko santurik andienari ta Jangoikoaren Ama berari baño ere agur andiago bat egiten dion gauza; bada santurik andienari Elizak egiten dion agur-honra da *dulia* deritzan agur-honra; Jesusen Amari egiten diona *hyperdulia* deritzana ta gurutzeari egiten diona oriek biak baño andiogo da; da alabaña Jangoiko berari egiten zaion ta *latria* deritzana. Elizak gurutzeari egiten dio agur-honr-adorantz hau, zeren gurutzea den Jangoiko-gizon gurutzez illaren aintzura, Jesusen Amaren edo santuren baten pintura, orien aintzura bezala; ta zeren Santu bakoitzaren ta Jesusen Amaren aintzurari egiten zaion, orietatik bakoitzari egiten zaionaren gisako agur-honra, Jangoiko-gizon Jesus gure onerako illaren ainzur gurutzeari egiten zaio Jesus berari egiten zaionaren gisako agur-honr-adorantz *latri* andia. Edozein gurutze naiz urrez, zillarrez, arriz, zurez edo beste gaiez egiña izan, naiz tintaz, ikatzez edo bestela ol, arri, paper edo edozein beste gauzan egiña, beti da Jangoiko-gizon gurutzez illaren aintzura



ta orain diogun agur-honr *latría* dagokana; baña osorik arkitzen den artean; autsi ta puskatu ezker, ez; zeren ez den geroz alako aintzura. Berterik da Patriarka S. Makariok ta enperadore Konstantinoren Am S. Elenak Jerusalem arkitu zuten gurutzea; hau alabaña Jesusen eriotzeko gurutzea da, ta gurutze, Jesusek bere esku-oin ta gorputzarekin ukitu ta bere odol Jainkodunez bustia, ta orregatik gurutz oso oni beste gurutz osoei bezala ez ezik, beraren edozein zatitxori ere zar *zaio latrizko* agur-honra bera ta egiten ere zaio arkitzen den Eliz edo edozein beste tokitan.

Gurutzeari egiten zaion adoranz-agur-honr-latri hau agitz nai duela adirazteko egin ditu Jangoikoak gurutzez milagro agitz andiak. Ekusi dugun S. Elenaren seme Konstantinori bere etsai Majenziorekin pelean sartzeko zegon aldian gurutz eder bat zeruan agertu ta esan zion: «Zereztat sinu hau artu ta garaituko dezu»: *in hoc signo vinces*. Artu ta ezarri zuen bere banderetan, garaitu zuen ta egin zen fededun andik laster. Ur bagez ta egarriz ill etzitezen beraren ontziko marinel ta beste gizonak S. Franzisko Xabier-ek gurutzez ukitu ta gezatu zuen azpiko ur gazia, ta berak berez ez ezik, edozein gurutzerekin aurrak eri edo deabrutuetara igorri ta uzten zituen eritasunik eta deabrurik bage. Eta deabru berak dakazten elementak urtu ta etsai gaistoak aienatzeko gurutz bera da Eliz santak berezten duen arma, ta hau agertu ta esaten die: «Ona Jangoikoaren gurutzea; ots ortik etsai gaistoak»: *ecce crucem Domini, fugite partes adversae*; bai ta ondu nai dutenak beretzeko ta gaisto guziak eskuratzeko Jesus maitagarriak arzen duena ere. Orain diogun hau da Ebanjeli santutik artu ditugun hitzak adirazten dutena; bada artu ditugun hitzak dira: «Nik lurretik (gurutzero) igan ezker, nereganako dut guzia»: *et ego, si exaltatus fuero à terra, omnia traham ad me ipsum*; ta esan nai edo adirazten dutena da Jesus maitagarriak gurutzeko bere eriotzarekin edo erioz neke-penatuz irabazi zuenarekin beretuko dituela munduko gizon judatar, erromatar, grezitar ta beste guziak. Nola ta zer bidez egiten duen ekusiko dugu Jesusen gurutzeari dagokan beste bat bein ekusi ta.

## § I.

Jesusen gurutzearen egungo festak badu bere izena, bai ta gurutze berak ere bere egitekoa. Adi zazu bein izenaren berria, gero aditzeko egi-

teko lanarena. Festaren izena da Jesusen Gurutzearen *Gainza* ta *honranza*. Jesusen gurutze S. Elenak arkitu ta Jerusalem bere Eliz berrian utzia iru-reun urtez egondu zen an zegokan gisan, fededunak billatu ta honratua. Azken orretan Jerusalem errege ta Konstantinoplako enperadore zen Fokas zeritzan gizon gaisto bat. Onekin gerran ibilli zen Persiko enperadore Kosroas. Kosro onek garaitu zuen Fokas, kearen gisan ill ta urratu ta banatu zuen Fokas-en exerzitu guzia. Jabetu zen Jerusalem ta Jerusalem gizon ta gauz guzietz, bai ta an S. Elenak billatu ta utzi zuen Jesusen gurutzeaz ere ta eraman zuen bere errira ta jauregira ta an egondu zen etzegokan gisan amalau urtez.

Fokasen ordez egin zen Konstantinoplako enperadore Eraklio. Jenderik bagez bakean bizi nai zukean Kosroasekin, baña onek arekin ez. Bildu zuen jende berrizko exerzitu bat eta hau artu ta Jangoikoak lagunduko ziolako uste osoan joan zen Kosroasen ta Jesusen gurutzearen billara. Kosroasek bidera atera ziozkan bat bestearen ondoren irur ejerzitu; irurak garaitu zituen Eraklio enperadoreak. Kosroasek semerik andiena utzi ta artu zuen bere lagun bigarrena. Andienak, Erakliok laguntzen ziola, kendu zion aitari esku guzia ta anai gazteari bizia. Baketu zen bere ongille Erakliorekin. Itzuli ziozkan aitak kendurikako erri ta bazterrak, bai ta Jesusen gurutzea ere, ta Eraklio enperadore berriak itzuli zuen Jerusalem bere Elizara, ta jaso ta utzi zuen leneko bere toki berean, ta hau da Jesusen gurutzearen aldi onetako gainza ta honra.

## § II.

Gurutze beraren egitekoa da Jesusek artara igan ta ill baño len adirazi ziguna, ta aldi artan ark esan ta adirazia da: «Igaten banaz ni eriotzez nere gurutzeko aldarera edo an ni ill ondoan, nere eskurako ditut munduko guziak»: *et ego, si exaltatus fuero à terrà, omnia traham ad me ipsum*.

Artako bere presta-aldian esaten zuen Jesus maitagarriak: «Bai, munduko gaisoak Adanen bekatur ta berak geroz egin dituzten guziak gatik sartu dira, berak nai ta, infernuko gaistoaren eskupean ta gaisto hau egin da munduko guzien jaun ta jabe, borrarroa iltzeko sentenziaz aren eskurazten denaz bezala; baña nik», zion Jesus maitagarriak, «gurutzero igan ta



ango nere eriotz-odoltu oñazez betearekin irabaziko dut munduko beren zor guziak eta agitz geiago ateratzeko behar den guzia, ta guziak azkenean enez edo naitaez nere eskurako ditut»: *nunc princeps huj us mundi ejicietur foras... et omnia traham ad me ipsum*, nai duen erregek gaistagina borroeroaren eskutik atera ta bereratzten duen bezala.

Erregek gaistagin hau bere eskura dezake gaistagin berak nai duela, bai ta ark hau ez naiagatik ere, zeren artako arena baño agitz luzeago den erregeren eskua, ta hau bera da Jangoiko-gizon gurutzez illak munduko guziekin egiten duena, onez onean nai duten guziak eta beste nai ez dutenak naitaez bere eskuratzea. Nola den hau ta zein andia Jesusen gurutzearen edo gurutzez ill zen Jesus maitagarriaren indar eskua, orain guk ekusiko dugun gauza da.

### § III.

Jesus maitagarriak gurutzez edo bere gurutzeko erio gogorrez irabazi zuen munduko guzien zorrak eskatzen zuena ta guzia utzi zuen Elizan, artu nai dutenen alde, ta artzen dutenak berez billatzen dute Jesus, ta enez-onean beretzen ditu Jesus maitagarriak. Guzoi ongi naiez egin zuen Jesusek gurutzeko bere lan gogor ta irabanz guzia ta digun ongi-nai berak eragiten diozka gure enerako egiten dituen beste gauz en guziak, eta arganatzten bagara, berak billatu ta lagunduz arganatzten gara. «Bai», dio Jangoiko maitagarriak, «billatu ta neregana tiratuko ditut Abraham, Isak eta Jakob bezala»: *in funiculis Adam traham eos* (Ps. 11,4); *in funiculis, in quibus attraxi mihi Abraham, Isaac et Jacob*; ta orregatik tiratuko ditut enez-onean niganako diranak, me-meeki bortxatu bage ta amorezko lokarritz ta sok leun meez: *in vinculis charitatis*.

Irur ari ditu Jesusen sokatxo leun lokarri onek: hitz en ta bide zuzenezkoa da ari bat; hitzezkoa ta lanezkoa bestea, ta ontartezkoa ta emanenezkoa azkenekoa. Hitzek ta egin-bide enak agertuz deitzen die Jesus maite gurutzatuak munduko guziei. Hitzket eta agertz hau berez egiten du bein ta askotan gero bestez ere bai. Berez hitz egiten die Jesusek isilka ta beren bihotzean munduko guziei ta hitz egiten die beren bakarzan ta aldi

onean, ta hitz egiten gogora ekarriz bein agi-gertatzen zaiena ta beste zenbaitez etorkizun arin atsegindun edo min latz gogorra.

Gizonen eskuz edo egin duen gaistagintzaren aldetik duen naigabenez-kezkak irazartzen duen aldian esaten edo gogoratzen dio Jesusek bakoitzari bere barrenean: «Orra zer den berez gizona, orain dezunaren gisako naigabenez emallea, batek artako biderik ematen ez dion aldian ere. Jangoiko maitagarria da bide makurrik artzen ez duena ta aldian aldiak eskatzen duena baizik egiten ez dakiena; zori enekoa onekin beti ongi datorrena ta biza-giro en zuzen bat beti dakarrena, ta nik nai badut orain ta beti hau nere. Eta bidenabar orra gaistagintzarena, askunz eztizko batekin izanz izurdun miña ta bukanz madarikatu egillearen betiko galgarria. Zori gaistoko humea ni orren bideak utzi ta zeruko zuzen bat ez arzera».

Lagun bat eritu edo ill delako berriarekin gaisto edo en bat irazarri horduko, barrundik hitz egin ta adirazten dio Jangoiko maitagarriak: «Orra orrena gaur ta bigar, etzi edo anitz luzatu bage zuri ere gertatu beharra, ta azkenean eriotz bat eta obia, zure sem-zati ta lurreko ondasun guzia. Eta zure anim orrek betiko izanen duena? Arte onetako zure lan egiteko biziari dagokana. Betiko poz-atseginz zori onekoa edo sekul guziko amurrantz erre infernukoa. Eta aldi artarako orain zuk nai dezuna? Arzen dezun bidez datorkizuna. Eta arzen dezun bidea? Relijioen batekoa? Gauz on bereziz egiña? Bide makur galgarri guzietatik baztertua? Limosnaz, baruz, penitenziz ta beste gauz on anitzez egiña? Hau da beintzat aldi artan naiko dezuna; hau zuri ezin geiagoraño dagokizuna ta zure Jangoikoari atseginz andi bat egiñen diona».

Barreneko hizket leun hau aski ezpada Jangoikoak deitzen duena beraturik uzteko, gogoratzen diozka egin diozkan edo diotzaken en, ongi ta ontart guziak edo beintzat zenbait eta esaten dio: «Orra nere eskutik dezu dezun izanza ta bizia, bai ta mundu guziak ematen dizun soñerako, oñerako ta behar izaten dezun beste guzirako gaia ere, ta ematen dizut hau ta beste guzia ere eskerdun en zu egin naiez ta bizi en bat zuri ar-erazteko, eta ar-erazi nai dizut hau, saritan gero zuri emateko betiko zori ena ta nere zeruko ondasundi guzia. Eta begira», esaten dizu bereala, «hau zuk zere naiez, alferkeriz edo bizi gaistoz galdu ezker, zure gain izanen da eternidade guziko zori gaistoa ta beti betiko infernu bizia».

Jesusen hitzket ongille oni ere ez-aditu egin dionari hitz egiten dio Jesusek lanezko bere hitzketarekin ta agertuz beraganako ta zerurako



bidea bakoitzari ar-erazteko bere gurutzean berak egiña; ta ark an egin ta aldi onetan agertzen diona da gurutzeko bere neke-tormentu gogor etzegozkan ta al-ere me-mee ki ta humiltanz osoz ark artua, egin ta esaten zioten gaistagintz bidebageko gogorrari onez ta atsekaitzik bage eranzutea, ta ekusten ta zeraman guzia bere etsai ta munduko guzien on aldera zuzeneta ta eztenik ez duen erleen erregeren gisan ta guzien ona billatzen zuen Jangoiko-gizonari zegokan eran egotea.

Barreneko bere hitzket mee leun hau askotan berritzen du Jesus gurutzatuak bere gurutzea an edo emen agertuz, bere predikari onei ageriraz ta dagoten beste guzia pulpitutik, konfestegi berezian ta jolas-bide onean esan erazten diela; bai ta artako diran libruz, pintur ederrez ta beste bide zuzen egokiz ere. Zenbat eta zenbat bide ta sokatxo leun onelakoz Jesusek, berak nai dutela ta onez-onean, beretzen dituenak?

Hau ekusi ta esaten du Aita santu S. Leonek: «Orra norañokoa, jesus maitagarria, zure gurutzeko ta Pasio santako indarza ta eskua»: *O admirabilis potentia crucis, ó inefabilis gloria Passionis*. «Orra», dio, Jesusen gurutzea da arzen ditugun bedeikanz guzien iturri ta gugaratzen diran grazi andien bide zuzena»: *Crux tua omnium fons benedictionum, omnium est causa gratiarum* (Serm. de Cruc. Dom. in Luc. 14,26). Onenbat bedeikanz eta grazi dakar gurutz santak onez-onean Jesusen eskuratzen diran on guzienat. Jesusen gurutzearen bedeikanz eta grazi oriek idiki dituzte itsi-ersiak arkitzen ziran zeruko atea, linboko guziak zerura eraman ta ersi ditu linbo berekoak; mundu guzian ereñi du gure fede ta sinest birtutez betea; ereinz berean haritu da mill ta zorzi eun urteren inguruan ta hariko ere da mundu hau mundu izaten den arte guzian.

Orra zein andi-ondatu-luze-zabala Jesusen Gurutze ta Pasio santako indarz-eskua. Esku indarsu onek artu ta dakar onez-onean Jesus maitagarriagana datozen ta etorriko diran on guziak. Zori oneko on orietatik izateko gu egin behar duguna da Jesusen gurutzeko hitzkunz mee-leun guztiz egokiari kontuz begiratu ta adirazten diguna aldian egitea; geren barren nastuari nai ez luken ta gure lege santak eskatzen duen lan ona eragitea; gaitzen bat eragiten digun gaistaginari onez ta otoitz beroz eranzutea; nori berea bere aldian ematea; geren gauzak mugaz zuzeneta; Jangoikoari dagozkanak dagozkan gisan ta hordu bereziz present egitea ta geren lan nekagarri hau enoiatu ta eskutik ez uztea: *nolite deficere bene facientes* (1 Thes. 3,13).

Onetako ta etsai gaistoen tentanzak garaitzeko egizu zerekin Jerusalem negarti on guziekin zuriz jaunzi batek bein egiña. Thau deritzan gurutze batekin ziñaturik uztea, ango gaistoak ilzen zebiltzan zenbaitez etzitzaten: *super quem videritis Thau, ne occidatis* (Ezech. 9,6). Ziña zaitez, bada, askotan ta maiz munduko gaistoak bekatzuz ilzen dabilzan etsaiak zure bekoki-kopeta gurutzatua ekusi ta utz zaitzaten gaitzik egin bage. Hau da, dio S. Agustinek, bere gauz guzietan Elizak egiten duena: gurutzet hitzez baño len bedeikatzea batai-ponteko ura, konsagratu behar den mezako ogi-ardoa, apaiz egiteko dagon gizona eta Jangoikoarentzat prestatzen den beste guzia.

Etsai gaistoa gugarandik aienatzeko anitz balio duela gurutzet zinatze onek ederki adirazten du gurutz beraren bigarren Españiko festan Eliz Ama santak esaten digunak. Españiko errege Don Alonsok izandu zuen Españi bereko Mairu errege andiarekin lei ta pele agitz izugarri bat. Mairu gerrarien aldean agitz guti ziran D. Alonsok zituenak, eta al-ere Jangoikoaren eskutik uste zuen laguntzarekin ta Toledoko Arzobispo bere aldean zuenak zituen gizonak eskuzko gurutzet bedeikatu ta Toledo bereko kalonje batek bander lekuan gurutze bat artu ta joan ziran eun milka ziran mairu armatuetara, ta goizetik arratseraño lei ta pele arrigarrian haritu ta ere, etziran ogei ta bat baizik ill; ta mairu gerrarietatik berreun mil illak gelditu zirala diote horduko berriak; eta arte orretan batetik bestera bere kalterik bage mairu artean ibilli zen bere gurutze goituarekin ta mairu guziak izutzen zituela hura zeraman kalonje D. Domingo Paskual. Bada ez da laburragoa infernuko etsaiak garaitzeko Jesusen gurutzearen indarra, ta hau eskuan dezula edo askotan ziñazen zarala, egizkitzu zuk ere oriekin dituzun lei-peleak.

Oriek berak obeki garaitzeko egizu besterik ere, ta len israeldar sugeen ozkatik ilzeko zeudenak bronzeko suge Moisesek agertuari bezala, begir egiozu sarri ta maiz Ait eternoak agerzen dizun bere Seme Jesus gurutzatuari, ta israeldarrak gorputzez bezala, animaz sendaturik geldituko zara ta onez-onezko Jesusen eskuko egiña.

Eta ori gis onetan ezpada nai ta ez azkenean Jesusen eskurako zara; Jesus alabanza beraren betiko Aitak on ta gaisto guzien Juez egiña da. «Bai», esaten dio berari salmariaren ezpañez, «zure eskurako ditut nik jaijo diran ta jaiotzeko dauden guziak»: *ad te omnis caro veniet* (Ps. 64,3). «Bai», dio Apostol S. Pablok, «zeruko aingeru onen edo sulezeko gaistoen eskuz Jesus juezaren tribunalerako gara guziok»: *omnes enim stabimus ante tribunal*



*Christi*; «ta onez-on edo nai ta ez guziok belauna lurrera ta agur-adoranz dagokana egin beharko diogu Jesus gurutzatu Juez zuzen zorrotzari»: *mihi flectetur omne genu* (Rom. 14,10).

A, nere Jesus maitagarria, izan dedilla nere alde nere ta beste guzien onerako zere gurutze agitz nekatuan ekusi zenuena; bertatik ni ondu ta nere ill arte guzian ongi bizi nazala emen ta beti onez-onean zure zori onekoetatik izan nadin. Geroz zein doatsu glorduna eternidade guziko nere bizia! Ez hau niri zuk uka, izandu didazun betiko amore bazter bagekoetatik: ez arren, ez.

## XVII

### Apostol Santiagoren eguneko irakur-aldia

Potestis bibere calicem, quem ego bibiturus sum?

Dicunt ei: possumus. Matth. 20.

*Gaia: Geroko zori onaren ustean pozik artu zituen Santiagok beraren egitekoari zegozkan neke guziak.*

Egungo gure Santu ta espaindar guzien Patroi Santiago, Ebanjelari S. Joanen anaia, Jesusen Amaren lengusu Salomeren semea ta Kristo Jau-naren alde ta Apostol andia da, ta Apostol, arranzako bere sareak presta-tzen hari ziran toki berera joanik deitu ta artua.

Bere Apostoltako ez ezik, artu zuen Jesusek Santiago egin zituen zenbait gauz andiren testigu berezitako ere; bada beste guziak utzi ta hau, bere anai S. Joan ta S. Pedrokekin eraman zuen bein sinagogako nagusia-ren alab illa bizteko milagrora, gero Taboroko mendian Jesus bera gloriz jaunzirik eta Moisesi ta Eliasi hitz egiten ekustera, ta azkenik il zen bez-per arratsean Jetsemanin izerd-odolezko bere otoitzera.

Azken aldi hau baño len aditu zioten Apostol guziak Jesusi mun-duaren juzganz egunean artuko zituela ta bere bi aldeetako amabi katade-retan Israelgo amabi tribu-probinzien juez egiñik idukiko. Ekusten zuten, dio S. Joan Krisostomok, Apostol onek eta onen anai S. Joanek beste guziei baño geiago nai ziela Jesusek, baña S. Pedro aitzina zekien beldur zirala ta aren ere aitzinean ta Jesusen alderago egon naiez eskatu zioten toki hau, dio egungo Ebanjeli santuak, eta eskatu, beren amaren ezpañez; bai ta, San Markosek dionaz, berak berez ere; bada esan don amak Jesu-si: «Jauna, zure erreinu andian jar dedilla zure eskoi-aldetik nere seme bata ta ezkerraldetik bestea, an zure esku bi bezala ta lenbiziko gizonak izate-ko»; ta berak biak esan ziotena da: «Jauna, egizu arren guk eskatzen dizu-guna, ta eskatzen dizugu, zere glorian ar gaitzatzula zere eskoi-aldera bata ta bestea beste aldera»: *dà nobis, ut unus ad dexteram tuam, et alius ad sinistram tuam sedeamus in gloria tua* (Marc. 10,37).



«Ez dakizue zer eskatzen dezuten», erantzun zien bertan Jesusek bie. «Ez da anitz», esaten du S. Joan Krisostomok; «etzuten alabaña bukatu rik ekusi gurutzeko misterio andia edo etzuten gugatik gurutzean illa ekusi bere Pasio santako neke ta tormento guzieren buruan beren Maisu Jesus maitagarria, ez eta artu ere misteri andi hau bukatu ta Jesus illa biztu ta zerura igan artean jaitzi etzen Espiritu Santua; ta arte orretan edo beintzat arteko zenbait aldiz erdi itsuak bezala ibilli ziran egungo gure Santua, onen anai San Joan ta beste Apostol guziak, eta egin ere zituzten beren igeskak eta beste utsak. Ziran gisan gauzak ikastea ta egin behar ziran eran egitea egin zuten misteri andi hau ekusi ezkerro ta Espiritu Santua artu ondoan; bada hordutik asi ziran Apostolu Jaunak utsik bage ta zuzenki gauzak egiten».

Beren illunbeko ta usket denboran eskatu ziozkaten Jesusi egungo gure Apostol bi anaiak eta bien amak beraren urregontzak eta urregoko kataderak, eta eskatzalle berei erantzun zien Jesusek: «Nere Aitak ematen dio bakoitzari irabazten duen ta dagokan egontza ta tokia; ta zuei aldi onetan ta zeren bizi guzian dagozuen da nik nerea bezala zeren egitekoa, nekez ta naigabez betea arkitzen denean ere, zuzenki egitea. Egin uste dezue?», galdetu zien gero bi anai berei Jesusek. Baietz erantzun zioten biak: *possumus*; eta egin ere zuten. Zein ederki Santiagok, gaur ekusiko dugu (S. Joanena beste eguneko egitekoa da). Eta ekusiko dugu bien eskanzen utsak bein ekusi ta.

## § I.

Predikari on bat joaten zen al zituen predikari onak eta ez onak aditzera, ta esan oi zuen guziak erakusten ziotela ongi predikatzen: ez onak zein diran predikari onak, eta onak zein ongi predikatzen bideak, predikari ez onen utsak utzi ta onen bideak artzeko; ta hau bera da guk gaur egin behar duguna: zein diran egungo Santu biak len eginikako utsak eta zein gero Jesusen eran bizitzeko artu zituzten bide ta neurri onak, uts berak utzi ta neurri ta bide onak artzen ditugula gu ere ibiltzeko Santu beren ta Jesusen eran. Ekus ditzagun onetarako bein bien utsak eta gero bide ta neurri onak.

Egungo Ebanjeli santuan ekusten dugun eskantz Apostol bien amak Jesusi egiña utsduna da, ta utsdunagoa Apostol berak berez egin zutena; bada zerbait baizik etzion eskatu amak bere semeentzat Jesusi: *accessit... petens aliquid ab eo*: ta seme berak berentzat eskatu zioten eskala ta esan zioten Jesusi: «Jauna, eman behar diguzu eskatzen dizugun guzia»: *Magister, volumus, ut quodcumque petierimus, facias nobis* (Marc. 10,35).

Orra zein makur eroa orien otoitz-eskantz. Eskatzen zioten Jangoikoari beren gogo arroak agertzen ziena, naiz eskallee zegotena izan ta naiz ez, ta naiz ona ta naiz gaistoa aldi artan Jesusi eskatu nai zioten gauza: *quodcumque petierimus*. Era bereko eskantz eroak egiten diozte Jangoikoari eskatzen diozkatena onelako toki ta egiteko arroa, alako itxe, ezkontz eta irabaz-bidea edo gisa bereko beste zerbait, baldin eskatzen badiote, egungo Ebanjelioko bi anaiak bezala, beren buruak ongi ekusi naiez edo beren arronzari ta aragiaren naikunz sutuari atsegin egiteagatik eta eskatzen dutena ukatu bear ez dienari bezala; zeren esana dadukan «Eska zazue ta emanen zaitzue», aldi artan hitzak dioten guzia Jangoikoak esan nai izandu balu bezala, ta ez «bear den bidez eskatzen dezutena emanen zaitzue»: ta ez da bear den eska-bidea, nai ta ez erdits uste dena bezala ta ekusi bage eskalari dagokan gauza den edo ez Jangoikoari osoki eskatzea. Hau da egungo Apostol biak egin zuten uts, zere otoitzan zuk utzi bearra.

Bigarren uts eskale berak egiña da beren eskantz makurrerako elkar artu ta lurreko bitarteko bat billatzea; bada bi anaiak aldi batez ta beren ama Jesusen alde urbilla beren egiteko berean sartzen zutela egin zioten Jesusi beren eskantz utsduna, nai ta ez erdits nai zutenak bezala. Eskabide hau len ekusi duguna baño makurragoa da ta galgarriagoa, ta Dabidek utzi zuen gisan utz bearra. Bide galgarri hau uzteko Dabidek egiña da Jangoikoari argia ta laguntza eskatzea ta eskantz makurren illunbean utziko etzuelako uste osoan bere otoitz-eskantz egitea: *quoniam ipse liberabit me... à negotio perambulante in tenebris* (Ps. 90,3).

Irugarren uts egungo eskale biak egin zutena da gauz onak gaizki eskatzea; bada Jesusi eskatu ziotena zen beraren glorian berarekin egotea ta an egote hau gauz ona ta agitz ona da; baño ez nolani ta irabaz bage ara igatea; hau alabaña urrutiko gauzen ta etorkizunen berriak, errebelantzak eta gis bereko beste gauz berak nai duenei baizik ematen ez dieztenak, Jangoikoari eskatzea bezala eta eskantz arro makurra da.

Jangoikoagandik erditsi nai diran gauzak eskatu behar dira erdisteko diran beste guziak egiteko asmoan; ez da alabaña Jangoikoa gizonak beza-



la aidekuntzari ta hitz onei begiratzten diena; egiten diran gauz onen ta naikuntz beroen pagatzallea ta egille bakoitzari beraren lanei dagokan saria ematen diona da: *reddet unicuique secundum opera ejus* (Rom. 2,6).

Eta zeren onenbat utsket zituen bi anaien egungo eskantzak, bieie eranzun zien Jesusek: «Ez dakizue nola ta zer eskatzen dezuten; gaizki ta makur datorrena da zuen eskanza». Hau bera zuri esan ta eskatzen dezuna bage Jangoikoak utz etzaitzan, eskatzen diozuna eskatu behar diozu era bereko edo beste utsik bage ta eskatu humill-humilki; eskatu behar diozu Jesusen Ama edo beste zerutarren bat arteko arturik; eskatu behar diozu zure animaren onerako den gauza ta besterik ez; eskatu behar diozu eskatzen dezunak eskatzen duena egiteko asm osoan ta hau egiteko behar den laguntza ere eskatzen dezula; ta al-ere eskatu behar diozu zure urrikariz Jangoiko berak eman dezaken doaia ta ondasuna bezala; ta azkenean eskatu behar diozu zere utsak, egungo gure Apostol biak bereak bezala, ateraratzeko hitz-pean. Goazen orain oraingo Apostol gureak bere utsak nola atera zituen ekustera.

## § II.

Beren eskantzako utsak agertu ondoan agertu zien Jesusek egungo gure Santuari ta beraren anai San Joani zeruko ondasun ta toki andiak irabazteko bidea, ta Jesusek agertu zien bidea zen berak zeraman bide bera edo al zuten guziei zeruko bidea agertzea, ta agerz oni darraikon neke guzirako prest egotea, Jesus bera prest arkitzen zen bezala; bada Apostol biak beren eskantz makur hau egin baño lentxeago esan zien Jesusek bereie bieie ta beste Apostolu guziei: «Ona, Jerusalem goaz ta saldu ta utziko naute ni sazerdoterik andien ta eskurik geiena dutenen ta eskriben ta lenbiziko gizonen eskuan, ta oriek ere kondenatu ta utziko naute Erromako juez emen arkitzen denaren eskuan, ta juez onen-peko soldadu arroak beteko naute histaz, burlaz ta eskarniz, bai ta listuz ta karkaisez ere, ta azotez erdi urratu ta josiko naute gurutze batean, ta ni an illa ekusi arte guzian berak ez dute andik oñik kenduko; baño bukatuko dira aldi artako nere neke guziak, biztuko naz ni ill ta irugarren eguneko, ta biztuko naz Eskriturak dioten ta nere lan oni dagokan zeruko tokira ta betiko nere Aitaren eskoi aldera igateko».

«Nai dezue, bada, zuek zuen egitekoari dagokan nekezko lana egin, irabazten dezuten tokira gero igateko?». Hau guzia adirazi zien bi anaiei esan zien gaur Jesusek: «Edanen dezue ni edatera noana bezalako edari latz bat?»: *potestis bibere calicem, quem ego bibiturus sum?* Eta baietz eranzun zioten bat ere trikatu ta gelditu bage: *possumus*. Eta egin ere zuten. Ekus dezagun orain zein ederki egungo gure Apostolu Santu Santiagok.

Egungo Ebanjelioko bi Apostolu santuak eta San Pedro izandu ziran, ekusi dugun bezala, Apostolu guzien artean Jesusek berezi oi zituenak eta izen berriz ere berezi zituenak; bada besteetatik bati ere etzion Jesusek izen berririk eman ta Pedrori eman zion izen hau; bada Simon zen len San Pedrok zuen izena. Zertako eman zion ark oni izen berri hau, ekusi genuen San Pedro beraren eguneko irakur-aldian ta egungo Ebanjelioko Apostol bieie eman zien izena zen Boanerjes edo trumoi semeen izena, ta izen, Apostol batak eta besteak egin zuenerako agitz egokia. Goazen gaur gaurko gure Apostol santu Santiagok egiña kontuz ekustera.

Odeietako trumoiak egiten dituzte bi gauz: bat da soñu izugarritz bazterrek ikaratzea ta dakazten tximistekin bazter berak agertzea; ta beste ozipinarriz aritzak, arriak, paretak eta Elizak erdi bi egitea edo urraturik uztea; eta hau bera zen Jangoikoaren Trumoi-seme Santiagok egiten zuena: aditzen zutenei bere sermoiez argi egitea ta jakin behar zuten lege berria erakustea ta oriei bereie beren bekatu guzian damuz bihotzak ardatlaturik edo erdi bi bezala egiñak uztea.

Espiritu Santua artu ta bereala asi zen Santiago Jerusalem Jesusen ill ondoko bizkuntza predikatzen ta beraren lege berria agertzen ta erakusten. Jerusalem atera ta joan zen hau bera Judako bazterretan ta Gallileeko errietan egitera ta bazter guzietan egin zuen bere egiteko hau Jangoikoaren Trumoi-semeak bezala, edo anitz eta anitz beren lenko utsegite ta bekatu guziez ongi urrikituak Jesusen lege berrira zuzentzen zituela.

Bere lan hau an bukatu ta etorri zen Italian barrena gure bazterretara ta egin zuen bere lan bera gure Espanian ere. Hau Españian egiten asi ta laster egin zuen Jesusen Amak munduan izandu duen lenbiziko Eliza; ta Eliz, Jesusen Ama bizi zela egiña, ta Eliz hau da Ama Birjina Pillareko Zaragozan arkitzen dena.

Mairu belzaranen etortza galgarriarekin ta Espaniaren bost eun urte ta geiagoko jabentzarekin galdu ziran adin artako ta geroagoko gauzen



berri geienak, guziak ezpa-dere; ta Apostol santuak hitzez ta sermoiez egin zuenaren berri guti dugu gaur guk; Elizak esaten diguna da Espaindar guzietatik zazpi bataiatu zituela. Ereintz txikia, baña Apostol besteak beste bazterretan egin zituzten andiak baño agitz eta agitz fededun geiago ekarri dituen; bada Santiagok bataiatu zituen zazpiak bataiatu zituzten beste Espaindar anitz eta anitz, eta beste oriek gañerakoak, eta orien ondorengo predikar onak Amerikan edo Indi berrian, Afrikan ta Asian ta munduko lau bazterretako itsas-isletan; nork daki zenbat milletan mil milloi; bada espaindar San Xabier batek bataiatu berak eun milla ta amar eun milla ta geiago dira, ta oriek ta adirazi ditugun beste guziak Santiagoren Españiko predikutik datozen fededunak dira. Orra norañokoa Jan-goikoaren trumoi-seme onen argi egitea ta beldurtza.

Hau Espanian ta beste bazterretan eragin ta eraman zuen berriz Jan-goikoak Santiago hau bera Jerusalem berriro egitera, ta egin zuen an hau beste bazterretan bezain ongi, ta ezin ekusiz hau anitz judatar gogorrek, eskatu zien Hermojenes ta Fileto zerizten bi etxizerori hitzez edo deabruz azpira zezatela Santiago. Joan zen Fileto bere alegiñak ari egitera, baña bere hitz onekin ta egin zituen milagro andiekin laster eskura zuen Santuak eta bataiatu zuen Fileto. Hermojenesi hau Filetok esan zionean, amurratu bezala zen Hermojenes ta deabruz lotu zuen Fileto, baña bere oial edo mokader zuri bat igor-bidaldu ta askatu zuen Santuak Fileto ta eraman zuen bere aldera.

Len baño ere amurratua goa gelditu zen hau aditu ta Hermojenes ta esan zien bere lagun deabru gaistoei zekoztela lotuak Santu bera ta Fileto; baña Santiagok esan ta deabru berak Hermojenes bera eraman zuten lotua Santu beraren oñetara. Eta hau ekusi ta Santuaren hitzak aditu ta egin zen fededun ta bataiatu zen Hermojenes ere ta erre zituen sorgintzako bere libru guziak.

Bide hau ustel atera zela ekusi zutenean, artu zuten beste bat judatar gogorrek eta erromatar soldadu zenbait isillik ara eramanik, Santiago, besteetan bezala, predikatzen hari zen batez asald-erazi zituzten bazterrak eta Josias zeritzan apaiz batek lepotik lotu ta utzi zuen soldadu gogorren eskuan Santua. Eraman zuten oriek errege Herodesen eskura ta onek judatarrei atsegin egiteagatik ill-erazi zuen Santua. Arako bidean milagro sendatu zuen Apostol Santuak eri perlesidun bat eta pozik barkatu ta besarkatu zuen egiñaz damuturik barkanza eskatu zion Josias. Orra zein ederki egin zuen Santiagok bere egitekoa ta zein ederki edan zuen Jesu-

sen gisan eman zioten erio gogorreko kaliza, ta orain zeruan badu Jesu-sen aldetik ez urruti bere bizitz eta eriotz onekin irabazia dadukan toki andi eder zori onekoa.

Andik etorri ta ere askotan egin du bere kontura artuak daduzkan espaindarren alde trumoiaren semearen egitekoa ta bere zaldi zuriaren oñekin ta eskuko ezpatarekin ill ditu anitz milla mairu ta beste etsai, ta egin ditu anitz on bere espaindar beren alde. Eta noiznai egiñen du animako zure etsaiak azpiratzeko zuk eskatzen diozuna, baldin zuk egiten badezu berak len beretik bezala zuk zere aldetik alegiña. Egizu, bada, ta eska zagozu nai dezun guzia: bai arren, bai.





## XVIII

### Jesusen Amaren ama Sant Anaren eguneko irakur-aldia

Simile est Regnum Coelorum thesauro  
abscondito in agro. Matth. 13,44.

*Gaia: Jesusen Amaren amari dagokana da  
ta guztiz andia Sant Anaren birtutea.*

Izandu dira andre ezkondu, beren ezkontzan humerik bage bizitu diranak, eta andre ezkondu humedunak. Azkenekoetatik dira munduko ezkondu geienak. Humerik bageko andre ezkonduak, birtutedunak diranean ere, ez dira ezagunak, duten birtutea andik edo emendik agertu artean. Ester humerik bageko erregin ezkondu birtuteduna zen, ta bere israeldar bestela galdu beharren alde egin zituen baru gogor ta otoiitz humill-beroak eta ark errege andi Asuerorekin egiña ikasi ezpaganitu, jakiñen ez genuen norañokoa zen ta zein andia aren birtutea. Betulitar alargun humerik bageko Judit nor zen ere munduak etzekiela bizitu zen bere itxearen gañeneko gelan, Asiritarren gerrari andi Holofernes bere ejerzitu izugarriarekin an agertu ta, bere gela utzi, isilkako otoiitzak eta baruak bukatu, erritik atera, Holofernes billatu, zekarren ezpata artu ta bere ezpat berarekin burua kendu ta Holofernes illaren buruarekin bere errira, itxera ta gelara itzuli arte guzian; baña aldi artan egin zuenarekin agertu zuen zuen birtute andia ta aldi artatik ezagutu zuten zentzat eta honratu zuten andre birtutedun anditzat israeldar guziak: *Post dies autem illos. . Judith magna facta est in Bethulia, et praeclerior erat universae terrae Israël* (Judith, 16,15).

Humerik ez duten andre ezkondu ta alargunak, bada, ta hume txarrik baizik ez duten beste guziak berez kontu onekoak eta birtutedunak diranean, Libano deritzan mendiko arbol andi zedroak bezala dira; bada zedro andiak dira, zur edo ol egin ta ekusi arte guzian, besteen gisan galitzen diranak diran edo betikoak ageri etzaienak; eta andre oriei ere ageri

etzaie birtutedunak diran edo ez, egiten dutena ekusten den artean. Berak bestetan beren birtutea agertu ezagatik, birtuteduntzat edozeñiek ezagutzen dituen andreak dira hume onen amak, baña guziak ez, baizik orien baitan ontzen edo onak jaiotzen diran humeen amak; bada anitz ama gaitoren hume, grin gaistokoak jaio ta gero Jangoikoaren graziaz ta graziari berak laguntzen diela ontzen dira ta zenbait aldarera santu egiñik iganen ere bai; baña orien amak, udare min gero eztiz edo zukare urtuz goxotuak ematen dituen arbol udarea bezala dira, ta udare miñak ematen dituen arbola ez da arbol ona; ez eta ama ona ere hume gaistoak ematen dituen, hume gaistoen aldetik beintzat.

Arbol frutan ona da udare, sagar, txermen, mizpiru edo gerezi onak dakartzena ta bere ostartean ta adarretan humotzen, zoritzen ta sasoi oneratzten dituen; ta ama ona da hume on-duna edo berak ondurik uzten duena. Era onetako irur arbol ta ama on guziok ezagutzen ditugu: San Joan Baptistaren ama bata, Jesusen Amaren ama bestea ta irugarrena da Jesus beraren Ama maitagarria; bata baño bestea, dirudienaz, obea, hume obearen ama bezala; ta irugarrena beste biak eta munduko ama on guziak baño milletan ta milletan obea; zeren onen humea beste hume on guziak baño milletan ta milletan ta ezin asm-al-adiña milletan obea den; hau ala-baña da Jesus maitagarria, Jangoiko-gizon Andre Mari Birjiñaren Semea.

Aldi onetako gure egitekoa ez da ekustea norañokoa den Sant Isabelen edo Jesusen Amaren ontasuna ta birtutea; gure egitekoa da egungo Sant Anaren birtute andia al dugun aldetik ekustea; ta alde bat eta beste zirritu bat baizik ez dugu zer birtute ta norañoko birtutea den Sant Anaren birtutea ekusteko. Hau ekusteko dugun alde zabaldurik ekusten duguna da egungo Ebanjeliokoa ta orain guk adirazi duguna edo Sant Ana beraren amantza; ta ekus-zirritua da Sant Anak berak egiten zuena; ta ekus-zirritu, Sant Anaren egiteko bat edo beste baizik agertzen ez diguna; bada bi milla urteren inguru da Sant Ana emen munduan bizitu zela ta urruti artako berriak ez ezik, geroz ta geroz izandu diran gauzenak ere osoki edo geien-geienak beintzat galduak arkitzen dira. Dakizkigun pis-kaei ta Ebanjelioko zati bati begiratu, bada, ekusi behar dugu Sant Anaren birtutetik al duguna.



## § I.

Jesusen Amaren ama Sant Ana belendarra zen, Dabid errege bezala ta Dabid beraren itxeko alaba. Dabiden etxe bereko etorkia zen Sant Anaren senar S. Joakin ere, baña Gallileeko Nazareten jaioa. Ezkondu ta urrengo ogei urteetan bizitu ziran humerik bage eta orregatik ongi naigabetuak, buruz beratuak eta humilzez agitz beteak; zeren judatarren artean Jangoikoaren maldizipekoa bezala zen ezkondu humerik etzuen, ta berezki Dabiden itxekoa edo ango etorkia; zeren orien ondorengoa izan beharra zen israeldar guziak uste zuten Mesias andia ta Mesias onen aitzineko ezin izan zitekeen humerik bage iltzen zen ezkondua.

Jangoikoaren beldurri onak ziran senar-emazte San Joakin ta Sant Ana; bazekiten biak Jangoikoaren doaiak dirala hume onak, eta doai, berak nai duen ezkondu ematen dieztenak, eta bat bazen ere izan naiez egiten zioten anitz eskantz eta otoitz, etziran otoitz utsak egiten zituzten otoitzak; lan onak laguntzat zituzten otoitzak ziran, ta lan on, zituzten ondasunekin egiñak; bada beren ondasun ta bazter guzietatik biltzen zutena egiten zuten iru zati: zati bata ematen zioten Elizan Jangoikoari, bigarren zatia ematen zien beharsu gaisoei ta irugarren zatiarekin egiten zuten beren jan-edana ta beste behar zutena.

Humill onen otoitzak aditzen ditu Jangoikoak eta otoitztariei dagoten aldian ematen die eskatzen dutena; bai ta, askotan beintzat, geiago ta geiago ere, egungo Sant Anari ta onen senar San Joakin bezala; bada oriek hume bat eskatzen zioten beren otoitz onetan Jangoikoari ta Jangoikoak eman zien nolanaiko humea ez ezik, Jesusen Ama bezalako humea, ta beren hume hau baño len eman zien Jangoiko onen maitariak emanen zielako poza ta atsegintza; ara nola.

Egun batez igor-bidaldu zion Jangoikoak S. Joakini aingeru bat esatera: «Aditu ditu Jangoikoak zure ta zure andre Anaren otoitz humillak eta izanen dezue eskatu dezuten humea; bada aurdun geldituko da Ana ta Jangoikoak ematen dizuten alabari eman behar zaion izena da Maria. Sara, Rebeka, Raket ta mundu guzian izandu diran zori oneko beste emazteki guziak baño zori obekoa izanen da zuen alab Mari hau; bada izanen da Espiritu Santuz edo Espiritu Santuaren graziz, birtutez ta doaiez beteak». Eta agitu zen aingeruak San Joakini esana ta azkenean izandu zuten Jesusen Ama bezain zori oneko hume bat.

San Joan Baptista jaio zenean anitz atseginz izandu zuten aren jait bazterretako jende guziak, zeren zen anitz urtez agor egondu zen amaren semea; izanik, zen bezala, Jesusen Ama Maria ogei urtez agor egondu zen amaren alaba, ta alab, zen bezalako, zer atsegintza ta poza Sant Anak eta onen senar San Joakinek jaiorik hau ekusi ta izandu zutena! Andiakoak izanen ziran orien poz-atsegintzak jakin balute gaur dakitena edo orien alab jaio berri onek izan behar zuela uste zuten Mesias andi Jangoikogizonaren zori oneko Ama.

Ikasi zutenarekin ere poz andiz beteak gelditu ziran ait-amak eta eskerdun onen gisan Jangoikoaren ontart andi onen alde zezakeen guzia egiteko asmoan, ta anitz luzatu bage egin ere zuten Jangoiko berari atsegin andia eman zion gauza. Zer, uste dezu? Jerusalengo Elizan beren alab maitearen presentia.

Eliz oni zitxekola bazen erri artan gazteen bizitegi egoki bat eta an azitzen ziran israeldar andien zenbait alab. Orien ango egitekoa zen Jangoikoa kontuz serbitzea, zori oneko serbitzu oni zegozkan gauzak ikastea ta Elizako oial meak eta beste gauzak egin ta apaintzea. Jangoikoak gogargiz adirazi zien San Joakini ta Sant Anari arako nai zuela anbat urteren ta otoitzen buruan eman zien alaba Maria, ta bihotzean min ematen bazien ere, beren alab maite hau ara eraman ta uzteak, guzia zor zioten Jangoikoari atsegin hau egin naiez artara ziran, ta ara eraman ta berak beren eskuz eman zioten Jangoikoari Jerusalengo bere Elizan bere alaba maite Maria, horduan irur urteko aurra, ta itzuli ziran beren itxera len bezain kontuz edo kontuzago bizitzera ta beren egunak santuki bukatzera. Eta orra Sant Anak horduraño eginikako bizitza.

## § II.

Sant Anak egin zuenaren aldetik begiratu diogu Sant Ana beraren birtuteari. Begirantz hau illunbean arkitzen den gauzari zirrituren batetik egiten zaionaren gisakoa da eta ez ekustea bezala, ta obeki hura guk ekusteko begiratu bear diogu, egungo Ebanjelioko argia eskuan artu ta, bere alab Mari birjinaren aldetik ekusten dugula.



Zelai alorpeko lurpean estalirik arkitzen den ondasunaren gisakoa da, dio gaurko Ebanjelioan Jesus maitagarriak, zeruko erreinua (edo animen virtutea). Ondasun hau an arkitzen duenak poz uts egiñik estaltzen du alik ongiena, badijoa bere itxera, egiten du diru duen guzia ta bere kezkatik ez da ateratzen zelai-alor ondasunduna erosi ta beretu arte guzian. Eta orra orrenbat berez balio etzuen bazterra zein balioduna bere barrenean dakarren ondasunagatik; eta zenbat ere andiagooa dakarren ondasuna, anbat geiagokooa alor-zelai edo bazter bera. Bere birtutez ta egin due-nagatik Sant Ana da gariket onak ematen dituen alor-zelaiaren gisakoa; baña bere baitan bederatz illez gorderik iduki duen alabagatik barren guzia urre zillarrez, perl andi garbiz ta diamant ederrez beterik dadukan lur ona bezala, ta orregatik da beste ezkondu humedunak ez bezalako birtutez ta zeruko doaiez apaindurik arkitzen den humeduna.

Zenbat balio duen bazter ondasundunak ekusteko ekusi behar da zenbaterañoakoa den aren ondasuna, ta ongi ekusteko nolakooa ta norañoakoa den egungo Sant andi Sant Anaren birtutea, ekusi behar duguna da zein andia ta nolakooa zen beraren alab Andre Mari Birjiñaren grazizko ta Espiritu Santuaren doaiezko ondasun-birtutea, bere ama Sant Anaren baitan arkitzen zen denboran ere, edo zer zen argandik jaijo baño len Jangoikoak Mari Birjinaaren animan egiña ta nolakooa ark oni eman zion ondasundia.

Jangoikoak gizon egin ta bekatupetik gu ateratzeko asmo-gogooa artu zuenetik artu zuen bere Amatako Sant Anaren zori oneko alab Andre Mari Birjiña; bai ta hau Jangoiko berari zegokan eran egiteko asmo-gogooa ere, ta onen egin aldía etorri zenean egin ere zuen Sant Ana aurdun geditze beretik.

Garbinz bera da Jangoiko-Seme gizon egiña ta Jangoikoak oni zegokan Ama egiteko egin behar zuen garbitasun zuri ederrez jaunzirikako ama bat eta egin ere zuen; bada Adanen bekatuak uki etzezan onen anima, egin zuen Jangoikoak anim hau bein bere aingeru garbi ederrak eta gero Adanen ta Ebaren animak bezala graziz apaindua, ta bere gorputzarekin bere ama Sant Anaren sabelean bat egiña gelditu horduko, gelditu zen zeruan eguzkia bezala: *electa ut sol*; ta eguzkia Jangoikoak egin horduko arkitzen zen illunzik bage ta argiz betea ta Jangoikoarentzat eguzkia illunberik bage egitea bezain errez zen Andre Mari Birjiñaren anima bekatu etorkiaren illunberik bage ta graziz apaindurik egitea, ta ala zegikela,

etzegokan Jangoikoari bere Amatako egiten zuen bat Adanen beste ondo-  
 rengoen gisan egitea.

Eta eguzki bera bezain garbia ez ezik, egin zuen Jangoikoak bere Amaren anima bekatuako grinik ere bagekooa. Bekatua da aragia nasten duena, bekatudunaren pasioneak asaldatzen dituena ta gaitz aldera bekatudun bera tiratzen duena; baña Jesusen Ama bezala bekatu-  
 rik ekusi bage ta lenbiziko justizi grazizkoan bizi dena bizi da soseganz osoan, bagedi ezin obean ta bekat alderako makurzik ez duela, len Adan ta Eba bekatu-  
 ra ziran artean bizitu ziran bezala.

### § III.

Sant Anaren alabak ekusi ditugun bi gauzak baizik izandu ezpalitu ere, bazuen hordurañoako humek izandu etzuen zori ona; bada hordurañoako humek izandu zuen geiena izandu zuen San Joan Baptistak, eta San Joan Baptistak etzuen amaren sabelean orrenbat izandu; bada besteak bezala izandu zuen bere bekatu etorkia ta etzuen izandu, Jesusen Amak bezala, betiko garbinz zerukooa, amaren sabeletik atera baño len Jangoikoak bere graziz garbi-apaindu bazuen ere; ta noizbait bekatudun izandu ez dagokooa berez bekatu-  
 rik grinik eta makurrik bage bizitzea, Jesusen Ama bere amaren sabeletik asi ta ill arte guzian bizitu zen bezala. Bada bi gauz orietatik bat ere S. Joaneke bere amaren baitan izandu ezpa-  
 zuen ere, S. Joanen ama zori oneko ama bada, ta ama santa ta Sant andi aldareetan arkitzen dena, zeren aren semeak argandik irten, atera edo jaijo baño len utzi zuen guk geren bataioan bezala bere bekatu etorkiaren kutsu guzia, zer zoritakooa ta zein santa ta zein birtuteduna izanen da bekatu etorkiak ukitu etzuen, zeruko eguzkia bezain garbia zen ta aragiz jauntzia egonagatik aragirik ez duten zeruko aingeru berak baño gaitz-  
 alderako makurtasun geiagooa etzuen alabaren ama Sant Ana?

Baña esankizunaren aldean deus ez edo ezer guti da oraindaño guk hau ekusteko esan duguna. Sant Anaren alab Andre Mari Birjiña amaren baitatik artua zedukan Jangoikoak bere Seme Jangoikoaren Amatako ta zeruko aingeru ta munduko guzien erregin izateko. Andre Mari Birjiñaren Seme Jangoiko-gizonak gizon egiten zen hordutik izan bear zuen San-



tuen Santu, ta beraren Ama Mari Birjiñak Santu beren Santa; ta Sant, Jangoiko-gizonak Santuen Santu izateko zuen santantz eta santasun guzia berekin zuena, bai ta beraren animak ar al adiña grazi, ta grazi beraren mehatz eta iturri guzia ere; ta Jesusen Amak Santu ta Santa guzien santa izateko izan behar zuen zeruko aingeru ta lurreko Santu guziak baño grazi ta birtute ta Espiritu Santuaren doai geiago; bada zuen izenari ta egitekoari zegokana zen Espiritu Santuagandik zuena, ta zuen izena ta egitekoa zen Jangoikoaren Amarena ta aingeru ta gizon guzien erregiñarena, ta aingeru ta gizon guzien izena ta egitekoa zen beren erregin ta Jangoikoaren Amaren serbitzariena, ta serbitzari guziei baño agitz eta agitz geiagoko da orien erregiñari ta erregin Jangoiko beraren Amari dagokana.

Eta zegokan grazi guzia eman zion Jangoikoak bere Amari Sant Anaren baitako askuntz eta aste beretik, ta eman zion, dio S. Jeronimok (Ser. de Assumpt., t. 2) Santuei bezala zatika ez, baizik bat batean ta betanbez bezala ta hordu berean gelditu zen Jesusen Ama, itsasoa ur gaziz bezala, graziz ta birtutez betea. Bada zeren Sant Isabelen sabelean beraren seme S. Joanek artu zuen grazi zatiagatik orrelakorik ekusi etzuten beste amak baño zori obeko ama izandu bazen Sant Isabel, zer zoritako ama ta zein parerik bagekoa ote da Sant Ana, beraren baitako askuntzetik Jesusen Amak artu zuen graziaren bakuntz eta betantz andiagatik?

Hau adirazteko bada oraindik geiago ere. Etzion Jangoikoak Jesusen Amari hordutik eman grazi hau guzia geldirik idukitzeko; eman zion hordu beretik asi ta bere ill horduraño gauz onak eta obeak egiteko ta gelditu bage, utsik egiten etzuela ta guztiz ongi guziak, egin zituen bezala, egiteko eskuarekin, ta orretarako utzi zuen Jangoikoak lenbiziko bere asieratik grazian konfirmatua ta utsik txikienik ere ez egiteko seguratua.

Egiñik arkitu zen hordutik bazuen Sant Anaren alab onek edo Jesusen Amak gero jaio ta anditu ondoan adiña adimentu zuen grazi ta laguntz andiarekin, Jangoiko berak daki zenbat zen jaio artean bere Amaren baitan ark egiña ta irabazia. Eta orra zer ondasuna ta fruta zori oneko arbol ta andre ezkondu Sant Anak emana! Ezin andiagoa, ezin ederragoa ta ezin ohea; bada agertu ez da, ez ta agertuko ere, Sant Anaren alab hau bezain grazidunik, ondasundunik eta Espiritu Santuaren birtutezko ta doaiezko edergarridunik, ez eta onek izandu zituen milla ta milloi gauzen laurden bat izandu edo izanen duenik ere; ta frut ona dakarren arbola arbol ona bada ta ohea dakarrena ohea, Jesusen Am hau bezain frut edo alab birtuteduna ekarri zuen Sant Ana zenbat birtuteko arbol edo ezkon-

du humeduna ote da? Nik ezin adiraz dezakedan diñakoa, baño nai ta ez agitz andikoa, ta bidenabar bere alab berarekin ta onen Seme Jangoikogizon Jesus maitagarriarekin esku andikoa. Eska zagozu, bada, balia daki zula biekin, zuk ere zere anima birtutedun egiteko ta baliatuko zaitzu; bai segurki, bai.



## XIX

### Loiolako Aita S. Ignazioren eguneko irakur-aldia

Designavit Dominus et alios... et missit illos binos  
in omnem civitatem, et locum. Luc. 10.

*Gaia: Aita S. Ignaziok Jangoikoagana itzuli zen hordutik  
Jangoikoaren honra baizik etzuen billatu.*

Alkimistak irabazi andiak egin naizik ibilli dira urre edo zillar ez dena zillar edo urre egin naiez; baña beren lan onetan anitz urtez haritu ta zuten urrea ta zillarra urtu ta gastatu ondoan gelditu dira uts eta bage ta billatzen zuten urre-zillarrik ez dute arkitu. Aita S. Ignazio da Apostolu jaun San Pablok agertu zuen bidez munduko zillar ta urre guziak baño geiago balio duen ondasuna mundu guzian billatu ta arkitu zuena ta ondasun andiz aberasturik zerura igana.

Zer ondasun dela uste dezu Aita S. Ignaziok mundu guzian billatu ta arkitu zuen ondasun andi hau? Jangoikoaren glori, berak billatuak ekarri ziona. Baña zer bide da, diozu, ondasun hau billatzeko San Pablok agertu ziguna? Munduarekiko ta bekaturoko illak eta Jangoikoarentzat baka-rrik bizitzea: *existimate, vos mortuos esse peccato, vi-ventes autem Deo* (Rom. 6,11). Bide hau noiz artu zuen San Ignaziok eta nola ibilli zen gerozko bere bizian, ekusiko dugu gaurko irakur-aldian.

Aldi hau datorkigun artean ekusi behar dugu gaurko Ebanjelio santuak Elizaren asmoz adirazten diguna. Ebanjelio santuak diona da bere egitekorako Kristo Jaunak amabi Apostol ta irurogei ta amabi orien lagun berezi ta bidaldu zituela predikuz ta milagroez honratu nai zituen erri andi ta txiki guzietara, ta igorri-bidaldu, egin behar zutenaren ta gertatuko zenaren berria munduko guziei ematera.

Arako abian arkitzen ziran denboran esan zien Jesusek andia zela zeramaten lana ta egitekoa, ta egiteko, anitz langille eskatzen zituena, ta ziran bezain gutiren artean hura bukatzeko, zebiltzala hordurik ere berri-

ket, prestaket eta era bereko beste gauzetan galdu bage. Esan zien sartzen ziran errietan ez ezik, artzen zituzten itxeetan ere, an sartu horduko, asi zitezela beren egitekoan ta ango eriak sendatzen; baña etzutela itxer itxe ta jatez jate zer ibilli (esankizunik ez emateko ta beren egitekoa esku tartetik ez uzteko), ta zematela zebiltzan toki guzietan uste zuten Jainko-gizon Mesias etorri zelako berria. Esan zien bidenabar: «Begira, bildotsentzat otso bat dena izanen dira zuentzat erri orietan arkituko dituzuen gizon zenbait, (baña ez da zer beldurtu)». Orra Ebanjelio santuak diona ta esan nai duena.

Baña Ebanjeliko esan onekin Elizak esan nai diguna zer ote da? Aita San Ignaziok artu zituela Parisen egin zuen Jesusen Konpañia egiteko bederatz lagun Filosofiko maisu ta Teolojian Doktore egiñak, Espanitik, Portugaltik, Italitik, Alemanitik, Saboitik eta Franzi beretik beren estudioetara gazterik ara joanak, eta Jesusen Konpani hau egin ondoan, bildu zituela beste anitz apaiz eta gazte, ta Jesusek bere Apostol ta irurogei ta amabiei bezala Parisko bederatzei ta beste guziei erakutsi zela munduko beren predikuan, erakuste guzian ta bekatari gaisoen konfesioetan egin behar zutena, ta bakoitzaren lanak eskatzen zituen konseju onak eta adirazt onak eman ta bidaldu zituela zenbait Europako erreinu, probinzi ta korte andietara; San Franzisko Xabier ta al zituen beste guziak Asiko bazter andiagora; Andres de Oviedo ta gizon andi onen gisako beste zenbait Etiopiko Inperiora; beste zenbait Afrika bereko beste bazterretara; ta besteak munduko zatirik andien Amerik aldera; ta bidaldu zituela geldirik an egotera ez, baizik Jangoikoaren Lege santaren berri ona banatzera ta bere eskuz ezin zezaken on guzia oriei eragitera. Hau guzia zuzenki egiten San Pablaren bidez ibilli zela Aita S. Ignazio ta Jangoikoaren honra billatz berean egiten zituela zerurako ondasun andiak ekusi behar dugu oraingo aldian.

## § I.

Jangoikoa ziñez maitatu ta Jangoiko beraren honra garbiro billatu nai duenak mundu galgarri onetan bizi bear du ill bat bailiz bezala ta bekaturoko bide guziak urratzen dituela, aldi onetarako San Pablok esaten digunaz: *existimate, vos mortuos esse peccato*; ta hau da Aita S. Ignaziok Jan-



goikoagana jiratu zen egunetik egin zuena, ta Jangoikoagana jiratu zen bere anaiaren itxean milagroaz S. Pedrok sendatu zuen hordu beretik.

Azkeneko aldian Franzesak Iruñeko erri sendoa ingurutu ta artu zutenean barrendik arkitzen zen erri bereko gazteluan S. Ignazio, ta an sar etzitezen murall gañera igan zen batez su-tunbazko tiroz autsi zioten zankoko ezurra. Senda zedin, Franzes berak artu ta eraman edo bidaldu zuten Loiolako bere itxera. Bizitzaz etsirik bezala arkitzen zen an S. Pedro bezperan. Bazion Apostolu santuari zerbait debozio ta eskatu zion bere laguntza ta agertu ta utzi zuen S. Pedrok kasi sendatua. Alfer ez egoteagatik eskatu zuen munduko berriak zituen liburuen bat. Etzen an alakorik eta ekarri zioten Santuen berri onezko bat. Santu batak eta besteak egin zutena ekusi ta artu zuen orien gisan bizitzeko asmoa, ta aragi sutuak eta mundu gaistoak galeraz etzetzaten horduko aren asmo ta naikunz ona, eskatu zion Jesusen Amari bere laguntza.

Aren asmo ta otoitz onak urrarazi naiez sulezeko gaistoak gainbera bezala erabilli zuen Loiolako itxea ta eskanbill andi bat egin ta leio bateko bidriera autsirik utzi ta jaitsi zen zori gaistoko bere tokira. Andik laster agertu zen Jesusen Ama Jesus bera bere besoan zuela ta Ama Semeak ontzat artu zioten artu zuen ontzeko ta santu izateko asmoa, ta eman zioten beti, bizitu zen bezala, aingeru baten eran ta garbi-garbiro bizitzeko grazia ta bizitu zen geroztik beti gorputzik ezpalu bezala ta bekatu ziki-nerako illa zirudiela.

Bekatu orretarako zena izandu zen geroztik Aita S. Ignazio beste bekatu-giro guzietarako ere ta bizitu zen beti munduko gauz ero makurretarako ezpaliz bezala ta illa zirudiela. Ekusi ditugun gorputzaren osasuna ta zeruko indartzak artu ta joan zen Monserrateko fraide edo monje santu batekin bizi guziko konfesio bat egitera. Hastiz hau an ta damu andiarekin egin ta komunio santa artu ta billatu zuen Manresan mendi zulo egoki bat, eta an sartu ta bizitu zen urte bateko denbora geienean arrigarrizko penitenziak egiten zituela. Lur otza zen an aren oatzea; eskean biltzen zuen egunoroko bere ogi zatia jateko guzia ta ur utsa aren edaria. Barutzen zen igandeetan ez ta beste egun guzietan. Gutienean zazpi horduz egoten zen egun oro Jangoikoari otoitz egiten ta joaten zen elizara al zituen mezak enzutera ta beste debozi onak egitera. Katez ta zilizioz lotua ta agitz nekatua zerabillen bere gorputza ta katezko diziplina ez egun oro erdi urratzen zuen bere gorputz bera, ta andik atera ta ere

ta bere bizi guzian eman ziozkan bere gorputzari era bereko tundak edo aldian ark eraman alak, eta artu zituen guztiz meki bestek emanak.

Jerusalengo bazter santuak ekustera ta Jesusek non bere pasio santako neke bakoitza izandu zuen ikastera joan zen aldian, arako bere ontzialdia ez galtzeagatik, eri ta gaizki arkitzen zela ta purga bat artu berrian, sartu zen ontzian ta itsaso bizian. Gero Jerusalengo bazter berak eta toki santu guziak ekusten zebillela, zeren zerbait luzatu zuen Kalbario santuko mendian edo Jesusek gure amorez azkeneko bere odola ta bizi guzia eman zituen lekuan, ala zebiltzanak biltzeko kontua zuen gizatzar batek garrote batekin burutik bera eman ziozkan nork daki zenbat ukaldi gogor, ta al-ere aren gorputza ta burua zurez egiñak edo burdiñezko gauzak izandu balira baño geiago etzen asaldatu Santua.

Andik itzuli ta Italira zeneko gerran zebiltzan Franzesak eta Espaindarrak ta Espaindar zenbaitek bidean arkitu ta berriak ikasten zebillen salatzalleren bat zelakoan, bere gorputz ongi nekatua ostikoz zapladaz ta anitz aldetara agitz geiago nekatu bazioten ere, illa baliz baño geiago etzen igitu edo asaldatu. Italitik Barzelonara joan ta asi zituen an gramatikako bere estudioak. Batetik bestera zebillen aldian, bere estudioetako denboran ta beste denbora ta aldi guzietan egiten zuen al zuena, al zuen guziei zeruko bidean eskua eman naiez. An Barzelonan ikasi zuen gazte zenbait geiegitan urbiltzen zirala seroreen konbentu batera. Joaten zen zenbait aldiz ango seroreei hitz onak eta zegozten gauzak esatera ta bere hitz egokiekien itsi ta ertsi zien gazteei arako sar-bidea, eta gazteak hau ekusi ta aserratu ta bein bidera atera ta garroteka ta makil-ukaldika utzi zuten erdi illa. Al-ere etzieren hitzik esan Santuak eta bestek itxera eraman ta sendatu zeneko, alakorik ezpaliz bezala asi zen serore beretara joaten ta zegozten gauz onak esaten ta esaten. Barzelonan izandu zena zen S. Ignazio Alcallan ta Salamancan ere bere estudioak egiten an zebillen denbor guzian, ta estuditegi andi orietan animen alde egiten zuenagatik bere gain izandu zituen anitz presondegi, anitz neke ta kate, ta guzieren artean esaten zuena zen etzela Salamancan ta mundu guzian ere Jangoikoaren amoreagatik eta animen onerako ark nai adiña girgillu ta kate. Eta etzen hau S. Ignazio gorputzez illa bezala munduan bizitza?

Bada gorputzez zena zen S. Ignazio beste alde guzietara ere. Eskean biltzen zuenetik ogi zati bat artu ta beste guzia ematen zien behartsu gaisoei. Jerusalemeko ontziratzean nai ta ez ar-erazi zioten zerbait diru Venezian; baño ontzira zeneko partitu zien guzia ontzi bereko behardun gai-



soei. Flandesen ta Ingalterran bildu zuen uda batez neguko estudioetarako diru zati bat; ostu ta ebatsi zion estudio beretako ta itxeko lagun batek, eta iges egin zuen aren itxetik. Iru jornada egin ta gaizkitu ta aitua zitzaien zeraman diru ebatsia ta arkitzen zen zer egin etzekiela. Bazekien nolakoa zen S. Ignazio ta gaztigatu zion joan zekiola arren laguntzera. Ara zen bereala S. Ignazio bokadu bat ere bide guzian artu bage. Lagundu zion munduko adiskiderik onenak bezala ta sendatu zenean barkatu zion diru ebatsia ta eman zion bere biderako limosnaz an bildu zuen guzia. Eta ondasunetarako bere bizitzan orra zein illa S. Ignazio.

Eta honretarako? Adi zazu. Jesusen bere Konpaniko beste batekin bidez zebillen batez ekusi zituen biak txarki jaunziak artzai mutil batek eta asi zen farra ta irri, ta irri ta far. Oartu zen Santua ta aren aurkesean gelditu ta esan zion bere lagunari: «Gauden emen guti bat bere atsegin aldia mutiltxoari ematen». Eta esan oi zuen bere barreneko deshondra naiari baizik ez begiratzera, larru gorrian ta lumaz ta lumeraz betea ibilliko zela kalez kale, Erromatar guzien histak eta burlak hastiro aditzen. Eta ez da hau Apostol S. Pablok dion eran ta mundurako ta bekaturako gutziz illa bizitzea? Ala da, bai segurki.

## § II.

Bada bekaturako illa bezain Jangoikoarentzat edo Jangoikoaren honra billatzeko bizia bizitu zen denbor berean S. Ignazio: *viventes autem Dea*. Len esan duguna bezain egi ageria da egi hau, orain zuk ekusiko dezun bezala. Zer dela uste dezu bat beti bere Jangoikoarena izatea edo Jangoiko berarentzat bizitzea? Bizitz hau agertu digun San Pablo berak diona egitea edo geren jate-edateak eta geren beste gauzak Jangoikoaren izenean ta honran egitea: *sivè manducatis, sivè bibitis, sivè aliud quid facitis, omnia in gloriam Dei tacite*. Eta hau da bere Jangoikoagana Loiolan itzuli ta jiratu zen hordutik S. Ignaziok egiña; bada hordutik Jangoikoaren amorez urtua bezala gelditu zen aren bihotza ta geroz oztuz ez, baizik berotuz ta berotuz joan zen amore beraz beraren bihotz bera, ta Jangoikoaren amore berak eragiten ziozkan gauzak ziran artzen zituen asmoak, esaten zituen hitzak eta egiten zituen gauzak, eta orregatik ziran, dio *Sacra Rota* deritzan Erromako tribunal andi batek, Jangoiko beraren honran ta izenean S.

Ignaziok egiten zituen gauzak: *omnes suas cogitationes, et verba, et opera ad Dei gloriam, honoremque destinabat*; edo tribunal berari bere hitzak artu ta S. Ignazioren egungo Matutian Eliz Ama santak dion bezala, Jangoikoaren gloria zen, ta glori billa zezaken andiena, S. Ignaziok bere hitzetan ta egiteko ta gauza guzietan billatzen zuena: *cuius majorem gloriam semper in ore habuerat, semper in omnibus quaesierat*.

Hau zuk ekusteko ekusi behar dezu S. Ignaziok egiña, bai ta nola egiten zuen ere. Jangoikoaren honra mundu guzian banatzeko S. Ignaziok egin zuen lenbiziko gauza zen Jesusen Konpañia, ta egin zuena bezalako Konpañia, edo Konpañi Filosofiko maisuz ta Teolojiko Doktozez egiña ta bere egitekorako behar bezalako soldadu gizonak zituena; bada Jesusen Konpañiaren egitekoa da, Eliz Ama santak dion bezala, gure religio santaren aide herejen gezurrei ta jentillen itsumen zikinei gerra bizi bat beti egitea; ta gerra, S. Ignaziok Jesusen Konpañia egin horduko hereje berei ta jentilei beren itxeetan sarturik egiña; bada hordu beretik igorri ta bidaldu zituen S. Ignaziok Aita Fabro ta Jaio ta beste bere lagunak Franzira ta Ingalterrarra ta Alemanira ango herejeekin gerran ta pelean haritzera ta andik laster egiteko berera Aita Salmeron ta Lainez Trentoko Konziliora.

Denbor berean asi zen S. Ignazio S. Franzisko Xabier-en ta bere Konpañiko beste anitz semeren eskuz Afrikako ta Indiko ta Amerikako probinzi luze zabal ta erreinu andietan jentil itsuei gerra bera egiten: *Ignatius, misso ad praedicandum Indis evangelium S. Francisco Xaverio, aliisque in alias mundi plagas ad religionem propagandam disseminatis, ethnicae superstitioni, haeresique bellum indixit*; ta egiteko ta ger hau bezain andi gogor bat egiteko behar ziran S. Ignaziok artu ta bidaldu zituenak bezain gizon jakintsu ta andi egokiak.

Aldi artan Alemania zen hereje gaistoz agitz sendorturik arkitzen zen bazterra ta ara igorri zituen seme soldadu zitzaken guziak, eta oriei lagun on anitz eman naiez, egin zuen S. Ignaziok Erroman alemandar gazteentzat itxe andi ta kollejo bat, ara ekarri ta maisu andiz jakin behar zutena erakutsi ta beren bazterretara gizon egiñak bidaltzeko, an gero sar zitezten Jesusen Konpañikoekin batean herejeekiko pelean, ta herejeen gezurrak urratuz ta gure legeko egi garbia agertuz lagun zezaten herejeak eskuratzen ta fededunak beren sinistantz onean ederki sendor-erazten.

Jentil arteko gerrara igorri zituenentzat ere eragin ziozkan S. Franzisko Xabierri Indian era bereko itxe andiak eta ara ziranen laguntegi egokiak, eta lagun oriek ez ezik, bere Jesusen Konpañiko zitzaken guziak ere



igortzen ziezten egun oro edo al zuen guzian herejeen ta jentillen artean zebiltzan bere semeei, ta bera ere bein edo berriz arkitu zen herejeekin ta jentilekin ziardukaten bere semeei lagun egiten; bada herejeekin ziardukan ta Kolonian arkitzen zen San Ignazioren seme batek izandu zuen hau ekusi nai andi bat eta eskatu zion bere lana utzi ta Erromara joateko baimen-lizenzia. Eranzun zion Santuak zegola geldirik, bidera bage, arkitzen zen tokian ta esku-tarteko lanik galdu bage ekusiko zuela nai zuena. Eta ekusi ere zuen, bada guti uste zuen arrats batez sartu zen S. Ignazio beraren gelan ta ekusi zuen nai bezala ta gelditu zen pozez ta atsegin utsez betea. Eta Indiko jentil Badagekin izandu zuen aldi gogor batean, bere bazterrean izandu zuen S. Franzisko Xabierrek bere Aita S. Ignazio ta onek laguntzen ziola eragin zien Badagei berak nai zuena.

Herejeen gezurrak urratzeko ta jentil itsuei argi egiteko ez ezik, bekatari guziei ta fededun onei laguntzeko ere S. Ignaziok egiña da Jesusen Konpañia, ta Jangoiko berak daki S. Ignaziok berak berez ta Konpani onetako bere semeen eskuz batekin ta besteekin egiña. Bazter askotan berritu zuen lenbiziko fededun onen bizkuntza, ta besteetan ta kasi guzietan sartu zuen Kristau Dotrina, ta misioz ta ejerzizioz ta predikuz gaistoen ontza, konfesio santaz ta komunioz onen obentza ta bide berez ta beste zenbaitez onen ta gaistoen bihotzetan Jangoikoaren beldurkuntza ona; ta bere seme berei beren egiteko beretako lagun geiago eman naiez, eman ziezten beren itxeetan bizi diran gazteei maisu egoki artako behar den guzia erakutsiko zienak, eta hau guzia ta egiten zituen beste gauzak ziran Jangoikoaren berri ona munduan geiago ta geiago banatzeko, geiagori ta geiagori ta aldian bakoitzari obeki Jangoikoa maitarazteko ta Jangoiko berari andia baño honra andiagoa ta andiagoa eman naiez.

Hau ala dela osoki ekusteko jakin behar dituzu Santu berak bi alditan esan zituen gauzak. Esan zuen bein S. Ignaziok: «Ekusten banu nik nere eskuz ta besterenez egiten ditudan gauzetatik txikienean ere billatzen ez dudala Jangoikoaren honra dezakedan andiena, damuz bertan illen nintzake». Eta beste batez: «Nere eskuan uzten balu Jangoikoak bertan ill ta ber-bereala zerura igatea edo Jangoiko berari zerbait honra emategatik zenbait denboraz nere burua galtzeko perillean emen gelditzea, emen bertan geldituko nintzake». Eta hau, ekusten dezun bezala, Jangoikoarentzat baizik bizi ez den Santu andi batek baizik ez dagien hitzkuntza da.

Eta hau zion ta ekusi ditugun gauzak Jangoikoaren izenean ta honran egin zituen S. Ignaziok, zeruko zer urre-zillarrak edo grazi-birtute,

Espiritu Santuaren doai ta ondasunak egin edo bildu ote zituen bere azkeneko ogei ta amabost urteetan? Egunen batez jakinen ditugunak. Orain guk dakiguna da Santu berak bein esana, ta esan zuena da: Santu guzietatik batekin ere etzuela trukatuko Jangoikoak bere ongi naiez ta egin ziozkan serbitzuen alde eman ziona, Jangoiko beragandik artu ezipazuten orien bizitz historian ekusten duguna baizik. Eta ekusten dezu zein andia den or guk ekusten duguna.

Orra, bada, zein ondasunduna zeruan ta bidenabar Jangoikoarekiko zein eskuduna guri laguntzeko S. Ignazio Loiolakoa. Eska zagozu, bada, erdits diezazula berak bere ibilliz agertu digun bidez mundurako illak eta Jangoikoarentzat biziak bizitzeko ta zeruko irabaz andiak egiteko behar dezun laguntza ta grazia: bai arren, bai.





## XX

## S. Lorenzo eguneko irakur-aldia

Si autem (granum frumenti) mortuum fuerit,  
multum fructum affert. Joan. 12.

*Gaia: Andia zen S. Lorenzok bere buruari,  
beste guziei ta Jangoikoari zion ongi naia.*

Espaindarrak ongi ekusirik artu zuten gure lege santa, bada Apostolu Santiagoren sermoiak aditu ta ere, etziran lenbizian zazpi baizik bataiatu; baña bein artu ezkeru, ez dute utzi beste anitz bazter ta erreinutan bezala, ez eta mairupean sei eun urtez ta geiagoz bizitu ta ere, ta mairu belzak Españira baño len, mairu belzen Españiko denboran ta gerozko denboretan izandu dira Españian fededun anitz eta anitz ez ezik, munduko beste bazter ta erreinu edozeinetan adiña santu ta santa edo geiago, ta orien artean Jesusen izenean bizia eman zuen egungo S. Lorenzo.

Santu hau, S. Agustiñek dionaz, Jangoikoaren izeneko bere eriotzarekin mundu guzia honratu duen santua da, ta honratu du gorputz guzia erre zion suarekin argi egiten diola: *illuminavit mundum Laurentius eo lumine, quo ipse accensus est*. Eta honratu du S. Lorenzok mundua, dio Aita Santu S. Leonek, len San Estebanek bezala, ta Jesusen izeneko bere eriotzarekin San Estebanek Jerusalem bezala S. Lorenzok honraz beterik utzi du berearekin mundu guziko errien erregin Erroma: *quàm clarificata est Hierosolyma Stephano, tàm illustris jacta est Roma Laurentio* (In ejus natal.).

Munduak ere egin du bere aldetik San Lorenzo bere honraria honratzeko al duena; bada Konstantino andi enperadoreak egin zion Erroman zegokan Eliz eder bat, an bertan egin zion Aita Santu S. Damasok beste bat eta badira Santu beraren izeneko besteak ere, ta Itali berean ta beste zenbait aldetan Obispo jaunen errietako zenbait Eliz nagusi ere S. Lorenzo beraren izeneko Elizak dira. Enperatriz Andre Santa Pulkeriak egin zion Konstantinoplan S. Lorenzo berari Eliz. Erromako andiena baño andi ederragoa, eta ederragoa gelditu zen hau. Erromatik eraman ta

an bertan ezar-erazi zituen Santu beraren relikiekin ta Eliz berean gero Justiniano enperadoreak egin zuenarekin. Españiko errege Felipe bigarrenak egin zion S. Lorenzori Eskorial deritzan toki batean bere Eliz eta S. Jeronimoren fraideen konbentu mundu guzian arkitzen diran andienetatik, ederrenetatik eta. ondasundunetatik bat. Eta Espani berean, Franziko erreinuan ta fededunen beste bazter askotan baditu S. Lorenzok anitz eta anitz Eliz eta debot; guzia da zor zaionaren alde ederki dagokan gauza.

Bai, ederki dagokana; bada ekusi ditugun S. Agustinek eta Aita Santu San Leonek ez ezik, S. Joan Krisostomok, S. Anbrosiok, San Pedro Krisologok eta beste Doktore ta gizon andiak eliztar guzien ta Jangoikoaren alde egin zuenagatik agitz honratzen dute San Lorenzo, ta orien artean esaten du San Maximok San Lorenzo kasi Apostolu jaun beren parekoa dela: *nèc immeritò eum Apostolorum supparem praedicamus* (Hom. 1 de S. Laur.), eta gure legeko santugatik ezin geiago esan diteke; bada Apostolu jaunak Espiritu Santuz bete ziranetik ez dute izandu parerik.

S. Lorenzoren onenbat honratarako anitz lagundu dute berak egin dituen milagroak; anbat eta alakoak dira oriek. Ara bat Turongo S. Gregoriok dakarrena. Italiko Eliz jaun batek eraman zuen S. Lorenzoren eliz bat osatzeko zur andi bat; baña behar zena baño laburragoa. Itzuli zen Santuagana ta eskatu zion luza zezala, zeren etzuen ark beste bat erosteko dirurik. Luzatu zuen Santuak behar zen diña ta geiago. Behar zena artu ta gelditu zen zatia ezipal egin ta eraman zuten erritarrak relikitzat eta ezipalak artu zituzten itsuak, mainguak eta eriak bertan gelditu ziran sendatu oso zuzen osasundunak (Lib. 1 mirac. c. 42).

Zergatik uste dezu eman diola Jangoikoak S. Lorenzori onenbat honra ta milagro anitz andiak egiteko esku hau? Zeren izandu zen egungo Ebanjelioko ale usteldu anitz ale dakartzena bezala edo zeren bere buruari, beste guziei ta Jangoiko maitagarriari ongi naiez anitz gauz onen ta neke tormentu arrigarriren artean utzi zuen bizia ta odola, aldi onetan ekusiko dugun bezala.



## § I.

Maite zuen San Lorenzok bere anima ta artu zituen bere kontura ta gain egin zituen gauz onak eta Jesusen etsaien neke ta tormentu guziak, eta bere gauz onak egiteko ta neke ta tormentu oriek bere gañ artzeko deabruaren merkantzatik etzuen pits bat artu nai izandu.

Deabru merkatari madarikatuak bere merkantzan darabiltzan gauzak dira, diote Rufinok eta S. Agustinek (apud Leblanc, t. A, p. 574) aragiaren atsegintz loiak, dirukuntz galgarri lausengariak eta buru ariñen arroketak: *diabolus pessimus foenerator aliis luxuriam, aliis avaritiam, aliis superbiam commodat*. Gerorako fiatuz edo gero pagatzeko ematen dio batari bata ta besteari bestea; baña bati ere ez berak nai diña. Ematen dio deabru merkatariak emazteki arin bere burua agertu ta estim-arazi naiez dabilleari zerbait itxura ta apaingarri; baña ez berak nai adin edertasun ta apaingai. Beren burua besteen artean agertu nai lukeenei ematen die deabru merkatariak, anitz eskantzen ta joan-etorriren buruan ba-dere, karguren bat edo beste edo artako den eskua ta egitekoa; baña ez berak nai bezain andia edo nai bezalakoa, eta batak eta besteak egiten duten irabazia egin nai lukeenaren aldean deus gutiko irabazia da; bada gizonak beren egiteko, esku ta karguarekin ta emazteki arroak beren orraztatze ta apainket guziekin egiten duten irabaziaz uzten ditu beren buruen agertu ta onets-eraz nai andiagorearen gose-egarriz beteak.

Hau bera agitzen zaio diru-zaleari deabruak ematen dion ebats-bide, saldu erosi nasgarri ta aberats-kuntz galgarri guziarekin; bada zenbat geiago irabazten duen, anbat irabaz-bide berrien ta lenak baño obeen izan nai andiagorekin gelditzen da. Hau bera gertatzen zaio gazte atsegin zaleari deabruak ematen diozkan edo deabruaren bidez artzen dituen atsegintz txar zikinekin: gosetuagoa ta gosetuagoa gelditzea, ta azkenean deabruarekin tratu agitz gaisto bat egin dutelako atsekabez lertzen egon beharra; bada onek eta beste guziak deabruarekin egin duten tratua da artu duten gauza txar galgarriaren alde deabruari beren animak betiko ematea: *animam pro usura diabolus exigit*; eta artu dutenak eta mundu guziak baño mill-milloietan geiago balio dit animak.

Deabru merkatari galgarriak egin zuen bere alegiña S. Lorenzori ere bere merkatantzatik zer edo zer ar-erazi naiez; baña etzion S. Lorenzok ari-zuntz albin bat ere artu nai izandu, ta gaztea zen aldian ere bizitu zen

aragit jauntzia ezpaliz bezala ta aingeru baten eran; orregatik egin zuen Aita Santu Sistok Erromako Arzediano ta anima garbien artean bizi nai duen Jesus Sakramentatuaren emalle edo fededunen komulgari.

Animaz ta gorputzez bezain garbia izandu zen eskuz S. Lorenzo; bada bere eskuetan erabili bazuen ere Aita Santuak beretzat eta beste guzirako zuen guzia, etzuen beretzako gelditu korradu bat ere, ta Aita Santuari Jangoikoaren etsiak bizia kendu ta gelditu zen diru ta ondasun piska, banatu zuen Erromako behardun gaisoen artean, ta enperadoreak esan zionean zekazkiola zituen diru ta Elizako beste ondasunak, bildu ta eraman ziozkan Erromako behardun berak, esaten ziola: «Orra non dituzun Elizako ondasunak; bada orien beharrak estaltzen aitu dira beste guziak eta nere gilyape-eskuan ez da deus ere gelditu».

Aragiaren atsegintz loiekin ta lurreko ondasunekin egiña egin zuen San Lorenzok antuste-gai guziekin ta lurreko honrekin ere; bada oriek ere besteen gisan utzi ziozkan ez artu naiez deabru galgarriari ta Aita Santuari etzion eskatu egin zezala Obispo, Kardenal edo Eliz-gizon andi; eskatu ziona zen eraman zezala, len Mezan laguntzera ta Elizako bere egitekoetara bezala, artzera zijoan martirio gogorrera, an aren gisan nekez ta tormentuz urratua ta mundu arroaren begietan deshonoraturik gelditzera.

Egin zuen hau ta len adirazi duguna S. Lorenzok bere animari ongi naiez ta zeruko gloria ez galtzeagatik; bazekien alabaña zerura nai duenak garaitu behar dituela bere naikuntz makur guziak eta Kristo Jaunak dion bezala artarako behar den aldian bere bizia ere utzi behar duela: *qui odit animam suam, in vitam aeternam custodit eam*; ta egin behar duela ark hau, zeren zeruko atsegintzen aldean pits bat baño gutiago diran emengo atsegintz, ondasun ta gauza guziak; *oblectamenta praesentis vitae, quid sunt, nisi furta oblectationis aeternae?* Orra Jangoikoak gero eman diozkan honra eta milagroetako eskua izateko S. Lorenzok egin zuen lenbiziko gauza: bere buruari behar den bidez ongi nai izatea.

## § II.

Jangoikoaren eskuko honra ta eman zien milagro andiak egiteko eskurako S. Lorenzok egin zuen bigarren gauza da al zuen guziei ongi egi-



tea. Guzien egitekoa da, dio San Joan Krisostomok, batak besteei, S. Lorenzoren gisan, al duten bidez laguntzea, ta hau da, dio Santuak, munduko berak ere lurreko beren gauzetan egiten dutena; bada emen besterik ezin duenak bere besoz ta bizkarrez laguntzen dio aberatsari, diruz aberatsak beardunari, maisu onak erakutsiz gazte ez dakitenari ta gazte berak bere egitekoetan bere maisu berari ta zarrari; medikuak ikasi duen senda-bidez ateratzen ditu eriak beren eritanzetik eta dutenarekin laguntzen diote eriak medikuari; soldaduak armaz ta eskuz ta askotan odol zati onak isurtzen dituela estaltzen ditu erregeen erriak eta bazterrak, eta erregek ematen dio soldaduari bein eskerra, bein honra ta beti dagokan saria, eta zerbait dakarten bazter-probinziak ematen die beste bazterrei behar dutena, ta bidenabar artzen dute balio duen dirua edo berak ez duten ta beste bazterrak dakarten zer edo zer. Bada batak besteari laguntzen badio lurreko gauz edozeinetan, obeki lagundu behar dio animako andian, esaten du Santuak: *si in saecularibus rebus sibi vivit nemo... quant() magis in spiritalibus rebus oportet hoc facere?*; bada beretzat baizik ez den gizona deusetako ez den gizona da: *qui sibi soli vivit, superfluous homo est*.

S. Lorenzo guzientzat egiña zen ta guziei laguntzen zien gizona; bada aldiak zekarren aldian laguntzen zion Aita Santuari, aldiak zekarren aldian ongi arkitzen zenari ta beste aldiak edozein beste beharduni. Bai, aldiak zekarren aldian ta behar zen guzian laguntzen zion S. Lorenzok Aita Santuari, berak bein esan zionak adirazten duenaz; bada Kristo Jau-naren martirari bezala bizia enperadore gaisto baten manuz kentzeko presondegira zeramaten aldian bidera atera ta negarra zeriola esan zien San Lorenzok: «Aita Santu, Eliz guziko apaiz nagusia, meza ematen zenuen guzian zere aldean zere diakonoa bezala izan oi ninduzun ni; nola zoaz, bada, ni emen utzi ta, Jangoikoaren izenean zere odola isurtzera ta bizia uztera?» Eta joanen ere zen beraren presondegira ta martirio-tegira Aita Santu berak geldiraz ezpalu utzi ziozkan bere gauzak behartsu gaisoei emateko.

Aita Santuarekin zena zen S. Lorenzo mundutar beste guziekin ere. Aita Santu San Sisto bezala, San Lorenzo ere artu zuten preso ta eman zioten Hipolito zeritzan zaldun bati zaitzeko, ta bera ill baño len zaldun hau Jangoikoarentzat irabazi naiez asi zen ongi zekiena ta Santua bezala ari hitz egiten; agertu zion zer lege den gure lege santa ta eman zion lege hau ekarri zigun ta gure ongi naiez gizon egin ta gurutze batean ill zen Jangoikoaren berria, ta bere hitz on meekin ta esaten zionaren alde an

bertan egin zituen milagro zenbaitekin ar-erazi zien Hipolitori gure lege santa ta bataiatu ta laster egin zen zeruko martir.

Zaldun ta zezakeen gizonekin zena zen beste guziekin S. Lorenzo. San Sistol esan ziona egiteagatik eta zeren berez ere agitz urrikaltia zen, ibilli zen S. Lorenzo bazterrez bazter behartsu gaisoen ta presondegian arkitzen ziran fededunen billan ta zenbaiti diruz, besteei hitzez ta besteei milagroez laguntzen. Sartu zen azken aldean Ziriaka zeritzan ta anitz fededun ta Eliz-gizon gordeak zeduzkan andre buruko miñ andiekin arkitzen zen baten itxean; fededun ta Eliz-gizonei bere eskuz garbitu ziezten oñak eta esku bereak bere buruan ezarri ta kendu zion Ziriakari min guzia, ta behar zituzten gauzak eta konseju onak eman ta joan zen Narziso zeritzan baten itxera, ta gordeak arkitu zituen fededun behartsu guziekin egin zuen hau bera, ta besteen artean an arkitzen zen Kreszenzio itsuari bere bedeinkantz batekin eman zion begien argia ta bista. Joan zen bereala Nepozianoren aitz zulo batera ta an zeuden beste irurogei ta irurekin egin zuen lenekoekin egiña ta an arkitzen zen apaiz bati belaunikaturik apatu ta muiñ egin ere zion bere oñetan.

Hau guzia ta era bereko beste gauzak egin ta joan zen S. Sisto bizia kentzeko eraman zuten tokira, ta guziak aditzen zutela esan zion ojuka: «Egin dut, Aita Santua, zuk esana; eman diet behartsu gaisoei utzi zenedan ondasun guzia ta eraman nazazu zerura». Ondasun otsa eta hitza aditu horduko, artu zuten preso ta eraman zuten Hipolitoaren presondegira. An arkitu zuen beste itsu bat eta oni ere eman zion begien argia ta utzi zuen fededun egiña. Banatu zen Erroman S. Lorenzok an egiña ta ara bildu ta eskatu zioten erriko itsu guziak senda zitzala, ta bere eskuz egin zuen gurutze batekin guziak utzi zituen sendatu bistadunak. Eta len bate-tik bestera zebillela ta gero presondegietan ta non-nai bere ill arte guzian haritu zen S. Lorenzo besteei al zuen ona egiten ta bere tormentu guzian artean eskatu zion soldadu bati eman zion bataioko ura ta utzi zuen martir gai egiña. Orra, besteei nai zienagatik ta nai onekin egin ziezten onaren alde ere eman zion Jangoikoak duen honra ta esku milagraria.



### § III.

Baña bata ta bestea erdisteko bere buruari ta besteei S. Lorenzok zien ongi nai ona baño agitz geiago balio duen gauza da Jangoikoari Santuak izandu zion amore andia. Zein andia zen S. Lorenzok Jangoikoari zion amore hau ezagun da S. Sistori martirien presondegira zijoan aldian bein ta gero martiritegi berean nekezko eriotzan beraren lagun izan naiez negarrez ta oiuka esan ziona; bada er artan ta alako aldian ezin zegiken hau agitz eta agitz Jangoikoa maite etzuenak, zeren eriotza berez gauza latz izugarria den ta martiren eriotza eriotz agitz latz-gogor-izugarriagoa; ta Jangoikoaren amore eriotz hau leunduko ta eztituko duenak, S. Lorenzori berean leundu ta eztitu zion bezala, nai ta ez izan behar du agitz andia.

Zein andia izandu zen S. Lorenzok Jangoikoari zion amore hau Santu berak ederki agertu zuen bere martiriko neke ta tormentu andien artean; bada guzien artean (ekusiko ditugunak bezain andiak izandu baziran ere) egondu zen S. Lorenzo aragi-ezurrezko gizon bizia bezala ez, baik bizirik ez duen ta miñik ezin ar dezakeen burdin edo bronze baten gisan ta eran.

Etzituen ondasunak, zituelakoan, S. Lorenzori ager-erazi naiez ta zuen sinistantz eta fedea gal-erazteagatik egin zituen Baleriano enperadore gaistoak S. Lorenzorekin asmatu zituen gogorket eta nekagirotz guziak. Eragin zituen burnizko kako anitz ortz zituzten zenbait eta ortz bakoitza txarrantxarenak bezain zorrotza, eta oriekin bere soñekoak ken-erazi ta borro gogorrei urr-erazi zien aren gorputza, goldez edo bost ortzekoz lurra urratzen den bezala. Ekusten dezu zein andia borro gogorren lenbiziko lan onek S. Lorenzori eman behar zion miña ta oñazea, ta al-ere Jangoikoari zion amoreagatik gelditu zen Santua eskuz buruko illea leuntzea baizik egin ezpaliote bezain kezkatu bagea.

Arritu bezala zen enperadorea bere begiz hau ekusi ta, ta izutuz ta beldurtuz berak nai zuenera S. Lorenzo erakarri naiez, ekar-erazi ta erakutsi ziozkan fededunei bizia anitz miñ, oñaze ta nekeren artean kentzeko tirano gaistoak horduraño asmatu ta eragin zituzten burdin ta potro ta instrumentu guziak, esaten ziola: «Ori, Lorenzo, uzten ezpadezu gu jentillak bezala bizitzeko zere Kristoren legea, bein nekagirotz bata, bein bestea, orain tormentu hau ta gero hura, ta azkenean beste andiagoak zere gain

izanen dituzu; orra or orretako diran instrumentu gogor izugarri zenbait eta ongi begiratu ta lenik ekusi zer bide den artu nai dezuna». «Ongi ekusia ta aurdanik artua dadukat nik, enperadorea», eranzun zion Santuak, «bein ere utziko ez dudana: Kristo Jaunaren lege garbi zuzen onekoa naz ni ta lege berean nolanai ill nazazula ill nai dudana».

Hau aditu ta aserretu zen agitz enperadorea, ta bere begietatik ken-erazi ta agindu ta manatu zuen, larru gorritu edo billosi ta, zigor lodiz ta baraz zemetela burutik oñeraño bere gorputz burni-kakoz agitz urratu artan azotaldi zukeen gogorren bat. Eman zioten hau kupide bage borro gogorrak. Bere bi eskuak sokaz lotu ta paratu zute a gero dindilirik eta burdin gorituz estutu ta erre ziozkatzen saiets guziak. Baña maite zuen Jangoikoaren izenean guzia zeraman S. Lorenzok poz eta atsegintz andiarekin.

Ekusten zuenarekin erdi amurratu zen enperadorea, ta ark esan ta, berunezko pillot andiak muturretan zituzten sozekin lertzeaz zioten S. Lorenzori borro berak bere gorputza, ta al-ere len zena, beti Santua ta beti pozez betea. Esku oñetatik laur aldeetara tiraturik eta aizean dadukata burnizko kakoz urratzen diote len bezala berriz ere gorputz guzia, ta «Eskerrak zuri», esaten du horduan Santuak, «nere Jangoiko urrikalti maitea, zeren zere graziaren laguntzarekin arintzen dituzun nere neke ta tormentu guziak; zure laguntz berarekin prest nago ni zure ta nere etsai gogor onek eman nai dizkidan beste guziak zure izenean artzeko ta ala nik oriek artzeko eskatzen dizut zere eskua ta laguntza».

Hau ark esan ta laster ezarri zuten sok-ordez burdin mez lotu zuten burnizko oatze batean, ta luzarago neketan an hura iduki naiez, eman zioten azpitik su ez andia, ta su ta su ematen haritu ziran borro gogorrak eta erretzen ta erretzen, ta ikatz egiten S. Lorenzoren gorputza; ta al-ere arkitzen zen Santua koltxoi bera gañean ta mandire leunen artean bazetzan bezain sosegantz andiarekin ta esaten ziola bein enperadoreari: «Ekusten dezu alde onetatik ongi aski erre dela nere gorputzeko aragia; iraul-eraz zazu bestetik ere ongi erre ta eraman dezaten zure mira»; ta gero ziriez ta bihotz osoz Jangoikoari: «Orra, Jauna, egiten dizut zure izenean erre den nere gorputz onen presenta».

Nondik zela uste dezu onenbat tormentu eta sutan S. Lorenzoren sosegantz eta ez-kezka hau? Jangoikoari zion amore anditik, eta zeren amore onek itzaltzen ta emendatzen zuen aren azpiko sua, dio S. Agustiniak: *et dum Christi ardet desiderio, persecutoris poenam non sentit* (Ser. 30 de SS.). Orra nolako S. Lorenzok bere tormentu guzietan ere agertzen duen



Jangoikoaren amorea. Amore onegatik, bada, geienik eta bere buruari ta besteei izandu zienagatik eman dio Jangoikoak ekusi dugun honra ta esku andia ta zeruan duen glori andiagoa. Guk ere geren zatia an izateko, ar dezagun S. Lorenzoren bidezko amorea: bai arren, bai.

## XXI

### Ama Birjinaren zerura igan eguneko irakur-aldia

Maria optimam partem elegit. Luc. 10.

*Gaia: On andia da Zerura igan den Jesusen  
Amagandik bizitzan ta eriotzan datorkiguna.*

Iru dira egungo festan sartzen diran gauzak: Jesusen Amaren eriotza, Jesusen Amaren zeruratza ta Jesusen Amak an artzen duen erregintza. Jesusen Amari etzegokan eriotza, etzuen alabaña bekatu rik izandu ta eriotza bekatuaren saria da: *stipendium peccati mors* (Rom. 6,23); baña ill behar dugulako egia guri sinist-erazi naiez sartu zuen Jangoikoak Jesusen Ama ere bekatudunen eriotzeko legean. Beti ere bai, baña bere Semea zerura igan ezkeru agitz nai zuen Jesusen Amak zeru berera igatea ta egun oro esanen zuen len salmari onak ziona: «Ai ene, ta emengo nere erbes-tantzaren ta bizitzaren luzea! ; egarriz dagon basauntzak iturriko ura beza-la nai nuke nik ekusi nere Jangoikoa».

Baña Jesus zerura igan ta emazurtz eta aurtasunean bezala gelditu zen Eliza ta bazuen Jesusen Ama bezalako Amaren beharra, ta Semea zerura igan ta ogei urtez beintzat bizitu zen emen Jesusen Ama. Amaren zerura igan aldia urbildu zenean, berri hau aingeruz eman zion Jesusek bere Amari, ta berri hau aditu ta esanen zuen Jesusen Amak: «A, ta zer poza Jangoikoaren itxera igan behar dudalako berriak ekarri didana! : *laetatus sum in bis, quae dicta sunt mihi: in domum Domini ibimus* (Ps. 121, 1). Amaren ill hordua etorri zeneko bildu zituen Jesusek munduko anitz bazterretan predikatzen hari ziran Apostol onak, eta S. Tomas ez ta beste guziak begira zegozkala sosegu onezko lo batek artzen balu bezala gelditu zen amorez illa.

Hura ill horduko an zen beraren Seme Jesus maitagarria ta zori oneko aren animari «Atoz, atoz artzera zeruko ta lurreko zure erregintzari dagokan koroa»: *veni, veni, coronaberis* (Gant. 4,8) esan ta luzatu zion bere besoa ta Jesusen besoan atsedeten zuela igan zen zerura. Anitz milla ain-



geru izanen ziran aldi artan Jesusek berekin ekarri zituenak eta guziak ekusi horduko, mill agur humill egin ta asi ziran Jesusen Amari esaten: «Zu zara, zu, gure Jerusalemgo edertasuna, zu ango ta lurreko israeldarren atsegintza, ta zu, besteen ere bai ta aingeru guzien honra: *Tu gloria Hyerusalem, tu laetitia Israel, tu honorificentia populi nostri* (Judith 15,10). Era berean mintzatuko ziran berari lagun egitera Jesusekin jaitsi ziran Patriarkak, Profetak eta beste zerutiar guziak.

Guziekin zerura urbildu zenean, andik begira zeuden aingeru onak asi ziran elkarriz esaten: «Zein da munduko eremu idor galdutik datorren arako hura? Beste zeru batetik baletor bezain atsegintzez, edertasunez ta birtutez betea dator hura, ta dator (ez dezue ekusten?) maite duen bere Seme maitearen ta gure errege Jangoiko-gizonaren besoan bere okalondoa dakarrela»: *Quae est ista, quae ascendit de deserto, deliciis affluens, innixa super dilectum suum?* (Gant. 8,5). Eta beren ta beste guzien Erregiña zela ezagutu ta zeruan bera sartzean, zer agurrak, zer ongi-etorriak, zer bedekantzak eta zer zori onak guzien ezpañetatik aldi artan atera ziranak! Aingeru oriek egin zutena egin zuten zerutar beste guziak, eta guziak alde guzietatik ingurutu ta milla musik eta laudantz ederren artean eraman zuten Jangoikoaren tronua aldera.

Aren tronura zenean esan zion Jangoikoak Jesusen Amari: «Atoz, guztiz ederki ta nik nai bezala egin dezu zuk guzia; jar zaitez dagokizun ta prestatu dizudan tronuan ta bizi zaitez poz eta atsegintz andiarekin ta ar zazu ta edan ematen dizudan emengo Erregiñaren glori guzia»: *bibe nunc, et acumbe in jucunditate, quoniam invenisti gratiam coram me* (Judith 12,17). Eta jarri zen bere Seme Jesusen eskoi aldeko tronuan zeruko Erregin egiña ta urrezko ta emengo beste edergarrizko soñekoz baño agitz obeki apaindua: *astitit Regina à dextris tuis in vestitu deaurato, circumdata varietate* (Ps. 44,10). Belaunikatu ziran hura an ala ekusi ta zeruko aingeru guziak eta beren Erregiñari bezala esan ziozkaten milla biba ta zori on. Hau bera egin zuten beren izenean ta beren ondorengo guzien ordean bertan arkitzen ziran Patriark, Profet, Apostol, errege eta Santu ta Santa guziak. Eta ango guziak eta gu etzagutu ginduen Jesusen Amak bere erreinutartzat eta gelditu zen emengo nai dugunoi bizitzan ta eriotzan laguntzeko, ta egiten ere du. Zein ederki? Aldi onetan ekusiko dugu berak laguntzen digula.

## § I.

Ekusi ditugun iru gauzak adirazten dizkigu egungo Ebanjeli santuak eta sartzen dira egun bereko festan; baña ez dira bakarrik sartzen fest onetan; sartzen da alabaña Jesusen Amaren gorputze zeruan sartzea ere. Jangoikoak Jesusen Amaren animarekin ekusi duguna zeruan egiten zuen denboran, Apostolu jaunak zegokan honra ta errespetu guziarekin eraman ta ortzi zuten Jetsemaniko obi batean beraren gorputza. Hau zaitzen ta honratzen egondu ziran an, S. Tomas, lenago agertu etzena, irur egunen buruan ara artean. Agitzen zena ikasi zuenean, eskatu zien Santo Tomasek beste Apostol bere lagunei ken zezatela obi gañeko arria, ark ere, Jesusen Amaren gorputz illa bazen ere, ekusi ta bere eskuan ari apa ta muñ egiteko.

Apostolu jaunak kendu zuten obiko arria, baña etzuten obian arkitu Jesusen Amaren gorputza; zeren horduko millaka hura zaitzen egondu ziran aingeru onak eskatu zioten Jesusi biz zezala testamentu berriko kutxa edo arka ta bera bere baitan iduki zuen zori oneko gorputz hura ta eraman zezala sekulako bere atsegintegira: *surge, Do-mine, in requiem tuam tu, et arca sanctificationis tuae* (Ps. 131,8); ta egin zuen Jesusek berari ta beraren Amaren gorputzari zegokan bezala; bada ill ta irugarren egunean eraman zuen, len anima bezala, anima ta gorputz bere Ama maitagarria bere zerura, ta bere biztu-aldi, zerura igate, Jangoikoaren tronuan agertz eta berriro zeruko Erregiñaren bere tronuan jartze onetan egin ziozkaten Jesusen Ama maitagarriari bere Seme Jesus berak, Jangoikoaren aingeru ederrak eta zori oneko beste zerutar guziak lenbiziko bere igan aldian adiña ta agitz honra ta agur geiago.

Zegokan ta ere; bada Jesusen Amari bezala zegokan hau guzia ta andre Mari Birjiña anima bakarrik ez, baizik gorputz ta anima zen Jesusen Ama, ta Jesusen Amaren bigarren igate ta Erregintz hau ere sartzen da beraren egungo festa andian, eta bigarren bere Erregintz osoarekin arkitzen da geroztik Jesusen Ama Jesus beraren eskoi aldeko tronuan, ta era onetan an arkitzen da gure bitarteko egiña ta gure alde Jangoikoari hastiz ta nai bezain ederki hitz egiteko jarria, ta behar den aldian hitz egiten ere dio beraren Semeari, len aura zenean eman zion bularra agertuz, Seme berak beste aldietan Ait eternoari bere eskuetako ta bularreko zulo-tokiak agertu oi diozkan bezala: *Christus Patri ostendit latus, et vulnera; Maria Christo, pectus, et ubera.*



Bere bularra, bada, edo Jesusekin egin zuena agertuz zenbait aldiz ta beste zenbaitez gure alde hitz egiten diola eskatzen dio Jesusen Amak Ait eternoari (guk artara hura geren otoitz humillekin behartu ezker) bizitz on baterako behar duguna, ta eskatzen dio digun urrikaltzari ta beraren gudanako amoreari dagokan bezala ezin ziñkiago ta bortitzkiago; bada ezin andiagoo ta parerik bagekoa da Jesusen Amak digun urrikaltz-amorea, dio San Pedro Damianok: *benignissima est, et omnes amat amore invincibili* (Ser. 1 de Nativ.). Zoaz, bada, zere tentantz-aldian ta estatusunetan edo zere estatusunetarako ta tentaldirako beharko dezunaren eske zeruko Erregin Jesusen Amagana ta eska zagozu Jangoiko maitagarriagandik erdits diezazula hau guzia, ta zoazkio erditsiko dizulako uste osoan. Bazoazke, bai, baldin ongi bazabiltza edo ondu-nai on batekin arkitzen bazara; bada maite zaitu bestek ez bezala ta maiteen maiteen zaituenak baña ere agitz eta agitz gueiago; zeren parerik bagekoa den, ekusi dugun bezala, Jesusen Amak digun amorea: *amat amore invincibili*.

Esazu ezperen. Baldin zuk bazenu ezin geiago nai dizun aita, ama edo adiskide bat, eta adiskide, ama edo aita zuk nai dezun guzia hitz birekin erditsi ta eman dezakena ta zuri eman naiez dagona, ta den guziaren berria zuk bazenu, zere behar aldietan etzinake eskatzen diozun guzia erdits uste osoarekin arganako? Ala da, diozu, ta egia. Bada oriek irurak eta era bereko iru milla baño geiago ta geiago nai badizu Jesusen Amak, nai dizun bezala, (bada nai dizu ezin garai diteken naikuntz-amorearekin) ta arkitzen bada, arkitzen den gisan, eskatzen dion guzia egiteko dagon Jangoikoaren bazterrean, ta bidenabar arkitzen bada, San Jermanek dion bezala, ezin esan adiña on ta ongi bere eskatzalteei egin ta ere, bakar-bakar bat egin ezpalie bezain egin nai andiarekin, ta egin nai bein ere asetzen ez denarekin: *non est ulla satietas tuae defensionis, non est numerus tuorum beneficiorum* (Or. de V.), hau guzia onela den ezker, den bezala, eskatzen dioguna erditsiko digulako zenbat usterekin eska dezokegu Jesusen Amari dagokigun ta behar dugun guzia? Nai badugu, ekusi ditugun aitari, amari edo adiskideari eskatzeko artuko genuena baño gerok nai adiñetan andi-goarekin; eta zenbat ere andiagoo Jesusen Amari eskatzen diogunaren erdits ustea, eskatzen badiogu humilki ta behar bezala, anbat segurkiago erditsia eskatzen duguna.

Norañokoa den Jesusen Amaren guri lagundu nai edo bizitz on bana guri eragin ta betiko gu zori onekoak egin nai hau, askotan ta anitz alde-tara agertu du berari zerbait debozio izandu diotenekin. Adi zazu orieta-tik zenbaitekin berak bein egiña ta Beata Kristina deritzan S. Bernardoko

soror edo monjak ekusia. Ama Birjinaren egungo festako matutiak kantatzen hari ziran bein S. Bernardoko konbentu bateko fraide-monjeak eta matuti beren bukanzan *Te Deum* kantatzen asi ziranean, ekusi zuen Beata Kristinak Jesusen Ama zerutik orien korura jaitsia, ta jaitsia urrezko kate eder bat bere eskuan zuela. Katearen lenbiziko mallan zekarren bere izena ta zekarren zeruko argiz agitz edertua. Urrengo malletan arkitzen ziran koruko monje kantari guzien izenak eta oriek beren bukanzan esan horduko, «Uste dut, Jauna, sekulako galduko ez nazula» edo *In Te, Domine, speravi, non confundar in aeternum*, esan zuen Jesusen Amak: «Ni gaur bezala nerekin sekula guzian emengo guziak zeruko glorian egon beharrak dira» (Menol. Cist. 15 Apr.).

Eta orien beren Aita S. Bernardok dion bezala, bere bizitz ezin obeerkin Jesusen Amak erakutsi digu arako bidea: «Goazen, bada», dio Santuak, «berari garraizkola ta eskatzen diogula bere lagunzez eskutik artu ta birtutez birtute eraman gaitzala bere aldera»: *praecessit nos Regina nostra... ut fiducialiter sequantur Dominam servuli, clamantes: Trabe nos post te, in odorem unguentorum tuorum curremus* (Ser. 1 de Assump.). Eta askotan guk hau ari eskatuagatik guri lagunzez ez da hura aspertuko bein ere, len guk ekusi dugunaz: *non est ulla satietas tuae defensionis*. Eta orra zein andia Jesusen Amak ongi bizitzeko eman nai digun laguntza ta Jangoikoaren grazi anitz erdits naia.

## § II.

Bai? Bada ez da bat ere laburragoo Jesusen Ama berak eriotz en banatarako eskeintzen digun laguntza ta Jangoiko beraren grazia. Ongi bizi nai dutenak ez ezik, ongi ill nai duten guziak ere agitz maite ditu Jesusen Ama maitagarriak, dio ekusi dugun S. Pedrok: *omnes amat amore invincibili*; ta batek bat maitatzea, San Gregoriok dionaz, ark oni ongi egitea da: *probatio dilectionis exhibitio est operis*; eta batek bestea agitz eta bestek baño geiago maitatzea ark oni on anitz eta bestek egin detzokeenak baño andi-goak egitea da, ta behar dituen aldian aldikoak egitea, ta hau Jesusen Amak ongi ill nai dutenekin egiten duena. Iru bidez datozenak izan oi dira erien beharrak eta premiak; bada izan oi dira beren eritasunetik, etsai gaitoaren atzaparretik eta eri beren bekatuaren aldetik datozenak; eta beren



iru behar orietatik eriak ateratzeko agitz andia da Jesusen Amaren laguntza ta aldian behar dutena behar den horduz eman naia.

Eritasunaren aldetik datozen beharrak eta neke guziak izan oi dira buruko, sabeleko, erraietako edo gorputz guziko gaitz eta miñak, harreneko kezak, tristurak, ezin egonak eta oriek dakazten nai-gabenzak, eta Jesusen Amaren laguntzak badu oriek garaitzeko egokia den esku eta indarza, eta garaitzen ere du bi aldetatik batez: edo txoilki ta guttiz kenduz edo eri beren onerako graziz leunduz ta arinduz.

Kenduz garaitu zituen orain adituko dituzun ta Jesusen Amari ongi nai zioten erienak. Oñaz arrigarriz betea arkitzen zen bere azken aldean Aldegunda deritzan Santa Barberen sendagaiak etzioten onik egiten. Bereetatik baten eske zuzendu zuen bere bihotza Jesusen Amagana. Aren otoitzak aditu ta, jaitzi zen Jesusen Ama eria ekustera, esan ziozkan bi hitz eztiutsu ta utzi zuen oñaze ta gaitzik bage ta osoki sendatua. Agoniz ta nekez izerditan arkitzen zen S. Joan de Dios eritasuneko bere azken aldean ta zerutik jaitzi ta esku-oial zuri mee batekin izerdia kenduz utzi zion Jesusen Amak anima agitz eztitua ta lurreko paradisu bat egiña. Eratsu bereko zerbait egin du Jesusen Amak beste anitz eta anitz erirekin ere. Baña ez da hau billatzen duten eririk geienekin egiten duena; geienetan ark orien gaitzak garaitzeko egiten duena da erdisten dien laguntzaz ta Jangoikoaren graziz orien gaitzak leunduz arintzea, beren zorren alde ta Jangoikoaren izenean artuz irabaz dezaten ez purgategiratzea edo ango neke arrigarri gogorrek arintzea ta zeruko glori-zati andiak irabaztea.

Ekusi ditugunak baño neke galgarriagoak dira eri gaisoak beren etsai amurratu deabru gaistoaren aldetik izaten dituztenak; bada suleze aldera bultzatzen dituztenak dira ta eri beren sekulako gaitza billatzen dutenak deabruaren gaitz-era oriek, eta oriek ere errazki ta aisa garaituko ditu Jesusen Amari zerbait debozi dion eriak.

«Bai», esan zion bein berak Santa Matilderi, «nik nai bezala bizi diranen aldean naz ni orien ill aldean»: *adsum in morte eorum, qui mihi piè, sanctè-que servirunt*. An da orien aldean, eri beren aldetik aienatzeko deabru tentari gaistoa, ta an da deabru tentari gaistoentzat ejerzitu andi, behar bezala jarri bat, bere etsaiarentzat bezain izugarria: *terribilis ut castrorum acies ordinata* (Gant. 6,3). Bai ta izugarriagoa ere, bada etsaiak ejerzitu izugarriarentzat badaramake beste izugarriago bat hura garaitzeko, ta badaki deabruak nai duena berak egiñagatik Jesusen Amak beti garaituko duela,

bai ta aren orporatzen denean buru guzia urratuko diola ere: *ipsa conteret caput tuum* (Gen. 3,15).

Beste aingeru guziena bezala San Migel aingeruaren Erregin da Jesusen Ama. Eliz Ama santak esaten dio S. Migel aingeruari lagun dakigula geren etsai madarikatu gaistoekin dakargun pelean ta. eriotzeko horduan, ta Jesusen Amak, beraren ta gure Erregiñak bezala, agintzen ta manatzen dio hau bera, dio S. Buenaventurak; eta San Migelek Jesusen Amaren esana egiteagatik laguntzen die Jesusen Ama berarekin gau ta egun beren debozio duten animeei: *Michael dux, et princeps militiae coelestis, tuis, Virgo, parei praeceptis in defendendis in corpore, et suscipiendis de corpore animabus fidelium, specialiter tibi. Domina, die ac nocte se commendantium*; ta berez ta bere aingeru bortitzen eskuz aisa garaitzen dit Jesusen Amak berari debozioa izandu diotenen etsai, hordu artan tentatzen dituen; ta Rikardo de San Lorenzok dion bezala, geren alde badugu Jesusen Ama, ez dugu zer beldurtu eriotzeko hordu berean ere, horduan guk geren gain izanagatik suleze bereko etsai amurratua: *Si Maria pro nobis, quis contra nos?*

Ez eta leneko geren bekatu guziak ekusi ta ere; bada baldin guk debozio on bat izaten badiogu Jesusen Amari, Jesusen Amak palakatuko du gure bekatu gaistoak len aserretu zuten Jangoikoa, dio San Bernardok: *ipsa Deum irā excandescentem pro nostris sceleribus mitigat* (Ser. de Assump.). Nola uste dezu? Agintzen ta manatzen duenak bezala, eskatuz bere Seme Jangoikoari, dio San Antoninok, gure bekatu guzien barkanza: *Orationes Mariae habent rationean jussionis, et imperii* (In 4 p. tr. 15, c. 17, § 4); edo San Pedro Damianok dion bezala: «Eskatuz ez, baizik aginduz ta manatuz: *non rogans, sed imperans* (Ser. 2 de Nativ. V).

Eta orra berari ongi nai diotentzat zein laguntzalle ona bizitzan ta eriotzan zerura gaur igan ta gure ta Jangoikoaren arteko egiñik eta bere Seme Jangoiko-gizonaren eskoi aldean jarriarik arkitzen den Jesusen Ama. Eta geren onagatik baizik ezpa-dere, ongi-nai ta debozi andi bat izan behar diogu gaugero Jesusen Amari; bada Rikardoren ezpañez berak dion bezala, bere eskuan ditu zeruko ondasun guziak eta graziz ta gloriz betetzen ditu bera maite dutenak: *mecum sunt divitiae, et gloriae, et his ego dito diligentes me, et thesauros eorum repleo* (L. A).

Eta betetzen ditu alik lasterrena ta egungo egunarekin eramaten ditu anitz, dio Jersonek (Tr. 4 sup. Magn.) purgatoriotik zerura: *solet Beatissima Virgo in festo suae Assumptionis multos omnino e purgatorio eruere*. Zenbatsu uste dezu? Bein beintzat egun artan atera zituenetatik batek, egun berean





Erromako Kapitolioko beraren Elizan otoitz egiten hari zen bati esan zionaz, Errom berean bizi ziranak adiña (P. Theoph. Raynaud. Hetev. Spir. p. 2, sec. 3, p. 2 ) eta Erroman bizi dira eun ta berrogei ta amar mill bezala.

Orrenbat ondasun erdisteko, bada, ta bizitz on ta eriotz obe bat egiten ta purgatorioko su izugarritik laster ateratzen lagun diezagun, maitatu behar dugu ume onak bezala Jesusen Ama, beraren izenean gau ta egun egiten dugula al dugun on guzia, ta egungoa bezalako beraren egun andiak datozen bezperatik baru bat eta egun berean kontuzko konfessio ta komunioa, ta behartsu gaisoei, anima purgatoriokoei ta beraren ta Jesusen Bihotzaren edo aldareko Sakramentuaren argiari zerbait ematea, ta berari atsegin emateagatik bigarren meza entzutea, beste errosario bat erretzatzea ta zenbait ekusaldi Jesus Sakramentatuari Elizan egitea. Jangoikoak dizula bere Amaren hau guzia eragiten duen debozioa: bai arren, bai.

## XXII

### San Bartolome Apostoluaren eguneko irakur-aldia

Erat pernoctans in oratione Dei, et cùm dies factus esset... elegit et Bartholomaeum. Luc. 6.

*Gaia: Otoitza da egin behar diran gauz eta eriotz onerako bidea.*

«Gaistoak laburtzen dituzte beren urteak» dio Espiritu Santuak: *ami impiorum breviabuntur*. Ongi bizi diranek ere Jangoikoak laburtzen ditu askotan beintzat; baña ez da bat baten ta besteen urteen laburtza; bada Jangoikoak onez laburtzen ditu onen urteak eta ez ala gaistoak bereak. Gauz ageri ezaguna da zertako den gaistoen urteen laburtza; da alabaña lapurra urkabela bezala gaista bakoitza sulezeko bere nekera lenbaitlen eramateko, bai ta munduko gaisoei gaistoen bidagiro ta ekuskai galgarri galduak kentzeko ere.

Baña onen bizia emen luzatetik ez datorkie gaitzik beste onei, ez eta gaistoei ere; bada onak gaistoei ontzen ta onei obetzen laguntzeko dira, ta zenbat ere luzeagoa onen bizia, anbat luze andiagora orien zori oneko laguntza; ta zenbat ere obeak diran onak, anbat ohea besteei egiten dien ona ta ongia. Hau ala den ezkerro, den bezala, zergatik egin etziten Jangoikoak mundua bukatu arte guzikoak edo beintzat, lenbiziko gizonak bezala, anitz eun urtetarako on guziak edo beintzat bere Apostolu jaun Elizako gizonik andienak eta munduaren onerako hitzez ta milagroez geiena egin behar zutenak? Guk ez dakigu, ta dakiguna da egungo Apostolu Santu S. Bartolome beintzat gazterik ezpazen ere, munduaren erdia edo laurdena hitzez ta milagroez gere legera ekartzeko sasoi onean arkitzen zela eraman zuela Jangoikoak bere zerura, ta hau beratsu egin zuela beste Apostolu geienekin ere; bada Apostolu geienak ill ziran zenbait urtez beintzat iraun zezakeen adiñ sasoian.



Hau ez ezik, badakigu besterik ere; bada badakigu bai dakiela Jangoi-koak zer egiten duen hau egiten duen aldian edo Apostolu jaunak len, ta geroztik beste anitz on, on anitz munduan egin zezakeen sasoi-edadean zerura eramaten dituenen, ta badakigu bidenabar Apostolu jaun ta beste on oriek ez ezik, on guzien on bere Seme Jesus maitagarria ere laster aski ta Apostolu bat ere baño agitz lasterrago eraman zuela; bada eraman zuen ogei ta amairu urte zitueneko, Jesus izanagatik beraren Apostolu ta beste on guziak baño on geiago ta geiago zegiken Jangoiko-gizona.

Len Jesusekin ta gero bere Apostoluekin ta nai duen beste onekin hau egiteko, baditu Jangoi-koak guk ez dakizkigun gauzak, eta guk ere badakigu orietatik bat ba-dere; bada badakigu on anitzi agitzen zaiela lurreko gauzetatik zenbaiti gertatzen zaiena, edo besteak baño len zoritzea ta humotzea; bada gariak baño len zoritzen dira garagarrak eta S. Migel udareak baño len beste guziak; eta garien ta S. Migel udareen begira egon bage, zoritu horduko ebakitzen dituela jabeak garagarrak eta humotu horduko biltzen ditu beste udare guziak. Era berean, bada, on batzuek baño len egiten dituzte besteak beren Jangoikoaren egitekoak eta bereak egin horduko zoritu ta humotu da bakoitza, ta deitzen du Jangoi-koak zeruko bere saria artzera ta an ederki atsedetera, ta on oriek asi duten lan bererako baditu Jangoi-koak beste eta beste onak ere, ta on nai duen aldian igortzen ta bidaltzen dituenak.

Orra, bada, beste gauzen artean zergatik zartu bage bere zerura eraman zuen S. Bartolome, zeren bitarte orretan bukatu zuen bere lana ta egiteko guzia, bai ta besterik ere; bada S. Bartolomei beste Apostoluganak utzi zioten egitekoa zen Likaondarrei Jangoikoaren lege berria erakustea ta Kristo Jaunaren berria ematea, ta Likaoniko errietan ark hau egin ta joan zen S. Tomasentzat gelditu zen Indira ez, baizik lenagokora; ta gero Armeni andira, an ere hau bera egitera, ta egin ere zuen laster aski, artarako Jangoi-koak emanik zuen tronpet soñari batena zirudien hitza; bai ta zeren zekizkien bazter guzietako hitzkuntzak eta bakoitzaren bihotzeko berri gordeak, zeren zituen aingeru onak lagun ta egiten zituen nai adiña milagro, deabru Beriti Jangoi-koak aitor-erazi zion bezala, ta zeren orri guziari berak irasten zion otoitz luzeen laguntza ta indartza, ta otoitz bera den gauz onak ongi egiteko bide, orain guk ekusiko dugun bezala, eta orra zergatik, guk ekusten dugunaz, Jangoi-koak eraman zuen onen laster S. Bartolome bere zerura.

## § I.

Egungo Ebanjelio santuak dakarren aldi batez (beste askotan ere bai ta) agertu zien Jesusek Apostolu bereei egin behar zituzten gauzen askuntza ta asi-bidea. Jesusek zerraizkon guzietatik artu nai zituen amabi bere Apostolutako. Bazekien zein ziran artarako artu ta berezi behar zituenak; baño bere Apostol berei ta orien buruan guri erakusteko geren gauzen egin-aldietan egin beharra, igan zen lenagoko arratsean mendi batera ta egondu zen an arrats guzian otoitz ta otoitz bere Aita Jangoikoarekin, ta bigaramunean andik jaitsi ta bildu zituen bere guziak eta artu zituen Apostolutako S. Pedro, S. Andres, Santiago, S. Joan, S. Felipe ta egungo gure Santu S. Bartolome, S. Mateo, S. Tomas, Santiago bigarrena, S. Simon, S. Judas Tadeo ta Judas Iskariote, ta bertatik eman zien guziei Apostoluen izena, ta Jesusek hau egitearekin erakutsi zien Apostolu berei gero berak beren gauzen askuntza ta asieran egin behar zutena; bada erakutsi zien gauzak egiten asi baño len otoitzez beren buruak prestatu behar zituztela.

Jesusek Apostol bereei hau erakutsi ta, erakutsi zien nola egin egin behar zuten beren lanik andiena ere edo predikatzea, bai ta zein diran ere beraren Ebanjelioko berririk berezienetatik zortzi edo animaren zortzi zori onak, eta bata ta bestea erakusteko eraman zituen aren hitzak aditzera ta sendatu naiez Judako errietatik, Jerusalem, itsas bazterretik, Tirotik eta Sidonitik bildu ziran beste anitzekin urrengo soro ta toki zabal batera; ta arako bidean edo an bertan Jesus ukitzea edo eskuan edo soñekoan Jesusi ap edo muñ egitea aski izandu zuten eri guziak eritasunik bage ta deabrutuak deabruetatik libre gelditzeko, ta gero zegokan tokian jarri ta asi zen predikatzen ta agertzen bere Dizipulo ta an arkitzen ziran beste guziei onen zortzi zori onak eta doakuntzak, eta zori on, doakuntz berak eskatzen dituzten gauzak. Agertu ziezten gero gauz oriek egin nai ez dituzten gaistoen beste lau zori gaisto.

Agitz ederki ikasi zuen S. Bartolomek aldi onetan Jesusek agertu zien gauzen askuntza ta gauzak egiten asi baño len Jangoi-koari: otoitz eta otoitz egitea, ta egin ere zion gauzen askuntza ez ezik, gauzen egin horduan ta beste askotan ta askotan ere; bada deabru Berit berari Jangoi-koak idaroki ziozkan Apostol S. Bartolomek Jangoi-koari egunaz eun aldiz ta



gabaz beste eun alditan otoitz egiten ziola, ta etziran anbat gau-egunean S. Bartolomek egiten zituen gauzak; eta anbat aldiz egiten zion S. Bartolomek otoitz Jangoikoari, zeren bere Maisu Jesus maiteagandik ikasi zuen otoitz onaren ona ta indartza.

*Aita gure*-ko otoitza Jesusek agertu zien aldian agertu ziezten S. Bartolomeri, beste Apostolu lagunei ta gerozko fededun guziei otoitz onaren zazpi on gutziz andiak. Lenbizikoa da Jangoiko gure Ait ona dagokan eran honratzea, bigarrena bere grazia ta zeruko beste gauz onak Jangoikoari eskatzea, irugarrena Jangoikoak nai duenerako otoitz-gillea prestatu uztea, laugarrena Jangoikoagandik behar ditugun lurreko gauzak erdistea, bostgarrena egin ditugun bekatu guzien barkanza Jangoiko beragandik izatea, seigarrena etsaien eskutik izan ditzakegun tentantzak garaitzeko behar den laguntza Jangoikoaren eskutik artzea, ta zazpigarrena bekatuaren lezera bage bizitzeko Jangoiko beraren eskuari lotuak bezala gu uztea. Orra zer ona otoitz onaren bidez Jangoikoaren eskutik datorkiguna.

Baña andia ba-dere, ez da bakarrik hau otoitz onaren bidez datorren on guzia; bide beraz datoz anitz eta anitz beste on ere, ta on, agerian Jesusek lenbiziko aldian otoitz egin zuenean agitu zenak agertzen dituenak. S. Joan Baptistaren bataioa artu ta bereala agerian edo S. Joane eta S. Joanekin an arkitzen ziranak ekusten zutela jarri zen Jesus otoitz egiten, ta an Jesus ala zegola, idiki ta zabaldu zen zerua: *et Jesu baptizato, et orante apertum est caelum* (Luc. 3,21). Zerutik atera, jaitsi ta jarri zen Jesusen buru gañean uso eder bat zirudiela Espiritu Santua: *et descendit Spiritus Sanctus corporali specie sicut columba in ipsum* (v. 22), ta horduan aditu zen Ait Eternoaren hitzketa eder leun hau: (emen bataiatu ta otoitz egiten hari den) hau da atseginz andi bat egiten didan nere Semea: *et ecce vox de caelo dicens: hic est filius meus dilectus, in quo mihi complacui* (Matth. 3,17).

Orra Jesusen otoitz aldi onetan an agi-gertatua, ta ara aldi artan an gertatuak adirazten duena. Jesusek otoitz egite berean zerua Jesusi idiki ta agertzea da guri adirazteko humilki jartzen denaren otoitza odeiak urratu ta iganen dela zeruraño ta ez dela jaitsiko eskatzen duena Jangoikoagandik erdisti bage: *oratio humiliantis se nubes penetrabit, et non descendet donec Altissimus aspiciat* (Eccl. 35,21). Jesusek otoitz egite berean Espiritu Santua zerutik jaisteak eta aren buru gañean jartze onek adirazten dutena da otoitz humillak egiten dituenaren bihotz-eratzten dela graziz, birtutez ta doaiez Espiritu San-tu bera, bertatik ari bere gauz onetan lagun egitera

etorria. Eta Jesusen otoitz aldian mundu guziari Aitak esatea, «hau da atsegin egiten didan nere Semea», guri adirazteko da otoitz humillak egiten diozkanari hitz egiñen diola Jangoikoak bere barrera ta agertuko ari atsegin egiteko ta zeruko laudantzak eta gloria irabazteko otoitz-gille berak egin beharra. Eta orra zer onak otoitz onetik datozen leneko zazpiak eta orain berriro ekusi ditugun irurak.

Ongillea bezala indartsua da onaren otoitz humilla, bada otoitz humillak dakar otoitz-gilleagana Jangoikoaren urrikaltza, otoitz-gilleari barkatzeko egin dituen utsak eta bekatu guziak; otoitz-gilleagana dakar Jangoikoaren ontasuna onez ta graziz ta birtutez apaintzeko beraren anima; ta otoitz-gille beragana dakar Jangoiko beraren bazter bageko ahala ta eskua ere, ematen dion indarrarekin egin ditzan bestela egin ez zitzaken zeruko irabanzak, bai ta askotan beste gauz andi eta milagro berak ere.

Hau guzia zekienak bezala San Bartolomek gau ta egun ta bere gauzak astean ta ekusi dugun adiña aldiz egiten zion Jangoikoari otoitz, eta, beraren gauzak adirazten dutenaz, egiten zion eskatzen ziona emanen ziolako uste osoan ta erdisti arte guzian, ta Jangoikoagandik otoitzez erdisten zuenarekin egiten zituen orain ekusiko ditugun beste gauzak ere.

## § II.

Apostolu jaunak munduan banatu ta Jangoikoaren legea predikatzen asi ziran munduko gaisoez agitz jabetua arkitzen zen deabru gaisoa, ta Jangoiko berak daki hau eskuratzeko, onen lan gaisoak urratzeko ta munduko berenen bihotzak maneatzeko, prestatzeko ta Ebanjelioko beren ereintzak egiteko izandu zuten lana ta nekea. Neke ta lan onen zatirik txikiena etzen S. Bartolomerentzat gelditu zena. Likaoniko ta Indiko erri ta probinzietan izandu zuena utzi ta goazen Armenian izandu zuena ekustera.

Munduaz jabeturik arkitzen zen deabruak bere burua Jangoikotzat ar-erazi zien mundutar gaisoei, ta fededunen erriak orain Jangoikoaren Elizez bezala beteak zeduzkan munduko guziak bere elizez ta idoloiz ta mundu guzian Jangoikoak etzuen israeldarren Jerusalengo Eliz bakar bat



baizik. Bere eliz bakoitzean billatzen zuten mundutar gaisoak deabru gais-toa, bein jakin nai zituzten gauzak galdetzeko, ta besteetan etzuten osasun, ondasun edo nai zuten beste gauzaren bat eskatzeko, ta guzia zekien ta zezaken Jangoikoa baliz bezala egiten zuen aldian arganutzen ziranak liluratzeko ta itsutzeko diña.

Orretarako lotzen ziozkan batari gorputzeko zañak, besteari tripako esteak eta zenbaiti begiak ekusiko badute behar duten zukua edo hura, ta uzten zuen lenbizikoa maingu, urgon ta erren, bestea sabeleko miñez betea ta besteak ekusterik bage ta itsu. Joaten ziran guziak eliz bateko edo besteko deabruagana ark an zituen apaiz txarrentzat zerbait diru, argizagi edo gauz eskuan zutela ta eskatzen zioten etzuten osasuna; ta horduan egiten zuena zen berak isillik eta gordean ezarri ziezten lokarri guziak kentzea ta loturik zedukan osasuna lasai uztea; baña ez, etzuten osasunik edo ekusterik ematea. Era bereko itxureriren bat egin ta bidaltzen zituen beste egitekoz beraganatzen ziran beste guziak. Eta zeren etorkizunen berririk ez duen, bat edo beste galdegiten zioten aldian naispillatzen zituen bere hitzak eta gezur ateratzen bazen erantzun ziena, esaten zuen aren hitzak besterik esan nai zutela.

Askotan hau egiten zuen deabru bat arkitu zuen S. Bartolomek Armeniko erri bateko elizan. Mututu zen deabru hau S. Bartolome errira zeneko, ta milla galdantz eta eskantz ari erritarrak eta beste errietako zenbaitek eginagatik, ez aditu egin ta uzten zituen uts eta otz. Hau ekusi ta, utzi zuten arganako bidea erriko guziak eta beste errietakoak eta gelditu ziran Astarot-en apaizak (Astarot zen eliz artako deabruaren izena) zer jan etzutela ta gosez erdi illak.

Andik ez urrutiko beste eliz batean bazen Berit zeritzan beste deabru Astarot bezain hitz-ontzi gezurti bat. Astarot-en apaiz gosetiak argana ziran ikasi naiez nondik zen Astarot-en mututantza. Galdetu zioten hau ango deabru Beriti. Etzen etorkizuna; izandu zena ta Beritek zekien gauza zen hau, ta eranzun zien apez galdegiñei Beritek Kristo Jaunaren Apostolu S. Bartolomek mutu-erazi zuela aien Astarot. Zuriz jauntzirik zebillen ta soñekorik urratzen etzuen gizona zela esan zien S. Bartolome ta gizon ez andia, gizon zuria ta gizon beste guziak gogoan zerabiltenaren berria zuena, bai ta aldi artan ark apaiz `berei esaten zienarena ere, ta bere burua gorde nai bazuen, mundukok arkituko etzuen gizona zela ta Jangoikoak emanik anitz aingeru berekin zituena.

Beriten berriarekin irur egunez ibilli ziran apezak Apostol S. Bartolomeren billan. Arte onetan sendatu zuen S. Bartolomek gizon deabrutu bat. Sendantz onen berria banatu zen erri guzian. Aditu zuen erri berean bizi zen Armeniko erregek ere berri hau. Erregek bazuen deabruturik arkitzen zen ta Astarot-ek ezin sendatu zuen alaba. Dei-erazi zuen S. Bartolome bere alaba sendatzera ta deabru gaistoaren atzaparretik ateratzera. Arkitu zuen Santuak prinzes deabrutua, besteri bere atzaparrez gaitzik egin etzezon katez lotua. Ken-erazi zituen aren kateak eta Jesus izendatze batekin utzi zuen prinzesa deabruturik bage ta guztiz sendatua.

Eskerdu onak bezala eman nai zion erregek S. Bartolomeri diru zati andi bat, baña eskerrak eman ta utzi zion erregeri bere dirua ta aren egiteko guzia zela, esan zion, errege berari ta nai zuten beste guziei lege zuzen bat eta zeruko bidea agertu ta erakustea. Agertu ziozkan Jesusen Jainkonda, Jesusen bizitza ta eriotza ta irugarren eguneko bizkuntza, bai ta beraren lege santa ta zerurako denak jakin behar duen beste guzia ere ta esan zion nai bazuen aitor-eraziko ziola Astarot mututuari egia zela esaten zion guzia, ta itxureria ta gezurra baizik ez Astarot berak horduraño esan ta egin zuena.

Baietz, nai zuela erregek esan ta joan ziran biak Astaroten apaizak eta beste nai zuten guziak Astaroten elizara, ta S. Bartolomek agin-manatu ta, aitortu zuen Astarot deabruak egia zela S. Bartolomek don guzia ta hura Jangoiko ez, baizik Jangoikoak suleze-infernu bizian erretzen zedukan deabru txar itsusi galdu bat zela. Eta hau ala zela erregeri ta an arkitzen ziran beste guziei adirazteko esan zion S. Bartolomek ager zedilla bereala ta onda zedilla bere lezean; ta bertan agertu ta bere itsustasunarekin erdi illak utzi zituen ekusi zuten errege ta beste guziak, eta ondatu zen sekulako infernu errean ta gelditu zen eliza S. Bartolomerekin zebiltzan aingeru onak paret guzietan egin zituzten gurutz guztiz ederrez betea, ta hau ekusi ta, errege bera eta beraren erreinuko anitz eta anitz egin ziran Jesusen legeko fededun.

Ekusten dezu zenbat milagro ta gauz andi egin zituen S. Bartolomek emen bertan ere. Bada emen zena izandu zen beste bazter guzietan ta naita-ez agitz andiak eta anitz izandu ziran predikatzen ibilli zen erri ta toki guzietan egin zituen gauzak eta milagro txarmagarriak, eta guziak egiten zituen Jangoikoari gau ta egun egiñaz otoitz ta otoitz, ta egiten zion adin aldiz ta egiten zion bezain uste ta bihotz osoz otoitz egin ta. Orra bakoi-tzak bere gauzak ongi egiteko bide zein egokia den otoitz usteduna.



Bai, ta eriotz on baterako ere. Bere zori onekoa oititzez ta Jangoikoaren izenean egin zituen gauz onak gatik erditsi zuen egungo Apostolu S. Bartolomek. Hau izandu zen martiriozkoa ta martirio gogorrezkoa; bada Astaroten apaiz gaistoak eta bataiatu zen errege onaren anai gaistagoak borrarero gogorrek billatu ta kendu zioten bein burutik oñerañoko larrua ta gero ezpataz buru bera ta bizia, ta bertatik igan zen beraren anima Apostolu andi martire baten zeruko atsegintzetara. Eta igan zen ara gauz onetarako ta eriotz on baterako bidea guri agertzen zigula, ta agertu zigun bidea da berak eraman zuena edo ekusi dugun bezain maiz gau ta egun oititz egitea. Jangoiko maitagarriak digula hau guk artzeko ta zeruan gero Santu oititz-gille andi beraren lagunak izateko grazia: bai arren, bai.

## XXIII

### S. Joakin eguneko irakur-aldia

Liber generationis Jesu Christi,  
filii David, filii Abraham. Matth. 1.

*Gaia: Sant Anari egin zion laguntz onaren alde eman zion Jangoikoak S. Joakini alaba ezin obea.*

Zenbaitek ezkondu baño len egiten dituzte bekatu zikiñak eta ezkondu ta gelditzen dira humerik bage, ta humerik bage gelditzen dira zeren lenagoko beren bekatu gaistoak uzten dituzten Jonas profetaren untza ar batek bezala. Ninibeko bere misio andia bukatu ta erritik baztertu zen zerbait Jonas profeta ta eraman zuen Jangoikoak untzeko itzaltegi bat prestatu zion tokira. Itzaltegia zen untz baten beso bildu ostodunez egiña, ta itzaltegi, luzaro iraundu etzuen ta profetari an sartzean artu zuen poza fit aski ta laster ito ziona; bada urrengo goizerako Jangoiko berak ara zuzendu zuen ar ozkari bat eta arrak ozkatu ta egun berean igartu zen untza. Aldi berean erretzen zuen eguzki aldi agitz sutuak eta zebillen aize beroak eta utzi zuten profeta erdi urtua ta «onela bizi baño ill ere naiago nuke» esaten zuela: *melius est mihi mori, quàm vivere* (Jon. 4,8).

Untz hau ar onek bezala, bada, uzten dituzte zenbait ezkondu, ezkondu baño len edo gero egiten dituzten bekatu zikiñak; uzten dituzte alabaña guztiz igarturik ezpa-dere, agitz agortuak edo untz igartuak itsu-mats baño hume geiago ezin dakarkeen eran, ta ezkondu orien agortz edo hume bagentz hau orien beren bekatu galduen sari gaistoa da.

Beste zenbait ezkonduak galtzen dituzte zituzten humeak, hume berak Jangoikoak eman ezkeroko egiten dituzten bekatu gaistoak gatik. Ala galdu zituzten beren buruekin batean Lot-en denborako Sodomatar ta Gomor-tar guziak; bada Lot eta Lot-en itxeko irur atera ta beste guziak beren erriekin ta errien inguru ta bazter guziekin erreak utzi zituen Jangoikoak zerutik bota zien zuzrezko su izugarriak, eta erreak utzi zituen su izugarri onek erri orietako humedunak eta humerik etzutenak ezkondu



bagean ta ezkondu ta ere egiten zituzten beren bekatu zikiñak gatik (Genes. 19). Eta oriek baño len bekatu berak gatik urez itoak gelditu ziran munduko Noe ta beste zazpi ez, ta gañerako guziak ere (Ibid. 7).

Beste zenbait ezkondu ere len ta gero bekatura bage bizitu diranak ill dira humerik bage, baña era orretan ill dira oriek Jangoikoak dakienagatik eta geienak noski humeen bekatu gaistoak gatik (izandu balituzte) betiko gal ez zitezen, edo orien hume gaistoak mundua den baño gaistogo egiña utz ez zezaten.

Beste zenbaitek berandu erdisten dituzte izaten dituzten humeak eta orietatik batzuek onak dirala uzten ditu Jangoikoak beranduraño humerik bage beren onagatik edo noizbait gero izaten dituzten humeen onerako, eta bitartean ezkondu berak obetu ta obeki azi ditzaten izaten dituzten humeak. Hau da len Samueli ta beraren Ama Anari ta gero S. Joan Baptistari ta onen ait-amei ta oriek baño lentxeago Jesusen Amari ta onen Aita egungo Santu S. Joakini ta onen emazte Sant Anari agitu ta gertatua; bada ezkondua ta humerik bage len anitz urtez bizitua zen Samuelen ama Ana ta urte orietan egin zituen Anak anitz baru, anitz negar ta otoitz Jangoiko maitagarriagandik hume bat izan naiez, ta hume hau Jangoikoari eskatzera urte oro joaten zen Ramata zeritzan bere erritik Jangoikoaren Siloko Eliz andi berezira, ta eskatzen zion an hastiro ta negar andiak egiten zituela, ta azkeneko igan aldian eskatu zion boto bat egiten zuela. Egin zuen botoan esan zion Jangoikoari ematen bazion seme bat azi ta eramanen ziola Siloko Eliz berera ta aren humea ezipaliz bezala utziko ziola an Jangoiko berak nai zuena artaz egiteko. Obetu zen bitartean Ana, eman zion Anari Jangoikoak eskatu zion semea ta Samuel bezalako semea, ta Anak Samuel bere bularrez azi ta esnea kendu horduko ederki apaindu ta zegozkan ofrend andiekin eraman zion Jangoikoari Silora ta utzi zion berak nai zuenerako, ta Jangoikoak aurra anditu ta gizon egin zenean egin zuen horduko legeko Aita Santu ta israeldar guzien juez. Eta ez dakigu zer egiñen zuen Anak orrenbat neke bage ta lendabizitik erditsi balu gero izandu zuen seme hau.

Ana onek adiña ta geiago egin zuen gero Sant Isabelek S. Joan Baptistari izateko ta Jangoikoari eman zion onek ere Jangoiko beragandik berandu erditsi zuen bere semea. Hau bera egin zuen era berean erditsi zuen alabarekin egungo gure S. Joakinek ere. Eta erditsi zuen onek hau, hau erdisteko bere emazte Sant Anari egin zion laguntz onagatik, ekusiko dugun bezala.

## § I.

Gaistoen gaistantzak ais-aski artu oi dituzte gaistoekin luzaro dabilzan onak eta Espiritu Santuak ere esana daduka gaistoarekin dabiliena len edo gero gaistatuko dela: *cum malo malus eris*. Ez da gaistoarekin dabiliena gaistatzea bezain erraz onekin dabiliena ontzea, zeren gaitzerako dugun grinik bage arkitzen garan gauz onetarako, ta al-ere Jangoikoaren beldurti onekin dabiltzanak ontzen dirala dio Espiritu Santu berak: *qui cum sapientibus graditur sapiens erit* (Prov. 13,20). Baña ondu oi dira Jangoikoaren beldurti onekin dabiltzan gaisto gaistatuak ez, baizik beren bihotzean lur ona dutenak, edo onerako egiñak diruditen gizonak; bada lur en hau duten bihotzei ta lenagoko beste oriei egiten zaie sagarrondo bati zure itxe bazterreko lur onean ta beste aldetako txarrean beste bati gertatzen zaiena.

Alda zazu sagarrondo en bat zere itxe bazterreko lur en ongarriz obetu ta ederki maneatura ta ekusiko dezu zein ederrak, zein humotu ta sasoi onekoak bere aldian ematen dituen sagarrak. Alda zazu beste hau bezain en bat lur gaisto ezin meago aitz gañean arkitzen den ta zakar utsa baizik ez den batera ta ekusiko dezu zer sagarrak ematen dizkitzunak, edo ekusiko dezu sagarrak ez eman ez ezik, igarzen dela lurrik ere an artu bage. Gis berean, bada, grin gaistozko gaistatuaren bihotzeraño sartuagatik beldurti onen hitza, hitz orrek lurrik artzen ez du an ta aditzen duena gelditzen da aditu baño len bezain agor, gaisto ta bage; baña sartzen bada hitz bera gaitzari bere baitan tokirik egin nai ez dion baten bihotzean, lotzen zaio bihotz berari ta ematen diozka eragiten dituen gauz onen sagar humotuak edo glorigai andiak, eta bihotz onezko ori ta ekusi ditugun beldurti ongi aziak dira Afrikako bazter en batean aldatzen diran sagar, pik ta beste zenbait ondo en bezalakoak.

Afrikan badira ere uts egiñak arkitzen diran mendiak, bazterrak eta lurrik, bai ta orien artean lur piska urtzuti en bat ere. Lur onek eta beste lur agor ta aredi oriek beren gain-gañean dute agitz berotzen ta erdi erretzen dituen zeruko eguzkia. Aredi orietan aldatzen diran udar-ondo, sagar ta beste guziak ezatasunik bagez ta gañeko eguzkiaren bero-aldi sutuarekin an aldatu ta laster gelditzen dira igartu ta su gai eder egiñak, baña ez



beste lur pisk onean aldatzen diranak, aldatzen badira beintzat behar den aldian, gisan ta eran.

Orien ango behar bezalako alda-gir ta gis ona da frut-ondo bakoitza dagokan tokian ta bere itzalarekin beste on egin dien gisan lurrean sartzea. Alde batetik badu zori oneko lur onek bere aldap-egia. Egi gañean jaiotzen da ur edo iturri bat, eta iturri, egiko bazter guzietara zuzen ditekena, bai ta azpiko egalaren edozein aldetara ere.

Lur-egi edo aldap onek ederki artzen ditu bazter aietako frut-ondoak edo palmak, olibak, pikoak eta era bereko beste zenbait eta agitz obeki bakoitza bere tokian ezarri ezker, eta ekusi dutenak esaten dutenaz orien tokia da palmarentzat egi-gañekoa, olidariarentzat edo olibendako urrengo, pikoarentzat urrengo edo azpiragokoa ta besteentzat urrengo ta urrengo ta azpirañoko beste guzia ta mastientzat eta ardantzendako azpiko lur zabala. Egokia da palmarendako lenbiziko tokia, zeren an ezartzen den frut-ondoak bakarrik artzen duen eguzkiaren bero-aldi errea ta berez duen itzala baizik ez duen hura garaitzeko ta palma den berez itzalik geiena ta ostorik gogorrenak dituen. Berez itzalean ta ostoen gogortasunean palmaren urrengo olidaria edo oliba da; bada onen ostak ere olibarenak bezala uda ta negu irauten dute ta gañeko aldetik palmak ematen dionarekin ta berak berez egiten duen itzalarekin errazki garaitzen ditu eguzkiaren ango bero-aldi andiak. Pikoak ere bere osto andiekin ta olidariak gañaldetik egiten dion itzalarekin garaitzen ditu. eguzkiaren bero aldi andiak, bai ta pikoaren laguntzarekin urrengoak eta urrengoarenarekin urrengoak ere.

Gañeko eguzkiarekin frut-ondo edo arbol frutari berak hau egiten duten denboran sagar-zaiak iturriaren ur guzia zuzentzen du bein palmaren ondora, bein olidarira ta gero gañerako frut-ondoetara ta azkenean masti ta ardantz guzira, ta azpiko zañetatik edo lurreko beren sustraietatik behar duten zukua ta indarra artzen dutela ta gañetik eguzkiak berotzen dituela, ematen dituzte ongi humotuak ardantzak beren matsak eta frut-ondo bakoitzak bere pikoak edo dagozkan jaki goxoak, eta orregatik da, Pliniok dion bezala, Afrikako lur zati hau zori oneko lur txarmagarria: *felix, et super omne miraculum, irriguum solum* (L. 18, c. 22).

Ezkontzako lurra da zori oneko lur hau baño agitz eta agitz lur ohea, ta lur onek bezala bere tokietarako ezkongai egokiak eskatzen dituen ta beste anitz alditan ere bai, ta S. Joakin ta Sant Ana beretu zituen horduan, izandu zituen; bada S. Joakin Gallilean jaioa ta Nazaretko semea bazen

ere, Judako itxerik andieneko etorkia zen; zen alabaña Matat-en ta Estat-en semea ta aren ait-ama oriek Dabiden ta aren ondorengo anitz errege ta gerrari andiren etxeokak ziran, ta Judako tribu guzian ta erreinuan etzen arkitzen Dabid erregeren itxearen pareko itxerik, eta orregatik itxe bereko etorki S. Joakin zen Judako itxerik andieneko etorkia, ta etorki, ezkontzako lur onean alda ziteken ezkontz-ondorik eta ezkongairik onena edo onenetatik bat.

Arbol onen ondoan aldatu zena edo bizikidetako ta emaztetzat Jangoikoak eman ziona zen S. Ana, Judako tribu berean ta Belengo errian jaioa. Etxe andiko semea ez ezik, ondasun andiduna ere zen S. Joakin ezkondu zen aldian, ta ondasunez berari zegokana aren emazte Sant Ana. Joakin da Jangoikoaren prestantza, dio S. Epifaniok, zeren argandik den Jangoikoari gizon egin zeneko prestatu zitzaion Eliz eder Andre Mari Birjiña: *ed, qudd ex illo praeeparatum sit templum Domini, nempe Virgo* (Orat. de laud. V.), eta Santu berak dionaz grazia da Sant Ana edo An izenak esan nai duena: *Ana rursus gratia interpretatur* (Ibid.), ta orregatik zen S. Joakin urrengo tokirako edo bizikidetako guztiz egokia. Hau bera adirazten du len ta geroko bien bizitzak eta izandu zuten frut on ta zori oneko alaba Jesusen Amak.

## § II.

S. Joakin aurdanik asi zen izaten bere amaren aitatako Jangoikoak artua zedukan gizakiari zegokan erakoa ta hordutik izandu zen ona ta birtutetsua ta adin artan, bere gaztetasun guzian ta beti agitz garbia. Santu hau jaio baño lenago ta lenago ere agertu zuen Jangoikoak etor beharra zela, bai ta zertako etorri behar zuen ere, edo agertu zuen etorriko zela Joakin zeritzan gizon bat eta Jesusen Amaren Aita izateko izanen zela onen etortza. Ala dio gure Aita Kanisiok eta onek diona da S. Joakin etorri baño len ta len ere israeldarren maisu zenbaitek esaten zutena.

Ezkongai onarentzat berezten du Jangoikoak dagokan laguna. Lege zarra baño lenagoko denboretan, gerozkoetan izandu diran bezala, izandu ziran ezkongai onak eta arien artean izen andiko bi: Abrahamen seme Isak eta Isak-en seme Jakob; ta bie berezi ziezten Jangoiko (bere onen



maitari ta ongille andiak) zegozten bizikide onak, Rebeka ta Rakel zeriztenak eta beren senarrak bizitu ziran bazteretatik urruti aziak, biña semen amak biak, baña ondorengo anitz eta anitz izandu zituzten semeen amak bata ta bestea.

Lege zarreko aldian hau bera egin zuen Jangoiko maitagarriak beste anitzekin ere ta bein Tobias gaztearekin ta gero egungo gure S. Joakinekin; bada Niniben bizi zen Tobias gazte humil birtutetsuarentzat berezi zuen Jangoikoak andik urruti bizi zen Rakelen alaba birtutedun Sara, ta Gallileko Nazareten bizi zen S. Joakinentzat Judako Belenen jaio ta santaki azi zen Ana; ta azkeneko berezte hau da ezkontzetarako Jangoikoak len ta gero egin dituen guzietatik berezterik andiena ta onena; bada S. Joakin ta Sant Ana dira ezkondu-pare parerik bagekoak, Jangoiko berak bere aingeruz ta santuz adirazia dadukan bezala. Ara nola.

Jangoikoak bidaldu zion bein Santa Brijidari aingeru bat esatera: «Jangoikoak ekusi ditu munduaren askuntzetik mundu beraren bukantzaraño izandu diran ta izan behar duten ezkontz guziak eta guzien artean ez du ekusi S. Joakin ta Sant Anaren ezkontza bezain ezkontz garbi birtutedunik eta beste guziak utzi ta artu zuen hau bere Amaren gorputza egiteko ta artu zituen S. Joakin ta Sant Ana bere Amaren gurasotako».

Birtutetsuak ziran, bai, ta agitz birtutedunak eta munduko ezkondu-rik birtutetsuenak baño birtutetsuagoak S. Joakin ta Sant Ana, ta gis orretako birtutetsuak ziran, ezkondu ziranen zutenaren gain berak irabazi zuten birtuteagatik; bada ezkondu ta anitz urtez bizitu ziran humerik bage ta bizitu ziran anitz gauz on andi egiten zituztela, ta gis onetan bizitu ziran urte orietan Jangoikoari atsegin egiteagatik, bai ta hume bat Jangoiko beragandik erditsi naiez ere.

Egiten zituzten gauz onetatik zenbait beren diruz egiten zituzten; dirudunak ziran alabaña ta agitz aberatsak bata ta bestea, len guk adirazi dugun bezala. Batak nai zuena nai zuen besteak eta biak nai zuten Jangoikoari atsegin egiten ziona. Batak eta besteak zekiten atsegin egiten diola Jangoikoari Jangoikoak eman dituen ondasunak Jangoiko beraren honran, gauz onetan ta behartsu gaisoei laguntzen gastatzea edo gaieztatzea, ta beren itxerako behar zutena artu ta beste grazia Elizari ematen zioten ta beharrean arkitzen zen batari ta besteari.

Elizen ta behartsu gaisoen limosnak bezala atsegin egiten diote Jangoikoari gorputzaren berarizko neke-barurak, bai ta animaren otoiitzak

ere, ta orietatik ere anitz egiten zituzten urte beretan ezkondu on S. Joakin ta Sant Anak, eta eskatzen zioten anitz aldiz Jangoikoari atera zitzala noizbait humerik bageko beren alkekizun lotsagarritik. Eta alkekizun andiaga bat ekusi zuten egunetik agitz ziñkiago ta naikuntz beroagoarekin eskatu zioten hau Jangoikoari. Beren alkekizun andiago hau izandu zuten Bazkoz Jerusalemgo Elizaratze batean; bada anitz eta anitz ziran ta anitz aldetakoak egun artan oriek an ekusi zituztenak, eta ekusi zituztenean erdi zartuak eta humerik bage, beren bekaitz zorrotzez ta hitz mindariz begitan eman zien beren hume bagentzarekin ta biak gelditu ziran lotsaz ta alkez agitz beteak.

Nioiz ere baño ziñkiago ta naikuntz andiagoarekin eskatu zioten aldi artan Jangoikoari milletan ta geiagotan len eskatu zioten humea ta egin zuten ematen ziena berari bere Elizan present egiteko botoa. Andik itxera ta igan zen S. Joakin urrengo mendiko bazter batera ta berrogei egunez haritu zen an barutu ta otoitz ta zitzaken beste gauz on anitz egiten. Orien bukanzan agertu zen an zeruko aingeru bat Jangoikoaren mandatuarekin ta alaba bat emanen ziolako hitzarekin, ta edozein alaba ez, bai zik israeldarrak uste zuten Mesias Jangoiko-gizonaren Ama izanen zen alaba. Denbor berean bere baratzeko bazter batean otoitz eta otoitz hari zen Sant Anari ere hau bera adirazi zion Jangoiko berak. Eta mill esker Jangoikoari eman ta itzuli ziran biak beren itxera ta izandu zuten zori oneko beren Alab Andre Mari Birjin Jesusen Ama, ta alab Jangoikoak bie elkarri egin zioten laguntz onagatik eta beren birtute andi ta betiko otoiitzen alde emana. Ala da, dio San Epifaniok: *Joakin, et Ana gratiam acceperunt, ut, accedentibus precibus, talem fructum germinarent, Sanctam Virginem* (ubi sup.).

Orra birtutez, otoiitez ta bizitz onez bere emazte Sant Anari S. Joakinek egin zion laguntz ezin obearen alde Jangoikoak egin zion ona ta ondasuna. Eta orra ezkondu guziak beste andiak Jangoiko beragandik erdisteko bidea: bizitz onez, otoiitez, birtutez ta duken beste gisaz ta eran elkarri laguntzea. Jangoikoak diela bide orrez jaio zen Andre Mari Birjinaren ta beraren ait-amen izenean zuzenki hau egiteko grazia. Bai arren, bai.





## XXIV

### S. Agustin eguneko irakur-aldia

Videant opera vestra bona, et glorificent  
Patrem vestrum, qui in coelis est. Matth. 5.

*Gaia: S. Agustinek agertzen die  
bekatari guziei ontzeko bidea.*

Apostol bereak etzituen emen beti bizitzeko Jesus maitagarriak artu; bein bata, bein bestea zenbait urteren buruan eraman zituen bere aldera ta zeruko atsegindi agitz andira; baña ez erakuslerik bage bere Eliza utzi ta; bada oriek bere aldera eraman baño len utzi zituen Elizan orien beren eskalan azi ziran gizon andiak, eta oriek ere zerurako beren aldia etorri baño len egin zituzten Eliz bereko maisu beste anitz eta beste oriek ezin kont-al adiña beste ta beste ta orain arte guzian izandu diranak, eta orain-dañoakoan egin duena egiñen du Jangoikoak mundu beraren bukantzaraño ta on guziak bere zerura eraman arte guzian.

Apostol jaunen ondorengo ta geroztik Elizak izandu dituen erakusle ta maisu guziak ez dira izandu berdiñak; andiak izandu dira batzuek, besteak agitz andiagoak eta andienetatik zenbait izandu dira izar artean eguzkia bezala, beste eun ta milla maisuk baño erakuste ta argi geiago Elizari eman diotenak, eguzki bakarrak munduari izar guziak baño geiago ematen dioten eran, ta maisu andietatik da egungo Doktor santu S. Agustin; bada Doktorek edo Maisuk erakusterik egin badu, egin du S. Agustinek; onek alabaña kendu zituen goizean agertzen den eguzki ederrak gaueko illunbe belzak bezala, bere denborako hereje gaistoen lañoak eta bere libru egokietan utzi zituen ondorengo gaistoenak kentzeko behar diran argiak.

Bai, kendu zituen S. Agustinek bere denborako herejeen lañoak eta laño andiak; bada S. Agustinen egunetan anitz infernuko laño ta gezur banatu zuten Afrikan Manes-en eskolako gizon gaistoak eta orien artean Fortunato zeritzan Obispo batek eta era bereko beste buru andizko zen-

bait jakintsuk. Orien lañoak eta gezurrak aienatu ta utzi zuen Afrika hitzez ta libruz gure lege santako argidun egiña ta mututuak utzi zituen Fortunato ta Feliz ta beste hereje hitz-onzi guziak.

S. Agustin beraren egunetan gezurrez ta herejiz ta beste gisako lañoz bete zituzten Afrika bereko bazterrak eta erriak Donatisten izena zuten beste jakintsu gezurti zenbaitek ere. Orietatik laur eun beintzat Obispoak ziran. Laur eunetatik anitz banaka hitz egin ta beren bide makurrak utz-erazirik ekarri zituen gure lege santako bide zuzenera. Obispo hereje beretatik eun ta berrogei ta emeratzi bildu ziran bein Kartagon S. Agustin ta beste Obispo fededunekin hitz egitera, hitz egin zuten nai adiña beren hereji ta gezurren alde, baña besteekin batean S. Agustinek erantzun zienarekin gelditu ziran hitzik bage ta zer esan etzekitela ta guziak ezpazen ere, anitzek artu zuten S. Agustinen ta Jangoikoaren bidea ta mundu guziak ezagutu zuen beste itsuen lañoa ta gezurra.

Orain diogunen ta leneko herejeen lañoak eta gezurrak kentzearekin etziran bukatu S. Agustinen bide bereko lanak eta neke guziak; izandu zituen berriak eta agitz andiak Pelajio zeritzan Inglaterrako monje herejearekin. Hereje hau ibilli zen Inglaterratik Ejiptora, Ejiptotik Jerusalem, Jerusalemendik Erromara, Erromatik Sizilira, Sizilitik Afrikara ta beste bazterretara ta bazter guziak betetzen zituen bere hereji galgarriaren lañoz ta gezurrez. Hereje hau Inglaterran jaio zen egun berean jaio zen Afrikan S. Agustin ta jaio zen onen gezurrak agertzeko ta lañoak urratzeko ta anitz neke ta liburrekin bazen ere, egin zuen bata ta bestea, ta egin zuen guziaren berna dutenak dakiten bezain ederki, ta orregatik da S. Agustin egungo Ebanjeli santuak dion bezala Eliz bereko gatza, zeren horduko bere libruetan dakarrenarekin erakusten duen hereji berrietan ez usteltzeko jakin behar dena, bai ta bekatuaren bide ustelean ez gelditzeko ta birtutez birtute ibiltzeko den ta aldi onetan guk ekusiko duguna ere.

## § I.

Santu guziak bizi-bide batez batzuek, besteak bestez agertzen digute zeruko bidea, baña egungo Doktore andi S. Agustinek bezala gutxik edo batek ere ez; bada besteak agertzen digute Elizak esanez edo santu



beren berrilari onak hitzez edo plumaz agertuz santu berak zeruko beren bidean egin zutena ta oriek hau egin oi dute agertu bage noizbait len santu berak egin zuten utsa ta gaizkia; baña S. Agustinek agerzen digu zeruko bide bera berak bere eskuz ta plumaz agertuz bein aurdanik asi ta ogei ta amairu urtetaraño egin zituen bideko utsak eta bekatu guziak, eta gero uts oriek urratzeko ta zeruko bidean oñak sartzeko egin zuena, ta erakusten digu ark guri hau berak egin zituenen erako utsak guri eragiteko ez, bai-zik orietarako bidea guri galerazi ta gero berak artu zuen bide Kalera bertatik zuzen-erazi naiez.

Badira zeruan santu ta santak bekatu larririk beintzat sekulan egin etzutenak eta gisa berekoak balira zeru berera igan diran beste guziak, arako ustea errazki gal genezake noizbait bekatu egin dugunok; eta gal ez dezagun ematen digu Jangoikoak santu orien berna ez ezik, len bekatari ta bekatari andi izandu ziran zenbaiten ta santu andi egiñak orain an bertan arkitzen diranena ere; ta orietatik dira Santa Mari Madalena, zazpi deabru edo anitz bekatoren atzapar gaistotik Jesusek atera ta ondua, Apostol San Pablo Jesusen Elizak lenbizian izandu zituen etsai amurratuenetatik bat eta al-ere Jesus berak bere Apostolutako ta Apostolu agitz anditako artua, ta egungo gure Doktore andi S. Agustin, Jesusek bere Elizaren maisu egokitako artua, ta Jesusek artu zuenean, santu berak dionaz, ara nolakoa.

«Aurra nintzan oraindik urtez ni», dio Sant humillak, «ta al-ere zar gaisto bat bezain galdua ta bekatuduna»: *eram tantillus puer, et tantus peccator*. San Agustinen horduko bekatu berriak geroko bekatu anitzen sustraiak ziran, ta sustrai izurdun gaistoak; eta horduko bere bekatu berriak gatik arkitzen zen S. Agustin mintegitik atera ta izurri gaistoz sustraiak beteak daduzkan ta sagardi batean aldatzen edo lurtatzen den udare landarea bezala. Landare hau arbol egiten denean bere zur ta adar guzietan arkitzen da izurritz, pozoiez ta benenoz betea ta ematen dituen udare guziak beraren zuku izurdatuarekin egin ta aziak bezala izurdunak dira ta agitz gaistoak. Era berekoak eta agitz gaistoagoak izandu ziran aurdanik gaistatu zen S. Agustinen geroko lanak edo anditu ta bataioz bekatuaren izurri ta pozoi guzia beregandik kendu zuen artekoak. Bataioko bere garbintz hau etzuen S. Agustinek egin ogei ta amar urte ta geiago zituen aldiraño ta bitart artan egin zituen berak aitortzen ta plumaz banatzen dituen gaistaginz guziak.

Aragi gaistoak eragin oi dituen zikiñak ziran aurtasunetik San Agustinek egiten zituen gaistaginzak. Berez ere gauz orietarako grin andizkoa zen Santuaren aragia; bere grin hau bizitzen zion bera bizi zen Afrikako beroak eta onek baño ere agitz geiago berak bere bekatu berekin ematen zion suak eta olioak. Urteetan bezala bekatutan sartuz ta sartuz joan zen S. Agustin, berak dionaz, ta amasei urte zitueneko agitz azpiratua zedukan gaistakerietarako bere aitzurak eta bekatuak oikuntzak eta berak ere horduko galdu zuen bekatuak alkea ta munduaren beldurra ta amarenik etzuen, berak dionaz, izandu bein ere.

Bizi zen horduraño S. Agustinen aita, baña aitaren ezpaliz bezain beldur gutirekin bizi zen S. Agustin, zeren zegiela semeak nai zuena hitz bat etzion aitak esaten. Ama gaiso Santa Monikak egiten zuen bere alegiña zeraman bide gaistoa galerazi ta artu behar zuen ona ar-erazi naiez. Esaten zion onetarako ama on batek maite duen semeari esan dezoken on guzia, baña aditzen duenik ez den eremu batean esana bezala zen ark oni esaten ziona, ta ez aditu egin ta, edo andre kontuak zirala zerautsan gauzak esan ta, joaten zen beste aldera gogoak ematen zion tokira ta lenekoen erako beste gauz eta gaistaginzak egitera.

Gero kontura zen aldian adin artako bere erakeria ekusi ta, arritu zen zen guzia ta asi zen esaten: «Jauna, ta non nuen nik burua amasei urtetan sartu nintzaneko? Bada hordurako neronek nai nuela azpira ninduten aragiaren naikuntz zikiñak eta sokaz loturikako zakur bat bezala nenkartan batetik bestera ta berak nai aldera». Baña besterik zion adin artan ta urren-go ta urrengo urteetan ere; bada hordurako azpira zuten atsegintz loiak eta aragiaren zikintzak beren azpian ta eskutik iduki zuten beraren poz andiarekin ogei ta amairu urtetaraño.

Arte onetan ibilli zen aurtasuneko bere urteetan baño agitz gaizkiago; bada gerozko urteetan lenagokoetan baño agitz obeki ekusten zuen bere ibilleren makurza ta zeraman biziaren gaistanza, bai ta zerura nai bazuen bere ondu beharra ere, ta al-ere etzen ontzen ta aitzina ta aitzina zebillen bere bide makurretan ta egiteko zikin galgarri guzietan. Denbor onetan bazituen lagun gaistoak eta oriekin orrek eta orrek oriek egiten zuten ardi ezkabidunak ezkabidun ardiekin egiten dutena: dauden baño geiago elkar galtzea, ta orretarako ark egiten zuena zen egin zituenak baño gaistaginz geiago egin zituela galaz oriei esatea ta berak egiten zituzten gaistaginzak baño gaistaginz ta bekatu geiagorako bidea oriei ematea.



Eta bere ta besteren onenbat bekatu zikinetik atera zuen guzia zen gauz onetarako bere burua illunbetan sartzea, bai ta Manikeo berak gero azpira ta garaitu zituenen hereji eta gezurrak zeruko egitzat artzea ere; ta alakotzat artu zituen, zeren bere amaren ta beste fededunen ezpanetatik aditzen zituenak baño beraren bizitz gaistoari obeki zegozkionak ziran ta aren gogo galduarentzat janari goxoagoak. Zori gaistoko gizona gizon hau garai onean ta mugaz utzi ezpalu, artu zuen ona artzeko, bere bide zikin illun galgarri hau; bada zeraman bidez sulezera zeramaten egunoroko bere bekatu gaistoak eta deabru lepotik ongi lotua zedukatenak ta bein an oña sartu ezker sartua ta galdua zen sekula guziko; baño utzi zuen Jangoikoari eskerrak eta behar zen bidez egin zen santu ta adirazi dugun diñako santu. Ekus dezagun orain gaizki bizi diranen onerako bekatuaren bideak uzteko S. Agustiniëk egiña.

## § II.

Santa Monikak etzion hitzez eragin nai zuena bere seme S. Agustini, baño oitotzez erditsi zion Jangoikoagandik hau egiteko behar zuen argia ta laguntza. Igaro zen S. Agustin Afrikako Kartagotik Erromara an bezala emen ere latinez hitz egiten ta ederki hitz egiten gazteei erakustera. Etzen Erroman arkitzen gizon andi hau eskuratzeko Jangoikoak berezi zuen gizona; gizon berezi hau Milango Obispo S. Ambrosio zen. Erroman baño beharrago zen Milanen S. Agustin bezalako maisu bat eta Erroman ta Milanen eskua zutenak Erromatik zuzendu zuten Milana.

Milana ta laster joan zen S. Agustin S. Ambrosio ekustera. Begitart agitz on bat egin zion Obispo santuak S. Agustini. Ezin obeak iduritu zitzazkan S. Agustini Obispo jaunaren gauza guziak eta guzien artean oberena beraren hitzkuntza ta aren hitzkuntza aditzeagatik besterik bage joaten zen Elizara, Elizan S. Ambrosiok predikatzen zuen aldi guzietan, ta maiz aski predikatzen zuen santuak, denbor artako Obispo jaunak egin oi zuten bezala. Eta S. Agustin San Ambrosioren eztizko hitzketa leun goxoak aditzeagatik aratzen bazen ere, egin zuen Jangoikoak S. Agustinekin eiziko soñua aditzeagatik sasitik ateratzen den eiziarekin eiztari jakiñak egin oi dutena. Badakizu zer? Adi zazu.

Beren sasi gaistotik basauntzak, otsoak eta beste eizi andiak ateratzeko eiztari zaldunak egiten dutena da artako diran toki egokietan soñari zenbait eiziko tronpen soñu eder bat bein ta berriz ta askotan eragitea. Aditzen duten soñua alderagotik aditu naiez uzten dute basauntzak eta beste eizi andiak beren sasia. Sasiko ater-tokietan gordeak daude eiztari zaldunak eta sasitik eizia ater-irten horduko uzten dute tiroz illa edo balez josia. Eta orra Jangoikoak S. Agustinekin egiña hura S. Ambrosioren hitzak aditzeagatik elizaratzen zen aldian: S. Ambrosio beraren egi eder latzen batekin S. Agustinen bihotza josia ta galtzeko beldurrez ta ondu-naiez beterik uztea.

Tiro batekin ez dira iltzen zenbait basauntz edo eizi andi, ta eiztariak aldi orietan egiten dutena da beste saiesetik edo al duten aldetik tiro berri bat bakoitzari egitea. Etzen Jangoikoaren eskura S. Agustin S. Ambrosioren sermoietako tiroarekin ta Jangoikoak egin zuena zen beste tiro modu bat berari egitea. S. Ambrosiori aditzen zionarekin ezagutu zuen gezur salsa zela Manikeoetatik aditu ta ikasi zuena ta artu zuen orien eskola ta bidea uzteko asmoa: *ex illa hora Manichaeos relinquendos esse decrevit*; baño aragiaren atsegintz zikiñak ere utzi beharrak zirala ezagutu bazuen ere, etzuen horduan oriek uzteko asmorik artu. Hau ere oni ar-erazi naiez bere adiskide baten ta bi jauregitarren eskuz egin zion Jangoikoak bigarren tiroa.

S. Agustinen adiskide hau hitzkuntz zuzen leunak eta latin erakusten zuena zen, S. Agustin bera bezala, ta bidenabar jakintz andiko gizona. Bere jakintz andiagatik eta egin zituen erakuste ederrak gatik egin duten Erroman estatu bat eta anitz honra. Zarturik eta bataiatu bage arkitzen zen ta Bitorino zeritzan gizona zen gizon andi hau; baño azkenean gauzak ziran gisan ta ongi ezagaturik utzi zituen jentillen bide txarrak eta bataiatu ta artu zuen gure lege santako ta zeruko bidea, ta ots andiak zera-biltzan Itali guzian Bitorino onek Erroman egiñak. Aren egin hau aditu ta, dardar andi batek eman zion S. Agustini bere bihotzean ta izandu zuen Bitorinok egina egin nai andi bat; bada bataiatu bagea zen S. Agustin ere aldi artaraño, len Bitorino bezala.

Bitorinoren eskuzko Jangoikoaren tiro onek San Ambrosioren hitzezoak baño aragiaren atsegintzetarako naikuntz gutiagorekin utzi bazuen ere, etziozkan osoki kendu guziak eta oriek bein kentzeko ta lenbaitlen on-erazteko ta bataiatzeko asmo oso bat ar-erazi naiez, egin zion irugarren tiroa Enperadorearen itxeko bi zaldunez. Treverisko erri andian arkitzen ziran zaldun oriek. Orien eskuetara zen S. Antonio abadeak Ejjip-



toko eremu batean egin zuen zeruko biziaren berria zekarren liburu bat. Berri hau ongi ekusi zutenean, arritu ziran bata ta bestea ta esan zion batak besteari: «Ekusten dezu zer bizia gizon onena ta zer bizia gurea? Ark bere bizi garbi ederrarekin billatu zuen bere zerua; zeru bera billatzen dugu guk ere, baña zer bidez ta zenbat ingurkekin! Ta azkenean arako ote gara gabiltzan bidez bagabiltza? Ni beintzat beldur naz», zion batak, «ezetz; beste bat artzera ta erlijioso egitera noa». «Egizu nai dezuna; nik nai dudana da», eranzun zion besteak, «zuk artu nai dezun bide bera. Ots emazu, goazen habitu bana eskatzera», ta eskatu ta artu ta egin ziran biak fraide edo erlijioso ta monje.

Bitorinoren bataioko berria aditu ta baño hau aditu ta arrituagoa zen S. Agustin ta asi zen bere lagun bati esaten: «Hau zer da, Alipio? Gut dakiten munduko gizonak irabazten dute zerua ta gu geren jakintz guziarekin itotzear gara aragiaren olastetan ta zikinkeri loietan?». Hau ari esan ta sartu zen bere baitan tiroz betea ta erdi illa dabillen basauntza bere sasian bezala, ta basauntza an eriotzak bezala bere eskura zuen emen Jangoikoak S. Agustin, bakartasun artan bere barrenera hitz bat esan ta; ta esan don hitza zen: *Toile, et lege*, «artu ta irakur zazu». Artu ta idiki zuen aldean zuen Eskritura santako liburua ta arkitu zuen: «Jate ta edate andiak eta aragiaren zikinkeri loiak gauz onik ezin dakarkee bein ere» (Rom. 13, 13); «Jesusen legean ta bataio garbian arkitzen da sosegantz ona ta zeruko bidea» (v. 14).

Hau ekusi ta Jangoiko berak eman zion argi ta laguntz andiarekin gainbera irauli zen S. Agustinen bihotza ta S. Anbrosiogana joan ta eskatu zion bataioa ta urrengo larunbat santuan bere eskuz bataiatu zuen Obispo santu S. Anbrosiok; eta asi zen aurdanik asi ta hordu artaraño santuki bizitu baliz bezain ederki bizitzen ta Italitik Afrikara itzuli ta bizitu zen an Elizako Doktore ta santu andienetatik bati zegokan eran. Egin zituen an lenbizitik adirazi genituen gauz andiak eta igan zen bere aldian zeruko Doktoren artean duen bere glori andira, ta igan zen beren bekatuak uzteko ta ontzeko egin behar dutena bekatari guziei agertu ezker, ta oriei ark orretarako ta onei obetzeko agertzen diena da predikurik eta kongregaziorik ez galtzea, lagun gaistoak utzi ta onen aldean ibiltzea ta lagun on berak egiten dutena berak egitea. Iru gauz oriek egiten dituen bekataria aterako da bere bekatupetik eta ona obetuko da ta biziko dira biak garbiro ta santuki, ta iganen dira egungo Doktore andiaren ta zeruko beste guzien lagun izatera. Jangoikoak digula irurak egiteko grazia ta diogun zori ona: bai arren, bai.

## XXV

### Jesusen Amaren jait-eguneko irakur-aldia

Maria, de qua natus est Jesus. Matth. 1.

*Gaia: Atsegin-gai andiak dituen eguna da Jesusen Amaren jait-eguna.*

Jangoikoak agertzen ezpadu, guk ez dakigu zori gaistorako datorren edo onerako mundura datorren bakoitza; ez eta, askotan beintzat geroago ta geroago ere, gero guk hura zori on-gai anitzen artean ekusi ta ere; zeren anitz izaten diran zenbait urteko zori onen buruan zori gaistoko eriotz baten atzapar gaistoan beren egunak bukatzen dituztenak eta ez dakigun era berekoa, agitz gaistoagoa, ona edo nolakoa den jaiotzen den onen, aren ta bestearen begira arkitzen den erioa, ez eta luzaro bizi beharra edo laster illen dena den ere gaur, bigar edo beste egunen batez jaioko den aur-gizakumea.

Ungariko ta Bohemiko errege Ladislaok uste zuen beraren seme prinzipa Franziko erregeren alabarekin ezkontzeko zegonak beraren ondore izan behar zuela anitz urtez Ungari bereko ta Bohemiko errege; baña aren emaztegaiaren eske zazpi eun zaldun ta laur eun dama gazte igorri ta bidaldu zitueneko, gaitz gaisto batek artu ta egun gutiren buruan ill otza utzi zuen aren seme erregegaia. Dabiden seme Absalonek anitz urtez Israelgo errege izan ustez ejerzitu andi bat bildu ta asi zen egun batez pelean, baña pelea bukatu bage gelditu zen arte batetik dindilirik hurkatu bat bezala ta lantzaz josi ta illa. Sodomarrak eta Gomorrako guziak eriotzaz azturik eta anitz atsegin zikiñen artean sartuak bizi ziran ta zeruko suren beldurrik bage ta su arrigarri bat andik jaitsi ta bat-batean utzi zituen auts egiñak. Era berean bizi ziran patriarka Noeren denboran munduko guziak eta Noe bera ta beste zazpi bizirik utzi ta, beste guziak itoak utzi zituen aldi artan zerutik jaitsi zen euriak eta itsasotik atera zen uarre izugarriak. Eta len ta geroztik ere zenbaiten zori oneko eriotzen artean arkitzen dira zori gaistoko anitz eriotz, eta hau ta hura ta beste zen-



bait jaio berriak ekusi zituztenak etzekiten zer zorikoak izan behar zuten batak eta besteak.

Etorkizun onen berna, bada, beste guziena bezala Jangoikoak bereztat gorderik dadukan gauza da, ta gauz Jangoiko berak agertu ta baizik, mundukok ezin jakin dezakena ta Jangoikoak bein edo berriz ezpada agertzen ez duena. Agertu dituenetatik bi S. Joan Baptistari ta egun jaioden Jesusen Ama Birjinari dagoztenak dira. Ara bein S. Joan Baptistari dagokana.

Agorra zen Sant Isabel ta hau ta onen senar Zakarias humerik bage zarturik arkitzen baziran ere, aingeru batek agertu ta eman zion Zakarias Jangoikoaren mandatu hau. «Zure andre zar Isabelek izan behar du seme bat eta Joan da zuk zere seme oni ezarriko diozun izena, zure seme hau izanen da zure poz eta atsegintz andirako datorren humea, ta hume beste anitzi ere atsegin eginen diena; bada onen jait-egunean jaiodelako berriarekin munduko anitz poztuko dela»: *et multi in nativitate ejus gaudebunt* (Luc. 1,14). Eta poztu ere ziran, zeren Jangoikoak beren barrenera adirazirik ezagutu zuten gauz andiren baterako zetorren gauza zela aur jaiodena.

S. Joan Baptistaren jaiotza baño jaiotz agitz eta agitz andiagoa izandu bazen ere Jesusen Amaren jaiotza, lenbizian egin etzuen onenak San Joan Baptistarenak diña soñu ta ots; baño hau ere Jesusen Amaren aita San Joakini agertu zion aingeru berak edo besteren batek, eta agertu zion bera ta beraren emazte Sant Ana Zakarias ta Sant Isabel bezala zartu ezkerok ta humez etsirik arkitzen ziran denboran. Jesusen Ama jaiodena berri hau Jesus beragatik mundura zetorren aurra zen ta adirazten dugun bezalakoa izanagatik onen jaiotz-izanza, estali gordea egondu zen Jesusen jait-horduraño ta Jesus jaiodelako berria aingeruz, izarrez ta erregez Jangoiko berak munduan banatu arte guzian ta berri hau aditu ezkerok ikasi dugu guk ere zenbat balio duen gaur jaiotzen den Andre Mari Birjinak. Eta ekusi nai badezu zenbat atsegin-gai dakarren gaurko egunarekin jaioden Jesusen Ama onek, atoz nolakoa zen ta nola zetorren ekustera.

## § I.

Gorputzez ta animaz nolakoa zen jaioden zeneko Jesusen Ama ez da erraz guk adiraztea. Aren horduko edertasunetik zerbait ekusteko dagikoguna da Elizako maisu andiak dioten zer edo zer kontuz ekustea. Ekustekoa da edo erneki aditzekoa Jerusalemgo patriarkak esana, bai ta Santo Tomasen maisu Alberto Magnok diona ere. «Jesusen Ama jaioden zen horduberean agertu zen», dio patriarkak, «Jangoiko berarena bezalakok argiz edertua»: *vultus B. Mariae statim, ac nata est, reluxit splendore quasi divino* (ap. Thesph. in Marial. punct. 3, n. 16), ta Jangoikoaren argia ederregiz bezala ezin ekusi diteken (edo zatika baizik ekusten ez den) argi edertasuna da: *lucem habitat inaccessibilem* (1 Tim. 6,16); bada Jangoikoaren edertasunaren erako edertasuna bazen Jesusen Animaren aurpegiak jaioden zeneko agertu zuena, jaioden berrian ere zein andia Jesusen Amaren edertasuna ta ekustegia?

Anitz da, dakusazun bezala, Elizako maisu jakintsu onek diona, baño ez da Jesusen Amaren jait-horduko edertasunari dagokan guzia; edertasun guzi hau nolerebait agertzen diguna bigarren maisu Alberto andia da; hau guri agertzeko ara onek diona: «Bere jait-hordutik izandu zuen», dio, «Jesusen Amak emaztekik munduan izan dezaken edertasunik andiena»: *ipsa habuit summum in pulchritudine, quod pos-sit esse in corpore mortali* (Ser. sup. Missus est); eta hau onela bada, aurpegian ez ezik bere gorputz guzian ere jaioden horduko izandu zuen Jesusen Amak Jangoikoaren edertasuna zirudien edertasuna, ta edertasun ezin andiagoa. Berez ere onelakoa zen Jesusen Amari zegokan edertasuna.

Bai, izan ziteken andiena zen Jesusen Amatako zetorren Andre Mari Birjinari zegokan edertasuna; zegokan alabaña beraren Seme Jangoikogizon Jesusek izan behar zuen edertasunaren erakoa ta Jesusek gero bere Amagandik artu zuen edertasuna da gizonek izan dezaken edertasunik andiena; ala da, dio Espiritu Santuak Dabiden ezpañez: *speciosus forma prae filiis hominum* (Ps. 44,3). Eta izan behar zuen bere Seme Jesusen edertasunaren erakoa Ama Birjinaren edertasunak, zeren berez ere amagana ematen duten semeak: *filiis matrisant*, eta zeren Jesus aitarik bageko ta ama baizik izandu etzuen gizona zen; ta orregatik zen Amaren aintzura baizik etzuen gizona.



Jesusek artzeko, bada, bere Amaren edertasunaren erako edertasuna ta edertasun ezin andiagoa, izan behar zuen begiz, ezpañez, arpegiz, eskuz, prinzez ta beste alde guzietara ezin ederragoa; bada bestela ezin izan ziteken Jesusen iduri ta aintzur guzikoa, ez eta Alberto Magnok zion edertasunekoa edo emaztekik izan dezaken andienekoa ere.

Bestela ere jαιο ta bereala Jesusek ekusi behar zuen lenbiziko gauza zen beraren Ama Birjiña, ta Ama Birjiñak izan behar zuen ekuskai ezin ohea ta ezin ederragoa. Beste alde Jesus jαιο berri bera lenbizikorik ekusi behar zuten begiak ziran beraren Amarenak eta izan behar zuten begirik ederrenak. Jesusi lenbizikorik eta geienetan eskuan ta oñean apa edo muñ egin ta bere aurpegiko printza ukitu behar zioten ezpañiak bere Amarenak ziran; Jesus trosatu, apaindu, seaskan eratzarri, andik artu ta batetik bestera erabilli behar zuten beso-eskuak Jesusen Amarenak ziran; ta orregatik ziran ezin egokiagoak edo ezin ederragoak izan behar zuten ezpainsku-besoak.

Jesus Sakramentatuaren itzal-figura-mana zen Jerusalemgo Elizan arkitzen zen gauzarik andiena ta al-ere etzuen nai Jangoikoak apaiz edo eliz gizon egin ta urbil zekion bere itzal aldera ere eskuz, begiz ta gorputzez behar bezalakoa zena baizik; eta nola naiko zuen bere sabelean, bere besoan ta bularrean erabilli behar zuen Ama ez izatea izan ziteken politen, egokien ta ederrena? Eta era onetakoa zegikela, zegiken bezala, nola egin naiko zuen Jangoikoak beste gisatakoa?

Etzegokan lan hau, ez, Jangoiko den bezain ongille maitariari ta Jangoikoak bere Amari adiña nai zion egilleari. Egin zuen, bada, Jangoikoak Jesusen Ama ta jαιο zen hau, Alberto Magnok dion bezala, jαιο ziteken aurrik ederrena, ta Jerusalemgo patriarkak zion bezala, jαιο zen jainkotasun beraren edertasunez jauntzia zirudiena; ta orregatik jαιο zen, S. Anselmok dion bezala, agitz ekustekoa, agitz txarmagarria ta agitz maitagarria: *pulchra ad videndum, admirabilis ad contemplandum, desiderabilis ad amandum*. Eta orra zer atsegin-gaiak bere jaiotzan gañetik ere Jesusen Amak agertzen dizkigunak.

Baña zein ere oriek andiak, ez dira barrendik agertzen zizkigunen laurdenak ere; bada jαιο horduko barrendik agertzen digu Jesusen Amak bere Konzepzi garbiko grazi, birtute ta ondasun guzia, bai ta gerozko bederatz illetan bere Amaren sabelean berak egin zuena ere; bada denbor artan etzen izandu Jesusen Amaren anima, gureak bezala, itsua ta zer eginen zuen etzekiena; gu alabaña geren amen sabelean ez ezik, jαιο ta urren-

gu urteetan ere adimentura bage ta zer egiten genuen ez genekiela bizitu giñan; baña Jangoikoak egin horduko arkitzen zen Jesusen Ama gero jαιο ta anditu zenean bezain adimentuduna, ta Jangoikoak etzion geldirik egoteko ain laster eman Jesusen Amari adimentua, ta puntu bat ere galdu bage, geroz haritu zen Jesusen Ama Jangoiko berak nai zuena ta irabazi agitz andiak egiten zituela, ta andiak ez ezik, anitz eta anitz ere izandu ziran bere jait-hordurako egin zituenak; eta zeruko irabazi orietatik txikienak edo bere asieratik zekarren edozein grazi zatik ditu gorputzaren edertasun guziak baño mil-mil-milletan atsegin-gai geiago ta geiago.

Erregeen amak eta erregeñak beren-pekoen begietan agertzen diran aldian agertzen dira, lenbiziko aldian beintzat, len ez bezala ta agitz apaindu edertuak; Andre Mari Birjina bere jaiotzan agertu zen Jangoiko-gizon Jesusen Amatako ta munduko guzien ta zerutarren Erregin izateko zetorrena bezala, ta orregatik agertu zen edergarri berriz ta horduraño izandu zituen grazi ta birtute guziak baño birtute ta grazi agitz eta agitz andiagorekin; ta bere animan zekarren ondasuna ta edertza ekusten zuten aingeru onak arritzen zituela ta ikusten zuten guziak pozez ta atseginez urtuak utz zitzaken bezala.

Hau guzia onela dela zuri siñis-erazteko aski da Doktore jaunak dioten egi bat agertzea, ta oriek dioten egia da, jαιο ta bereala ill baliz Andre Mari Birjina, Jangoikoak berez eman zion grazizko ondasunagatik eta berak bere Amaren sabelean egin zuen irabaziaren alde igan-eraziko zuela zeruan arkitzen ziran aingeru ta tronu ta serafin guzien gañera, zeren orien baño andiagoa zen horduko ere Jesusen Amak zuen grazia ta irabazia. Baña aingerurik txikienak ere pozez ta atseginez illak utziko baginduke, den bezala ta duen graziak ematen dion edertasunarekin, hura guk ekusten bagenu, izanik den diñakoa bere jait-hordurako Jesusen Amak duen grazia ta ondasuna, mundu guziarentzat zer atsegin-gaia Jesusen Ama gorputzez eta animaz onen ederraren jaiotza? Ekusten dezun bezalakoa.

## § II.

Hau bera obeki ekusiko dezu ekusi ondoan nola datorren Jesusen Am eder jαιο berri hau. Zein ederra den ekusteko Jesusen Amaren etor-



aldi han, egizu kontu etzela ill, ill zen bezala, len aipatu dugun Ladislao erregeren semea ta Franziko errege Karlosen alaba artu ta eraman zutela Ungariko kortera edo Pragara beraren eske joan ziran zaldunak eta damak. Gauza zein ederra ta atsegin-gaiez betea erregin onen ango sartzea; bada sartuko zen zazpi eun zaldunek eta laur eun damak erdian artzen zutela ta bidea erakusten ziotela; baña nolako zaldunak eta damak arekin horduan hau eginen zutenak?

Ungariko ta Bohemiko ta Austriko ta Pasauko itxe andietako jaunak edo semeak ziran aren eske joan ziran zazpi eun zaldunak eta orien era-koak eta billatzen zuten erregin-gaiari zegozkanak laur eun dama gazteak. Zaldunetatik bakoitza ezkontzeko zegoen errege seme bera bezain ederki jauntzia ta laur eun damak, erregin-gaiak balira bezala, apaindu ta joiiaz beteak. Zeramazten karrozak arkitzen ziran urrezko iltzez josiak eta per-laz ta diamantez agitz edertuak.

Oriek guziak, bada, ekus-gai zein atsegingarriak, beren erregin berria erdian zutela, Presburgon edo Bohemiko korte Pragan sartu ta kalez kale zebiltzan aldian, ta leioetatik eta balkoietatik eta beste ekustegi guzietatik begira zeudenak arritzen zituztela erregeen jauregira zuzentzen ziranean; ta orien guzien gain zein ekustekoa erregin bera, ingurutzen zuten damak baño agitz ederkiago jauntzia ta apaindua, beraren dama berak baño urte ta zillar ta perla ta Indiko arri eder geiago bere soñean zituena ta dama berak eta beste guziak baño karroz agitz ederragoan jarria.

Baña erregin-gai onek hau guzia egin ta ere, eman zitzaken atsegin-gaiak zeruko ta lurreko Erregin-gai andi Andre Mari Birjinak gaur bere jaiotzeko agertzen ematen duenaren aldean nagargaia da. Adi zazu ezpe-ren gaurko onen agertza ta len ekusi zuten aingeru berak bezala arriturik esanen dezu: «Ta zein da artizar eder bat bezala goizik jaiki ta agertzen zaikun aur jaio berri hau?»: *Quae est ista, quae progreditur quasi aurora consurgens?* (Cant. 6,9); bada artizarrarentzat beste izarrak dirana dira Jesusen Ama jaio berriarentzat zeruko aingeru ta lurreko andre ta gizon guziak eta guziekin agertzen da bere jaiotzan Jesusen Ama beste izarrekin artizarra bezala, ta esan dezazun, atoz hau kontuz ekustera.

Artizarra baño len datoz gau guziko izar txiki anitz eta planeta eta guzien erregin egiña bezala dator artizar bera, ta dator dakarren argiare-kin ta agertzen duen egunarekin bazter guziak pozez betetzera ta agertzen duen eguna beraren ondotik datorren eguzkiak dakarren argia da. Era onetan, bada, zeruko aingeru ta lurreko on hordurañoko guziak etorri

dira lege zarreko ta lenagoko denboretan ta bekatuaren gau illunetan, ta orien ondotik dator gaur agertu edo jaio den Elizako artizar Jesusen Ama maitagarria, ta dator bere ondoren ekartzeko ta bere eskuz guri emateko Eliz bereko eguzki eder Kristo Jaunaren graziko eguna.

Beren izenak dituzten izarrak eta izar ederrak dira artizarraren aitzinetik datozen ta artizar bera agertzen denean argirik bage bezala gelditzen diranak; eta beren izenak dituztenak eta grazi ederraren ta birtuteen argiz guztiz apainduak arkitzen dira Elizako artizar Jesusen Ama jaio baño len agertu diran aingeru ta onak, beren artizar zori oneko hau agertu horduko argirik bage bezala ta. illunbe belzean sartuak diruditela gelditzen badi-ra ere.

Eliz-zeruko artizar ta Erregin andi onen aitzinetik datozen lenbiziko izarrak dira gerrako beren nagusi andi S. Migelekin, zeruko serafin, kerubin, birtute ta beste aingeru guziak, bakoitza bere izenekoa ta grazi ta birtute agitz andikoa. Orra zer guardiak Erregin-gai Jesusen Ama jaio berriak bere aitzinetik dakarzenak.

Orien ondotik datozenak dira lege zarra baño lenagoko patriarkak eta orietatik zenbait sei eun ta zortzi eun urte ta geiago zituzten gizonak, eta al-ere gizon sendor zuzenak. Orien artean datoz Abraham, Isak, Jakob, ta orien ondotik orien beren odoleko ta lege zarreko beste on guziak.

Oriei zerraitzela zetozen lege bereko profet andi ta txiki guziak eta orien artean Isaias, Jeremias ta Dabid esaten zutela beren eran; Isaiasek: «Orra or jaio den ori da zigor loraria dirudien Erregin andi bat, lore eder batean paradisuko on guzia eda Jangoiko-gizon bat eman behar duena»: *egredietur virga de radice Jesse, et /los de radice ejus ascendet* (Isai. 11,1). Jeremia-sek diona da: «Orra or ekusten dut nik zori oneko zigor orretan bazter guziei ongi-nai ederrez begiratzen dien Jangoiko-gizon bera begi egiña»: *virgam vigilantem ego video* (Jer. 1,41). «Eta orra», dio Dabidek, «orra Siindik datorren zigor Erregin ori da Jangoikoaren beso indartsuak baizik ezin zegiken gauza»: *virgam virtutis suae emittet Dominus ex Sion* (Ps. 109,2).

Or datoz gero lege bereko dam andi Ester, Judit, Raket, Susana, Debora, Abigail, Sara ta beste anitz, nor den orien ondoren datorren Andre Mari Birjina berak eginarekin adirazten dutenak eta beraren ize-  
nean esaten dutela lenbiziko biak; Esterek: «Jangoikoaren betiko maitan-za ta grazia zori onean arkitu ditut nik»: *inveni gratiam in conspectu ejus* (Esth. 2,9); ta Juditek: «Guzia dezaken besoarekin lagundu dit Jangoiko berak



(infernuko) Olofernes (deabru) berari burua urratzen»: *fecit potentiam in brachio suo* (Luc. 1,51).

Azkenean datozenak dira Jesusen Ama beraren itxeko apaiz jaunak eta Aita Santu ta gerrari andiak eta errege andiagoak, eta orien ondoren ta tokirik ederrenean ta len adirazi dugun gorputz guziko ta animako edertasun ta argi guziarekin, Elizako artizar ta zeru ta munduko Erregin gaur jaioa ta Jangoikoaren Ama Birjina, bekatuaren gau illunean galdua datzan munduari bere Seme eguzki Jesusen egun ederra dakarrona.

Zer atsegin-gaiak, bada, era onetan datorren Elizako artizar eguzki Jangoiko-gizonaren Am ezin ederragoaren jaiotzak munduko illunbean bizi giñanoi dakazkigunak? Ezin andiagoak. Eta zer eskerrak egiten digun onaren alde berari guk eman beharrak? Alik andienak eta bihotz agitz garbitu batetik atereak. Garbi dezagun, bada, guk artarako: bai arren bai.

## XXVI

### San Mateo eguneko irakur-aldia

Vidit Jesus hominem sedentem in telonio,  
Mathaeum nomine, et ait illi: sequere me. Matth. 9.

*Gaia: Anitz dira Jangoikoaren hitzari  
ez aditu egiten dionaren kalteak,  
bai ta darraikonaren onak ere.*

Berak nai zuen errietakoak eta errietakoetatik ere nai zituenak artu zituen Jesusek bere Apostolutako. Apostolu gis orretan Jesusek artuetatik bat egungo Santu S. Mateo da. Galliletarra zen S. Mateo ta Kana zeritzan erri ez guti bereziko semea; bada Kana zen lenbiziko bere milagroarekin Jesusek honratu zuen erria; an alabaña ta ango eztei batean egin zuen Jesusek ura ardo ta estali zuen milagroez ezkondu berri gaisoen bagea ta beharra.

Baña Kanakoa bazen ere S. Mateo, etzuen Jesusek Kanari artu bere Apostolutako; Kafarnaun zeritzan erri batean arkitzen zen horduko S. Mateo, ta arkitzen zen an andik Erromatarrak ateratzen zuten dirua biltzen; ta arkitzen zen an egiteko berarekin an arkitzen ziranen buru ta nagusi. Bekaitz gogorrez begiratzen zien israeldarrak era artako lan ta egitekoarekin an arkitzen ziranei; zeren giza-giro oriek larrutzen zituzten ematekorik etzuten anitz gaiso, bai ta zeren uste zuten ere gaizki kentzen ziela behartsu oriei ez ezik, beste guziei ere kentzen ziena; bada uste zuten Jangoikoak beretzat artuak bezala, etziotela israeldarrak bati ere pitsik zor ta, bati berea lapurrak bezala, berena kentzen ziela israeldarrei Erromatar nagusiak biltzalle orien eskuz.

Giza-giro oriei bekaitzez begiratzeko israeldarrak bazuten besterik ere; bada oriek mekatxuz ta kalte andiagoen beldurrez eman-erazten zien, askotan beintzat, Erromako nagusiei zegotena baño zerbait geiago, ta guziagatik israeldarrak begitan artuak zeduzkaten San Mateo bezalako gizon guziak. Baña Jesusek ez, egungo Ebanjelio santuan berak esaten





digunaz; bada esaten digu gizon egiñik etorri zela mundura munduko bekatari gaisoak zuzentzera ta behar zuten ona oriei egitera edo mediku onak bezala zuten gaitza kentzera.

Hau ala zela munduko guziei adirazi naiez artuak kontatzen edo artuen kontu guziak zuzentzen ta bere libruan garbiro ezartzen hari zen batez, S. Mateogana zen Jesus maitagarria ta urbildu ta esan zion: «Atoz nerekin, Mateo», ta S. Mateo bere itxea ta maia ta egiteko guziak utzi ta joan zen Jesusi zerraikola. Zer zen Jesusek gero S. Mateori esana, guk ez dakigu; bada Ebanjelio santuak ez du orrelakorik aipatzen; guk dakiguna da geroztik S. Mateok bere itxean eman ziola Jesusi barazkari bat eta Jesusekin an barazkaldututela S. Mateoren leneko lagunak.

Bai, Jesusekin barazkaldututa jan ta edan zuten an zenbait bekatari, ea Jesus, S. Jeronimok dionaz, aldi onetan bezala, joan zen beste zenbait ere bekatari gaisoen maira. Zertara uste dezute? Santa onek dionaz bere lana an egitera ta animako bazk on bat ematera, jakin behar zutena erakustera, utzi behar zituzten bideak galerazi ta artu behar zutena ar-eraztera: *ibat ad conviviam peccatorum, ut occasionem haberet docendi, et spirituales praeberet cibos* (hic).

Ez dezute ekusten S. Mateok aldi onetan egina? Ez dezute ekusten «Atoz, Mateo» Jesusek esan horduko S. Mateo Jesusi darraikola? Hau bera zen Apostolu besteak ere egin zutena; bada oriek ere S. Mateo bezala Jesusen lenbiziko dei-aldian joan ziran Jesus berari zerraizkala. Eta ala joan ziran, zeren Jesusek deitzen zituen Jangoikoaren bidez, zeruko milagro edo artako zen gisan biotzak ukituz. Zori oneko humeak egungo San Mateoren eran barreneko hitz deitzen diena aditu horduko Jesusen ondoran diranak eta beraren esana egiten dutenak, eta zori gaistoko kaltearrak hau egin nai ez dutenak, aldi onetan guk ekusiko dugun bezala.

## § I.

Bai, zori gaistoko kaltearrak dira Jesusen hitzari ez aditu egin ta beren bekatutegian gelditzen diranak. Jangoiko-gizonak leneko gisan giz artean ez ibilliagatik, baditu bere deikuntzak eta hitzak, eta hitz eta deikuntz eme behar bezalakoak. Jangoikoaren isilkako deikuntzak eta barre-

neko hitzak dira geren burua berak nai duen aldiaren ematen dizkigun eza-guntz garbiak, bai ta gure bihotzean bizten dituen naikuntz beroak eta beldur biziak ere.

Jangoikoak burura ematen dizkigun eza-guntzak dira element illunez beterik arkitzen den arrats bateko tximistak bezala. Arrats artan bidea galdu ta bazaude zu soro batean begirik ezpazenu baño geiago ekusten ez dezula, ta gutien uste dezunean, agertzen bada gañeko odei beltzak botatzen duen tximista edo suzko buztanka bat edo beste egin ta gordetzen den argia, ezbaida batez egun argia baliz bezain ongi ekusten dezute zere ondoan ta urrutitan dezuna, ta zeruko argi hau aitu ta gelditzen zara ekusi dezuna zere gogoan dezula; iges egiten dezute bazter batean ekusi dezun amiltegitik eta zuzentzen dituzte zere oñak beste aldetik agertu zaitzun bidera ta gelditzen zara tximistak edo jaitsi den odei suak agertu ezpalizu amiltegitara zindezkelako ikararekin ta galdu zenuen bidea arkitu dezulako pozez betea. Orra tximistak egiten duena eta tximist-argitik datorren ona, baña on gorputzekoa ta buruko gog-argiak eragin dezakenaren aldean deus guti balio duena.

Illunbetan bezala datza gure burua Jangoikoaren gog-argia agertu artean. Gog-argi hau burura horduko ekusten du adimentuak Jangoikoak agertu dion bide gaistoa, bai ta ona ere; ta agertzen dio bata ta bestea gaistoa utzi ta ar dezan ona; ta ark hau oni eragiteko ukitzen dio bihotza, bide gaistoa artzen badu galduko delako beldurraren eztenarekin; bai ta ona artu ezker, zeruko bidean arkituko delako pozarekin ere. Bide onez dabilenari agertzen dio Jangoikoaren gog-argiak beste ohea, ta obez dabillean dagiken irabazi andia ta Jangoikoari egiñen dion atsegintz andia.

Jangoikoaren gog-argi, beldur, poz eta atsegintz oiek dira Jangoikoaren deikuntz, hitz eta doai andiak, eta doai, hitz eta deikuntz Jesusek bere Pasio santako neke, izerdi, tormentu ta eriotz gogorarekin guri irabazirik utziak; eta dira betiko gure zori onaren bihiak eta laguntzak, eta bihi ta laguntz bere ontasunez ea urrikariz Jangoikoak ematen dizkigunak. Eman oi dizkigu geren ototzak egitean, bakarrik arkitzen garan aldiaren, liburen bat irakurtzen hari garanean, Jesus gurutzatuaren, Jesusen Amaren edo santuren baten aintzur-imaginari begira gagozkanean, gauz edo gertatu izugarri bat ekustean, gorputz ill bati begiratzean, iltzen dagon baten aldean arkitzen garanean, berri gaistoren bat edo predikari baten hitz onak aditzean edo animaren gisa bereko beste elementen bat agertzen zaikunean.



Aldi orietan gure bururatzen diran gog-argiak, bada, ta gure bihotzen dardarak eta bigintzak dira Jangoikoaren zori oneko tximistak, hitzak, deitzak edo deikuntzak, eta bere aldean birtuteko bidean ta zeruko glorian ekusi nai gaituen Jangoikoaren zori oneko deitz, deikuntz, hitzak. Zori gaistokoak gu aldi orietan Jangoikoari ez aditu egin ta gelditzen bagara geren bide galgarrian ta asmo ta naikuntz makurren atzaparran; bada geldituko gara geren betiko gal-bidean. Erakeri zein izugarria, hau egiten badugu? Aldi onetan guk agertuko dugun gisakoa.

Erakeria litzake soñekorik bage otzez ikara ta gosez ta egarriz iltzen dagon behartsu batek jate ta edate onak eta dagokan soñekoa egiteko eskura eman nai dioten dirua ez artu naia; baña ez, ekusi dugun aldian guk agertuko genuena bezain andia; bada behartsu oni eman lekikon diru ta ondasun guziak baño mill-milletan geiago balio du bere dei-aldi bakoitzean Jangoikoak guri eman nai digun laguntz, grazi ta zeru-gaiak.

Erakeria litzake presondegiko katez loturik datzanak kateak urratzeko ta andik ateratzeko agertzen dioten bidea ez artu naia; ta zer litzake bekatuaren kateak austeko ta sulezeko presondegitik iges egiteko Jangoikoak eman nai digun laguntza ez artu naia? Mill-milloietan andiagoo; bada emengo presondegi ta kate guziak baña beste orrenbest eta geiagotan gaistagoak lirake edozein bekatari gaisorenak.

Erakeria litzake ta erakeri agitz andia erdi usteldua ta anitz gaitzekin arkitzen den eriak ez artu naia bere gaitz guzien azpitik aterako luken sendagai on gaisoa; eta zer erakeria, eri hau baño milletan ta milletan gaizkiago arkitzen den bekatariak zeruko mediku andi Jangoikoaren sendagai milletan ta milletan obe goxoagoak ez artu naia? Milletan ta milletan andiagoo. Hau da, bada, deitzen dion Jangoikoari ez aditu egiten duen bekatariarena; orra zein andia.

Eta zer dela uste dezu bekatari gor oni darraikon zoria? Ezin gaistoagoo; bada darraikon lenbiziko gauza da deitzen zion Jangoikoa agitz aserreturik uztea, ta bekatari bera Zakarias profetak len ekusi zituen zenbait bezain gogor egiñik gelditzea; ta gogortu zuten arri bat bezala bihotza Zakariasek ekusi zituen gaistoak, ez aditzeko Jangoikoak legez, predikariz edo gog-argiz adirazten ziena ta utzi zuten Jangoiko bera agitz aserretua: *cor suum posuerunt, ut adamantem, nè audirent legem, et verba, quae, misit Dominus, et facta est indignatio magna à Domino* (Zach. 7,12).

Jangoikoaren barreneko deitzak edo hitz onak ez aditzeko gortzen den bekatariari darraikon bigarren kaltea da Jangoikoak bekatari bera bazer batera botatzen den zatar bat bezala galdutzat uztea; edo uztea, Jangoiko beraren esan bat len egin etzuen Saul bezala, ta geroz esan dakioke horduan profetak esana: «Baztertu zenuen zuk ez egiteko Jangoikoaren esana eta Jangoikoak ere baztertzen zaitu zu bere aldera berriz ez artzeko»: *pro eo, quod abieciisti sermonem Domini, abiecit te Dominus* (1 Reg. 15,29).

Bekatari bein ta berriz ta askotan ez aditu Jangoikoari egiten dionaren irugarren kaltea da gogoak ematen dion gisan bekatuz bekatu ibiltzea: *dimissi eos secundum desideria cordis eorum, ibunt in adinventionibus suis* (Ps. 80,13). Laugarrena da esirik ez duen ardantz, masti edo sagardi bat ganadu galgarrientzat bezala beraren pasioneak eta etsai gaistoak nai dutenerako anima hau gor gelditzea: *auferam sepem ejus, et erit in direptionem* (Isai. 5,5). Eta bostgarrena da bere eriotzeko horduan bekatariak Jangoikoari ots eginagatik Jangoikoak bekatari irri egin ta bere etsaien atzapar gaisoan uztea: *ego quoque in interitu vestro ridebo, et subsanabo* (Prov. 1,26). Orra zein kaltear ta zori zein gaistoa Jangoikoaren hitzari ez aditu egiten dionarena.

## § II.

Ekus dezagun zori zein on-ondasunduna den Jangoikoaren hitzari darraikola dabillen animarena. Hau guk ekusteko askiko da ekustea dei ta hitz oni zerrakola egungo Santu S. Mateok egiña eta egin zuenagatik izandu zuen bukantzta ta aren bukantzari dagokan gloria.

S. Mateok Jesusen hitzari zerrakola egin zuen lenbiziko gauza da Apostolu onaren bere egitekoari asier ta askuntz on bat ematea, ta ematea eman zezoken ongiena. Apostolu baten egitekoa zen Jangoikoaren berria al zuen guziei ematea ta al zen guziak Jangoiko berarentzat irabaztea; ta berri emate ta animak irabazte hau lenenik, al bazen, geiena zor zienei egitea. Hau da Apostolu guziak Espiritu Santua etorri ezkeroko egin zutena; bada guziak asi ziran beren erritarren ta israeldarren artean egiten erakuste ta animen billatze guziak; eta lenagotik eta Jesusek beregana deitu zuenetik ere asi zen S. Mateo hau bera egiten; bada zer nai zion Jesu-



sek aditu ta bereala edo laster, leneko bere egitekoan lagun izandu zituenak ondu ta Jangoikoagana eraman naiez, eman zion Jesusi, len ekusi dugun gisan, oriek ere bera bezala ontzeko bidea; ta eman zion Jesusi ark bide hau, barazkari ta jale andi bat Jesus berari ta beste lagunei prestatuz, oriek ere adituz an Jesusen hitzak, begitan ar zitzaten beren bekatu guziak.

Eta artu ere zituzten S. Jeronimok dionaz; bada dio, S. Mateoren lagunak ekusi zutenean Jesusek barkatu ziozkala S. Mateori bere bekatu andiak, beren bekatu guzien barkanza erditsi naiez, damu onez beteak billatu zutela Jesus: *neque in pristinis vitiis permanentes, veniunt ad Jesum... sed poenitentiam agentes* (hic). Eta eragin zien bere lagunei hau S. Mateok Jesusen eskuz, zeren ezagutzen zuen bera orien artetik atera berriegia zela, berez ark hau oriei eragiteko.

Jesusen hitzari zerraikola S. Mateok egin zuen bigarren gauza da Apostolu besteekin batean Espiritu Santua artu ta israeldarren artean, Jesusek esan bezala, predikatzen astea ta ibiltzea ta bere odoltarretatik al zituen guziak Jesusen lege berrira erakartzea. Bere odoltarren artean ta orien inguruko bazterretan zenbat urtez ibilli zen S. Mateo ez dakigu. Guk dakiguna da Jesus ta biztu zen urtetik zazpigarrenean plumaz ezarri zuela Jesusek bere bizian egin ta esan ta erakutsi zuena, ta S. Mateok egin hau dela Elizako lau Ebanjelioetatik lenbizikoa, ta S. Mateo egin zuen bere lan onegatik da Apostolu Ebanjelaria, ta Apostolu Ebanjelari Apostolu guzien artean S. Joan baizik lagun izandu etzuen.

Jesusen hitz berari zerraikola S. Mateok egin zuen irugarren gauz andia da berezi zioten aldera joan ta bere egitekoa ederki an egitea. Bere egitekorako berezi zioten alde ta bazterra zen Etiopia, munduko bazter andia, ta bazter zer egin andiak eman ziozkana. Bazter onetan edo Etiopian sartu ta laster arkitu zituen Zaroes ta Arfasad zerizten sorgin bi; ta sorgin, ango guziak agitz izutuak eta beldurrez beteak zeduzkatenak; zeren deabru gaistoak laguntzen ziela, oni ta ari ta nai zuten beste guziei egiten zien anitz kalte ta gaitz. Etiopitar gaisoei agertu zien San Mateok Jesusek errazki galeraziko zituen bide gaistoz zebiltzala gizatzar sorgin oriek eta orien erausi txarrak utzi ta adi zitzatela Jesusen egiak eta hitz onak eta ar zezatela berak an agertzen zien zeruko bidea.

Hau aditu ta, amurratu bezala ziran ango bi sorgiñak eta S. Mateoren lan ona eragotzi naiez, deabruaren eskuz erakarri zituzten, berak biak eta S. Mateo arkitzen ziran errira, sasiko bi dragoi izugarri agitz andi itsu-

siak. Baña agertu horduko, gurutze bat eskuz egin ta mansatu ta bidaldu zituen S. Mateok beren sasira ta beldurrik bage gelditu ziran erritar guziak. Aldi artan egin zuen S. Mateok besterik ere; bada biztu zuen erri berean (Nadaber zeritzan erriari) illa zetzan gazte bat. Ill gaztea erri berean bizi zen Etiopiko errege Ejioporen semea zen, ta seme ango bi sorgiñak bizteko beren alegin guziak egin ta, zetzan bezain illa utzi zutena ta S. Mateok hitz birekin ta Jesusen izenean biztua.

S. Mateoren bi gauz txarmagarri oiek eta aldiak zekarren guzian egiten zituen beste milagro andiak ekusi ta, sinistu zuten gazte biztuaren ait-erregek, onen emazte erregeiñak, ill biztuak eta onen anai-arrebak eta Nadabertar-etatik askok eta anitzek S. Mateok esaten ziena; ta artu zuten Jesusen lege berria ta bataioa. Eta Ifjenia zeritzan erregeren alabak egin zuen geiago ere; bada ezkontzara bageko bizitz garbiaren ondasunak zein andiak diran S. Mateori aditu ta, eman zion Jangoikoari ez ezkontzeko hitza, ta konbentu andi bat egin ta berak bezala bizi nai zuten berreun donzell artu ta sartu zen an oriekin an soror eta monja izatera; ta S. Mateoren eskutik artu zuen artarako zen soñekoa ta habitua ta egin zen an santa, Eliz Ama santak dion bezala.

Ogei ta irur urte egin zituen S. Mateok erregeren korte Nadabar-en ta Etiopiko beste errietan Jesusen lege berria predikatzen an ta emen ta beste bazterretan, behar ziran Obispo jaunak eta apaizak egiten ta Elizak eragiten, ta Jangoiko berak daki zenbat Etiopitar egin ziran kristau ta fededun. Fededunen artean sartu zuen amarren-primizien legea, bai ta ur bedeikatua ere. Eta Apostolu onaren bere egiteko andian mil ta mil-milloi gauz on andi ta milagro egin ondoan, eman zion Jangoikoak emen martiriko sari agitz honragarria ta bere zeruan zegokan glori agitz andia. Aren glori hau gero guk zeru berean edo beintzat Josafatko soroan ekusi beharra da; goazen orain beraren emengo martirio gisa ekustera.

Ifjeniaren ait-errege ill ta egin zen Etiopiko errege illaren anai Hirtako. Hirtakok ezkondu nai zuen Ifjeni birjinarekin ta eskatu zion San Mateori artako hitz egin zezola Ifjeniari. Hitz egin zion Apostolu jaunak, errege bera ta beraren zaldun anitz begira zeudela, baña ez erregek nai bezala; bada hitz egin zion esaten ziola: Ezkontza Jangoikoak utzi zizkigun zazpi sakramentu santuetatik bat dela, baña ezkontza baño agitz geiago ta geiagoko gauza birjintza, ta eriotz gaisto bat eta betiko sulezea irabaziko lukela bere birjin bat Jangoikoari kentzen dion gizonak.



Hau esan ta joan zen S. Mateo meza ematera. Mindurik gelditu zen errege ta an bertan ill-erazi zuen Apostol santua, ta gelditu zen hau Jangoikoaren martir egiña ta birjinzaren alde bere bizia ta odola eman zituen martir, ta martir garbiro bizi nai dutenen laguntzalle on egiña, berak ill ta laster egiñak adirazten duen bezala; bada Ifijeniagandik nai zuenik ezin erditsiz, aren konbentuari eman erazi zion errege Hirtakok bazter guzietatik sua ta Apostolu santua jaitsi zen zerutik sua itzaltzera, ta itzali ta emendatu ere zuen. Orra zenbat on datozen Jangoikoaren hitzak diona zuzenki egitetik. Egizu, bada, zuk ere Apostolu santu onek bezala ta irabaziko dituzu zure lanari dagozkanak, eta egizu zuk hau bertatik: bai arren, bai.

## XXVII

### San Migel eguneko irakur-aldia

Quicumque humiliaverit se... hic est major  
in regno coelorum. Matth. 18.

*Gaia: Anitz zor diogu Jangoiko aingeru onak  
laguntzat eman dizkigunari, bai ta laguntz ona  
egiten diguten aingeru berei ere.*

«Gutitan arkitzen den birtutea da», dio S. Bernardok, «honren arteko humilza: *rara virtus humilitas honorata*. Itxe txar bateko zokoan jaio zen gizona ibilli bada, aurdanik asi ta beti, tresna zar urratuz jauntzia ta jan-edan meak eta zakar arteko lanak egiten dituela, arrotanz andirik bage agertuko da zaldun artean ta gizon sedaz ta urrez ta zillarrez jauntziz beterik arkitzen den Elizan, plazan edo karrikan; baña jauregi andi guztiz apaindu batean jaio zen ta ezin ederkiago jauntzirik dabillen zalduna, ta zaldun, bera bezain andiar edo andiagoak laguntzat daduzkana, bere buruari begiratu ezkerro errazki arrotzen da. Eta hau da zeru berean ere len aingeru Luzbeli ta onekin batean gaistatu ziran beste anitz agitua: beren izate ederrari ta Jangoikoaren eskutik zuten grazizko ta birtutezko ta Espiritu Santuaren doaiezko apainketari berenezkoari bezala begiratu ta arroturik gelditzea ta odeiei gañez egin ta Jangoiko beraren pareraño igan asmoa artzea: *ascendam super altitudinem nubium, similis era altissimo* (Isai. 14,14).

Gerez gu errumes ezer-ezak eta bekatuz galduak gara; baña bataioz Jangoikoaren itxatiarrak eta beraren graziz, birtutez ta Espiritu Santuaren doai-doakuntzez ederki apainduak eta gu gerok baño agitz geiagoko aingeru bana geren jait-hordutik gu zaitzeko Jangoikoak emanik dugunak; ala da, dio S. Jeronimok, bada dio: «Honraren izugarria anima bakoitzak duena; bada Jangoikoak emanik badu bere zaitzan zeruko aingeru bat»: *magna dignitas animarum ut unaquaeque habeat ab ortu nativitatis in custodiam sui angelum delegatum* (L. 3, hic). Al-ere eroegiak giñake arrotasunari buruan



tokirik egiten bagenio; bada giñake urrikariz eman dioten soñekoarekin lagun artuan sartu ta zaldun aberats bat baliz bezala arroturik dabillen behartsu errumesaren erakoak eta ari bere soñekotik eldu ta bezala esan legikegunak: «Atozte, ta norena da soñean dakartzuna ta zeri dagokala zure arronz eroa?»: *quid ergo gloriaris, quasi non acceperis?* (1 Cor. 4,7).

Bere tribunalean hau gero Jangoikoak esan ta onda ez gaitzan sulezoko putzu izugarrian ta Luzbel arroaren ta aren lagun deabru gaistoan bazterrean, agertzen digu Jesusek egungo bere Ebanjelio santuan geren humilz txar ezer-eza, ta bidenabar sekulan ta beti andiak izateko bidea. Bide hau agertu zigun Jesusek bere eskolakoak egin zioten galdetz bati eranzuten ziola. Beraren eskolakoak galdetu zioten bein Jesusi: «Jauna, zeruko erreinuan zein da andiena?», eta Jesusek eranzun ziena da: «Geienik emen txikitzen dena». Eta hau esan baño len aur bat eskutik artu ta bere eskolarrei erakutsi ta esan zien Jesusek: «Orie, aur hau bezala txikitu ta begiz ta bihotzez aurren erakoak izaten ezpazarazte, etzarazte zuek zeruan sartuko ere».

Zer dela uste dezu andiak aurrak bezain txiki egitea edo aurren era-koak andiak begiz ta bihotzez izatea? Andiak Jangoikoarekin ta beste guziekin aurrak beren ait-amekin ta beren lagun berdinekin egiten dutena egitea. Badakizu zer den aurrak beren oriekin egiten dutena? Bakoitzak bere aitak esaten diona egitea, bere ama maite izatea, gaitzik besteri ez egitea, ondasun billan ez ibiltzea, arrotasunik bage bizitzeko besteri bekaitzez ez begiratzea, gezurrik ez esatea ta esaten zaien guzia egitzat sinistea. Ala da, dio S. Hilariok; eta era berekoak izan behar dugu guk, dio, zeruan gero sartzeko ta lan andiak izateko: *revertendum igitur est ad simplicitatem infantium*; bada humiltasunez aur egiten diran fededunen otoitzetan arkitzen dira, dio, zeruko aingeru onak: *angeli pusillorum praesunt fidelium orationibus* (hic); eta oriek or arkitzen dira geren gauzetarako Jangoikoak eman dizkigun lagun onak bezala, humilki guk eskatzen duguna gero berak Jangoiko beragandik guretzat erdisteko. Baña hau guri oriek erdisteko izan behar dugu humil eskerdunak bein Jangoiko berarekin ta gero laguntzat eman dizkigun aingeru onekin. Zergatik uste dezu? Aldi onetan ekusiko dezunagatik.

## § I.

S. Migelek baditu, Jangoikoak ala nai ta, urtean bi festa: Maiatzaren zortzigarren egunekoa bata ta egungo egunekoa bestea; baña S. Migel aingeruaren izenekoa izanagatik festa bata ta bestea, aingeru guzienak dira bi egunetako festak. Ala dela adirazi zuen bein S. Migel berak, bada Gargano deritzan Pullako mendi batean bazter artako Obispoari agertu ta eragin zion orain milla ta berreun urte bezala Eliz bat eta esan zion egin zezala an aren Eliz hau beraren ta beste aingeru guzien izenean, honra zezaten Jangoikoa aratzen ziran fededun onak: *Michael Archangelus Episcopum monet... velle ibi cultum Deo in sui, et angelorum memoriam adhiberi*. Eta hau bera da festa batan ta bestean Eliz Ama santak adirazten duena ere; bada S. Migelen izeneko bi festetako otoitzetan aingeru guziak, bat ere berezi bage, artzen ditu Elizak gure ta Jangoikoaren arteko. Baña aingeru guzien izanagatik bi festak, bi festetan badu berezki S. Migelek gero nik adiraziko dudana.

Zeruan gu beren laguntzat uste gaituzte aingeru guziak eta festako gure otoitzak aditzean gure alde pozik otoitz egiten diote Jangoiko maingarriari. Al-ere besteen artean badira zenbait aingeru gu zaitzera Jangoikoak igortzen dituenak, gutatik bakoitzagatik berezki Jangoiko berari otoitz egiten diotenak, beren festa berezia Elizan dutenak eta gudan ta gure baitan artzeko geiago dutenak. Zer artzeko den orien ta S. Migelen gure baitako artzekoa edo guk oriei diegun zorra, agertuko digu oriek berak gatik Jangoikoari diogun zor andia agertu ta.

Jangoikoak egiñak gara gu munduko guziok; baña beharrez egiñak ez, baizik bere onez ta ongi gu bere zeruan ekusi naiez. Sekulako bere begiekin ekusi ginduen Jangoikoak egin horduko bekatuz galduak eta sulezeko etsaiez ingurutuak. Geren bekatupetik gu ateratzeko artu zuen gizon egin ta mil neke ta eriotz gogor bat bere gain artzeko asmoa, bai ta bere aingeruz gu geren peleetarako bortizki sendortzekoa ere. Egin zen gizon berak asmatu zuen gisan ta egin zuen gero bere aldan geren bekatu-petik gu ateratzeko behar zen lan nekagarri guzia, ta etsai gaistoak garaitu ta eraman ez gaitzaten geren bekatupera, ematen digu bere aingeru bortitzen laguntza, eta laguntz guztiz egokia ta guk behar bezalakoa.

Bai, guztiz egokia da bere aingeruz Jangoikoak ematen digun laguntza ta guk behar bezalakoa; bada gure etsaiak gorputzik ez duten aingeru



gaistatu deabru galgarriak dira, etsai bortitzak, estalian dabilzan etsaiak, eta orregatik dira etsai gure agitz galgarriak. Baña oriek bezain gorputz bagekoak, oriek bezain bortitzak eta oriek bezain aingeru ta aingeru bein ere gaistatu bageak, eta Jangoikoa beti beren alde izandu dutenak dira geren etsai oriek guk aisa garaitzeko Jangoiko maitagarriak ematen dizkigun lagunak; eta lagun, askotan ta askotan guk gerok baño esku ta indar ta birtute geiago dutenak, eta orregatik dira lagun agitz guk behar bezalakoak.

Aingeru bakar bana baizik ematen ezpaligu ere, anitz eta asko zorko genioke geren Jangoiko maitagarriari; bada izar guziak dituen zerua gau ta egun inguruan, ta anitz eta anitz milloi legua dituen inguruan erabiltzeko behar diran indarrak, eta indar, aitzen edo nekatzen ez diranak dituen, ta ejerzitu andiko eun ta larogei ta bost milla gizon iñor oartu bage ill ditzakena eta Senakereb-en ejerzitan ill ere zituena da aingerua; baña bat baño geiagoren behartzen garaneko guk behar adiña prestatu dizkigun ongillea da gure Jangoikoa ta bere salmariari esan-erazi diona: «Gaitza (edo bekatu gaistoa, zuk nai ezpadezu) ez da zugana urbilduko, ez eta (zure etsai amurratu deabruaren tentantz galgarrizko) kalterik ere; zeren Jangoikoak esan dien bere aingeru bortitzei zere bide guzietan zu estaldordetzeko jar dakizkitzula aitzinetik, saietsetik edo beharko dezun beste edozein aldetik: *non accedet ad te malum, et flagellum non appropinquabit tabernaculo tuo; quoniam angelis suis mandavit de te, ut custodiant te in omnibus viis tuis* (Ps. 90-10).

Bear den aldian egiten du Jangoikoak gurekin hau guzia baño geiago ere; bada anitz aingeru ez ezik, aingeru guzien Jeneral S. Migel bera ere behar izaten den aldian igortzen du, guri geren etsai gogorrek garaitzen laguntzera. Ala da, dio Aita Santu andi S. Gregoriok, bada dio: «Guk dakiguna da egiteko andiren bat agitzen den aldian Jangoikoak S. Migel igorri ta bidaldu oi duela»: *quoties mirae virtutis aliquid agitur, Michael mitti perhibetur*; eta mundu onen bukantzaz sulezeko deabru amurratua bere indar guziekin emen agertzen deneko, emen bertan agertuko da, dio Aita Santu Doktore andi berak, S. Migel aingerua ere pele andiak arekin egitera etorria: *in fine mundi... cum Michaele Archangelo praeliaturus esse perhibetur*; ta azkean garaitu ta bere sulezean betiko loturik ta erretzen ta erretzen uztera etorria. Orra zergatik aingeru guzien egungo festari ematen zaion S. Migel fest egunaren izena, zeren S. Migel sulezeko guziekin pelean haritzen diran aingeru guzien Jeneral den, Eliz Ama santak gaur esaten duen bezala: *Princeps gloriosissimi, me, Michael*, etc.; ta zeren soldadu guziak errege

baten etsaiak garaituagatik, orien kapitan jeneralak edo buruak garaitu dituela esan oi den.

Anitz zor diogu, bada, guk Jangoikoari eman zigun geren izanzagatik, bai ta geren izanz eta bizitz hau zutik guk idukitzeko ematen digunagatik ere; bada ematen digu Jangoikoak geren lan onetarako itsaso guzia bere arraiekin, munduko bazterrak bere jan ta edan-gai ta ondasun guziekin ta gañeko zerua gure gauzak gozatzeko dituen bere eguzki, illargi ta izar guziekin; bada oriek guziak eta gañerako gauzak Jangoikoak guretzat egiñak eta guri emanak dira; ta dira ekusten dezun bezain gauz andiak; baña zeru-lurrak eta itsas bazterrak beren gauza guziekin balio dutena baño geiago ta geiago balio duena da aingeru bakoitza; da alabaña Jangoiko bera bezala espiritu eder garbia; ta espiritu, Jangoiko berak graziz ta birtutez agitz edertua ta gu gerok baño agitz eta agitz andiagoo; bada beste gauza guzien gain aingeru bat beti gu zaitzeko ta behartzen garan aldian bere beste aingeru guziak beren buru ta Jeneral S. Migelekin ematen dizkigun Jangoikoari zer ez diogu zor? Guk al duguna; bada al dugun serbitzu ta maitantz eta beraren honran dagikegun guzia zor diogu, ta zori onekoak gu geren zor andi hau ateratzen ta ateratzen haritzen bagara bizi garaño.

## § II.

Eta Jangoikoak emanik laguntzen diguten aingeru berei zer zor ote diegu? Anitz eta asko; bada on andiak dira orien ezku artzen ditugunak. Lenbizikoa da zeruko bideko trabak guri kentzea edo aldian guk egin behar ez duguna utz dezagula geren barrindik adiraztea, ta gezurpean bide makurretara eraman nai gaituen etsaiaren lañoak urratzeko den gogargia guri agertzea.

Bein Ebarekin agerian egin zuena estalpean ta gorderik askotan egiten du gurekin etsai amurratu deabru gaistoak. Esan zien Jangoikoak Adani ta Ebari, galdu nai ezpazuten, etzutela zer jan debekatu zien sagar batetik. Sagar-aldean ekusi horduko sugearen itxuran agertu ta esaten dio deabru gaistoak Ebari: «Ori, sagar orretatik jaten badezute, Jangoiko bera bezalakoak izanen zarazte»: *eritis sicut dii*; ez da, bada, zer beldurtu ta jan



ezazue». Bere ondoan zedukan aingeru gordeak esan zion barrendik Eba berari egin zezala Jangoikoaren esana ta ez suge gezurtiarena; baña Ebak bere burua ta gu galtzeko aingeruari ez aditu egin ta egin zuen suge gezurtiak esan ziona.

Deabru berak berez edo lagun gaistoren batez esaten digun aldian Jangoikoaren legeari ez dagokan zer edo zer, egiten du geredun dugun aingeruak, len Ebarekin berarenak egiña; ta guk egiten badugu onen hitz onak barrendik adirazten diguna, ez gara Jangoikoaren legeko bidetik aterako, Eba bezala, ta gure aingeru lagunak garaituko du suge gezurti, deabru amurratua; baña guk ere Ebak bezala aingeruari ez aditu egin ta egiten badugu deabru gaistoak nai duena, garaituko gaitu len Eba bezala; baña geren naiez ta obenez, ta ez aingeru anak behar bezala guri lagundu bagez, ta sartzen bagara zeruko bidea utzirik bekatuaren trabetan, sartuko gara non arkitzen diran ark ongi agertu ezkeru ta aren esanik ez egin naiez.

Geren aingeru onagandik datorkigun bigarren ona da nondik den artu behar dugun zeruko bidea ta zer den aldian guk egin beharra barrendik guri adiraztea ta geren biderako behar dugun itzala guri egitea. Jangoikoak hau guri adirazten digu bidezko israeldarrekin anitz urtez aingeru bati eragin zionarekin.

Jangoikoak esan ta, israeldarrak artu zuten Ejiptotik beren bazter onetarako bidea ta igorri zien bide bera erakustera ta bideko beren neke lanak arintzera aingeru bat. Ejiptotik atera ziranean, agertu zen odeiezko pillare luze zabal bat eskuan zuela Jangoikoaren aingeru hau, ta asi zen ibiltzen israeldarren aitzinean; ta zeren israeldarren artean arkitzen ziran anitz milla emazteki ta aur, geiegi neka etzitzan eguzkiaren beraak, gordetzen zituen egunaz bere odeipean; ta gauaz azkenekoak ere ekus zezaten non zebiltzan, egiten zen odei guzia su ta gar; ta aldiak eskatzen zuen aldian israeldarrei zerraitzen etsaiak geldirazteko, sartzen zen aingerua israeldar beren ta israeldarren etsaien artean, ta israeldarren aldetik su ta gar egiña arkitzen zen zeraman pillarea, ibilli zitezen israeldarrak hordurik galdu bage; ta ekus etzetzaten etsaiak israeldarrak non zebiltzan, etsaien aldetik odei beltz izugarria zen aingeruaren eskuko pillarea. Eta bidenabar orra zer indarra edozein aingerurena, emendik odeietarañoko pillare bat, eta pillare, luze bezain zabala dena, burdinezkoa edo bronzeko koa baliz ere, batetik bestera zuk luma bezain aisa darabilkena.

Onelako aingeru bat, bada, badezu zuk ere Jangoikoak emanik eta zure aingeru onek gordean ta isillik egiten du zurekin, agerian beste ark israeldarrekin egiten zuena baño lan anitz obea; bada ark lurreko bidean ta lurreko etsaiekin zuen bere egiteko guzia; ta zureak zeruko bidean ta sulezeko deabru gaistoekin du berea; eta ark odeiezko argiz ta itzalez israeldarrei bezala, onek zuri zeruko gog-argiz, inspiranzez ta erdisten dizun Jangoikoaren grazi itzaldun indartsuz laguntzen dizu zeruko zere bidean, bai ta behar den aldian bere eskuz ere, beintzat zuk ari eskatu ezkeru orain adituko dituzun bi gauzak adirazten dutena; gerrakoa da bata ta deabru berarekin aingeru bat egiña bestea.

Siriko erregeren gerrari andi Lisias joan zen bein israeldarretara israeldarrei ger egitera, ta joan zen larogei mila oñezko ta erregek zituen zaldizko soldadu guziak eta larogei elefant izugarri berekin artu ta. Baña israeldar guziak jateko ere geiegi zela uste bazuen ere zeraman ejerzitu izugarria, Judas Makabeok zenbait israeldarrekin bidera atera ta pelean asi ta laster ill ziozkan amairu mil, urratu zion bere ejerzitu guzia ta larru gorrian bezala bidaldu zituen igesi Lisias bera ta bizirik gelditu ziran beste guziak; eta ezagutu zuen Lisias-ek ezin garai zitezkenak zirala Jangoikoaren laguntza zuten israeldarrak: *intelligens, invictos esse Iudaeos omnipotentis Dei auxilio innitentes* (2 Mach. 11,13). Eta Jangoikoak aldi onetan eman zien laguntza izandu zen aingeru zaldizko bat, zuriz ta urrezko armez jauntzia ta lantza bat eskuan zuela israeldarren aitzinean zebillena: *Hierosolynais apparuit praecedens eos eques in veste candida, armis aureis, hastam vibrans* (v. 8). Orra aingeruaren gerrako laguntza. Ara bestea.

Tobias gaztea S. Rafael aingeruarekin bidez zebillela, aingeruak esanik ezkondu zen Rakel zeritzan gizon aberats baten alab Sararekin. Zazpi aldiz len ezkondua zen Sara, baña beti ezkondu zen egun berean alargundua; zeren deabru batek ezkondu ta bereala itotzen ziozkan bere senarrak. Tobias ezkondu ondoan asi zen Jangoikoari eskatzen, etzezala etsai beraren eskuan utzi Sararen leneko senarrak bezala, ta ark hau Jangoikoari eskatu horduko, berekin zeraman aingeruak artu ta eraman zuen urrutitara deabru gaistoa ta utzi zuen an lotua (Tob. 8,3), ta eraman zuen Tobias bere emaztearekin ta osasun onean bere ait-amen itxera.

Orra aingeru onak bekatu gaistoak eragozteko, zeruko bidea zuzenki erakusteko, zerurako behar diran gauzak ongi eragiteko ta zerurako sarrera gal-erazi nai duten deabru gaistoak garaitzeko egiten dutena. Hau zuri eragoztera infernu guzia baletor ere, ez da zer beldurtu; bada S. Migel



ta aingeru guziak behar bazenitu ere hura zuk garaitzeko, S. Migel ta aingeru guziak igorriko lizkitzuke Jangoikoak, hau zuk Jangoikoari eskatu ezker. Hau zuri adirazteko dira euskaldunen artean arkitzen diran S. Migelen ta aingeru guzien Elizak, ermitak eta aldareak.

Eta zuk zor diezunaren ta uste dezunaren alde ta beren izate ederrari dagokanagatik egin behar dezuna da oriei guziei ta geienik zerekin beti dezunari humilki ta errespetu andiarekin noizean bein agur egitea, goiz arratsetan badere zerbait errezo egitea, begitan eman dezoken gauzarik bein ere ez egitea ta zere gauza guzietarako bere laguntza eskatzea. Hau zuk egiten badezu, egiñen dezu Jangoikoak zugandik nai duena ta izanen zara beti ainguru guzien ta orien Jeneral Buru S. Migelen zori oneko laguna. Izan zaitez, bada: bai arren, bai.

## XXVIII

### Errosario igandeko irakur-aldia

Beatus venter qui te portavit. Luc. 11,27.

*Gaia: Zer den, zergatik eta nola esan behar den errosarioa eta onen alde Jangoikoak egiña.*

Bere prediku aldi batean agertu zuen Jesusek *Aita gure*-ko otoitza, ta aditzen zeuden bere dizipulo ta beste guziei erakutsi zien otoitz on nekatzen ez denaren indarra, esaten ziela, Jangoikoari otoitz egin ta eskatzen bazioten, utzi ta artu ta nagiro ez, baizik behar den adinetan ta beti bizi-ro ta erdits uste onean, erditsiko zutela zegoten guzia; ta egia zela esaten ziena adirazteko, milagrozt bertan sendatu zuen gizon mutu deabrutu bat eta gelditu zen mutu deabrutua deabrurik bage ta hitzketa lasaia bere ezpañetan zuela. Hau ekusi ta, kendu zion Jesusi aotik hitza ta asi zitzaion ojuka esaten an arkitzen ziran andreetatik bat: «Zori oneko Amaren Semeal!».

Hau bera esaten dugu guk ere «Bedeikatua zu andre guzien artean ta bedeikatua zure sabeleko frutu Jesus» esaten dugun guzian, ta errosarioa esaten dugun aldian esaten dugu guk hau bein edo berriz ez ezik, askotan ta askotan ere; bada errosario osoa esaten badugu, esaten dugu eun ta berrogei -La amar aldiz ere, zeren orrenbat diran errosario osoko Abe Mariak eta Abe Mari bakoitzean esaten dugun bein ori guk.

Bai, eun ta berrogei ta amar dira errosario osoko Abe Mariak, Dabiden salmoak bezala; bada eun ta berrogei ta amar dira Dabiden salmo edo misteri andiz beteak arkitzen diran zeruko kantak. Eun ta berrogei ta amar salmoen artean badira pausuen amabost kantatxo ta bere pausuekin edo bere atsedantzekin esan dedin Jesusen Amaren errosarioa ere, errosarioan sartzen dira beste amabost kanta edo Aita gure, amar Abe Marien ondotik bakoitza; ta orrenbat dira eun ta berrogei ta amar Abe Mari-ri dagoztenak; bada amabostetan amar, eun ta berrogei ta amar dira; ta pausuz pausu bezala birtutez birtute bere Semearen eskoi alderaño igan





zen Andre Mari Birjinari ederki dagozkan kantik dira amabostetan amar Abe Marikoak beren Aita gurerekin batean.

Hastia duten munduko anitzek esaten dute egun oro eun ta berrogei ta amar Abe Mariko ta amabost Aita gureko errosario hau, bai ta zenbait bat baño geiago ere; baño beste geienak egiteko geiegi dute hau bezain debozio luzea egiteko, ta egunean esan oi dute errosarioaren iru zatietatik bat edo berrogei ta amar Abe Mari ta bost Aita gurekoa; ta zenbaitek Jesusen Amaren urteen izenekoa edo irurogei ta irur Abe Marikoa ta sei Aita gurekoa; zeren jakintsu onak uste duten irurogei ta irur urtez bizitu zela Jesusen Ama. Esazu zuk al dezuna, ta jai-igandeetan ta egiteko andirik ez dezunean ta kargarik bage bidez zabiltzan aldian edo arazo andirik ez dakarren lanen bat egiten dezunean eun ta berrogei ta amarrekkoa, ta aldian irabaziko dezu aldi artakoagatik Aita Santuak berezia dadukan ondasuna ta induljenzia ta animako zorren barkanza.

Jangoikoren grazian zaudela hau zuk egun oro egiten badezu, zerurako irabanz andiak eginen dituzu; noizbait zu zere lazeriz bekatuzten bazara, Jesusen Amak bekatu guzien damua erditsiko dizu, bai ta ontzeko ta ongi bizitzeko uste andi bat ere; eta errosarioko Abe Mari bakoitza esatean zeruko guziei atsegin eginen diezu, infernu guzia ikara utziko dezu ta deabrua igesi bidalduko dezu, dio Beato Alanok: *cum dicitur Ave Maria, coelum gaudet, Sathan fugit, infernus contremiscit, crescit devotio, oritur compunctio, spes proficit*; ta badio geiago ere; bada zerurako siñua dela dio egun oro Jesusen Amaren errosarioa esatea: *signum... aeternae salutis, si perseveranter in dies Beatam Virginen ejus psalterio salutaveris* (P. 44 de pralt. c. 24). Orra bada zer ta gauza zein ondasunduna Jesusen Amaren egun oroko errosarioa. Goazen ekustera zergatik Jangoikoak nai duen guk hau esatea, bai ta nola esan behar den ta esaten dutenen alde Jangoikoak egiten duena ere.

## § I.

Jesusen Ama honratzeko da beraren egun oroko errosarioa, ta zeren Jangoikoak nai duen guk Jesusen Ama honratzea, Jangoiko berak nai duen gauza da egun oro guk errosarioa Jesusen Amari esatea. Nai du, bai, Jangoikoak, eta agitz al-ere, guk beraren Ama honratzea; bada nai du guk

hau honratzea beraren izate ta birtute andiari dagokan eran; ta duen izan za da zeruko Erregiñarena ta Jangoiko beraren Amarena; ta Jangoikoren izan za alde bat utzi ta, parerik bagekoa da Jangoikoren Amarena ta bere izanz ezin andiagio oni dagokana da Jesusen Ama beraren birtutea; ta orregatik da zeruko aingeru ta santu guziena baño agitz andiagioa.

Jesusen Amaren izanz eta birtute oni dagozkan erako honrak Jesusen Amari egiten guri erakusteko egiten diozka Jangoiko berak ere agitz andiak; bada zeruko Erregin eginik eman dio bere esertegia ta tronua bere Seme Jangoiko-gizon Jesusen eskoi aldean ta zeruko guziak begira dagoz kala begiratzen dio beste guziei baño begi maitariagoekin, beste guzienak baño obeki aditzen ditu aren eskantzak eta, S. Bernardok dionaz, beste guziak utzi ta aren eskuz egiten dizkigu egiten dizkigun ontarte ta gauz on guziak: *omnia nos habere voluit per Mariam*.

Zeruko honr oni dagozkanak dira guk ekusten dugula Jesusen Amari Jangoikoak emen egiten diozkan honrak ere; bada Erromatik asi ta munduko bazterrik urrutieneko fededunen errietan ematen diozka Jangoikoak Jesusen Amari elizak, ermitak edo aldareak, eta erri andietan beintzat zer aldareak eta zer elizak? Arkitzen diran galanten ta ederrenak. Ematen diozka urte oro bost festa jai-egun diranak eta beste amar ta geiago ain ez andia,; ematen diozka larunbateko meza ta errezoa, eta ematen diozka beste meza guzietan honra andiak, bai ta bere izeneko religio, kongregazi eta kofradi egokiak ere, ta kofradi beretatik geienak bere errosarioak. Gauz oriekin batean ematen diozka goiz-arratsetako ta eguerdiko eskil soñuak eta Abe Mariak. Egiten du Jangoikoak Jesusen Amarekin hau guzia guri adirazi naiez zenbat eta zenbat nai duen bera guk, dagokan eran, errosarioz ta dizakegun edozein beste bidez honratzea.

Bestela ere hau egitera agitz behartuak arkitzen gara gu; bada Jangoikoak beretako egintzat artzen du beraren izenean den errumesenari ere egiten zaion ona. Jesusek bein esan zuen bezala, *Quam diu fecistis uni ex his fratribus meis minimis, mihi fecistis* (Math. 25,40); bada nola artuko dit Jangoiko beraren izenean Jesusen Amari egiten zaion honra? Ezin ederkiago.

Beste alde Jesusen Ama gure Ama ere da ta Jesus berak gure Am egiña gurutzean iltzen zegola, S. Joan Ebanjelariari begiz ta buruz erakutsi ta esaten ziola: «Orra zure Ama»: *ecce Mater tua* (Joan. 19, 27), ta Jangoikoak agitz nai dit bakoitzak bere ama honratzea, ta agitz eta agitz geiago Jesusen Ama bezalako Ama beraren hume guziak honratzea.



Onetarako bada geiago ta geiago ere; bada Jesusen Amak Jeremiasek isaeldarrak gatik baño askotan obeki otoitz egiten dio gure alde Jangoikoari ta gure gabenza ta beharra ekusi horduko egiten du gurekin Kana-ko ezkondu berriekin egiña: behar dugunaren eske gu beragana baño len guretzat Jangoikoari eskatzea; bada S. Agustinek dion bezala, santu guziak baño geiagokoa da Jesusen Ama, bai ta geiago begiratzen diguna ere: *sicut omnibus sanctis est potior, ita pro nobis, omnibus sanctis est sollicitior* (Ser. de Nativ.).

Eta egiten du hau Jesusen Amak gure alde esku agitz andiarekin, ta askotan, S. Anselmok dionaz, Jesus berari eskatu ta baño Jesusen Amari eskatu ta, errazkiago erdisten dugu nai duguna; zeren Jesus beraren Ama baño urrikaltiagoa izanagatik, gure jueza den ta bere justiziak noizbait eragozten dion beraren urrikaltzak eskatzen duena; baña Jesusen Ama urrikaltz utsa da ta bere otoitz beroekin, Jangoiko aserretua palakatu ta, erdisten duena nai duena (Ans. 1. de Virg. c. 6), eta orregatik da, dio, zeruko siñua ta señaie andia Jesusen Amarekiko debozioa.

Esan dugun guziagatik, bada, agitz nai du Jangoikoak guk guziok eta guzien artean geienik nekazari onak eta eskol anitz ez duten beste guziak egun oroko errosarioko debozioa Jesusen Amarekin izatea; bada debotki hau esaten dutela, luzaro ta ederki honratzen dute Jesusen Ama ta irabazten dute beraren artekontz indartsua, ta beste bidez nekez hau oriek erditsiko lukee; zeren gogozko ta isilkako otoitzetara ez dauden oituak eta Jesusen Bihotzaren kongregazioko otoitzetan bezala, laguntzen ezpazaie, bereala edo laster nekatzen ta gelditzen diran gogozko beren otoitzan.

## § II.

Baña nekazar ta guti dakiten beste guziak eta gañerako errosarioa esaten dutenak debotki hau esateko, Jangoikoari atsegin egiteko ta Jesusen Ama beren arteko egiñik uzteko, ez dituzte errosarioko Aita gure, Abe Mariak txori loroak bezala esan behar; zertan dauden edo zer egiten hari diran dakitenak bezala esan behar dituzte; bada Jangoiko maiteak, bai ta Jesusen Amak ere, errosarioko hitzetara ez, baizik hitzak idarokitzen dituen gogora begiratzen du: *Deus intuetur cor* (1 Reg. 16,7); ta bihotzak

idarokitzen ez dituen hitzak aizearentzat ezpañak esaten dituzten hitzak dira, edo hitz ametsetan batek esan oi dituenen ta deus esan nai ez dutenen erakoak eta batek ere berentzat artzen ez dituenak. Berentzat ar ditzaten, bada, Jangoikoak eta Jesusen Amak errosarioko zure hitzak, esaten asi baño len ekusi behar dezu zertara zoazen ta norekin hitz egitera, ta asi behar dezu ongi esateko Jangoikoari laguntza eskatu ezkerro ta poliki ziñatzen zarala.

Oarturik eta zer esaten dezun dakizula Aita gureko ta Abe Mariko hitzak esateko, bi bidetatik bat ar dezakezu: bata da Aita gureko ta Abe Mariko hitzak esan nai dutena gogoan erabiltzea, esaten dituzun hitzei gogoz ta bihotzez jarraitzea ta hitzez eskatzen dezuna ziñezko naiez eskatzea. Hau guri adirazteko da Jesusek bein bere Amarekin egiña. Ongi bizi zen andre batek askotan eskatu zion Andre Mari Birjinari ager ziezagola bere sabeleko frutu Jesus ta egun batez agertu zitzaion Jesusen Ama bere Semea besoan zuela; Jesusek agertu horduko esan zian andre ekusleari: «Esazu Abe Maria»; asi zen bertan esaten andre ekuslea eta ark lenbiziko bi hitz Abe Maria esatean, egin zion Jesusek buruz bere Amari agur polit humil bat, hitz berak esatean guk zer egin erakusten zigula. Bide hau artzen dezunean, bada, esazu zere errosarioa Jangoikoaren Ama ta Jesus ekusten dituzula bazeunde ta biekin hitz egiten bazenu bezala.

Errosarioa ongi esateko beste bidea da Aita gure, Abe Mariak esaten dituzun denboran, amarreko bakoitzean Jesusen Amaren misterioen bat gogoan erabiltzea. Jesusen Amaren misterioen artean badira pozezko bost, nekezko bost eta glorizko beste bost; eta errosario osoa esaten dezunean, aldizka ar ditzakezu gogoan guziak, eta egunean errosarioko iru zatietatik bat baizik esaten ezpadezu, misterio beretatik bein bata, bein besteak eta gero irugarrenak.

Jesusen Amaren pozezko bost misterioak dira, lenbizikoa beraren baitako Jesusen gizontza, bigarrena Sant Isabelen ekustea, irugarrena Jesusen jaiotza, laugarrena Jesusen Elizako presenta ta bostgarrena Jesus beraren Elizako Doktoren arteko arkinza. Amarreko bakoitza, bada, esan bitartean, orietatik bat gogoan artu ta egiten dena da aldi artan Jangoikoak Jesusen Amari eman zion poz eta atsegintz andiaren izenean Jangoiko berari milla ta milla esker ematea, ta bidenabar Jesusen Amari horduko bere poz andiagatik zori on anitz esatea ta zeruan gero berari agitz obeki emateko emen beharko dugun laguntza ta grazia eskatzea.



Jesusen Amaren nekezko misterioak beste anitzen artean dira, lenbikoa begiz edo gogoz ta animaz Jesus Jetsemaniko baratzen odolez izerditurik ekustea, bigarrena era berean Jesus azotez urraturik ekustea, irugarrena aranzazko koroz burua urraturik, laugarrena gurutz andia ezin eramanez jaiki-erori zebilela ta bostgarrena gurutze berean iltzez josirik Jesus bera ekustea. Lenekoetan bezala aldi onetako amarrekoetan ere artuko dugu Jesusen Amaren misterio edo ekuste gogor oietatik bat, eta gure bekatu gaistoak gogortu zituztela ekusi ta, damuz beteko dugu geren bihotza ta eskatuko diogu Jesusen Amari eman diozkagun naigabenzen barkanza, ematen diogula naigabenz berrietarako biderik ez emateko hitza.

Glorizkoak dira bein Jesus biztua, gero zeruko bidean ta gero Ait eternoaren eskoi aldean ekustea, laugarrena Espiritu Santuaren etortza ta gero Jesusen Ama beraren zerura igatea. Oriekin ere egiten da lenekoekin esan duguna. Nai badezu, hau guzia ongi egiteko diran otoitzak arkituko dituzu nere otoitz-gaietako zenbait zatitan, bai ta artarako ta Bederatz-urrunetarako egin nuen liburutxoan ere.

### § III.

Agertu ditugun bideetatik batez edo bestez errosarioa esaten zutenen alde egin ditu Jangoikoak anitz gauz andi ta milagro, ta esaten zutenen senar gaistoei ere luzatu die noizbait, on ditezen, beren bizia. Asuenzako konde Teodorikok egin zituen bere bizitzan anitz gaizki ta bekatu, ta aldi batez erre zituen sororen edo monjen bi konbentu. Andik ez urruti bizi zen eremutar bat. Jangoikoak erakutsi ta, ekusi zuen onek Santa Baldetrudak eta Aldegundak bein ta askotan eskatzen ziotela Jesusen Amari bere izeneko konbentuen erre ziozkan gizatzen aren zeantza ta kastigua, ta Jesusen Amak «Orain ez» bie erantzuten ziela. «Zergatik ez?» bi santak galdetu zioten Jesusen Amari. «Zeren gizon gaisto orren emazte Adak egiten dizkidan egun oro ogei agur ta esaten didan irurogei Abe Mariko errosarioa bat», erantzun zien Jesusen Amak. Al-ere beren eskantz bera egiten zioten Jesusen Amari santak eta noizbait esan zien Jesusen Amak: «Bere aldian».

Zori gaistoan Teodoriko kondearentzat etorri zen beraren aldi gaistoa hau, baña ez bere andre on Adarekin bizi zela. Hordu gaistoan hau itxetik bota ta gelditu zen bakarrik bera, baña andik laster izandu zuten ezbaida bat Teodoriko onek eta Isak Barlemontek, eta Isak-ek utzi zuen illa ta anitz zati egiña Teodoriko hau. Hau ill ta sartu zen itxe berean Goshino zeritzan Ada beraren osaba bat. Ikasi zuen onek agitu guzia. Artu zuen egun oro errosarioa esateko illobaren debozioa, ar-erazi zien debozio bera bere soldadu guziei ta gero bera relijioso egin ta bizitu ta ill zen agitz santuki (Mund. Mar. p. 2, d. 30, n. 40).

Onei obetzen bezala laguntzen die egun ora errosarioak gaistoei ontzen ere. Flandesko lapur andi batek, gaistoa bazen ere, egun oro esaten zion Jesusen Amari bere errosarioa ta eskatzen zion eriotz on bat egiteko grazia. Azkenean justiziak bere lagun bat ill ta artu zuen preso ta eman zion eriotz gogor bateko sententzia. Berri hau hitz onez leundu ta Jesusen Konpaniko batek eragin zion bizi guziko konfesioa, ta konfesio, damu ta negar andiekin egin zuena. Urrengo gau guzian egondu zen errosarioak eta errosarioak esaten. Bigaramun gaizean komulgatu zen debozio guztiz andiarekin. Iltegirako bidean ibilli zen gurdian belaunikaturik, bere errosarioa ta Santo Kristo bat eskuan zituela, ta Jesusen Amari ta Jesus berari esaten ziezten hitzekin bere burua negarrez urtzen zuela, ta ekusten ta aditzen zuten guziak urt-erazten zituela.

Hurkabera zenean an arkitzen ziran guziei, belaunak lurrera ta, eskatu zien humilki barkamentua ta juez jaunei ill ondoko zenbait meza ta Elizan obia. Ukatu zioten eliz-obia. «Izan dedilla, bada», esan zuen, «ill ondoko nere deshondra nere animako zorren alde ta onen berria izaten duten gaisto guziak zentzarazteko». Eta lotu ta azken golpea artzera zijonean, esan zion konfesatu zuen Jesusen Konpañiko aitari: «Zerurutzen banaz, uste dudak bezala, otoitz egiñen diot beti nere Jangoikoari zure ta zure Konpaniaren alde, ta ni ill ondoan zoaz, arren, juez jaunetara nere esker humillak ematera»; ta borrhoroak mazoz burua urratzean, *Jesus Maria* esaten zuela gelditu zen illa. Eta juez jaunak ikasi zutenean egin zuen eriotz ona, eman zioten eliz-obia (Ann. Soc. Civit. Silvaducens.).

Lepoko edo eskuko errosarioak ere agitz izutzen du deabrua ta ez da bage bein ere zer Gaizki bizi zen Mejikoko mutil gazte bati deabrua itxur agitz izugarritzko ta zezen adarrak buruan ta txarrantx-eztenak bezalako atzaparrak eskuan zituela agertu ta esan zion; kentzen ezpazuen lepoko errosarioa, an bertan illen zuela. Baña mutillak egin zuena zen lepoko



errosarioari eskuz itsastea, ta hura ala ez ekusteagatik, andik igesi joan zen deabru gaistoa (Ann. Soc. 1593). Txileko neskatx batek gaizki konfesatu ta iltzeko zegola, ekusi zuen beraren eske zetorren deabru izugarria ta amurratu bat bezala asi zen bazterrak orroz urratzen. Lasterka an aren itxeko andrea sartu ta eman zion eskura bere errosarioa. Iges egin zuen horduan deabruak eta gero ongi konfesaturik ill zen sosegantz andian ta pozez betea (Wag. 1.7, c.22). Indietako jentil batek errosarioaren indarrak aditu ta lotu zuen bat bere besoan, ta artan eman ta gelditu zen, bestela besoa ta gorputz guzia igaroko zion tiro bateko bala, ta bataitu ta egin zen gure lege santako fededun.

Errosarioa ongi esaten dutenen emengo beharrak ere estaltzen ta gaitzak kentzen ditu Jesusen Amak, dio San Amadeok: *non solim animarum salutē, sed etiam corporum sanitati pia diligentia providet, et medetur* (Hoc. 8 de Laud. V.); baña geienik behar ditugunak animakoak dira ta geienik oriei begiratzen die Jesusen Amak, eta begiratzen, bizitzan ez ezik eriotzan ere. Asi zen bein Santa Jetrudis eriotz on bat Jangoikoari eskatzen ta Jesusen Amari Abe Mariak esaten. Esaten zituen Abe Mariak urrezko arros egiñak ematen ziozkan Jesusek bere Amari ta guziak bildu ondoan esan zion Jesusen Amak santari: «Emen zenbat erroa edo Abe Mari, zere eriotzan zeruko anbat laguntz izanen dituzu» (L. 4, div. 53). Eta zuk ere izan nai badituzu ongi bizitzeko ta gero obeki iltzeko, ar zazu egun oro itxeko guziekin edo bakarrik zere errosarioa ta anitz Abe Mari esateko debozioa. Bai arren, bai.

## XXIX

### S. Simon ta Judas eguneko irakur-aldia

Haec mando vobis, ut diligatis invicem. Joan. 15,17.

*Gaia: Jangoiko ongille-maitariaren erakoak ziran Apostol S. Simon ta Judas.*

Ostegun Santu arratsez Apostol bereei komunio santa eman ta esan ziezten Jesusek anitz gauz eder ta andi, ta orietatik bat egungo biak egin zutena guri adirazteko Eliz Ama santak Mezako Ebanjelioan dakarrena; eta Elizak gaur dakarren gauza ta aldi artan Jesusek Apostolu guziei esana da: «Nik (Jesusek) agin-manatzen ta esaten dudana da elkar zuek maitatzea ta beste guziei ongi egitea, bai ta besteak gaisto-galduak diran aldian ere. Mundutarrak begitan artuko zaituzte, bada nazana izanik ere, ala ni artua nadukate. Mundutarrak ezin ekusi dute berak ez bezalakorik eta beren gaistaginzekin begitan ematen dienik, eta zeren orretako nik artuak zarazten, ekusi naiko etzaituzte. Len ere nik zuei esana gogoan ongi artu, zeren Maisua baño geiagokoak etzaraztela zuek eta ni nabillen bidez ibilli behar dezutela, ta zeren bide batez dabiltzan zuen esanak eta nereak, nereak egiten badituzte, egiñen dituztela zuenak ere.

Nigatik da mundutar gaistoak egiten dizuten gaitza, ta egiten ta egiñen ere dizute ezagutu nai gabez nor den nere Aita ta ni Ait-eterno betikoaren Seme Jangoiko-gizona nazala. Etorri ezpanintz, etziran sartuko sartu diran gisan nere Jainkoz hau ez sinistu nai onetan ta bizia niri kentzeko asmoan; baña aditu didaten guzia aditu ta, itsument andi ta asmo makur gogor onetan oriek sarturik arkitzea beren obenezko ta gaistakerizko gauz eta bekatua da ta bekatu aitzakirik bagekoa; bada nik esan die-dan guzia ekusi dute nere milagro ondua, ta egi garbia baizik milagro ezin ondu diteke, ta beren gaistakeriz eta artako nik biderik eman bage artu naute begitan mundutar gaistoak, aspaldian Dabidek esana dadukan bezala: *quia odio habuerunt me gratis* (Ps. 24,19) ta bidenabar begitan artu dute nere Ait eternoa ere.



Egia dela hau ta beste nigandik aditu dezutena egun garbiko argia bezain ongi ekusiko dezue, nik zerutik bere aldian igorriko dizuedan Espiritu Santua artu horduko. Esan dizuet nik hau ta nigandik len ta orain aditu dezuten beste guzia, guzia ongi ezagutu ta sinistu ta balia dezazuen mundu guzian; ta bana, munduko gaisoiez ongi urrikiturik gal ez ditezen jakin bagez (jakin) behar dutena. Baña begira, bizi ongi oharturik; bada zuen esanak aditu ta onduko diranen artean arkituko dira zenbait gaisto, zeren erakust onagatik zuekin egiñen dutenak judatar gogorrek nerekin orain egin nai dutena, izan zaitezten zuek guziei ongina eta erakuste zuzenean bezala eriotzan ere zeren Maisu beraren erakoak».

Hau da aldi artan Jesusek esan ta adirazia, ta Apostol jaunak eta bes-teen artean egungo biak egiña ta Eliz Ama santak bien egungo mezan agertzen diguna. Hau aditu ta egin zuten egungo Apostol biak dira S. Simon ta Judas, bigarren Apostol Santiagoren illobak edo aren arreba Maria Kleoferen semeak eta Jesusen Amaren alde urbillak; bada lengus-ak ziran Jesusen Ama ta Maria Kleofe. S. Simon Kana deritzan Gallile-ko erri batean jaioa da ta orregatik ematen diote kanatarraren edo Kana-neoren izena, bai ta Zelotes-ena ere; zeren Kana beste hitzkuntz batean Zelo den, ta ematen zaio bigarren izen hau S. Simoni Apostol S. Pedro-gandik berezteko; bada bere izenez Simon da S. Pedro ere. S. Simon kana-tar onen anai ta egungo festako bigarren Apostolu S. Judasek ere badu bigarren izena ta Tadeo da onen bigarren izen hau ta oni ere ematen zaio bigarren izen hau, zeren Judas zen bere Maisu Jesus saldu zuen Apostolu gaistoa ere. Ekusi dugu, `bada, S. Simon ta Judas on oni besteekin batean Ostegun Santu arratsez Jesusek esana, ta orain ekusi behar duguna da oriek aren esana egiteko egin zutena.

## § I.

Munduko guziei ongi nai izatea ta munduko berei erakustea Jesusi aditu ziotena ta berarekin ibilli ziran denboran ekusi zutena da gaurko Apostolu bie Jesusek eman zien egitekoa, ta egiteko Apostol biak orain guk ekusiko dugun bezain ederki egin zutena.

Batek beste bat maitatuko badu, lenik maitatu behar du Jangoikoa, bada Jangoikoaganako maitantzaren garra bezala da besteganako gure maitantza ta Jangoikoaren maitantzaren surik bage ez da maitantz onen garririk arkitzen, ta hau da Espiritu Santuak adirazten diguna anima santaren ezpañez esaten digun aldian: *introduxit me in cellam vinariam, ordinavit in me charitatem* (Cant. 2,4): «sartu ninduen Jangoikoak bere bihotzeko amorearen ardotege goxoan ta utzi zuen nere besteganako amorez eztitua». Eta bihotzik gelditu bada Jangoikoaren amorez zorotua ta mundu guzia-ganako amorez eztitua izandu zen Espiritu Santu egunean Apostol guzie-na, gero berak egin zutenak adirazten duen bezala. Eta aldi artan Apos-tolu onak artu zuten karidatea ta Jangoikoaganako amoreta etzen aitu bein ere; bada artu zuten hordutik gelditu zen betiko seguratu ta aitu edo txi-kitu lekuan egun oro anditzen ta biziagotzen zena, zeren egun oro ta egu-nean askotan egiten zituzten Apostol guziak gauz onak ta gauz oriek ziran egur egoki berriak, Jangoikoaren graziaren ta karidatearen sua orien bihotzean anditzeko ta su hau anditzen zen gisan anditzen ziran suaren garrak ere, ta orregatik egun oro zen andiagoa Apostolu berak munduko gaisoei zien ongi-naia ta amoreta.

Egungo gure Apostol biak agertu ziena izandu zen Jangoiko berak munduko berei dien amorearen erakoa. Jangoikoak mundukoei dien amo-rea ta ongi-nai andia betikoa da, bada askuntzik eta asierarik ez duena da Jangoikoa ta beti ta beti izandua, ta izatez Jangoiko bera bezain luzea da Jangoikoak digun amoreta; bada Jangoikoak Jangoiko denetik maitatu gaitu ta egia da Jeremias profetaren ezpañez Jangoikoak esaten diguna esaten digun aldian: «Beti beti maitatu zaitut nik zu»: *in charitate perpetua dilexi te* (Jer. 31,3); ta era berekoa da S. Simon ta Judasek Jangoikoaren Apostolu egin ta Espiritu Santua artu ta ill arte guzian munduko gaisoei izandu zien ongi-naia ta amoreta, bien arte orretako ibillerak eta lanak adi-razten duten bezala; bada arte orretan ibilli ziran munduko gaisoei ai zuten ona egiten ta Jangoikoaren lege berria ta zeruko bidea erakusten.

Egin zuten besterik ere, bada egin zuten Jangoiko beti gu maitatzen gaituenak egiten duenetik ikasi zutena; ta Jangoikoak egiten duena da guk aren alde deus egin bage ta beraz gu oroitu baño ere len berak gu maita-tzea: *quoniam Deus prior dilexit nos* (1 Joan. 1, 13); ta hau bera da egungo gure Apostolu biak egin zutena, bada maitatu ta beren onerako billatu zituzten bietatik batez ere oroitzen etziran Jerusalendarrak, Israeldarrak, Ejiptarrak eta Mesopotamiko ta Persiko probinzi andietako jendeak, eta



doairik eta saririk bage ta Jangoikoaren izenean egin zien beren egitekoan zegikien on guzia.

Gure urrikarizko ongi-naia da Jangoikoak digun sekulako ongi-naia ta amorea, ta Jangoikoaren aldetik eta guk eragozten ezpadiogu, salmari onak dionaz, betikoa izanen da datorren eternidadean ere oraindianoan beti izandu digun ongi-nai ta amore andia: *miser cordia autem Domini ab aeterno, et usque in aeternum super timentes eum* (Ps. 102, 17); ta S. Simon ta S. Judas Tadeoren aldetik era berekoa zen munduko gaisoei zien urrikaltz, ongi-nai ta amore; bada Persiko zenbait gaistok kendu ezpalie berei on andiak egiten zeramaten bizia, Persitar guziak fededun egin ta sartuko ziran Kandarko erreinuan, Mogolko inperioan, Ganges ibai andi luzearen bi bazterretako probinzi arrigarrietan, andik gero Sian, Txina, Tartari andiko erreinuetan, alde artako beste bazter guzietan, orietan ere len berak ibilli ziran besteetan egin zutena egitera.

Eta bazter orietako guziak fededun egin ta ondu ondoan, bizirik utzi balituzte ta behar zen indarrarekin arkitu balira, sartuko ziran Moskobian, Suezian, Dinamarkan, Inglaterran, Espanian, Franzian, Italian, Alemanian, Polonian, Krimean, Trazian, Moldabian, Hungrian ta Peloponeson, ta bazter orietan len Asikoetan egin zutena egin ondoan, arkitu balira bizitz osoarekin ta behar bezalako indarrekin, itsasoz joanen ziran Marruekora, Feza ta mairutarren beste erreinuetara; andik Nigrizira, Kongora, Monopotapara, Abisinara ta Afrikako beste bazterretara ta or ere beren egitekoa bukatu ondoan, ibilliko ziran itsasoz itsaso, itsasoko isla guzietan hau bera egiten; sartuko ziran gero Amerikako edo Indi berriko erreinu ta bazter izugarrietan ta etziran geldituko bazter guzietan al zuten on guzia egin ta beren egitekoa bukatu arte guzian; ta geiago iraundu balute arien bien bizitz-indarrak, ibilliko ziran beren lan onak eta amorezko egitekoak berritzen, len ibilli ziran mundu guziko bazter bere-tan; ta ibilli ezpaziran ibilli ziranetan baño geiagotan, izandu zen amore bagez ta naigabez ez, baizik zeren kendu zien bizia ta eraman zituen Jangoiko maiteak bere zerura.

Jangoikoaren amorea betikoa bezala guzien amorea da, edo Jangoikoak ongi nai die onei ez ezik, gaizki bizi diranei ere; maite ditu alabaña, dio Espiritu Santuak, egin dituen guziak: *diligis enim omnia, quae sunt, et nihil odisti eorum, quae fecisti* (Sap. 11,25); baña ez die Jangoikoak onei adina on egiten gaistoei ta hau adirazten digu Eskritura santak esaten digun aldian, begitan artuak daduzkala Jangoikoak gaistoa ta gaistakeria, ta zerbait nai-

gabe ere noizbait ematen die Jangoikoak gaistoei; baña izaten da gaizki naiez ez, baizik ekus dezaten makur dabiltzala ta zuzen-erazi naiez ta bitarte guzian ez-ekusi egiten die orien bekatu gaistoei: *et dissimulas peccata hominum propter poenitentiam* (ibid. v. 21); ta azkenean ematen badie dagoten sari gogorra ta sekulako nekea, izaten da beren gaizkian gogorturik ekusi ezkerro.

## § II.

Onetan ere Jangoikoarenaren erakoa izandu zen egungo Apostolu biak mundukoei izandu zien ongi-naia ta amore; bada izandu zen guzieren ona billatzen zuena. Persira ziran artean berez ibilli ziran gaurko gure Apostol biak; bada S. Simon ibilli zen Ejipton ta S. Judas Tadeo Mesopotamian. Elkar artu ta Persian biak sartu ziraneko, mututu ziran an Jangoikotzat zeuden deabru guziak. Babiloniko erregeren gerrako nagusi Baradak, inditarrak bere nagusiaren eskupera naiez, biltzen hari zen gizonak eta prestatzen gerrako gauzak, eta bere gerraren bukantza jakin naiez, bazebillen idoloz idolo ta deabruz deabru; baña batek ere mill aldetara ark galdetuagatik, etzion hitzik erantzuten ta azkenean esan zioten Kristoren Apostolu Simon ta Judas etor-berriak ango bazterretatik atera artean mututuak egon behar zutela.

Billatu ta galdetu zien Baradak-ek zer egiteko zen ara zeramatena ta esan zien ango Jangoiko txarrak erantzun zutena: «Jangoikoaren berri onak ematera etorriak gara», erantzun zioten Apostol biak Babiloniko gerrari nagusiari, «ta Jangoikoak dirala zuk uste dezun oriek deabru gezurtiak dira; erantzun dezatela ezperen ta ekusiko dezu zein egia den orain gugandik aditu dezuna». Joan zen berriz Badarak bere idoloetara, galdetu zien len galdetu bera ta erantzun zioten deabru sutu galduak edo orien apaiz gezurti gaistoak: «Ger luzea ta odolez isurz eta anitz eta asko ill izanen dituen gerra da aldi onetako zure gerra».

Hau aditu ta, irri ta far egin zuten Apostol biak. «Zer?», esaten die Baradak-ek, «onen estu ta kezkatua ni aditzen dudanarekin ta irriz ta farraz zuek?». «Bai egiazki, bai, Baradak jauna», esan zioten Apostolu biak, «guk bezain aisa badagikezu zuk ere irri ta farra; bada gezurra da



hitzonzi oriei aditu diezuna. Emen dituzu bigar inditar orien mandatari enbajador andiak eta etorriko dira erregeek nai duena egiteko inditar berak prest daudelako mandatu humillarekin». «Ekusiko dugu, bada», esaten die Baradak jeneralak Apostol biei, «ta gezurra esaten badidazue, emanen zaitzue zeren irabazia, ta bestela gure Jangoiko txarren apaiz gezurtiak izanen dute dagoten saria»; ta hau esan ta batak eta besteak sar-erazten ditu katezko bere presondegi andian.

Idolo txarren apaizak kezkarik bage an sartu baziran ere, ongi kezaturik gelditu ziran urrengo egunean, Apostol onak esan bezala, bak-eske zetozen inditar erregeren mandatari egokiak an ekusi ta. Erregeren mandatu aditu ta, bere presondegitik atera zituen Baradakek Apostol biak eta eman zuen idoloen apaiz gezurti txarrak an bertan illak uzteko sententzia. Baña etzerala bati ere bizia gal-eraztera, zori oneko bizi baterako bidea guziei erakustera joan zirala Persiko erreinura Apostolu jaunak esan ta eskatu ta, barkatu ta utzi zituen libre oriek ere. Orra nolakoak eta Jangoikoaren gisan beren etsai gaistoan ere zein maitari onak egungo Apostol santu biak.

Guzien maitari en Jangoikoak gaistoak on-erazteko zeatzen ditu noizbait, adirazi dugun bezala, beharrez, eritasunez edo beste bide nekagarrizkoren batez, ta ongi-naiezko zeantza da hau, dakusazun bezala; eta hau bera egin zuten bein egungo Apostol munduko gaisoen maitari biak ere. (S. Mateok) Etiopitik, an zebillen aldian, aienatu zituen Zaroes ta Arfajad zerizten sorginak, Babilonian arkitzen ziran biak egungo gure Apostol biak ara ziranean. Sorgiñak, Apostol biak an ekusi ta, asi ziran biak gatik asm-al adiña gezur ta gaizki esaten, ta babilondarrak beren garriztat begitan ar zitzaten, deabru gaistoan eskuz erakarri zituzten Babiloniko errira anitz suge ta sierpe beltz izugarri ta bazter guzietan banatzen zuten Apostol biei zerraitzen lagunak zirala guziak. Hau ekusi ta, Apostol onak zerbait zeatu ta bazen ere, bestela ezin zuten ezkerro, sorgin biak ere besteekin batean Jangoikoarentzat irabazi naiez, esan zien an zebiltzan suge-sierpeei joan ta gaitz andirik egin bage ozkatu ta mindu zitzatela erakarri zituzten bi sorgiñak. Suge-sierpeak egin zuten Apostol onen esana ta hau egin ta itzuli ziran beren sasira ta gelditu ziran sorgiñak nai izan balute ontzeko aski zen gaitzarekin, besterik bage.

Jangoikoak munduko guziori digun amore amore agitz ongillea da, bada guri ongi-naiez bere Semea gizon egiñik igorri ta bidaldu zuen mundura bere milla nekerekin zori oneko humeak gu egiteko behar zen guzia

irabaztera, ta orra zer amore ta onginaia, dio Ebanjelari S. Joaneke, bere lan onetan Jangoikoak guri agertzen diguna: *sic enim Deus dilexit mundum, ut Filium suum unigenitum daret, ut omnis, qui credit in eum... habeat vitam aeternam* (Joan. 3,16). Jesusek irabazitik ematen dio Jangoikoak nai duenari bere grazia ta eman horduko uzten du bere seme ta zeruko heredero egiña; orra hau ere zer emana, esaten du Ebanjelari berak: *videte, qualem charitatem de-dit nobis Pater, ut filii Dei nominemur, et simas* (2 Joan. 3,1). Eta ematen digun grazi hau galdu bage iltzen bagara, emanen digu Jangoiko berak zeruko gloria ta egiñen gaitu, bera den gisan, zori oneko doatsu. Ala da, dio Ebanjelari santu berak; *scimus, quoniam cum apparuerit, similes ei erimus, quia videbimus eum, sicuti est* (v. 2).

Berez etzuten Apostol jaunak onenbat zer eman, baña agertzen. zien munduko guziei irabazteko bidea; bada ematen zien gure onerako Jangoiko-gizonak egin duen guziaren, beraren lege berriaren ta zeruko graziaren ta gloriaren iturri Sakramentuen berria; ta bide on hau eman ez ezik, zeruko glori bera irabazten ere bataioz, konfirmazioko sakramentuz, konfesioz ta komunioz ta aldiak eskatzen zuen gisan gañerakoz laguntzen zien nai zuten guziei ta bide beraz irabazten zuten graziaz gelditzen ziran Jangoikoaren Seme ta zeruko heredero egiñak. Aldi berean agerzen zien zer bidez ta nolako biziz gorde ta seguratu hau guzia ta zeruko glori ta doakunz-gaia. Orra zein ongillea ta zein Jangoiko berarena bezalakoa egungo Apostol biak munduko gaisoei zien ongi-naia ta amore.

Bere amore andia guri agertzeagatik eta alderagotik guri lagundu naiez, bazter guziak betetzen dituen ta neurri guziei gañez egiten dien Jangoikoa ezta bezala ta gure gisan egin gizon: *exinanivit semetipsum, in similitudinem hominum factus, et habitu inventus ut homo* (Philip. 2,7); ta gauza guzien jaun ta jabe zela, gu aberatsturik utzi naiez egin zen behartsu ta ill zen borrero gogorren eskuz ta larru gorrian. Eta Jangoikoari zioten amore andiagatik eta munduko gaisoei ongi egin naiez, S. Simonek eta S. Judas Tadeok ere utzi zuten beren itxean zutena, irur urtez Jesusen eskolan ibilli ziran ikasten mundu guziari en geiago egiteko ta jakin behar zuena erakusteko ta Espiritu Santua artu zuten hordutik ill arte guzian ibilli ziran en hau egiten, bein beren odoltarren artean, bein banaka erreinu antxetan ta gero biak elkar artu ta Persian, eta ibilli ziran Baradak-ek eta bestek eman nai ziezten ondasunik ukitu bage ta urrikariz ematen zien ogi zatia jaten zutela ta ezin kont-al adinari, Elizak dion bezala, gure lege santa ta Jangoikoaren grazia ar-erazi ondoan, zeren beren oititzarekin aienatu zituzten beren idolo zirzilletatik deabru gaistoak eta auts egiñak



utzi idolo berak, idolo deabrutuen apezak borrero egin ta ill ta zatikatu zituzten Apostolu santuak eta igan ziran zerura ta Jangoiko beraren alde-ra. Eta orra oriek erakusten diguten zeruko bidea. Al dugun guziei Jangoikoaren izenean ongi egitea, garbiro ta besteren gauzetan kutsatu bage bizitzea ta Jangoikoari otoitz eta otoitz egitea. Jangoikoak digula hau egiteko grazia. Bai arren, bai.

## XXX

### Santu guzien eguneko irakur-aldia

Gaudete, et exultate, quoniam merces  
vestra copiosa est in coelis. Matth. 5,12.

*Gaia: Nai badugu, badagikegu Santu berak diña.*

«Egungo festa bakarrean sartzen ditugu», dio Benerable Bedak, «zeruko Santu guziak, Santu zerua atsegin ta poz egiñik uzten dutenak, Santu munduko gaisoei laguntzen dienak, eta Santu Eliza honraz bete dutenak». Eliz eskerdun onak al duen gisan honratzen ditu bere honrari Santu berak eta dezaken guziei banaka, biñaka edo zenbait batean artzen dituela egiten die urteko beren festa berezia; baña guziei ez, zeren urtean ez den artako guzientzat behar liraken diña egun, ez eta milletatik baten-tzat bat baizik artzen ezpaliz ere; bada zeruan arkitzen diran Santu martir berak ere badira, gizon jakintsu berridunak diotenaz, amabi millatan milla edo amabi milloi, ta urteko egunak irureun ta irurogei ta bost edo sei baizik ez dira, ta martir santuak baño agitz eta agitz geiago dira patriarka, profeta eta era ta bide guzietako Santu ta Santak, odol-isurzerik edo beste martiriorik bage zerura igan diran eta andik guziori laguntzen digutenak; eta zeren berezki honratzen dituenekiko bezala, beste Santu guziekiko ere eskerdun ona den Eliz Ama Santa, al dituenak berez honratu ta nolere-bait oriek ere honratu naiez egiten duena da urteko egun bat bereztea ta guziei fest andi bat egitea, ta fest onetan Jesusen Ama ta len honratu zituen Santu berak ea zerutiar beste guziak batean honratzea, ta hau da egungo egunean egiten duena; bada zeruan arkitzen diran andi ta txiki guzien festa da egungo fest hau.

Garbiro ta santuki egin behar ditugu Santu berezi guzien urteko festak, bada hau da berez ere Santuei dagoten honra; baña besteak baño ere garbiroago ta santukiago egin behar dugu egungo hau, bada fest hau zerutiar guziak honratzeko ez ezik, lenagoko Santuen festetan egin ditugun utsak ateratzeko ere egiten den festa da, Erroman Aita Santuak kla-





ratu dutenaz: *ut quidquid humana fragilitas per ignorantiam, aut negligentiam in solemnitatibus, et vigiliis Sanctorum minus plenè peregit, in hac observatione sancta salvetur.* (Ord. Rom.).

Er onetan ta beste guziak baño obeki fest hau guk egiteko, bada besterik ere; bada Santu zerukoak honratzeko bezala geren onerako ere egiten dugu Santu guzien egungo fest hau; bada egiten dugu Eliz Ama Santari dagozkan gauzak eta guk gerok behar ditugunak Jangoiko maitagarriagandik errazkiago erdisteko. Jangoiko emallearen gisakoak dira emengo ondasundun onak ere, ta emengo ondasundun onegandik zerbait nai dezun aldian, billatzen dituzu al dituzun arganako arteko onak eta arteko berak ongi artuz ta honratuz behartzen dituzu ondasundunari zure alde hitz egitera; ta egungo festan honratzen ditugun Santuak geren artekotzat artzen ditugun, Jangoikoagandik elkar arturik errazkiago erdits dezaten guk eskatzen diogun ta nai duguna. Hau da Eliz berak ere gaur esaten duena: *ut desideratam nobis tuae propitiationis abundantiam, multiplicatis intercessoribus, largiaris.* Orra, bada, zeruko guzien gaurko fest-egun hau ango berak honratzeko ez ezik, gure on andirako ere da.

Baña badakizu zer den Santuen fest hau ta urteko beste festak kontuz ta ongi egiteko egin behar duguna? Santuak beren festetan esaten digutena egitea. Zer da, diozu, beren festetan Santuak esaten digutena? S. Agustinek dionaz, dagigula berak egin zutena ta hau egiten dutenak dira, dio Santu Doktoreak, Santu beren festak behar den gisan egiten dituztenak. Eta ongi baderitzagu Santu berak egin zutena ta egin zutenari dagoan honra, zergatik egin behar ez dugu oriek len egiña? *Imitari non pigeat, quod celebrare delectat* (Ser. 47 de SS.). Zori oneko doatsu izan nai badugu, egin ere beharko dugu, ta nai badugu badagikegu, aldi onetan guk ekusi behar dugun bezala.

## § I.

Zerura diran guziak ara dira, zeren alderagotik zenbait, eta beste zenbait zearka ta urrutiseagotik bazen ere, igan ziran Jesusen ondoren ta agitu zaien mendi gañ gogor batera jigant gizon andi indartsu bati darraizkola igaten diranei agi ta gerta oi zaiena. Mendiko egaletik mendi

gañeraño badira zenbait bide: gañetik azpiraño egi latz luze batetik da bata ta hau da arako biderik laburrena, bai ta gogorrena ere. Egiaren alde batetik bada beste bat bere zearkak eta zearka gogorrek eta aldapa pusk latzak dituena. Egiaren beste aldetik ere bada mendi gañerako bidea, baña zearka luzeak, agortegi gaistoak eta eguzkiaren berotz andiskoteak dituen. Mendiaren azpiko bazter guziak, bai ta mendiko bide bazterrek ere, arkitzen dira sugez, sierpez, artzez, otsoz, dragoiez ta animali izugarritz beteak, eta mendi ganerako bidez iges egiten ez dutenak eta artzen duten bidea utzi bage ez dabiltzanak gelditzen dira azkenean orietatik baten edo besteren ortz edo atzapar gogorrean, ta norbaitek andik urrikariz ateratzen ezpaditu, an gelditzen dira betiko galduak.

Gizon andi jigant sendo indartsuak artzen duen bidea mendi egiko bide latz gogorrena da ta badabil mendi gañeraño bat ere gelditu bage ta atsedeterik ere egiten ez dutela. Besteetatik guti dira bide hau artzen dutenak. Zenbaitek arzen dute egi-saietseko biderik laburrena ta besteen aldean latzegia dirudiena ta beste guziak jiratzen dira beste aldekorra. Bide batez ere ez dira mendi gañeratzen beren bideratzen diran guziak, baña ziriez nai balute, ara litezke aratzen diranak bezala. Eta orra zeruratzen diranei agitzen zaienaren aintzur ta itzal ezaguna.

Zerua da, dakusazun bezala, mendi gañ Tenerifeko ta Olinpoko ta emengo beste mendi gain guziak ez ezik, odeiak, illargi, eguzki ta izar guziak ere azpian daduzkana, ta da zori oneko gain, aratzen diranen begiak baizik ekusten ere ez dutena. Aldap-egiz bezala ara daraman bidea da Jangoikoaren lege ta Ebanjelioko konsejuz egiñik arkitzen dena. Bide hau da debekaturik ez dauden atseginz, ondasun ta honrakuntz guziei beren bidea urratzen dieena. Bide hau da jigant andi Jangoiko-gizon Jesus maitagarriak lenbizitik asi ta eriotzeko bere azken horduraño beti eraman zuena, ta Jangoikoaren legeak dion guzia pits bat ere utzi bage ez ezik, Ebanjelioko konseju guziak eta zortzi doakuntz zori onak dioten guzia ere egin zuena; ta hau, profet guzien Profet Santu, errege guzien Errege Santu ta apaiz guzien Apaiz Nagusi Santu izandu zena ta oriei guziei ta gerozko erlijioso eta ezkondu bage ta ezkondu guziei ibilliz edo hitzez edo Eskritura Santaz zeruko bide bat edo beste agertu ziena, ta berak nai dutena ar zezaten, diran guziak agertu zituena, berak beretzat den gogorrena artu zuena, ta sasi latzean dabillena ongi odolturik mendira igaten den gisan, arantzeko koroz burua, azot-ukaldiz bizkar guzia, esku-oñak iltzez urratu-josiak zeduzkala ta onazerik bageko ezur zatirik gorputz



guzian etzuela bere biziko bidea bukatu zuena ta bere bizi guzian oñ bat ere artu zuen bidetik atera etzuen.

Aldap-egi bereko bidez darraizko Jesus jigant andiari Eliz-gizon Obispo jaunak eta apaizak, bai ta eskonz-atsegintzak, munduko ondasunak eta honrak utzi ta Relijioaren batean sartzen diranak eta an baruz ta otoitzez ta penitentziz ta anitz gauz onez beren buruak ongi nekatzen dituztenak ere, eta bere Relijioko gauzak zenbat ere obeki egiten dituzten, anbat alderagotik darraizko Jesusi bere aldap-egiko bide gogorrear.

Gogortasunean aldap-egi onen urrengoa dirudien bidez dabilta mundutik ateratzen ez diran anitz eta mundu berean ezkondu bage edo ezkondu ta zuzenkiago ta etsai galgarriaren ortzetik urrunago ibilli naiez, terzer ordenen batean edo maiz konfesa-komulgatzea ta beste gauz on anitz dakarren Jesusen Bihotzaren kongregazioan edo era bereko kofradiren batean sartzen diranak, sartzen badira izenez ez ezik, egiñez, lanez ta biziz ere kongregante ta kofrade onak izateko artu duten zeruko beren bidean oña obeki seguratzeko ta irabanz geiagorekin zerura igateko.

Egiaren beste aldetik arkitzen den bidea da gañerako fededunak artzen dutena, bide ekusi ditugunak baño zabal-errazagoa dirudiena, zeren den Jesusen konseju ta kongregaz-kofraditako gauz on zenbaiten kargarik ez duena; baño hau da ekusi ditugun iru bideetatik agorren, amiltegi geien, zeruko argi gutien duena, Jesusi urrutienetik begiratzen dion ta Jesusen laguntz gutienik izan oi duena; ta orregatik izan oi da beste bi bideak baño agitz eta agitz bidari geiagoren galgarria.

Ebanjelioko konseju, Kongregazioetako egiteko eta beste bi bide onetan izan oi diran zenbait gauz on karga dira, egia da; baño gurdian pirrillak, egaztiaren saietsetan egoak eta ontzian gañeko zur luze mastak, soketak eta itsas-oialak bezala; bada pirrillak astunak berez izanagatik, agitz arintzen dute gurdiko karga, ta idiak pirrillik bage eramane lukeena baño karg agitz eta agitz andiagoa daramate beren pirrill astunekin, eta daramate laurdenik ere nekatzen ez dirala; ta egorik bage txoria ta oialik bage ontzia lebilken baño eunetan geiago ta errazkiago dabilta egoekin txoria ta bere mast-oialekin ontzia.

Gisa berean, bada, relijioko beren bota ersiekin zeruko mendi-egitit relijotarrak eta egiaren bazter bateko bidetik beren kongregazioetako ta Ebanjelioko konsejuen karga guziarekin besteak orrelako kargarik ez duten beste aldeko bide zabalez dabiltzanak baño agitz eta agitz errazkia-

go dabilta; zeren txoriak bere egoekin ta ontziak oial andi itsas-egalekin aizea bezala Espiritu Santuaren grazia ta laguntz andia artzen duten relijioko beren boto, kongregazioko egiteko-lan ta Ebanjelioko konseju zuzenen bidez ta kargaz. Baña beste bi bidez dabiltzanak bezala, zabalagoa dirudien hau artzen dutenak ere igan ditezke, berak nai dutela, egungo festako zerutiar zori onekoen lagun izatera, orain guk ekusiko dugun bezala.

## § II.

Beste gauz anitzetan agitzen dena agitzen da animako gauzetan ere: besteak ekusiz gauzak egiten ikastea. Ingalaterran ederki egiten dituzte sarrallak, gilzak, eskopetak, ezpatak, relojuak eta burdiñezko, bronzeko, zillarrezko, urrezko ta edozein gaiezko beste gauzak, eta gauz oriek egiten ekusi dituzten franzesak, katalanak eta beste bazterretako gizonak ikasi dute inglesen gisan gauza berak egiten ta sekulan inglesik ekusi ez duten zenbaitek ere inglesak egin dituzten gauzak ekusi ta ikasi dute era bereko gauzak egiten, inglesak adiña buru ez izanagatik bigarren egille zenbaitek beintzat. Hau emengo bazterretan guk ekusten dugun ta urrutiko bazterretan bizitu diranak an ekusi duten gauza da; bada Paraguaien bizitu diranak esaten dutenaz, andik sekulan irten-atera ez diran inditar buru ez andizko zenbaitek emendik eraman zaizten ta ekusten dituztenak bezalako gauzak, naiz musikako instrumenturik gaitzenak izan, naiz besteak, egiten dituzte, ta egiten emengo berak bezain polit ederrak edo ederragoak.

Edozein beste gauzetan gertatzen dena agitzen da animako gauzetan ere; bada emengo Santu ta Santak egin zutena aditu ta anitzek egin du Indi berean, Txinan ta urrutiko beste bazter askotan ere aditu zutena ta egin dira an Santu edo Santa, ta orietatik dira Limako Santa Rosa, Japondar zenbait eta Santutako klaraturik ez dauden, baño Santu andien gisako gauzak egiñik Txinan ill diran zenbait prinzipte ta prinzes andi; bada oriek Jesusen izenean zeramazten neke gogorrek eta egiten zituzten gauz onak ekusi ta, Moskobiko enperador batek esan zuen an bertan ere: ekusi zituen neke ta lan oriek baño geiago arrituko etzutela ekusi balitu leneko



martirio gogorren artean beren egunak bukatu zituzten Santu beren gauz andiak.

Ez dut ukatzen martirio gogorrez ta odol isurtzeko ta penitenzi arrigarrizko bidez zerura igatea ez ezik, edozein bidez aratzea ere nekezko gauz eta lana dela ta gog-osoaz ta ziñez lan hau egiten dutenak baizik aratzen ez dirala, Kristo Jaunak bein klaratu zuen bezala: *Regnum coelorum vim patitur, et violenti rapiunt illud* (Math. 11,12), ta al-ere diot ziñez ara nai dutenak arako dirala ta berak hau ziñez nai badute, arako, birtute andiz ta irabanz ederrez ongi beteak.

Hau guk siñisteko ekus dezagun nolakoak ziran gure aitzinetik zerura igan diranak eta nolakoak garan gu, orien ondotik igan behar dugunok. Ezurrez ta aragiz egiñak gara gu, bai ta zerura igan diran beste guziak ere ta orietatik anitz beintzat gutatik geienak baño ezur-aragi meagoz ta minberagoz egiñak.

Ala ere, birtuterako jaiok ziran oriek, diozu, ta gu baño errazkiago zebiltzan zeruko bide gogor ta aldap latz orietan. Amets egiten dezu edo zer diozu? Beraz zuri jai-igandean meza bat enzutea, illean bein edo birretan konfesa-komuniatzea, egunoroko errosarioa, goiz-arratseko ta egunaz zenbait aldizko otoitz laburrak, besteri berea ez kentzea, bekaturako bide txarretan ez sartzea, dezunetik zerbaite behartsuari ematea, besterik begitan ez artzea, besteren txarkeri bat edo beste Jangoikoaren izenean barkatzea, utsik ez dagizun zere begi, mihi, beharriak eta animako ate-leioak zaitzea ta era bereko beste zenbait gauza txiki egitea baño gutiago kosta zitzairen S. Lorenzori bein ta berriz burdin zorrotzeko kakoz gorputz guzia urratzen ziotela ta gero su gañean batetik eta bestetik erretzen zutela bere egunak bukatzea, Santa Luziari inguruan su andi bat egiten ziotela ta ezpat zorrotz bat bularretik bizkarreraño sartzen ziotela illa gelditzea, Santa Felizitasi bere zazpi semeak banaka bere begietan milla tormenturekin iltzen ziozkatela ta gero laur illeko presondegi gogor bateko nekeen buruan burua kentzen ziotela emendik zerura igatea, ta eremuan edo konbentuan penitenzi arrigarrien artean anbatu ta anbatu beren egunak bukatzea? Beraz oriek eta orrelako beste guziak orrenbat nekerekin zerura igateko jaiok ziran ta zu adirazi ditugun gauza txikietarako ere ez?

Al, baña gu, diozu, hume txikiz beteak eta geren bizi beharreakin egiteko ta arazo andietan sartuak gabiltza eta ez dugu hastirik aditu ditugun gauza piskak egiteko ere. Baña zuk baño egiteko ta hume geiago dituztenak ere arkitzen dute gauza berak eta geiago egiteko hastia ta den-

bora, ta nai bazenu, arkituko zenuke zuk ere ta hastirik bagez uzten dituzulako aitzakia aitzaki ustel gezurtia da.

Grin makurrezkoa zarala diozu ta aragi gaistoz jauntzia ta bizikide gaistoago batekin ezkondua. Eta munduan zenbat arkitzen ta zenbat eta zenbat zerura igan dira gaitzerako zu baño grin gaistoagokoak? Atsegin-tzetara zurea baño, berak dionaz, agitz makurtuagoa zen S. Agustinen gorputza ta al-ere eragin zion zeruko bere bidea, ta eragin zion nolana ez ezik, Santu andiak bezala. Zure senarra baño agitz moldakaitzagoa ta baldanagoa zen S. Agustin beraren ait eta Santa Monikaren senarra, ta senarraren moldakaitzkeriak eta bizi gaistoak etzion nai bezain ongi bizitzen eragotzi Santari ta traba guziak urratu ta igan zen zerura agitz errazki ta santuki.

Al, baña ez dut nik, diozu, oriek zuten adiña indar ta laguntz. Baña atozea, ta zergatik ez? Ez dezun aldian zer jan ta gose zaranean, zer egiten dezu? «jauna, duenari ta eman dezakenari eskatu». Ongi egiten dezu. Baña nor da zere grin gaistoak eskuratzeko, izaten dituzun tentantzak garaitzeko, egiten dizkitzuten txarkeri guziak eta bide bagenzak me-meki artzeko ta egin behar dituzun beste gauz anak egiteko behar dezun indarra ta laguntza duen ta eman dezakena? Izan diteken aberatsen ta emallerik andiena, zeruko ta lurreko Jangoiko bera, indar hau ta laguntza ta guk behar izaten dugun beste guzia guri eman naiez arkitzen dena ta len baño len guri emateagatik ots eta ots dagokigun ta esaten diguna: «Neketan arkitzen zarazten ta zerbaiten beharra ekusten dezuten guziok, atozte nigana ta nik kenduko dizuet zeren gañeko nekea ta emanen behar dezuten indar, laguntz ta beste guzia»: *venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos* (Math. 11,28). «Ar zazue, bada», dio azkenean Jaun onek (eta dio zeruratzen diranak anitz alegin egin behar dutela dion sermoi berean), ar zazue, bada, zeruko bideko nere uztarria edo bizitz nekarria, ta bizitz-uztarri, nai badezue ta zuek niri eskatu ezkerok, nik arinduko dudana»: *iugum enim meum suave est, et onus meum leve* (ibid. v.23,30).

Eta orra Jesusen humeak, zein egia, nai badugu, bai dagikegula Santu berak len egiña. Egin bezate, bada, egiteko bakoitzean berenean len Santu onak egin zutena: ofiziodunak, len ofiziodun S. Omobonok egiña, ta langille ta nekazari guziak S. Isidrok, onen emazte S. Maria de la Cabeza eta beste anitzek egina. Eta zori onekoak gu, hau guk egitera. Dagigun, bada, bakoitzak berea ta gutienean egin ditzagun len guk adirazi ditugun gauzak: bai arren, bai.



## XXXI

## S. Andres eguneko irakur-aldia

Relictis retibus, secuti sunt eum. Matth. 4,19.

*Gaia: Jangoikoarekin dabillenarentzat errazak dira gauza guziak.*

Jesusek, Jainko-gizonak bezala, badaki nor ta nolakoa den gutatik bakoitza, bai ta aldian zer tenpletan arkitzen den ere nai duena deritzan aldian eragiteko; ta eragiten ere die batbatean zenbaiti ta mekiago ta zenbait egunen buruan besteei. Besteen artean eragin zien bere Apostolutako artu zituen (beste aldi batez ekusi genuen bezala) S. Mateori ta egungo gure Santu S. Andresi. Aldi berean ekusi genuen egun batez ekusi zuela S. Mateo bere egiteko guziak zuzentzeko zuen tokian, ta al-ere ots egin ta esan ziola: «Atoz nerekin, Mateo», ta bertan jarraiki ziola S. Mateok. Jesusek deitu baño len billatu zuen S. Andresek Jesus, ta al-ere ez zion aldi artan esan: «Zaude emen, Andres».

S. Joanen eskolan zebillena zen S. Andres. S. Joan Baptista Jesusen bideak zuzentzen hari zen gizona zen ta Jesus gizartean agertu horduko, asi zen zein zen Jesus gizon berei agertzen. San Joaneke Jesus ekusi zuen aldi batez arekin arkitzen ziran S. Andres ta S. Andresen lagun bat, eta Jesus ekusi ta, «Ara», esan zien bie beren maisu S. Joaneke, «ara non dezuten (uste genuen Mesias) Jangoikoaren bildots humilia»: *Ecce Agnus Dei* (Joan. 1,36); ta esan zien hau S. Joaneke argana bidaldu ta zuzendu naiez. Berak ere Jesus arkitu ta ekusi-nai andiarekin arkitzen ziran ta beren maisu S. Joani hau aditu horduko, artu zuten Jesus maitagarriaganako bidea ta argana ziraneka, bietara Jesus jiratu ta, «Zer da?», galdetu zien, «zuek nai dezutena?». «Jauna», erantzun zioten, «hitz bi zurekin egitea, ta orretarako jakin nai genuke non den zure bizi-etxea».

«Atozte, bada, ta ekusiko dezue», esan ta eraman zituen Jesusek horduan zuen itxera ta egondu ziran Jesusekin an arratsalde guzian ta egondu ziran berak nai bezala, ta hordutik gelditu zen S. Andres Jesusen mai-

tari egiña, ta gero bere Apostolutako artu zuen hordutik Jesusen gogoan agitz sartua ta Jesusen agitz aldean arkitu oi zena. Hau ekusten zuenak bezala, S. Felipek, hura bezala Apostolua bazen ere, billatu zuen bein S. Andres bien Maisu maitagarriandik nai zuen bat erdisteko, ta nai zuena zen Jesus ekusi nai zuten jentil zenbaiti beraganako bidea egitea, ta zekienak bezala Jesusen zein bihotzekoa zen ta Jesus beraren zein aldean zebillena S. Andres, hau billatu ta eskatu zion hitz egin ziozala jentilen alde.

Jesusi hitz egin zionetik ezagutu zuen S. Andresek Jesus zela beren Maisu S. Joan Baptistak esan zion Mesias bera ta munduko guziok geren Jainko-gizon Salbatzalletzat artu behar genuena, ta asi zen onetarako bere maisu S. Joan Baptistari aditu zion lan bera bertatik egiten; bada Jesusen itxetik atera ta bere anai S. Pedro (S. Pedro S. Andresen anaia da) ekusi horduko, «Adi zazu», esan zion, «Pedro, arkitu dugu israeldar guziok uste genuen Mesias edo Kristo ta atoz ekustera»; ta joan zen berriz bere anaiekin Jesus beragana ta Jesusek len S. Andres bezain ongi artu zituen hura bera ta beraren anai S. Pedro, ta aldi onetan Jesusek emana da S. Pedoren izena; bada Simon zen, ta ez Pedro, S. Andresen anai onen aldi onetarañoko izena.

Baña begitart onen ona egin ta ere, etzien Jesusek beren apostalan-tzari zegokan hitzik esan beste aldi bateraño, ta aldi hau da egungo Ebanjelio santuak dakarrena. Predikatzen zebillen aldi batez, urbildu zen Jesus Galileko itsas bazterrera. An arkitu zituen S. Pedro bera ta egungo gure Apostol S. Andres, ta arkitu zituen beren egiteko lan batean. Arrantza zen anai bien egitekoa ta egiten zuten lana zen arrantzako sareak zabaltzea. Beren artan zebiltzala, ots egin ta esaten die Jesusek: «Atozte nerekin ta egiñen zaituztet gizonen arrantzale», ta esku-tartean zekarten guzia utzi ta joaten dira biak Jesusi darraizkola Jesusek esaten diena egitera. S. Pedrok egiña len guk ekusia da; S. Andresena da orain ekusi beharra. Eta ekusiko dugu ederki egiña, bai ta era orretan ark gauzak egiteko artu zuen bidea dela ere guk gerenetako artu behar duguna, ta bidea da Jesusekin beti gogoz ta bihotzez ibiltzea.



## § I.

Apostolu guziak, bakoitzak bere bidez, izandu zituzten egiteko andiak; bada guziak ibilli ziran beti pelean infernu guziarekin; infernuak bereturik zeduzkan idolo txarren apaiz estekatuekin ta gaistoz beterik arkitzen zen munduarekin ta beren pelean izandu zituzten zenbaitek besteak baño egiteko andiagokoak; zeren besteak baño bazter gaistoagoetan izandu zituzten beren peleak eta egitekoak, eta orietatik bat izandu zen Apostol S. Andres; bada bere egitekorik andiena izandu zuen gure aldeetako Eszitian edo Tartari txikian, ta gizon muker gogor baldanik izandu bada munduan, izandu dira beti Tartari onetan edo Szitian, ta hau bezalako bazter batean, ta bazter adirazi ditugunak bezain apaiz gaistoz ta deabruz betean zer lana ta nekea S. Andresek izandu zuena!

Emengo neke-lanak, zein ere andiak, etziran izandu S. Andresen neke-lan guziak, ez eta erdien laurdenak ere; bada neke-lan berak izandu zituen, berrilari on santuak diotenaz, urrutiko Etiopitik asi ta Esziti bereñaoko anitz bazter ta probinzi anditan; bada Eszitian izandu zituenak bezalako erakuste, sermoi ta peleak egin zituen Etiopian, Sogditarren ta Saktarren probinzietan, bai ta Kapadoziko ta Galaziko ta Bitinikoetan ta andik Itsas-beltzerañoko beste guzietan ere; ta Espiritu Santua artu ta bazter orietara atera artean, etzen geldirik egondu Jerusalemen ta israeldarren artean.

Aditu dituzunak adiña ta zuk uste dezun baño agitz andi luze zabalagoak badira ere munduaren bazter ta probinzi oriek, beste askotan ere ibilli zen S. Andres Jesusen berria ematen ta beraren lege santak eskatzen dituen gauz onak, sakramentu andiak eta zeremoni guziak ezartzen; bada ibilli zen bere egiteko nekagarri hau egiten Trazian ta Trazitik asi ta Albaniarañoko probinzietan ta besteen artean Grezian.

Zer gos-egarriak, zer lo galtzeak eta, ekusirik askotan ta askotan, ekusi behar zuen bezala, erakuste onaren ereintzak egiten zituen erri ta probinzietan, deabru gaistoak eta idoloen apaiz sutuak gal-erazten ziotela bere neke ta biltze onen uste guzia, zer kezkek, zer naigabenzak eta zer damu-miñak eta bihotzaren illunz zein andiak, bataioz ta fedez erdi onduak zeduzkan bazterrak etsai gaistoen eskuz guztiz galduak edo erdi nastuak, noizbait ekusiko zituen bezala, ekustek ar-erazten ziozkatena! Nai ta ez agitz andiak. Al-ere etzuen S. Andresek bere lanetik eskua gora-

tu, osasunak eta biziak lagundu zioten artean, ta arte onetan lagundu zien arganatzen ziran guziei, Korintoko Nikolas zar gaisto bati bezain ederki.

Korintoko Nikolas hau irurogei ta amalaur urtez gaizki bitu zen zarra zen. Al-ere bazuen zerbait debozio ta gauz on ta berekin zeraman beti Ebanjelioko librua. Libru hau berekin zuela sartu zen bein bere gais-taginzarako lagun izaten zuen emazteki galgarri baten itxean, baño hura an ekusi horduko, zena izaturik, asi zen emaztekoa ojuka ta esaten, niol-ere urbil etzekiola, zeren gauz andi arrigarria zen aren baitan ekusten zuena. Argandik hau aditu ta oroitu zen Nikolas berekin zeraman Ebanjelioko libruaz, ta bereetatik bat Jangoikoak arekin egin zezan beldurrez, andik atera ta joan zen aldi artan an arkitzen zen S. Andresen billa ta eskatu ziozkan bere otoitzak eta laguntza.

Asi zen bereala S. Andres otoitz ta otoitz ta baru ta baru, ta bost baruren ta anitz otoitzen buruan esan zion Jangoikoak Santuari: «Ongi da, barkatuko diot nik Nikolasi zuk eskatu bezala, baño dagiela len berak ere bere alde otoitz ta baru, ta berriz ta askotan baru dedilla». Aditu zion Nisolasek Jangoikoak ziona. Itxera joan ta behartsu gaisoen artean banatu zuen zuena ta barutu zen arreo sei illez, ogi puska bat eta ura baizik artzen etzuela ta ill zen bekatu guzien damuz ta zerurako ustez betea. Bekatari bakoitzagatik onenbat egiten zuen S. Andresek, zer egiñen zuen probinzi bateko ta besteko ta anbat bazterretako guziak gatik? Nai ta ez gizonek zegiken guzia. Eta zer nekea bitarte guzian zuena? Ezin andiagoa.

## § II.

S. Andresen biziko nekeen erakoa ta agitz gogor luzea izandu zen gurutzeko bere eriotzan izandu zuena. Beste bazterretan egin zuen ona Atxaiaren ere egin naiez, sartu zen S. Andres ta asi zen predikatzen Patras zeritzan erri batean. Egin ziran, aren hitz onak aditu ta, erriko anitz fededun. Aditu zuen berri hau Erromatarrak an zuten gobernari ta prokonsul Ejeasek. Erromako gobernariak etzuen fededunik ekusi nai, ta nekez ta tormentuz izutzen zituen al zituen guziak, eta Patrasen bizia ere, besterik fededun egin etzedin, kendu zien horduko fededun anitzi.



Hau ekusi ta, joan zen S. Andres Ejeas ekustera ta esan zion ekusi horduko: «Badakizu, Ejeas, zer egiten dezun fededunei bizia kentzen hari zaran aldian? ori; fededunen Jangoikoa da zuri ta mundu guziari kontu zorrotzak artzeko dagon ta guzia dakien juez andia. Uzten ezpadezu esku tartean dakartzun lan gaistoa, arazo gogorrean sartzen dezu zere burua ta egiñaz ongi damutuko zaitzu, neke ta tormentu gogor askotan zere burua sartuko dezu ta Erromako zere nagusiak etzaitu andik aterako».

«Atozea», esan zion prokonsul Ejeasek S. Andresi, «zu zara gure jangoikoak eta jangoikoen Elizak begitan arturik gure enperadoreen esanei begiratu bage relijio berri bat banatzen zabiltzan gizona?». «Ni naz», erantzun zion S. Andresek, «enperadoreen Enperador Jangoiko beraren esanak egiteagatik zuei itsuoi sulezeko deabru beltz erreak eta munduko zir-zilleririk galduenak jainkotzat daduzkatzutenoi argi egitera ta Jangoiko gure amarez gurutze batean illaren berria ta lege santa ematera etorria, ta zori onekoak zu ta aditzen nauten beste guziak, artzen badezute nik dakardan berria ta legea».

«Zer lege ta zer berri!», erantzuten dio Ejeasek S. Andresi, «zere berriketak utzi ta egiten ezpadezu Erromako nere nagusiak eta nik nai duguna ta zuk bertatik zere Jangoikotzat gure jangoikoak ez artzera, zure Jainkoari judatarrek bezala gurutze batean kenduko dizut zere bizia». «Ez dira jangoikoak», erantzun don S. Andresek, «deabru beltz itsusi gaistoa dira ta giza-txar gaistoen itxurak jainkotzat zuek artu dituzuenak. Itxura txar oriek gatik ez ezik, mundu guziagatik ere ez dut nik utziko nere ta munduko guzien Jangoiko maitea, ta mill-milletan zori onekoa ni, nigatik gurutze batean ill zen Jangoiko beraren izenean beste batean ematen badut nere bizia».

Bere bide hau S. Andresi gal-erazteko anitz alegin egin ondoan, ekusi zuen gobernari Ejeasek alferrik nekatzen zela ta hitzez ezin zuena nekez ta tormentuz eragin naiez, manatu zien zazpi borrorori azotez erdi urra zezatela S. Andresen gorputza. Beren lan onetan haritu ziran guziak aldizka bakoitza nekatu arte guzian ta haritu zen bakoitza irur alditaraño; baña gorputz guzia agitz urratua ta bazter guzietatik odola zeriola gelditu bazen ere, bere Jangoikoarekiko len zena gelditu zen S. Andresen bihotza ta bere jangoiko txar gezurtiekin Ejeasi begitan ematen ziola, ta gelditu zen Ejeas S. Andresgana len baño ere aserreatuagoa ta eriotz izugarri batekin ari bizia kendu naiez betea ta eman zion gurutzeko sententzia ta

luzaroago an neketan egon zedin, iltzez josirik ez, baizik sokaz loturik an iltzeko sententzia.

Poz atsegintz andiarekin artu zuen S. Andresek gurutzeko sententzia, ta azot-ukaldiz ta odol-isurtzez erdi illa bezala arkitzen bazen ere, joan zen bere oñez ta arinki gurutzea prestaturik arkitzen zen tokira, ta hura ekusi ta asi zen esaten: «A, zori oneko gurutz, len gaistaginentzat hurkabe bat bezala zinana, baña Jesusek bere esku-oñekin ta gorputz guziarekin ta zure gañean isuri zuen odolarekin betiko bedeikaturik utzi zindue-na! A gurutze, aspaldian zere ondoren ezin arkituz erabilli nazuna ta azkenean nik nere poz andiarekin arkitua! Ar nazazu arren zere besoetan ta eraman nazazu zere beso beretan iduki zenuen nere Maisu Jesus maitagarrigana».

Hau esan horduko, gurutz aldera zen, ta besark andi ta muñ ta apa humil bat egin ta, kendu ta eman ziezten borroro gogorrei bere soñeko guziak eta utzi zuten borroro berak esku ta oñ gurutz berean lotua ta dindilirik bezala. Ala egondu zen bi egunez nekez ta oñazez betea ta erriko guziak urrikariz ta negarrez begira zegozkala, ta azkenean hura bezain gizon santu bat anbat neketan ekusi ta asi ziran zenbait Ejeasen gogortasunagatik gaizki esaten; ta gaitzen bat zegioteen beldurrez, joan zen Ejeas bere gurutzetik S. Andres ken-eraztera. Baña bere egunak Jesusek bezala gurutzean bukatzeko grazia Jangoikoari S. Andresek eskatu ta, agertu zen an zeudenen begietatik gorde zuen edertasun andi hordu erdiz iraun zuen bat; eta hura joatean, ekusi zuten joan zela zerura S. Andresen anima ta gelditu zela gurutzean illa beraren gorputza.

### § III.

Ekusten dezu egiteko, neke ta tormentu zein andi izugarri gogorrek S. Andresek bere bizitzan ta eriotzan izandu zituenak, bai ta zein arinki ta poz andiarekin artu zituen ere. Baña nondik zela uste dezu gis onetan ta onen errazki S. Andresek egitea egiteko ta lan ekusi duguna bezain andi gogorra ta arzea bere martirio arrigarria ta gurutzeko eriotz guztiz nekatua? Lenbizitik esan genuenetik edo Jangoikoarekin zebillen gisan bihotzez ta gogoz beti ibiltetik.



Baietz dio S. Andresen sermoi batean S. Bernardok; bada dio suzkoak zirala S. Andresen ezpañetatik ateratzen ziran hitzak eta Jesusek S. Andresen ezurretan, edo bihotz berean, sartu zuen suzkoak, eta orregatik egin zuela S. Andresek munduan egin zuena ta Elizak diona, edo jentil artetik atera ta ezin kon-al adiña gure legera ekarzea: *doctrina, et miraculis innumerabiles homines ad Christum convertit*; ta nai ere izandu zuela beraren ta gure guzian amarez ill zen Jesusen amarez Jesus beraren gisako eriotzarenekin gurutz batean, ill zen bezala, illik gelditzea: *ad eum migravit, cuius mortis similitudinem concupierat*.

Ezin uka diteke gauz andiak egiteko ta egite onek eskatzen dituen neke-izerdi guziak eramateko lagunik onena dela gogoz ta bihotzez Jangoikoarekin beti ibiltzea edo Jangoikoa beti gogoan erabiltzea, ta hau da orretarako Jangoiko berak len bere israeldarrei ta orien buruan guri agertu ziguna. Jangoikoak bere israeldarrak Ejiptotik atera ta Kanango bazter aldera zuzendu zituen aldian arkitzen ziran andrez ta humez ta ganaduz beteak, bide bazter agor gogorrez, zenbait errege etsaien ejerzitu izugarritz ta anitz nekez ta perillez inguru batean sartuak, eta emen sar-erazteko Jangoikoak esan ziena zen: «Ez da zer beldurtu ta oñ bat ere zer itzuli; bada bear den guzian zuei laguntzeko zuen erdian arkitzen da guzia dezaken Jangoikoa»: *non pertimescat cor vestrum, nolite metuere, nolite cedere.. quia Dominus Deus vester in medio vestri est, et pro vobis contra adversarios vestros dimicabit* (Deus. 20,3); ta egin ere zuen esan ziena ta berak laguntzen ziela beren etsai guziak garaitu ta sartu ziran Jangoikoak berei berezi zien zori oneko bazterrean.

Hau bera agitzen zitzaion Dabidi bere neke ta perill ta egiteko gogor guzietan: Jangoikoa gogoan zuela guzian sartzea ta guzitik len edo gero ongi ateratzea. Gaztea zela izandu zuen pelean izandu zuen zer hari, bein otso-tzar batekin, berriz leoi izugarriarekin ta gero ezur-aragizko dorrea zirudien filistar arrigarri batekin, ta, berak dion bezal\_a, Jangoikoz oroitu ta bere laguntza eskatu ta pelean asi ta urratu ta ito zituen leoi-otsoak, eta tiratu zion lenbiziko arriarekin buruan eman ta bota zuen auspez filistar jigantea ta bere ezpataz kendu zion burua. Askotan ta askotan izandu zituen gero ger bizi gogorrek filistar berekin ta bere israeldarren beste etsai andiekin, ta gaztea zela egiten zuena egin ta, edo Jangoikoa gogoan ta bihotzean artu ta, aldi guzietan atera zen berak nai bezala; zeren hau egiten duenaren eskoietik arkitzen den Jangoikoa ari laguntzeko: *providebam Dominum in conspectu meo semper; quoniam à dextris est mihi nè commovear* (Ps. 15,8).

Bai, bere egiteko ta neke txiki-andietan Jangoikoarekin dabillanak edo bere Jangoikoa gogoan ta bihotzean darabillanak bere gauzak egin ez ezik, poz eta atseginz andiarekin egin ere oi ditu. Hau guri adirazteko da Judas Makabeok eta beraren soldadu moltxo batek bein egiña. Badakizu zer? Jangoikoa gogotik utzi bage pelean atsegin andiarekin haritzea ta beren etsai Nikanor ogei ta amabost milla soldadurekin illak uztea: *manu quidem pugnantes, sed Dominum cordibus orantes, prostraverunt non minus triginta quinque millia, praesentia Dei magnificè delectati* (2 Mach. 15,27).

Eta orra, Eskritur santak dionaz ta S. Andresek agertu digun bezala, zenbat laguntzen duen egiteko ta neke gogorrek arintzen Jangoikoarekin ibiltzeak edo Jangoikoa gogoan dugula gauzak egiteak. Ar dezagun, bada, geren lan ta neke guzietan, noizean bein bad-ere, ta ekusiko dugu. Jangoiko berak digula hau egiteko grazia: bai arren, bai.